

IRUNGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN NAGUSIAREN BERRAZTERKETA



PLANGINTZAREN AURRERAKINA 2008KO AZAROA



MEMORIA

Aurrerakina
Jende Aurreko Erakusketa
(2891.ebazpena, 2008/11/20)

AURKIBIDE OROKORRA

MEMORIA PLANGINTZA ESPARRUEN FITXAK ONDAREAREN KATALOGOAREN FITXAK AURRERAKINAREN PLANOAK

INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA MEMORIA INGURUMEN BALDINTZEN PLANOAK

PLANGINTZAREN AURRERAKINA 2008KO AZAROA



MEMORIA

AURRERAKINAREN MEMORIAREN KAPITULUEN AURKIBIDEA

(Kapituluen orrialde zenbakitze xehea haien hasieran dago, zenbakiak korrelatiboak dira eta kapituluaren ordenaren zenbakia dute beti aurretik)

- 1. KAPITULUA - SARRERAK ETA AURREKARIAK**
- 2. KAPITULUA – PROPOSAMENA ESPARRU SOZIOEKONOMIKOAN**
- 3. KAPITULUA – INGURU FISIKOA ETA INGURUMENA**
- 4. KAPITULUA –LURRALDE ESPARRUA ETA ESTRATEGIA**
- 5. KAPITULUA – HIRI EGITURA ETA ZORUAREN KUDEAKETA**
- 6. KAPITULUA – KOMUNIKAZIO SAREAK**
- 7. KAPITULUA – ETXEBIZITZA**
- 8. KAPITULUA - EKONOMI JARDUERAK – HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERAK**
- 9. KAPITULUA - ESPAZIO LIBREAK ETA EKIPAMENDU PUBLIKOAK**
- 10. KAPITULUA – HISTORIA ETA KULTUR ONDAREA**

AURKIBIDEA 1. KAPITULUA - SARRERA ETA AURREKARIAK

| | |
|--|----------|
| AURKEZPENA | 1 |
| 1.- SARRERA ETA AURREKARIAK | 3 |
| 1.1 AURREKARIAK,XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA | 3 |
| 1.1.1 Berrikuste prozesuaren aurrekariak | 3 |
| 1.1.2 Dokumentuaren xedea..... | 4 |
| 1.1.3 Plan Nagusiaren berrikuspenaren beharra eta justifikazioa..... | 5 |
| 1.2 DOKUMENTUAREN FASEAK, ORIENTAZIOA, EDUKIAK ETA METODOLOGIA..... | 7 |
| 1.2.1 Aurreko faseak: Informazioa eta Diagnostikoa | 7 |
| 1.2.2 Aurrerakin dokumentua, edukia, onarpena eta ondorioak | 9 |
| 1.2.3 Plangintza Estrategikorako aurrekontuak | 13 |
| 1.2.4 Berrikuste lanaren metodologi alderdiak | 15 |

AURKIBIDEA: 2. KAPITULUA – ESPARRU SOZIOEKONOMIKOA

| | |
|---|----------|
| 2.- PROPOSAMENA ESPARRU SOZIOEKONOMIKOAN | 1 |
| 2.1 EUSKADIKO ESPARRU OROKORRAREN EGOERA SOZIOEKONOMIKOA | 1 |
| 2.1.1 Abiatzeko oinarriak: egoera sozioekonomiko orokorra | 1 |
| 2.1.2 Euskadiko proiektu eta esparru sozioekonomikoak | 2 |
| 2.2 IRUNGO BIZTANLERIAREN EGOERA SOZIOEKONOMIKOA | 4 |
| 2.2.1 Irunek dituen ezaugarri sozioekonomikoak | 4 |
| 2.2.2 Irungo biztanleriaren egoera | 8 |
| 2.2.3 Biztanleria proiektzioak Irunerako | 11 |
| 2.2.4 Irunerako biztanleriaren proiektzioaren grafikoa 2024 bitarte | 12 |
| 2.2.5 Irunerako biztanleriaren proiektzioaren grafikoa 2020 bitarte | 13 |

AURKIBIDEA : 3. KAPITULUA – INGURU FISIKOA ETA INGURUMENA

| | |
|--|-----------|
| 3.- INGURU FISIKOA ETA INGURUMENA..... | 1 |
| 3.1 IRUNGO INGURU FISIKOAREN IKUSPEGI OROKORRA..... | 1 |
| 3.1.1 Irungo udalerriko inguru fisikoa: deskribapena, planak eta helburuak | 1 |
| 3.1.2 Ingurumen baldintza nagusiak | 4 |
| 3.2 IRUNGO P. OROKORRAREN AURRERAKINAREN INGURUMEN EBALUAZIOA...7 | 7 |
| 3.2.1 Ingurumen ebaluazioaren esparrua | 7 |
| 3.2.2 Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenaren (IIT) edukia | 8 |
| 3.2.3 Aurrerakineko proposamenen ingurumen ondorio nagusiak | 9 |
| 3.2.4 Komunikabide azpiegituren proposamenen ondorioak | 10 |
| 3.2.5 Hirigintza garapenen proposamenen ondorioak | 15 |
| 3.2.6 Lurzoru urbanizaezinaren tratamendurako proposamenen ondorioak | 17 |
| 3.3 INGURUMEN FISIKOAREN ERREGULAZIOA | 19 |
| 3.3.1 Lurzoru urbanizaezinaren araudia | 19 |

AURKIBIDEA: 4. KAPITULUA – LURRALDE ESP. ETA ESTRATEGIA

| | |
|---|----------|
| 4.- LURRALDE ESPARRUA ETA ESTRATEGIA | 1 |
| 4.1 INDARREAN DAGOEN LURRALDE ESPARRUA | 1 |
| 4.1.1 Abiapuntuak: lurralde esparru juridikoa EAEaren mailan | 1 |
| 4.1.2 Txingudiko hiriaren eskualde esparrua | 3 |
| 4.1.3 Plan estrategikoak eta eskualdearen egitura indartzea | 5 |
| 4.1.4 Lurralde izaerako beste esparru batzuk | 7 |
| 4.2 LURRALDE ESPARRUAN SARTZEKO PLANTEAMENDU OROKORRA | 9 |
| 4.2.1 Irunek egin duen ahalegina lurraldean integraturiko hiri gisa duen papaera indartzeko | 9 |
| 4.2.3 Beste udalerrri batzuekin bateragarri izateko proposamenak | 11 |

AURKIBIDEA: 5. KAPITULUA – HIRI EGITURA ETA ZOR. KUDEAKETA

| | |
|---|-----------|
| 5.- HIRI EGITURA ETA ZORUAREN KUDEAKETA | 1 |
| 5.1- HIRI EGITURA: PROPOSAMEN NAGUSIAK | 1 |
| 5.1.1 Abiapuntuak: hiri eta lurralde egitura | 1 |
| 5.1.2 1999ko HAPNaren arabera helburuak eta hiri egitura | 2 |
| 5.1.3 Plan Nagusiaren Berrikuspenaren helburu eta proposamen nagusiak | 4 |
| 5.1.4 Planaren proposamena kopuru orokorretan | 8 |
| 5.2.- ZORUAREN KUDEAKETA | 12 |
| 5.2.1 Zoruaren kudeaketaren oinarriak; lege-esparrua. | 12 |
| 5.2.2 Hirigintzaren oinarri nagusiak. | 14 |
| 5.2.3 Hiri zoruaren araudia. | 15 |
| 5.2.4 Zoru urbanizagarriaren araudia. | 16 |
| 5.2.5 Zoru urbanizaezinaren araudia. | 17 |
| 5.2.6 Sistema orokorren hornidura sarea | 18 |
| 5.2.7 Plangintzaren estandarrak. | 19 |
| 5.2.8 Eraikigarritasuna. | 21 |
| 5.2.9 Antolamendu xehea. | 23 |
| 5.2.10 Sistema lokalen hornidura sarea. | 24 |
| 5.2.11 Plangintza tresnak. | 25 |
| 5.3- ESPARRUEN FITXAK | 27 |
| 5.3.1 Esparruen Fitxen helburuak eta edukia | 27 |
| 5.3.2 Esparruen Fitxen egitura eta antolakuntza | 29 |
| 5.3.3. Planaren Berrikuspenaren arabera esparru berrien zerrenda | 30 |

AURKIBIDEA: 6. KAPITULUA – KOMUNIKAZIO SAREAK

| | |
|--|----------|
| 6.- KOMUNIKAZIO SAREAK | 1 |
| 6.1- BIDE AZPIEGITURA: PROPOSAMENAK | 1 |
| 6.1.1 Egoeraren hausnarketarako oinarriak | 1 |
| 6.1.2 Errepide sareko arazo nagusiak | 1 |
| 6.1.3 Proposamenen planteamendu orokorra | 3 |
| 6.1.4 Bide sarearen hobekuntzarako proposamen nagusiak | 5 |
| 6.1.5 N-1 Saihesbidea: egungo egoera eta baldintzak | 6 |
| 6.1.6 N-1 Iparraldeko Saihesbidea (“N”) Alternatibak) Egungo trazatua banatzeko prop. | 9 |
| 6.1.7 “N-Ibaia 1” alternatiba Osinbiribil eta Behobia artean: galtzada gainezarriak | 10 |
| 6.1.8 “N-Ibaia 2” alternatiba Osinbiribil eta Behobia artean: maila bereko galtzadak | 12 |
| 6.1.9 “N-Behobia 1” alternatiba Behobiako igarobidea: Autopistarako egunco lotuneari eutsita | 13 |
| 6.1.10 “N-Behobia 2” alternatiba Behobiako igarobidea: Autopistarako sarbide berria | 13 |
| 6.1.11 Hiriaren Hegoaldeko Ingurabidea. | 14 |
| 6.1.12 “R-1” alternatiba Hegoaldeko Ingurabidea: Autopistaren iparraldeko trazatua | 16 |
| 6.1.13 “R-2” alternatiba Hegoaldeko Ingurabidea: Trazatua Autopistaren bi aldeetan | 17 |
| 6.1.14 “R-3” alternatiba Hegoaldeko Ingurabidea: Autopistaren hegoaldeko trazatua | 17 |
| 6.1.15 Hegoaldeko Saihesbidea (“S” Alternatibak): Proposamena A-8 autopistaren paraleloan | 18 |
| 6.1.16 “S-1” Alternatiba. Hegoaldeko Ingurabidearen trazatua A-8aren hegoaldean | 20 |
| 6.1.17 “S-2” Alternatiba. Hegoaldeko Ingurabidea. Trazatu indep. A-8aren hegoaldean | 21 |
| 6.1.18 “S-3” Alternatiba. Hegoaldeko Ingurabidea. Trazatua A-8aren hegoaldean eta ipar. | 21 |
| 6.1.19 Beste soluzio batzuk egitura sare banatzailean.- Proposamenak | 22 |
| 6.2.- BURDINBIDE AZPIEGITURA: PROPOSAMENAK | 24 |
| 6.2.1 Egoeraren hausnarketarako eta arazoen identifikaziorako oinarriak | 24 |
| 6.2.2 Burdinbide sareko proposamen nagusiak. | 27 |

AURKIBIDEA: 7. KAPITULUA – ETXEBIZITZA

| | |
|---|----------|
| 7.- ETXEBIZITZA | 1 |
| 7.1 Proposamenerako abiapuntuak | 1 |
| 7.2 Egoitza erabilerako proposamen berriak kokatzeko irizpideak | 4 |
| 7.3 Egoitza erabilerako lurzoru berrirako proposamen nagusiak | 6 |
| 7.4 Egoitza proposamenaren kuantifikazioa | 11 |
| 7.5 Etxebizitza beharren kalkulua Gidalerroetan oinarriturik | 14 |

AURKIBIDEA: 8. KAPITULUA EKON. JARDUERAK- H. S. ERABILERA

| | |
|---|----------|
| 8.- EKONOMI JARDUERAK ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA | 1 |
| 8.1 Proposamenerako abiapuntuak | 1 |
| 8.2 Ekoizpen erabileren proposamen berriak kokatzeko irizpideak | 4 |
| 8.3 Ekonomi jardueren erabileren eskaintza estrategiak | 5 |
| 8.4 Ekoizpen eta h. sektoreko erabileretarako lurzoru berriaren proposamen nagusiak | 7 |
| 8.5 Ekoizpen eta h. sektoreko erabileren proposamenaren kuantifikazioa | 12 |

AURKIBIDEA : 9. KAPITULUA ESPAZIO LIBREAK ETA EKIP. PUBLIK.

| | |
|---|----------|
| 9.- ESPAZIO LIBREAK ETA EKIIPAMENDU PUBLIKOAK | 1 |
| 9.1 ESPAZIO LIBRE PUBLIKOAK | 1 |
| 9.1.1 Sistema Orokorren proposamenetarako kontuan hartu beharreko estandarrak eta irizpid. | 1 |
| 9.1.2 Abiatze egoera Sistema Orokorreko Espazio Libreei dagokienean | 4 |
| 9.1.3 Sistema Orokorreko Espazio Libreen kokaleku irizpideak eta proposamenak..... | 5 |
| 9.1.4 Sistema Orokorreko Espazio Libreen estandarrak betetzea. | 7 |
| 9.1.5 Sistema Orokorreko Espazio Libreen zerrenda eta kuantifikazioa. | 10 |
| 9.2 EKIPAMENDU KOLEKTIBO PUBLIKOAK | 12 |
| 9.2.1 Abiatze egoera Ekipamendu kolektibo publikoei dagokienean | 12 |
| 9.2.2 Sistema Orokorreko Ekipamenduen kokaleku irizpideak eta proposamena | 13 |
| 9.2.3 Hezkuntza Ekipamendua..... | 14 |
| 9.2.4 Sistema Orokorreko Kirol Ekipamendua | 18 |
| 9.2.5 Laguntza Ekipamendua | 22 |
| 9.2.6 Osasun Ekipamendua | 24 |
| 9.2.7 Ekipamendu Sozio-Kulturala | 25 |

AURKIBIDEA : 10. KAPITULUA HISTORIA ETA KULTUR ONDAREA

| | |
|---|----------|
| 10.- HISTORIA ETA KULTUR ONDAREAREN BABESA | 1 |
| 10.1 Ondarearen egoera aztertzekeo abiapuntuak..... | 1 |
| 10.2 Katalogazio proposamenaren planteamendua eta irizpideak..... | 3 |
| 10.3 Arkitektura Katalogoaren oinarritzko egitura..... | 5 |
| 10.4 Arkeologia Katalogoaren oinarritzko egitura..... | 11 |

HAPNren AURRERAKINAREN ANTOLAMENDU PLANOAK – ZERRENDA

OSOA

| <i>PLANOAREN IZENA</i> | OROKORRAK | <i>ESKALA</i> |
|------------------------|--------------------------------------|---------------|
| 1.- | LURRALDEAREN SAILKAPEN NAGUSIA | 1/10.000 |
| 2.- | PROPOSATURIKO EGITURA OROKORRA | 1/8000 |
| 3.- | LURZORUAREN SAILKAPENA ETA EREMUAK | 1/8000 |
| 4.- | PLANAREN GARAPENA ETA EREMUEN EGOERA | 1/8000 |
| 5.- | LIZENTZIAK ETETEA | 1/8000 |

ANTOLAMENDU PROPOSAMENAK - GAIKAKOAK

| | | |
|-----------|--|--------|
| P.1.1.- | PROPOSATUTAKO JARDUERAK | 1/8000 |
| P.1.2.- | HIRIAREN IRUDIA | 1/8000 |
| P.2.- | PROPOSATUTAKO JARDUERAK KOKAPENAREN ARABERA | 1/8000 |
| P.3.1.- | PROPOSATUTAKO JARDUERAK. ERAKILERA PRODUKTIBOAK ETA TERTZIARIOAK | 1/8000 |
| P.3.2.- | PROPOSATUTAKO JARDUERAK. BIZITEGIAK | 1/8000 |
| P.3.3.1.- | GUNE LIBREAK | 1/8000 |
| P.3.3.2.- | HEZKUNTZA EKIPAMENDU KOMUNITARIOA | 1/8000 |
| P.3.3.3.- | KIROL EKIPAMENDU KOMUNITARIOA | 1/8000 |

ANTOLAMENDU PROPOSAMENAK - XEHETASUNAK

| | | |
|-----------|---|--------|
| P.4.1.- | PROPOSATUTAKO JARDUEREN XEHETASUNA. ARASO INGURUA | 1/4000 |
| P.4.2.- | PROPOSATUTAKO JARDUEREN XEHETASUNA. KATEA AUZOA | 1/2500 |
| P.4.3.- | PROPOSATUTAKO JARDUEREN XEHETASUNA. URDANIBIA INGURUA | 1/2500 |
| P.4.4.1.- | PROPOSATUTAKO JARDUEREN XEHETASUNA. MENDEBALDEKO HIRIGUNEA (GELTOKI INGURUA-1 ALTERNATIBA) | 1/2500 |
| P.4.4.2.- | PROPOSATUTAKO JARDUEREN XEHETASUNA. MENDEBALDEKO HIRIGUNEA (GELTOKI INGURUA-2 ALTERNATIBA) | 1/2500 |

| | |
|---|--------|
| P.4.5.- PROPOSATUTAKO JARDUEREN XEHETASUNA. IPARRALDE-GAL ZONALDEA | 1/2500 |
| P.4.6.- PROPOSATUTAKO JARDUEREN XEHETASUNA. HIRIGUNEA-EKIALDEA | 1/2500 |
| P.4.7.- PROPOSATUTAKO JARDUEREN XEHETASUNA .BUENABISTA MUINOA-BEHOBIA INGURUA | 1/2500 |
| P.4.8.- OLABERRIA INGURUA. JARDUTEKO IRIZPIDEAK | 1/5000 |

AZPIEGITURA SAREEN INGURUKO PROPOSAMENAK

| | |
|---|--------|
| P.5.1.- IPAR SAIHESBIDEA. ALTERNATIBAK N. PROPOSATUTAKO BIDEEN ESKEMA OROKORRA | 1/8000 |
| P.5.1.1.- IBAIAKO TARTEUNEAN ALTERNATIBEN XEHETASUNAK N-IBAIA ALTERNATIBA 1/N-IBAIA ALTERNATIBA 2 | 1/2000 |
| P.5.1.2.- BEHOBIAKO TARTEUNEAN ALTERNATIBEN XEHETASUNAK N-BEHOBIA ALTERNATIBA 1/N-BEHOBIA ALTERNATIBA 2 | 1/2000 |
| P.5.2.- INGURABIDEA R-1 ALT./HEGO SAIHESBIDEA. S-1 ALT. PROPOSATUTAKO ESKEMA OROKORRA | 1/8000 |
| P.5.2.1.- R-1 ALTERNATIBAREN XEHETASUNAK | 1/2000 |
| P.5.3.- HEGO INGURABIDEA R-2 ALT./HEGO SAIHESBIDEA. S-2 ALT. PROPOSATUTAKO ESKEMA OROKORRA | 1/8000 |
| P.5.4.- HEGO INGURABIDEA R-3 ALT./HEGO SAIHESBIDEA. S-3 ALT. PROPOSATUTAKO ESKEMA OROKORRA | 1/8000 |
| P.5.5.- TRENBIDE SAREAREN PROPOSAMENA | 1/8000 |

ONDAREAREN INGURUKO PROPOSAMENAK

| | |
|--|--------|
| P.6.1.- ONDARE HISTORIKO-ARKITEKTONIKO | 1/8000 |
| P.6.2.- ONDAREA ARKEOLOGIKOA | 1/8000 |

1. kapitulua

SARRERA ETA AURREKARIAK

AURKIBIDEA 1. KAPITULUA - SARRERA ETA AURREKARIAK

| | |
|---|----------|
| AURKEZPENA | 1 |
| 1.- SARRERA ETA AURREKARIAK | 3 |
| 1.1 AURREKARIAK,XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA | 3 |
| 1.1.1 Berrikuste prozesuaren aurrekariak | 3 |
| 1.1.2 Dokumentuaren xedea..... | 4 |
| 1.1.3 Plan Nagusiaren berrikuspenaren beharra eta justifikazioa..... | 5 |
| 1.2 DOKUMENTUAREN FASEAK, ORIENTAZIOA, EDUKIAK ETA METODOLOGIA | 7 |
| 1.2.1 Aurreko faseak: Informazioa eta Diagnostikoa | 7 |
| 1.2.2 Aurrerakin dokumentua, edukia, onarpena eta ondorioak | 9 |
| 1.2.3 Plangintza Estrategikorako aurrekontuak | 13 |
| 1.2.4 Berrikuste lanaren metodologi alderdiak | 15 |

PLANGINTZAREN AURRERAKINAREN MEMORIA

AURKEZPENA

Plangintzaren Aurrerakina deituriko dokumentua Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusia berrikusteko lanen hirugarren fasearen barnean dago, eta orain arte indarrean egon den Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari begira, aldatu, zabaldu edo zuzenduko diren hirigintza alderdi nagusiak osatuko dituzten antolamendu eta erregulazio proposamen nagusiak bildu dira bertan.

2007ko otsailean hasi zen berrikuste prozesua eta jadanik gauzatu dira Hirigintza Informazioa nahiz Diagnostikoa, horietan lehena espediente multzoan derrigorrez jaso beharreko dokumentua izanik. Planaren Bulegoak eraman ditu aurrera lan guztiak, udal zerbitzu teknikoek lagunduta.

Erredakzio taldean, Aurrerakinaren fasean, zuzendaritzaren berariazko laguntzaile gisa, Narciso Iglesias Medrano ingeniaria eta Francisco de León Molina arkitektoa aritu dira lanean, bide eta trenbide sareekin loturiko kontuetan laguntza emateko; bigarrenak, gainera, hainbat antolamendu proposamenetan parte hartu du, eta bereziki, burdinbide esparrua eraberritzeari dagokionean. Alderdi juridikoetan, Itziar Azurza Sorrondegi juristaren lankidetzan izan dugu, eta alderdi sozioekonomikoetan, berriz, Jose Luis Duque Lezama ekonomialariarena.

Ingurumenarekin loturiko gaietarako Ekolur ingurumen aholkularitza enpresak lagundu digu, eta bereziki, Iñaki Urrizalki Oroz biologoak, eta gainera, enpresa horixe arduratu da Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena edo IIT egiteaz, txosten hori paraleloan tramitatuko baita, baina espediente honekin loturik beti ere .

Lanaren erredakzio taldea Josu Laguardia Igiñitz arkitektoak eta Laura Bullón GIS-en operadore teknikoak osatzen dute. Talde horren eta lan guztien zuzendaritza Ignacio Iturbe Mach eta Rafael Peñuelas Portillo arkitektoen esku dago, horiexek baitira berrikuspen dokumentuaren esleipendun eta arduradunak.

Hiri Garapen arloko udal teknikariek azken urte hauetan egin duten lanari, eta arlo horren eta arloko zuzendari teknikari Mikel Gargallo eta Obra arloko zuzendari Pedro Lapazaranen etengabeko laguntzari esker, hasi eta aurrera eraman ahal izan du erredakzio taldeak Plana berrikusteko lana, informazio eguneratua, emaitza fidagarria eta erraz erabiltzeko modukoa emateko gai diren lan tresnak nahiz Plan berriak konpondu beharko dituen arazoetako askori konponbidea emateko beharreko irizpideak eskura izanik.

Hiritarrek eta haiek ordezkatzan dituzten politikari guztiek baloratu eta balioetsi beharko dituzte orain plangintzaren aurrerakin gisa aurkezten diren lan hauek, hiritarrek parte hartzeko prozesu baten bidez, kontu horri dagokionean aurreikusitako legezko baldintza guztiak betetzeaz gainera, komunikazio plan oso bat garatuko duen prozesua, hain zuzen ere.

Xede hori betetzeko, Francisco José Arratibel Suquiak zuzenduriko Signos de Identidad irudi eta komunikazio Aholkularitza enpresaren lankidetzan izan dugu, Mikel Garcia Maizaren laguntzarekin, pertsona hau halako jardura eta euskarri batzuk garatzen ari baita prozesua ezagutzeko, ulertzeko eta prozesu horretan parte hartzeko aukerak bideratzeko.

Dokumentu hau prestatzeko, lan eta koordinakunde bilerak egin dira udal arduradun politikoekin, eta bereziki, Jose Antonio Santano Clavero Irungo Alkatearekin eta Miguel Angel Paez Escamendi lehen alkateorde eta Obrak, Hiri Garapen eta Etxebizitza Arloko ordezkariarekin.

Irun, 2008ko azaroa

Teknikari erredaktoreak:



*Iñaki Iturbe Mach
arkitekto hirigilea*



*Rafael Peñuelas Portillo
arkitekto hirigilea*

1.- SARRERA ETA AURREKARIAK

1.1 AURREKARIAK, XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

1.1.1 Berrikuste prozesuaren aurrekariak

Indarrean dagoen udal plangintza, hauxe da, Udalak 1998. urtean behin-betiko onartu zuen HAPN, haren Testu Bateratua 1999. urtean onartu izanik, erritmo onean **garatu da normalki**, eta erantzun egin dio laurogeita hamargarren hamarkadan baieztatzeko zeuden garapenei zegozkien hazkunde espektatiben zati handi bati, garapen horietako batzuk laurogeigarren urteetan jadanik hasitako jardueretatik etorriak izanik. Plan horretan oinarriturik egin da udalerrian etengabeko hirigintza eta lurralde eraldatze prozesua, eta horri esker, nabarmen aldatu dira Irungo hiriaren tamaina eta ezaugarri kualitatiboak.

1999ko Plan Nagusiak **jarauntsitako plangintzaren** egoera konpondu behar izan zuen, plangintza hark, zehaztasunik gabea eta dentsitateak esleitzerakoan gehiegizkoa izateaz gainera, ez baitzuen hiri eredia zehazten eta ez baitzion egitura euskarri egokirik ematen hiri sareari, sare hori gero eta zabalagoa izanik. Bideratu behar izan zuen egoera hura guztiz desfasatua geratua zen, plangintza dokumentu bat besterik ez izateagatik, oso zaharra eta guztiz desegokia gainera.

Onartu behar da, plangintza berrikusteko etapan, 80. urteen bigarren erdialdetik hasi eta ia 90. hamarkada osoan zehar, ahalegin handia egin zela plangintza antolamendu eta tresna batzuk **pixkanaka-pixkanaka birbideratzeko**, eta orduan ez baziren aldaketa eta egokitze horiek egin izan, behin-betiko alferrik galduko zirela Irun eraldatzeko geratzen ziren aukera bakar eta garrantzitsuak. Udalak abian jarritako kudeaketa eta hirigintza konponbideen eredu berriak, gaur egun ongi asko nabari diren emaitzak eta etekinak ekarri zituen, inolaz ere.

Urte haietan guztietan hirigintza arloak berak eta arloaren zuzendaritza teknikoak, bata bestearen atzetik etorri ziren arduradun politikoek jarraibide eta orientabideen haritik, aurrera eramane zuten **kudeaketa** eramankorrari egotzi behar zaio bereziki ahalegin hori. Dedicazio hori aurreko berrikuste prozesuarekin bat etorri zen denboran, eta nolabait ere, baldintzatu egin zuen orduan berria zen plangintza esparrua prestatzeko behar izan zen epe luzea.

Gaur egun oraindik indarrean dagoen Plan Nagusi haren **prestatze eta tramitazio prozesu** horren iraupenaren arrazoia zera izan zen batik bat, ziurtatu egin behar zela

aurreikusita edo jadanik abian zeuden jarduera askoren zehaztapenen berregokitzea, Plan Nagusi berria aurrera aterako zela ziurtatzeko, ahalik eta baldintza txikienekin atera ere, eta udalerrian benetan planteatzen ziren beharrei begira egokiagoak ziren erantzunez horniturik, beti ere.

1.1.2 Dokumentuaren xedea

2006. urte hasieran, Irungo Udalak esparru orokorreko **hirigintza plangintza berrikusteko** erabakia hartu zuen, eta Plan Nagusia Berrikusteko prozesuari ekitea erabaki zuen halaber. Beharreko lehiaketarako deialdia egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez, 2006ko urriaren 19an esleitu ziren lanak. 2007ko otsailean hasi ziren lan horiek egiten, talde esleipendunak arian-arian berrikusteko bulegoa Udaletxean bertan ezarri ondoren.

Aurrerago azalduko den bezala, dokumentu batzuk egin dira jadanik: **Hirigintza Informazioa** eta **Diagnostikoa**, eta horietatik lortu da halako plangintza irizpide eta helburu batzuen zehaztapena, Plan Nagusi berriaren prestaketan jasotzeko.

Irizpide horietan oinarriturik, **hirigintza antolamendurako proposamen batzuk** egin dira, eta horiek osatzen dute Aurrerakin fase honen alderik espezifikoena. Kasu batzuetan bi aukera edo gehiago aurkeztu dira eztabaida daitezkeen eta horietako bat aukera dadin edo, hala behar badu, beste konponbide proposamen bat egin ahal izateko.

Harekin koordinaturik, Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketa egin da, **Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena** edo **IIT** ere deitua, irizpide eta helburu horien ingurumen ebaluazioari begira, eta zehatzago esateko, aipaturiko plangintza proposamen horiei begira, guztia ere izaera orokorraren mailan azterturik.

Dokumentazio multzo horrek osatzen du, hain zuzen ere, Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Aurrerakina, **dokumentu unitario** gisa harturik, hauxe izanik proposamenen **Antolamendu Memoria**, plangintzaren irizpideak, helburuak eta soluzio orokorren proposamenen aurrerakina jasorik, besteak beste, Hirigintza Plangintzaren Araudiaren 125. artikuluan zehazten den bezala.

Hiru helburu osagarri ditu proposamenen garapen eta erakusketak: lehenengoa da jende aurrean erakusteko eta hiritarrek parte hartzeko ezinbesteko eta beharrezko tramitea betetzea, ahalik eta maila xehenean. Bigarren helburua da proposamenak ezagutzera ematea eta udalerrriaren etorkizunaren inguruan eztabaida bultzatzea. Hirugarren helburua da gida gisa erabiltzea Plan Nagusi berria prestatzeko, sumaturiko

arazo eta beharrei erantzuna ematen laguntzeko, hori guztia proposamenak, eztabaidan ateratako ondorioetan oinarriturik, behar bezala egokitu ondoren. **Plangintzaren Irizpideak eta Helburuak** izeneko dokumentu espezifikoa jasoko dira ondorio horiek.

1.1.3 Plan Nagusiaren berrikuspenaren beharra eta justifikazioa

Gaur egun indarrean dagoen Plan Nagusia garatu den hamar urte hauetan, Udalak 1998. urtean betiko onartu zuen unetik hasita, hain zuzen ere, hainbat **aldaketa** egin dira, Plan haren eranskin gisa soilik jaso ezin zirenak edo hala jasotzea komeni ez zirenak, une hartako aukera-irizpide batzuei jarraiki idatzia plan hura, eta oso maila zehatz eta xehearekin Plan Nagusi baten mailak bere dituen zehaztapenei dagokienean.

Nolanahi ere, **egoera berri** gisa sortu diren aldaketak dira garrantzitsuenak, egoera horiei aurre egin behar baitzitzaie, esate baterako, burdinbidearen esparrua eraberritzeko aukera, bide sare orokorraren antolamendu berria eta hierarkizazioa, hura osatzeko komenigarritasuna, ekoizpen erabileretarako lurzoru berria edukitzea, lurzoru berriak aurkitzeko edo daudenen erabilera aldatzeko beharra etxebizitza berrien, eta bereziki babes erregimen mota desberdinetako etxebizitzaren beharri erantzuna emateko.

Era berean, sorturiko egoera berri gisa hartu dira, ingurumena babesteko irizpideak egokitzeko legezko beharra, ondarearen elementu esanguratsuak hobeto identifikatzea eta abar eta abar. Sorturiko egoera berrien zerrenda luze horri, proposaturiko jardueretarako batzuen abiaraztea aldatzeko orain zabaltzen den aukera erantsi beharko litzaioke, jarduera horiek ez zirelako aurreikusi bezala garatu, berriz aztertzeko aukera ere jasorik.

Egoera horren aurrean, ez **zirudien egokia** indarrean dagoen plangintzaren aldaketa puntualerako espedienteak tramitatzen hastea, Irungo udalerririk aurre egin behar dien erronka desberdinei izaera partzialeko konponbideak, elkarren artean inolako loturarik gabekoak, baino ez baitzizkien ekarriko. Udalarentzat berarentzat ez zen onargarria eta justifikatzeko modukoa **eguneratze estrategia zatika** planteatzea, esparru globalago batean erabaki berriak jaso gabe, izaera horretako prozesu bat teknikoki modu zuzen eta egokian aurrera eramateko planteatuko zen zailtasunaz gainera.

Bestalde, Irunen, azken garai hauetan plangintzaren jarduera garatu den **hirigintzaren denbora esparrua, epe luzeago** batera hedatzen da errealitatean, ia hogeitaz urteko epera, indarrean dagoen Plan Nagusiaren estrategia abian jarria baitzen betiko onartu

baino ia hamar urte lehenagotik, aldaketa puntualen aldi bereko prozesuaren bidez, aurreko 1965eko hirigintza esparruaren eskasi garrantzitsuenak arintzeko premia esku hartu behar zen eremu eta esparruetan, berrikuste prozesua bukatzeko zain egon gabe.

Plangintza orokor baten garapen eta gauzatze prozesuaren ia bi hamarkadako **iraupen erreala** hau aski luzea da, prozesu hartan erabili zen udal plangintza tresnaren parametro orokorretan aldaketa baten beharra zegoela kontsideratzeko.

Baina gainera, lurralde eta hirigintza antolamenduaren **lege esparruak** aldaketa handiak izan ditu Euskal Herriko errealitateari eta beharrei bereziki egokituriko lurzoruaren erregimen berriarekin, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko **2/2006 Legea**, hain zuzen ere, eta ingurumena arautzeko lege berrietara eta plangintzan eragina duen beste legeriara ere egokitzen da lege hori.

Gainera, **aldaketa batzuk** aipa daitezke, plangintzaren berrikuspenera justifikatzen dutenak, eta egungo hirien ikuspegi globalagoan sortu direnak, esate baterako, etxebizitza, zerbitzu eta ingurumen behar sozialei erantzun berriak emateko beharra, komunitatez kanpoko lurraldeetatik etorritako kolektibo berrien sorrera eta horiei gure gizartera egokitzeko aukerak emateko beharra, Irun dagoen eremuaren lurralde erronka eta gaitasunen ikuspegi berria, edo etengabe agertzen ari diren teknologia berrietara egokitzeko beharra, kontuan harturik teknologia berri horiek aukera ematen dutela egitekoak murrizteko eta pixkanaka-pixkanaka plangintza tresnak eta haiekiko pertzepzioa hiritarregana hurbiltzeko.

Aldaketa horiek nabaritu ahala, argi eta garbi sortu zen plangintza **geografi informaziorako sisteman** edo **GIS** sisteman egiteko beharra, soilik behar teknikoa bazen ere, Plan Nagusiaren erredakzioa bera eta Udalaren eta hiritarren arteko harremanak errazteko. Hirigintza plangintza baten beharretara bereziki egokituriko programa informatiko mota da hori, eta gainera, aukera ematen du plangintza tresna bera etengabe egunean jartzeko. Irungo kasuan, **kartografia oinarriaren berrikuspenera** erabiltzeko aukerarekin osatzen zen, hiri lurzorurako eta landa eremurako orain arte egon den eta indarrean dagoen Plan Nagusiak oinarritzat hartu zuen kartografia baino askoz ere egoki eta zehatzagoak diren eskala eta xehetasunarekin eginak, inolaz ere

Faktore horiek guztiak kontuan harturik eta alde zuzeneko gorabehera guztiak ikusirik, egokiena zen, Planaren garapenera lehen zortzi urteak igaro ondoren, Udalak plan horren berrikuspenerari ekitea argi eta garbi. Denboraldi hori bat etorri zen aurreko hirigintza legeriak aurreikusten zituen programazioaren lehen bi laurteko etapekin, eta

tradizioz, jarduera programa berrikusteko beharra zegoen eta horrek berrikuste prozesua eragiten zuen beti ere.

Azken batean, **denbora** nahikoa da, orain arte azaldutako arrazoi zehatzagoez gainera, eta erabat justifikaturik dago Udalak duen ereduazko hirigintza esparru garrantzitsuena erabat eguneratzeko beharra.

Plan Nagusiaren berrikuspen honen helburu nagusia udalerrinari plangintza tresna **eguneratu** eta baliozkoa eskaintzea da, hirigintza izaerako egungo arazo guztiak bideratzeko tresna **egokia**, indarrean dagoen legeriari eta aplikatu beharreko erregimen juridikoari egokitua, baina prozesu berri hori guztia **sendoturiko hiri eredutik** eta egungo Plan Nagusiaren aplikaziotik lorturiko eskarmentutik abiaturik.

1.2 DOKUMENTUAREN FASEAK, ORIENTAZIOA, EDUKIAK ETA METODOLOGIA

1.2.1 Aurreko faseak: Informazioa eta Diagnostikoa

Aurrerakin hau egin aurretik, Hirigintza Informazioaren eta Diagnostikoaren lanak egin dira, eta Irungo udalerrriaren egoeraren **errepasso osoa** egin da horietan, berrikuste prozesu honetan kontuan hartu behar diren aukeretan eragina izan dezaketen alderdi guztietan.

Hasiera batean konpondu gabeko arazo batzuei konponbide egokia emateko beharra planteatu zen, esate baterako, burdinbide esparrua modu egokian berrantolatze beharra, esparru hori berregituratu eta, ahal neurrian bederen, udal hiri egituraren jarraipenerako eragiten duen traba kendu ahal izateko.

Era berean, lehen dokumentu horietan jaso zen, indarrean zegoen Plan Nagusia bere funtsezko jarraibideetan oso egitura garbian oinarritua badago ere, komunikabideen azpiegiturari begira **koherentzia eta funtzionaltasun** alderdi batzuk behar bezala bideratu gabe geratu zirela, eta horrenbestez, berrikuspenak osatu egin beharko ditu hiriko alderdi desberdinen arteko lotura erraztu eta hobetzeko behar diren bide izaerako elementu egituratzaileak, eta baita hiri arteko sare orokorrerako sarbideak ere.

Era berean, **azpiegituraren** alderdi **arazotsuenei** begira egin diren azterketa desberdinetan oinarriturik, adierazi da Plan berriak beharreko baldintzak jaso beharko dituela gero konponbide zehatzak garatu eta formalizatu ahal izateko, burdinbide esparrurako izan ezik, bide sare osorako ere.

Funtsezko beste alderdi bat **lurzoru eskuragarrien** inguruan egin den azterketa izan da, lur hori hirigintza erabileretarako erabiltzeko aukera aztertu beharko du Plan berriak, lehentasunak eta beharreko programazioa zehaztuz, eta baita garapen berriak egiteko beharreko hornidura eta azpiegituren kopuruak eta kokalekuak ere.

Era berean, sendoturiko hiri lurzorua **xehetasunez aztertze**ko beharra sumatu da, egungo erabileren eredia, tipologia, antolamendu egitura, horniduren banaketa eta abar egokiak diren baloratzeko, disfuntzionaltasunak zuzenduz eta, hala behar badu, sendoturiko lurzoru horietako batzuetarako antolamendu proposamen berriak zehazteko aukera proposatuz.

Era berean, **egoitza** izaerako jarduera berrietarako lurzoru berriak izateko beharra adierazi zen. Kontu horretan garrantzi berezia du batik bat babes publikoko etxebizitzetarako lurzoruen kokalekuak, legeak aurreikusitakoaren eta udalerrian bertan sumaturiko beharren arabeko kopuru eta proportzioan.

Ildo beretik aztertu zen Hirigintza Informazioan **industri lurzoru berriaren** eta **ekonomi** jardueren kokapenaren kontua, bideak bilatu behar baitira dagoen industri lurzorua hobeto aprobetxatzeko, era horretako erabilerarako lurzoru azalerako enpleguari begira, baina beti ere, onartu behar da Irungo udalerrian hirigintza izaerako garapenetarako erabilgarri dagoen lurzorua oso mugatua dela, eta oso aukera gutxi eskaintzen dituela. Hori guztia ebaluatu egin beharko da.

Bereziki aipatzekoa da berrikuste prozesu honen aurreko faseetan jadanik argudiatu dela Plan berrian aurreikusiko diren jarduerak **ingurumena errespetatzeko irizpideak** kontuan hartu behar dituztela, bai azpiegituren sarean egingo diren esku hartzeek bai egoitza eta industri garapen berriek, eta horrek esan nahi du bateratu egin behar direla hiri lurzoruan egon daitezkeen garapenak eta lurraldea erabiltzeko modu desberdinak, dauden nekazaritza, natura eta paisaia balioak babesteko dialektikaren barnean, eta hori guztia, ur, espazio natural, mendi, baso eta ingurumen babes eta historia ondarearen alorretan aplikatu beharreko sektore legeria kontuan harturik.

Logikoa denez, aipamen berezia egin zaio plangintza eta hirigintza alorreko **egoera juridiko berriari**, eta horrenbestez, ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Lege berriak, eta Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak (3/1998 Legea) eta hura garatzen duten dekretuek zehaztutako esparruan garatuko da berrikuste prozesu hau, hasieratik baloraturik planteatu beharreko jarduerak ingurumenean duten eragina.

1.2.2 Aurrerakin dokumentua, edukia, onarpena eta ondorioak

Bi dokumentazio mota ditu Irungo Plan Nagusia Berrikusteko Aurrerakinak, eta horiek paraleloan aurkeztu eta tramitatuko dira, hauxe da, Plangintzaren Aurrerakina bera eta Ingurumen Jasangarritasun Txostena, plangintza berrikusteko proposamenen ingurumen iraunkortasun eta eraginen inguruan sektore legeriak zehaztutako alderdiak jasotzen dituen azken hori. EAeko Lurzoru eta Lurraldeari buruzko 2/2006 Legearen 87. artikulua ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketa egiteko beharra jasotzen du, arauak zehaztutako edukiarekin beti ere.

Honako dokumentu hauek osatzen dute **PLANGINTZAREN AURRERAKINA**:

Memoria, testuen dokumentu honetan hamar kapitulutan globalki eta gaika deskribatu eta justifikatu dira proposamen guztiak. Lehen bost kapituluek izaera orokorreko kontuak edo udal lurralde osoa hartzen duten alderdi espezifikoak garatzen dituzte: alderdi sozioekonomikoak, inguru fisikoa, lurralde esparrua eta egitura orokorra. Gainerako bost kapituluek gaika jasotzen dituzte ondoko esparru hauetan dauden proposamenak: azpiegitura, etxebizitza, ekonomi eta hirugarren sektoreko erabilerak, espazio libreak eta ekipamenduak eta ondare historikoa.

Plangintza Esparruen Fitxak, proposaturiko esparru berriak edo aldatutakoak jasotzen dituzte. Horietan alderdi grafikoa dago erabilera globalak deskribatzen dituen, eta parametro eta kopuruen alderdia eta baldintzen alderdia ere badaude.

Ondarearen Katalogoaren Fitxak, arkitektura ondare historikoari dagozkionak nahiz ondare arkeologikoari dagozkionak jasotzen dituzte, horiek biek osatuko baitute etorkizuneko Katalogoa.

Aurrerakinaren Planoak, lau sailetan banatu dira: plano orokorrak, 1:8.000 eskalan beti ere, egitura orokorrari dagozkionak horiek, jarduera proposamenen gaikako planoak, proposamen guztiak eta erabilera globalen arabera aukera jasotzen dute horiek, 1:8.000 eskalan eginak horiek ere, antolamendu proposamenen Xehetasunen planoak, eremu desberdinak igarotzen dituztenak 1:2.500, 1:4.000 eta 1:5.000 eskaletan eta azpiegitura sareen proposamenen planoak, hainbat eskalatan eginak, bakoitzaren irismen edo xehetasunaren arabera. Azkenik, planoen azken paketea Ondareari buruzkoa da, eta horretan, sartutako elementu guztien kokalekua ageri da, 1:8.000 eskalan.

INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA, honako dokumentu hauek osatzen dute:

Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenaren Memoria, hainbat kapitulu ditu eta horietan modu orokorrean bildu dira plangintzaren proposamenean kontuan harturiko helburu estrategikoak eta aukerak, beste plan eta programa batzuekiko elkarreraginen azterketa eta Plan Nagusiak hartzen duen esparruaren azterketa, diagnostikoa eta ingurumen balorazioa.

Ondoren, aukeren eta konponbideen justifikazioen ingurumen azterketa egin da, izan ditzaketen eraginak hauteman eta baloratzeko. Horren atzetik prebentzio neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileen Proposamena dator eta Plan Nagusiaren ondorioak gainbegiratzeko Programa. Arestian aipaturiko kapitulu horien Laburpen dokumentua dago Memoria honen amaieran.

Ingurumen Baldintzatzaileen Planoak, horietan baldintzatzaile legalak, fisikoak eta beste ageri dira, bioaniztasunaren, sare hidrografikoaren, lurzoruen erabilera eta landaredia, ingurumen arrisku eta abarren inguruan.

Aurrerakin dokumentu honek, bideratu beharreko antolamenduaren irizpide, helburu, aukera eta proposamen orokorrak definitzea du **helburu**, eta era berean **orientabide** gisa erabiliko da Hasierako Onarpen tramitera eramaten den unean Plan Nagusiaren dokumentu osoa idazteko.

Aurrerakin dokumentu hau **Plangintzako Aholku Batzordeak aztertuko** du aurretik, eta gero **jende aurreko tramitera** eramango du alkatetzak. Tramite horrek barne ondorio administratiboak izango ditu betiko hirigintza plana idazteko.

Bi hilabetekoa da **jende aurrean egoteko** gutxieneko epea, eta epe horretan dokumentuak kontsultatu eta iradokizunak eta aukera berriak aurkeztu ahal izango dira. Gipuzkoako lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedatuen dagoen/dauden egunkarian edo egunkarietan iragarriko da jende aurreko tramite hori.

Aurrerakina **aldameneko udaletara** bidaliko da ezagutu dezaten eta proposaturiko egitura antolamenduaren oinarritzko alderdien inguruko iritzia eman dezaten. Gero, eta jende aurreko tramitearen eta parte hartze publikoaren nahiz instituzioen parte hartzearen emaitza ikusirik, Plan Nagusia idazteko oinarritzat hartuko diren **Irizpideak eta Helburuak** erabakiko ditu Udalak.

Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 85.1 artikulua aurreikusitakoaren arabera, Udalak **lizentziak eteteko** erabakia hartu ahal izango du, gehienez ere urte batez, eta era guztietako onarpen, baimen eta hirigintza lizentziak

eten ahal izango ditu esparru edo erabilera jakin batzuetan aurrerakina egiteko erabakia hartzen denetik aurrera.

Horretarako, **Lizentziak Eteteko plano espezifiko**a jaso da, 5 zenbakiduna, eta horretan zehaztu dira lizentzia bat eskatzen den unean gorabehera hori kontuan hartu behar den eremu zehatzak, eskatutakoa Plan Nagusiaren Aurrerakinaren zehaztapen espezifikoaren aurka doanean edo planteaturiko proposamen edo aukeretakoren baten geroko garapena eragozten duenean.

Hasiera batean lizentziak eteteko gorabehera hori bete behar duten **esparruen zerrenda** azalduko dugu ondoren.

**AURRERAKINA ONARTZEN DENETIK AURRERA
LIZENTZIAK ETEN BEHAR DIREN ESPARRUAK**

| KODEA | IZENA |
|--------------|--------------------------|
| 0.1.01 | GELTOKI INGURUA 1. ALT |
| 0.3.01 | KOSTORBE |
| 1.1.10 | ARASO IPARRALDEAREN LUZ. |
| 1.1.11 | OIANTZABALETAREN LUZ. |
| 1.1.12 | ARASO-SASIKOBURUA |
| 1.2.02 | ARABA KALEA |
| 1.2.13 | KATEA ERDIALDEA |
| 1.3.10 | BELASKO ERAIKINA |
| 1.3.11 | ARRETXEKO MALDA |
| 2.1.07 | JAIZKIBEL ASISTENTZIALA |
| 2.1.08 | ZABALETA |
| 2.1.09 | URDANIBIA-ZUBIETA |
| 3.2.09 | SAN MIGEL EKIPAMENDUA |
| 4.1.02.01 | ZUBIMUSU I |
| 4.1.02.02 | ZUBIMUSU II |
| 6.2.07 | RATAPLAN |
| 6.2.08 | ALEI |
| 7.1.03 | ARTIA IBILBIDEA |
| 7.2.08 | MATXALAGAIN |
| 8.2.05 | BLAIA |
| 8.2.06 | GAZTELUBERRI |
| 8.3.04 | LASTAOLA POSTETXEA |
| 8.3.05 | MENDIPE |
| 8.3.12 | PAUSU |
| 9.1.01 | IBARROLA |
| 9.1.02 | OLABERRIA INGURUA |

1.2.3 Plangintza Estrategikorako aurrekontuak

Plan Nagusiaren berrikuspena bi **prozesurekin** lotuko da ezinbestean, maila desberdinetan **aurreikuspen eta plangintza estrategikoa** inplikatzen zutenak: Tokiko AGENDA 21, haren dokumentua eta Ekintza Plana jadanik onartuak daude, eta IRUN 2020 PLAN ESTRATEGIKOA, hori idazten hasia da dagoeneko Plan Nagusiaren Aurrerakinarekin batera.

Prozesu horien kopuruari dagokionean, hala Informazioan nola Diagnostikoan aipamen berezia egiten zaio **Tokiko AGENDA 21** izeneko ekimenari. Ekimen hori 2006ko urtarrilean aurkeztu zen eta hainbat alderdi jasotzen ditu, hala nola, alderdi sozioekonomikoak, lurraldearen antolamendua, mugikortasuna eta garraioa, eta baita ingurumenarekin loturikoak ere, guztiak ere integrazio eta iraunkortasun ikuspegitik begiratuta. Gogoeta egokiak eta diagnostikoan sumaturiko arazoei erantzuna emateko interesekotzat hartzen diren neurri eta jarduerak jasotzen ditu halaber.

2007ko otsailean onartu zen hurrengo Agenda 21en **Ekintza Planaren Proposamena**, eta Ildo estrategiko batzuk jaso ziren hartan, lau gai handiren inguruan antolatuak, hona hemen: Gizartearen eta bizi-kalitatearen garapena, Mugikortasuna eta Garraioa, Lurraldearen Antolamendua eta Ingurumena eta Ingurumen Bektoreak. Gai horiek bat datoz, gaingiroki, diagnostikoan aztertutakoekin.

Ekintza Plan honetan eta ildo estrategiko bakoitzerako **Hobekuntza, sustapen edo garapen Programan** ezarri dira, eta horietako bakoitzak halako ekintza zehatz batzuk eragin ditu, eta horietako batzuek lotura dute Hiri Antolamendurako Plan Nagusi baten helburu espezifiko diren neurriekin, batik bat lurraldearen antolamendu eta ingurumenarekin loturik daudenak.

Neurri horien artean aipatzekoak dira, **lehentasun handiagoa** dutelako, lurzoruaren hiri aprobetxamenduaren optimizazio eta intentsifikazioarekin loturik daudenak A-8 autopistaren Iparraldean edo babesa udal barrutiko eremu batzuetara eramatea, orain erregulazio maila hori ez duten eremuetara, hain zuzen ere.

Era berean, hirigintza plangintzan eragina dute **ekoizpen jardueren** hazkundera lurzoruaren okupazio eredu trinkoagoetara orientatzeko neurriek edo esparru naturak elkarrekin lotzeko beharrak. Azkenik, beste neurri batzuk ere jaso behar dira, esate baterako, **mugikortasun baldintzak** hobetzea, ibilgailu pribatua ez den beste modu batzuk erabiliz edo logistika enpresak hirigunetik ateratzeko aukera bultzatuz.

Plangintza estrategikorako prozesu horietan bigarrenari dagokionean, aipatzekoa da, aukera handia dagoela une historiko berean koordinatzeko Plan Nagusia Berrikusteko

prozesua **IRUN 2020 PLAN ESTRATEGIKO** berriaren prestaketarekin, 2007an hasia 2020 muga datarekin. Plan hori idazten ari da eta aurreko Bidasoako Plan Estrategikoaren programa ildoari heldu dio berriro ere, kontuan izanik abian jarri eta handik 15 urtera bete egin direla hark ezarri zituen lehentasunezko neurri gehienak.

Orain arte, Irun 2020 Plan Estrategikoko **lan taldeetako** kideak, izaera estrategikoko **gogoeta eremuetan itxuratze eta antolakuntza** proposamenak aztertzen aritu dira, halako mahai sektorial batzuetan islatzen diren **hezkuntza, berrikuntza** eta **natura** kontzeptuetan oinarrituz.

Oraingoz helburua da esku hartu beharreko **eremu estrategikoak** bereiztea hirian ezarri beharreko proiektu garrantzitsu edo egituratzaileen garapena bultzatzeko asmoz, berrikuntza, lurraldea eta naturaren esparruetan, gizarte kohesioan eta kultura eta aisia esparruetan.

Hiri Antolamendurako Plan Nagusia idazten ari den bitartean zehaztuko diren **proiektu** horietatik guztietatik, Irun 2020 Plan Estrategikoak planteatu dituenetako batzuek **eragin zuzena** dute hirigintza plangintzak hartu beharreko erabakietan, eta beharrezkoa da azken honek jaso eta ezartzea haren garapena bideratzeko oinarriak.

Proiektu horiek honako hauek dira, esate baterako, **berrikuntzaren esparruan**, hiria bultzatzea **zerbitzu eta merkataritza** hiri gisa, **aisialdi eta turismorako** hiri gisa, berrikuntza jarduerak eta enpresak sortzeko jarduerak ezartzeko **gune teknologiko** bat garatzea, edo **goi-mailako hezkuntza eskaintza** garatzea, jadanik hasitako ibilbidearekin jarraituz. Horiek guztiak bat datoz Planaren Berrikuspenaren erabilerak esleitzeko proposamenekin, jarduera horiek ezarri ahal izateko.

Era berean, Plan Estrategikoaren helburuak bat datoz **Lurraldearen eta Naturaren esparruetan** ia berdin-berdinak diren biztanleria eta etxebizitza proiektioekin eta **ekonomi jardueretarako lurrak kokatzeko** irizpide batzuekin, Plan Nagusiaren planteamenduekin bat egiten dutenak, esate baterako, erabileren okupazioa maximizatzeko beharra, era horretako jardueretarako eremu zehatzen aukera eta **burdinbide esparruaren berrantolakuntzaren** ikuspegia Irunerako aukera handi gisa maila askotan.

Era berean, bi plangintza dokumentuak bat datoz ibilgailu pribatuan **mugitzeko sistema alternatiboak** bultzatzeko planteamenduetan, egungo garraio arazoak konpontzeko **bide sareen** beharrari dagokionean, Donostia-Baiona lurralde esparruan Iruni begira **zentralitate faktorea** bultzatzeko ikuspegiari, edo hiritarrek erabili eta

gozatzeko **inguru fisikoa** egokitzeko beharrari dagokionean, bidegorri sareak eginez eta natura behar bezala kontserbatu eta babestuz.

Plangintzak prestatzeko bi prozesu horiek, estrategikoa eta hirigintzakoa, **aldi berean** aurrera eramatea **aukera egokia** da, eta biak indartzeko bide emango du planteaturiko norabideetan sakontzen laguntzeari dagokionean, **proiektuen bideragarritasuna** hobeto ziurtatuz eta **segurtasun juridiko** handiagoa emanez, lur batzuei erabilerak esleitu eta garraio sareak osatuz.

1.2.4 Berrikuste lanaren metodologi alderdiak

Irungo hiri plangintzaren berrikuspen lana halako **kontsiderazio zehatz eta espezifiko batzuetan** oinarritu da aplikatu nahi den metodologiaren ikuspegitik begiratuta, Irungo lurraldeak dituen berezitasunak kontuan harturik beti ere. Horrenbestez, metodologia hori bideratzeko ahaleginak egin dira Plan Nagusiaren tresna berria prestatzeko, bideragarria, ulergarria eta erraz erabiltzeko tresna izan dadin.

Metodologia izaerako oinarrizko irizpide nagusietako bat da Plan Nagusi berriak sendotuko duen hiri eredu berria **lurralde estrategia** egokian murgiltzea, gaur egun indarrean dagoen plangintzatik etorritako eredu oinarritzat hartuta, eta gaur egun dauden hiri ehunen oinarrizko egitura aldatu gabe, Iruni Gipuzkoako bigarren hiri gisa duen papera behar bezala betetzeko aukera emango dion estrategia, hain zuzen ere.

Horregatik, Plan Nagusiaren dokumentu berriak **Donostialdea – Bidasoa Beherea inguruan** kokatu behar du Irun, funtsezko elementu gisa Iparraldearekiko mugaldeko esparruan, garraio sareen azpiegituren alorrean eraldaketa berriak egin ondoren izango duen papera ahalik eta gehien aprobetxatuz.

Ildo honetatik ahaleginak egin dira **lurralde strategiaren planteamenduak** Donostialdea – Bidasoa Beherea eremuko esparru honetako aurreikuspenekin bat etor daitezten. Ahaleginak egin dira halaber bide eta burdinbide azpiegitura berrien garapen eta ezarpenetik etorritako prozesuekin koordinatzeko, horiek oso bereziki eragiten baitute lurralde irundarrean.

Aurrerakinean proposamen batzuk jaso dira, eta kasu batzuetan **aukera** gisa har daitezke horiek, bai egungo egoeraren aurrean, edo bai elkarren artean, azken kasu hauetan sortzen den eztabaidaren gai izanik, azkenik udalerrriaren interes publiko eta komunei begira komenigarrienak diren konponbideak aukeratu ahal izateko.

Legeak agintzen duena betetze hutsaz gainera, Planaren proposamenen inguruko eztabaida eta hedapen prozesuak **ahalik eta adostasun handiena** lortu nahi du hiriaren garapena eta landa lurraren erregulazioa bideratuko duten eduki eta proposamenen inguruan.

Behin **aukerak azaldu** ondoren, esku hartze batzuk aukeratu edo lehenetsi ahal izango dira, garapen berriak egituratzeko gaitasuna dutelako, edo bide sarea sendotzeko eragin positiboak dituztelako eta administrazio arteko edo ekimen pribatuarekiko lankidetzak erabakien bidez ziurtatzen direlako.

Planaren ikuspegiak ez ditu begi bistatik galdu behar **izaera globaleko irizpideak**, eta era horretako planen maila orokorrak bere dituen baldintza eta burubideak ezarririk, beti ere lurraldean muga fisikoak ezartzeko eta tamainak mugatzeko funtzio nagusiari indarra emanez, arautzen duen hiriaren **oinarrizko funtzionamendu esparrua** ziurtatzeko, bertan aurreikusten baita hiriaren etorkizuneko egitura.

Illo horretatik beretik beharrezkoa da Planaren zehaztapenei beharreko **malgutasuna** ematea, jardueren eta esku hartzeen kudeaketara egokitzeko, horien beharra, egokitasuna eta garapen zehatza Plan Nagusi hau idazteko momentuan erabat aurreikusi ezin denean.

Horretarako, **garapenerako plangintzaren** tramitazioa bideratu behar da Plan Nagusiaren sortze beretik, esate baterako, Plan Partzialak, Plan Bereziak, Xehetasun Azterketak eta beste exekuzio tresna batzuk, argi utzirik antolamendu xehearren maila horietako bakoitzari dagokion erabaki esparrua, eta benetan Plan Nagusian finkatu behar diren zehaztapenen lotura.

Plan Nagusitik abiatuta zuzenean aurrera eraman daitezkeen garapenerako plangintza tresnez gainera, kontuan hartu behar dira halaber **Sektorizazio Planak**, horiek zabaldu eta itxuratuko baitituzte lurzoru urbanizagarri batzuen baldintzak, eta **Konpatibilizazio Planak**, horiek osatuko dituztelako mugako bi udalerriren artean dauden lurzoruen antolamendua.

Horrekin loturik, badirudi komenigarria dela indarrean dagoen plangintzan **oraindik garatu gabeko** proposamenak ebaluatzea, eta horretarako lurralde eta ekonomi bideragarritasun irizpideetan oinarritzea. Era berean, baloratu egin behar da plangintza horien antolamenduari eustea komeni den edo beste aukera batzuk bilatu behar diren.

Illo horretatik, Hasieran Onartzeko dokumenturako plangintza proposamen berrian jasotako jarduera handiak bideratzeko **kostu orokorrak** eta **beharreko inbertsioa**

kalkulatu beharko dira, gauzatu beharreko azpiegitura eta ekipamenduak barne, hasiera batean eta logikoa denez gaingiroki bada ere, Planaren proposamen zehatzen **ekonomi eta finantza bideragarritasuna** ziurtatuz.

Era berean, eta ahal den neurrian, ziurtatu egin beharko dira, Planaren funtsezko proposamen egituratzaileen ardura duten agente publiko eta administrazio desberdinekiko **konpromiso eta itunak** lurzoru, etxebizitza, garraio, bide, espazio libre, ingurumen, ekipamendu handi eta landa inguruari begira.

Aurrekoarekin koherentzia gorderik, ahaleginak egin beharko dira, Plana egitearekin batera, konfiantza, segurtasun eta lankidetzaren giroa sortzeko instituzio desberdinen artean, **ekimen pribatuarekiko lankidetzaren** bultzatu ahal izateko, iraupen luzeko proiektuetan inplika dadin, **hiri eta lurralde proiektu** zabalarenekin bat etorririk, proposamenen kalitatea handitu eta horiek gauzatzeko bidean fidagarritasuna lortu ahal izateko.

2. kapitulua

PROPOSAMENA ESPARRU SOZIOEKONOMIKOAN

AURKIBIDEA: 2. KAPITULUA – ESPARRU SOZIOEKONOMIKOA

| | |
|---|----------|
| 2.- PROPOSAMENA ESPARRU SOZIOEKONOMIKOAN | 1 |
| 2.1 EUSKADIKO ESPARRU OROKORRAREN EGOERA SOZIOEKONOMIKOA | 1 |
| 2.1.1 Abiatzeko oinarriak: egoera sozioekonomiko orokorra | 1 |
| 2.1.2 Euskadiko proiektu eta esparru sozioekonomikoak | 2 |
| 2.2 IRUNGO BIZTANLERIAREN EGOERA SOZIOEKONOMIKOA | 4 |
| 2.2.1 Irunek dituen ezaugarri sozioekonomikoak | 4 |
| 2.2.2 Irungo biztanleriaren egoera | 8 |
| 2.2.3 Biztanleria proiektzioak Irunerako | 11 |
| 2.2.4 Irunerako biztanleriaren proiektzioaren grafikoa 2024 bitarte | 12 |
| 2.2.5 Irunerako biztanleriaren proiektzioaren grafikoa 2020 bitarte | 13 |

2.- PROPOSAMENA ESPARRU SOZIOEKONOMIKOAN

2.1 EUSKADIKO ESPARRU OROKORRAREN EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

2.1.1 Abiatzeko oinarriak: egoera sozioekonomiko orokorra

Laurogeita hamargarren hamarkadaren erdialdetik aurrera, **susperraldi demografiko eta ekonomiko** handia izan zuen Euskadi osoak, eta horri esker, egoera hobean kokatu zen esparru europarrean, euskal ekonomiak 125 indizea lortu baitzuen 2005ean 100 balioari dagokionean EBeko batez besteko indizerako, Espainia eta Europako ekonomien batez bestekoak baino hazkunde tasa handiagoekin.

Euskadiren garapena bere **industri** oinarriaren modernizazioan oinarrituriko estrategian bermatu da batik bat; izan ere, 2005. urtean Barne Produktu Gordinaren laurdena baino zertxobait gehiago hartzen zuen industriak, proportzio hori pixkanaka-pixkanaka murrizten ari bada ere. Era berean, **hirugarren sektorearen** garapenean oinarritu da, Euskadin BPGaren %55 osatzen badu ere, Espainia osoan %67,2 den bitartean.

Euskal ekonomian pisu handiena duten **jarduera adarrak** enpresentzako zerbitzuak, BPGaren %16rekin, eta merkataritza dira, %11rekin, hauxe da, produktibitatea Espainia osokoa baino handiagoa da, baina Europako batez bestekoa baino txikiagoa.

Azken urte hauetan nabarmen aurrera egin da **ikerketaren** sustapenean, eta baita **berrikuntza eta garapenean** ere, azken urte hauetan alderdi horiek argi eta garbi finkatzen joan baitira euroaren eremuarekiko eta oraindik urrun dagoen %3ko portzentajearekiko desfasea konpentsatzeko, Europako Batasunerako 2010. urterako helburu gisa zehaztutakoa ehuneko hori.

Lan merkatuak eskaintzen digun bilakaeran, azpimarratzekoa da, **biztanleria okupatuaren** eta **emakumezkoen** enpleguaren **hazkundera**, %65,3ko enplegu tasa globalarekin, %75,7 gizonezkoentzako eta %54,8 emakumezkoentzako banatua. Langabezia %5,7koa zen 2005. urtera arte, euroaren eremukoaren batez bestekoa baino (%8,6) nabarmen txikiagoa, hain zuzen ere.

Bestalde, euskal ekonomia kanpoalderantz zabaltzen ari da nabarmen, eduki teknologiko handiagoak dituzten esportazioekin, telekomunikazioak eta aeronautika bezalako sektoreen garapenaren ildotik, eta automozioa eta makina erreminta

bezalako sektore tradizionaletan sartu diren berrikuntzei esker. Fenomeno horiek guztiz koherenteak dira sektore tradizionaletan gertatu diren garapen eta berrikuntzekin. **Kanpo merkataritzak** saldo orekatua du, %100en inguruko estaldura tasa eta hazkunde tasa handia, inolaz ere.

Hala eta guztiz ere, gehienbat metalezko produktuak eta garraio eta makineria materiala esportatzen dira eta produktu mineral eta energetikoak eta metalezko manufakturak eta makineria, berriz, inportatzen.

Euskal ekonomiaren indartze orokor horrek aldatu egiten ditu sistemaren lehiakortasun baldintzak, lanaren ordainketaren aurrerapenaren ondorioz jadanik ezin baitira kostu txikiagoetan oinarritu, teknologiaren garapenean eta berrikuntzan baizik.

2.1.2 Euskadiko proiektu eta esparru sozioekonomikoak

Etorkizunerako planteamenduei dagokienean, garrantzitsua da **Euskal Autonomia Erkidegoaren 2002-2013 FEDER Programa Operatiboa**. Programa horrek halako lehenetsun estrategiko batzuk ezartzen ditu, lau ardatzetan oinarrituak. Ardatz horietan lehenengoak, **Enpresa ezaguera, berrikuntza eta garapenaren Ekonomia** izenekoak, I+G+b jardueretan inbertsio ratioa handitzeko helburua jasotzen du.

Proposaturiko lurralde ereduaren helburua da, hiru ezarpen handien ondoan, **tarteko eskala** sendotzea, biztanle guztiek izan dezaten ezagutzak eta berrikuntza lortzeko aukera eta landa eremuak integratzeko modu gisa. Era berean, lehen ardatzak planteatzen du **euskal lurraldea** sistema europarrean **sartzea** euskal berrikuntza sistema bultzatuz, I+G+b jardueretan enpresaren inbertsioaren portzentajea handituz BPGaren gaintetik eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak hedatuz.

Bigarren ardatzak **ingurumena eta arriskuen prebentzioa** nabarmentzen ditu. Esparru horietan hainbat ekintza jaso dira garapen iraunkorra bultzatzeko, baliabide hidrikoen kudeaketa hobetuz, hondakinak kudeatzeko gaitasuna handituz, energiaren eraginkortasuna bultzatuz, energia berriztagarrien aldeko apustua eginez eta sektorean berrikuntzaren aplikazioa sustatuz.

Hirugarren ardatza, berriz, **garraio eta telekomunikazioen sare eta zerbitzuetan** oinarritzen da, garraio sistema modernizatzen laguntzeko, sistema hori iraunkorragoa izan dadin, burdinbideko garraioa bultzatuz eta garraioaren ingurumen eragina murriztuz.

Azkenik, laugarren ardatzak **tokiko eta hiriko garapen iraunkorra** hartzen ditu oinarri, tokiko ekonomi jarduera askotarikotu ahal izateko, kultur jarduerak eta turismo alorreko jarduerak bultzatuz eta hiria nahiz landa eremua suspertuz.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan garrantzi berezia du Europako Batasuneko **mugaz gaindiko lankidetzarako** programak aplikatzeak. 2007-2013 denboraldirako beste helburu bat planteatu da **lurralde lankidetzara europarrari** begira, nazioz gaindiko eta mugaz gaindiko lankidetzara indartzeko. Horretarako funtsak ezarri dira, Europako Batasunaren kohesio politikari guztira dagokionaren %4 inguru, hain zuzen ere.

Ildo honetatik, Euskal Autonomi Erkidegoak, Akitaniarekin batera, ekonomia esparru bat osatzen du Bizkaiko Golkoaren itsasertzean, Arku Atlantikoaren erdigune geografikoan. Horrek egoera estrategikoa ematen dio **giltzadura** gisa Madril-Paris korridorearen, Kantauri itsasertzaren eta Ebroren korridorearen barnean.

Bestalde, 2007-2013 **Hego-mendebaldeko Lurralde Lankidetzarako Programa Operatiboak**, berrikuntza sustatzea eta teknologiaren alorrean lankidetzara sare egonkorrak eratzea jasotzen du lehentasun estrategiko gisa, eta baita teknologia berri eta garatzeko prozesuen sustapena ere, informazioaren teknologia berriak hobeto aprobetxatu ahal izateko, ekoizpen sistemaren lehiakortasuna eta baliabideen kudeaketa hobetu ahal izateko.

Programa honen esparruan **iraunkortasuna hobetzea** planteatzen da Europako hego-mendebaldeko ingurumena eta landa eremua babestu eta kontserbatzeko eta ondare naturalaren kudeaketa hobetzeko, kontserbazioa, balorizazioa eta arriskuen prebentzioa bultzatu ahal izateko.

Era berean, **hego-mendebaldeko esparrua** egoki **integratzea** proposatzen da eta informazio sareetara iristeko aukerak hobetzea, garraio eta komunikazio azpiegituretarako sarbidea hobetzea, informazioaren gizartea zabaltzea eta ezagutzea, lurraldearen garapen orekatuaren alde erabil dadin balioa emateko.

Programak **garapen iraunkorra** bultzatu nahi du, nazioz gaindiko lankidetzaren ondorio positiboak aprobetxatuz, hirien eta hiri sareen garapen orekatua, esate baterako, elkarren artean eta landa inguruekin sinergiak sor daitezen bultzatuz. Bestalde, teknologia moldeko ikerketen garapena, berrikuntzak trukatu eta eskualdatzeko sareak sortzea eta ekonomiaren lehiakortasuna eta berritzeko gaitasuna indartzea azpimarratzen ditu.

Lurralde alderdietan, Lurralde Estrategia Europarraren gomendioak jaso dira hirien sistemaren berrerekatzeari, azpiegiturarako irisgarritasuna hobetzeari eta kultur nahiz natura ondarea ezagutu eta modu eraginkorrean kudeatzeari dagokienean.

Programa honen esparruan Euskal Autonomi Erkidegoan, **teknologiaren alorrean sektore intentsibo berriak** eta **balio erantsi handiagoa** dutenak bultzatu nahi dira, ordainsari handiak eta enplegu kualifikatuaren aukerak emango dituztenak. Horretarako, ezagutzaren aldeko apustua egin da lehiakortasun eta ongizate tresna gisa, eta horretan garapen ereduaren funtsezko atala da I+G+b (ikerketa, garapena eta berrikuntza), Europako Batasunak ezarritako helburu orokorra finkatuz, hauxe da, 2010ean urteko gastua BPGaren %35 izatea I+G+b jardueretan.

Zehatz esateko, kontua izango litzateke **Euskadi** zientzia eta teknologia gune europar gisa **eratzea** Ikerketarako Europako Esparruaren barnean, etorkizuneko teknologien alorrean zientzia eta teknologia nodo lehiakorrek garatzea, ekonomi, gizarte eta instituzio eragileen berrikuntza gaitasuna zabaldu eta areagotzea, teknologia mailan Europarekin bat etortzea lortzea eta Euskadi ezagutzan oinarrituriko negozio gune bilakatzea.

Azken batean, eta **labur azaltzeko**, programa horiek guztiek ekoizpen sistemaren modernizazioan, berrikuntzan eta teknologia berrietan oinarritzen dute Euskal Autonomi Erkidegoko ekonomi garapenerako politika, gero eta estuagoa izango den mugaz gaindiko lankidetzaren esparruan, sistema ekonomikoaren lehiakortasuna ziurtatzeko ezinbesteko tresna gisa.

2.2 IRUNGO BIZTANLERIAREN EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

2.2.1 Irunek dituen ezaugarri sozioekonomikoak

Ekonomia irundarrak, Euskal Autonomi Erkidegoko garapen orokorrean erabat sarturik, azken urte hauetan **prozesu argi eta sakona** bizi izan du **hirugarren sektore aldera**, nabarmen aurrera egin baita merkataritza jarduera, logistika eta garraio kontuetan, eta horrenbestez, gaur egun **zerbitzuek** hartzen dute, horixe izanik sektore dinamikoena eta erritmo handian hazten ari dena, guztizko okupazioaren zatirik handiena.

Hirugarren sektorearen espezializazio nabarmen hori aintzat hartzeko moduko **industri garapenarekin** konbinatu da orain arte, eta horri esker, Txingudiko ekonomi jardueraren bilgune nagusi bilakatu da Irun. 23.000 langile inguruko guztizko enpleguaren aurrean, enpleguaren egiturak Irunen adierazten du hirugarren sektoreak

eta zerbitzuek hartzen dituztela gaur egun okupazioaren **bi herenak**, industriak %22 sortzen du, eraikuntzak %11 eta lehen sektoreak, berriz, ia ez du gainditzen %1.

Hirugarren sektoreari dagokionean, horixe baita nagusi Irunen, paper garrantzitsua du logistikaren eta garraioaren garapenak, sektore honetako 400 enpresa inguru hartzen baititu gaur egun. Horri azoka jarduera eta hiriak duen merkataritza eta zerbitzu hornidura garrantzitsua erantsi behar zaio, eta esan daiteke, sektore honen jarduerak azkenean konpentsatu egin duela aduana jardueraren beherakada.

Halaz ere, **Irungo Garraio Gunea (ZAISA)** da ekonomia irundarraren funtsezko elementua, Irungo Aduana Eremuaren Elkarte Sustatzaileak bultzatua, logistika eta garraio jarduerak finkatzeko industri lurra garatu ahal izateko. ZAISAk hiru fase ditu eta jadanik osorik hartua dago, guztira ia 50 hektareako azalera gordina okupaturik dauka eta 1.800 lagun baino gehiagori ematen zaie lana. Merkantzien garraiorako ibilgailuen erroldaren igoeran garbi islatzen da logistika eta garraio jardueraren garrantzi hori.

Azoka jarduerari dagokionean, **Gipuzkoako Erakustazokaren (FICOBA)** inguruan eratzen da jarduera hori. Erakustazoka hori 2003. urtean hasi zen lanean Europako Batasuneko mugaz gaindiko lehen azoka bihurtzeko asmoz. FICOBAren instalazioek 70.000 m²-ko azalera hartzen dute, eta zerbitzu orokorren esparrua, hiru pabilioi eta erakustaldietarako barne espazioa daude bertan. Orain arte lortutako eskarmentuak baieztatzen du instalazio horiek benetan garrantzitsuak direla mugaz gaindiko merkataritza sustatzeko, hori argi erakusten baitu orain arte egin diren erakusketetan, oro har, Frantziako, eta bereziki, Akitaniako enpresa askok parte hartu izanak, eta bisitari kopuruak etengabean nabarmen gora egin izanak ere.

Gainera, handizkako eta txikizkako **merkataritza jarduera** garrantzitsua oinarritzen da Irunen eta, establezimendu kopuruari dagokionean, inguruko eta Gipuzkoa osoko udalerrietakoa baino handiagoa da hornidura hori. Handizkako merkataritzaren nahiz txikizkako merkataritzaren hornidura Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoak dira, guztizko enpleguaren ia %20ra iristen baita zerbitzuen sektorean.

Garrantzi handiena duten **merkataritza ekipamenduak** dira, alde batetik, Txingudi Merkataritza Gunea, 1997. urtean irekia; 40.400 m² ditu eta merkataritzarako esparruak ditu barnean, sukaldaritza, aisia eta kirol ekipamenduekin batera. Bestalde, Mendibil Merkataritza Gunea dugu, hiriaren erdi-erdian, 2003. urtean irekia; gune honetan ere merkataritza, sukaldaritza eta aisiarako esparruak biltzen dira. Bi hornidura horien artean 1.200 laguni ematen zaie enplegua zuzenean eta eskualdearen mugak gainditzen dituen eragina dute, inolaz ere, 2005. urtean hamaika milioi lagunetik gora izan baitziren bertan.

Irunek duen **turismo garapenaren** gaitasunak, 2003. urteaz geroztik azoka eta kongresuen turismoan oinarritua hura, bisitarien kopuruaren hazkunde izugarria ekarri du azken urte hauetan, eta horretan lagundu egin dute hiriak dituen hainbat elementuk, esate baterako, Plaiaundiko Parke Ekologikoa, honek 50.000 bisita inguru izaten ditu urtean; Aiako Harriko Parke Naturala, eta Oiasso Erromanizazio Museoa, berriz, kultur erakargarri gisa.

Bestalde, **industri sektoreari** dagokionean, Irunen biltzen da Bidasoa-Txingudi eskualdeko manufaktura jarduera gehiena, eta 5.000 lagun baino gehiago ari dira horretan lanean. Nabarmen nagusi dira metalurgia eta metalezko produktuen sektoreak, eta bigarren mailan egongo lirateke material eta ekipo elektrikoa, makineria, elikagaiak eta garraio materiala. Industri enpleguak dinamika esanguratsua ageri du, azken hamar urte hauetan gora egin du, baina esan behar da tamaina txikiko lantegiak direla, enpresen %70ek 6 langile baino gutxiago baitituzte. Hamabost enpresa besterik ez dira 50 langiletik gora dituztenak.

Garbi dago **nekazaritza sektorea** garrantzia galtzen ari dela termino absolutu eta erlatiboetan. Bidasoa-Txingudi eskualde osoan murrizten ari da nekazaritzarako azalera erabilgarria, eta murrizten ari da, era berean, ustiapenen batez besteko neurria, kopuru aldetik gora egin badu ere.

Biztanleria okupatuaren kopuruak Gipuzkoan, oro har, izandakoak baino hazkunde nabarmen handiagoa izan du azken hamar urteetan, %56 inguruko **jarduera tasarekin**. Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomi Erkidegoko eta Gipuzkoako batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da langabezia.

Jarduera sektoreen arabera **lanean ari diren biztanleen proportzioak** argi erakusten du **hirugarren sektorearen** indarra, zerbitzuen sektorea oso dinamikoa baita eta guztizko enpleguaren bi heren hartzen baititu. Enplegu gehienak garraio, biltegi eta komunikazio alorretan biltzen dira, baina baita merkataritza, metalurgia, metalezko manufaktura eta eraikuntzan ere.

Irungo biztanleria okupatuari begira, aipatzekoa da udalerrian lan egiten dutenen ehunekoa, %70etik gorakoa baita Eustaten datuen arabera, eta beti ere gorantz doa aurreko urteei dagokienean. Kopuru horretatik oso urrun geratzen da hurrengo tokia, hauxe da, udalerrri donostiarra, horretan biltzen baitira Irunen bizi direnen lanpostuen %11. Bestalde, Irunen dauden lanpostuen laurdenetik gora, %26 hain zuzen ere, beste udalerrri batzuetan bizi direnek betetzen dituzte, eta horrek argi eta garbi erakusten du eskualdean enplegua eskaintzen ari den lekua dela, inolaz ere.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuen arabera, Irunen **langabe zeuden biztanleak** 3.000 lagun ziren 2006an, gora eginik aurreko urteei zegokienean. Egungo hamarkadaren erdialdetik aurrera eten egin da 1995. urteaz geroztik gertatzen ari zen langabezia murrizteko joera, orduan 4000 inguru baitziren langabetuak. Orain, Bidasoa-Txingudi eskualdean, Gipuzkoan eta Euskal Autonomi Erkidego osoan baino handiagoa da Irunen langabezia tasa.

Irunen eskaintzen den enpleguaren kontuaren eta beti ere kezkarriak diren langabezia kopuru horien aurrean, Plan berriak **ziurtatu egin behar du**, alde batetik, egungo ekonomi eta ekoizpen jarduerak mantenduko direla, eta horrekin batean, ezinbestekoa da **aurreikuspen egokiak** egitea udalerrian egokitu daitezkeen jarduera berrietarako lurra eduki ahal izateko. Era horretan lagundu behar da Irunen bertan lan egiten duten biztanleriaren ehunekoak gora egin dezan, eta gainera, etorkizuneko biztanleria kopuruaren hazkundeei begira enplegu eskaintza egon dadin.

Biztanleen bidaien **mugikortasunari** dagokionean, **etxebizitza-lana mugimenduak** ugari dira hiri barnean, bai irundarren joan-etorriak bai beste udalerrri batzuetatik lanera etortzen direnenak. Horrez gainera, esan behar da, lana dela eta kanpora joaten diren gehienak Donostialdea eskualdera joaten direla, eta arrazoi horregatik Iruna etortzen diren gehienak Hondarribitik etortzen direla. Funtzionamendu horrek **mugikortasun** handia eragiten du eta horrek trafikoa handitzen du.

Neurri batean **mugikortasun horri aurre egiteko** proposatu behar ditu Plan Nagusiaren Berrikuspenak **konponbide egokiak**, eskura dauden baliabide guztiak erabiliz eta **garraio modu desberdinen** arabera aukerak planteatuz. Horren haritik, funtsezkoak dira, garraio komunek izan dezaketen garrantzia, alde batetik, eta ibilgailu pribatua ez den beste modu batean mugitzeko aukera, bestetik.

Plan Nagusiak ekonomikoki ongi antolatu behar du bere proposamenen bideragarritasuna ziurtatzeko. Ildo horretatik aztertu da udal ogasunaren bilakaera, eta ikusi da aski aldekoa izan dela diru-sarreraren bilakaera; gastuen kapituluaren ibilbidea, berriz, aski neurritsua izan da, orain dela gutxi arte aukera eman baitu kontu korronteko **aurrezki** tarte handitzeko.

Udal inbertsioari dagokionean, halako susperraldi bat izan da azken urteetako beherakadari dagokionean, ekonomi krisia hain orokorra den egungo testuinguru ekonomiko honetan, Udalak bere aurrekontuak doitu beharko ditu Plan Nagusi berriaren aurreikuspenak jasotzeko eta garai berriari beharreko bermeaz ekiteko, kontu-sail handiak erabili beharko baitira lurzoru batzuk erosteko, aurreikusitako obrak

egiteko eta udalaren eskumeneko ekipamenduak abian jartzeko. Hasieran onartzeko dokumentuak, planteatzen diren jardueren bideragarritasuna justifikatu beharko du beti ere.

Gainera, kontuan eduki beharko da **IRUN 2020 Plan Estrategikoak** aurreikusitakoa, honek plangintza estrategikorako helburu batzuk ezartzen baititu, Irunek bere ekonomia oinarritzeko beharko dituen jarduera desberdinak sendotu ahal izateko.

2.2.2 Irungo biztanleriaren egoera

Gertakizun garrantzitsu gisa, aipatzekoa da, ekonomia mailan dinamikoa den testuinguru batean, Irungo udalerriak **biztanleriaren hazkunde** handia izan duela azken garai hauetan; izan ere, Euskal Autonomi Erkidegoan eta Gipuzkoako lurralde historikoan izandako batez bestekoak baino hazkunde handiagoak izan ditu, eta Hondarribian izandakoaren antzekoa, hiri hori ere nabarmen hazi baita.

Historikoki, Irungo hiriak **demografi hazkunde** izugarria izan zuen **1940 eta 1980** urteen artean izandako denboraldian, 14.000 biztanle izatetik 53.000 biztanle izatera pasa baitzen. Garai horretan hazkundera ia 1000 biztanlekoa izan zen urtean batez beste eta **%3** inguruko tasa **urtean**, kudeatzeko aski zaila; **1986-1996** denboraldian, berriz, biztanleriaren hazkundera bat batean moteldu egin zen eta urtean 150/200 biztanle berri besterik ez zen hazi, batez beste, eta **urteko** tasa **%0,3koa** izan zen, gerra ondoko berrogei urteetan izandakoa baino hamar aldiz txikiagoa.

Aldiz, egoera argi eta garbi aldatu egin zen **1996tik aurrera**, eta berriro ere **erritmo bizia** hartu zuen biztanleriaren hazkundera, baina neurriko proportzioetan. Hazkunde hori, 1986-96 hamarkadako garai zail haietan baino hiru edo lau aldiz balio handiagoetan mantendu da gaur egun arte, balio horiek Gipuzkoakoak eta, oro har, Euskal Autonomi Erkidegokoak baino handiagoak izanik.

Gertatu berri den biztanleriaren hazkunde horretatik, **haren herena** jaiotze kopuruak nabarmen gora egin duelako izan da, hazkunde begetatiboaren osagai gisa hartzen da hori, eta gainerako **bi herenak**, berriz, udalerrira izandako migrazio mugimenduen ondorioz. Udalerraren barruan, biztanleria osoaren herena Anaka, Artia, Elizatxo-Lapitze eta Larreaundi-Olaberria auzoetan biltzen da, biztanleria irundarraren %10 baino zertxobait gehiagorekin bakoitza. Era berean, biztanleria pisu handia dute Erdialdeak eta Arbes, San Migel eta Katea auzoek, biztanleria irundarraren %5 baino gehiago bizi baita horietako bakoitzean.

Kontu horrekin loturik, esan behar da, **immigrazioak** udalerriko biztanleriaren %5 baino gehiago hartzen duela gaur egun. Horietatik %30 Europako Batasunetik etorriak dira, eta %70 baino gehiago dira komunitatetik kanpokoak, batik bat Ekuador, Kolonbia eta Marokokoak, Behobia, Elizatxo – Lapitze, Artia, Pinudi eta San Migel izanik proportzionalki biztanle etorkinen kopuru handiena dutenak. Termino absolutuetan Elizatxo – Lapitze, Artia, Erdialdea eta Anaka dira **biztanleria etorkin** kopuru handiena dutenak. Udalerraren barruan, azken urte hauetan, Behobia, Meaka-Ibarla eta Artia auzoetan egin du gehien gora biztanleria kopuruak, eta kopuru hori murriztu egin da, berriz, Belaskoenea eta Pinudi auzoetan.

Hala eta guztiz ere, eta biztanleria irundarra adin tarteak kontuan harturik aztertzen badugu, **zahartze maila** handia gertatu da azken 25 urte hauetan; izan ere, biztanleriaren %22k 60 urte baino gehiago ditu, eta kopuru hori askoz ere handiagoa da 20 urtetik beherakoena baino.

Halaz ere, azken urte hauetan sumatu den jaiotze kopuruaren **hazkundeari** esker, joerak zuzentzen ari dira, **haur kopuruaren hazkundera** eragina izaten hasi baita biztanleriaren piramidea gaztetuz, 5etik 10 urtera eta batik bat gazteenen kasuan, 0tik 5 urtera.

Banaketa **auzoen** arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu zahartzea nabarmena dela Erdialdean, halako susperraldi bat nabari da aldiriko auzoetan eta beherakada, berriz, landa eremuetan. Pinudi, Alde Zaharra, Meaka - Ibarla eta Elizatxo – Lapitze dira 65 urtetik **gorako biztanleria** kopuru handiena duten auzoak.

Oso **demografi dentsitate** handia du udal barrutiak, 1.410 biztanle km²-ko, Gipuzkoako batez bestekoa baino (384 biztanle km²-ko) handiagoa, argi eta garbi. Nolanahi ere, soilik hiri lurzoru/lurzoru urbanizagarri gisa sailkaturikoa kontuan hartzen badugu, Irungo **hiri dentsitateak** gainditu egiten du km²-ko 11.000 biztanleko kopuruak. Azken kontzeptu honetan esan daiteke Irundik hurbil dauden udalerriek ere, Pasaia edo Donostia bera, esate baterako, oso antzeko hiri dentsitateak dituztela.

2.2.3 Biztanleria proiektzioak Irunerako

Plan Nagusiak **biztanleriaren bilakaeraren hipotesia** egin behar du, bilakaera horretan oinarriturik jarduera desberdinetarako beharreko lurzoru berriak ezartzeko eta behar diren ekipamendu eta espazio libreen kopurua ebaluatzeko.

Azken urteetan 1996 eta 2006 artean udalerriak izan duen **hazkunde dinamika** aztertzen badugu, kontuan izanik dinamika positiboa dela eta orain arte mantendu dela, ikusiko dugu urtean milako 11ko hazkundeak izan direla batez beste, hauxe da, **%1,1eko tasa urtean**.

Zirkunstantzia horretan eta kontuan izanik Irun oso erakargarria dela lanpostuei dagokienean, Bidasoaldea eskualdearen erdian dagoelako eta proposaturiko etorkizuneko plangintzek garapen perspektiba bikainak dituztelako, badirudi **arrazoizkoa** dela hipotesi goren gisa **erritmo hori mantenduko** dela aurreikustea.

Horretarako, **8 eta 16 urtera egin dira proiektzioak**, lau urterako programazioaren ohiko denboraldiekin bat datozenak, hain zuzen ere, 2016 eta 2024 urteetara iritsi arte, eta baita **IRUN 2020 Plan Estrategikoaren** urte mugarekin bat datorren denboraldia ere, **gehienez** ere urtean %1,1 artean aldatuko litzatekeen mantentze erritmoak aplikatuz, azken hamar urtekoaren berdin-berdina, denboraldi luze horretan mantendu beharrekoa, eta **gutxienez**, berriz, kontuan hartuko litzateke erritmoak %0,9 behera egin dezakeela urtean.

Idea zehatzagoa emateko, eta abiatzeko oinarri gisa kontuan harturik **2008.** urte amaieran **Irungo biztanleria** kopurua 61.300 biztanlekoa izango dela, Aurrerakina aurkeztu den urtean, hain zuzen ere, 2009rako erritmo gorenak 675 biztanle berri gehiago ekarriko litzuzke, eta gutxienerako erritmoan, berriz, 550 biztanle gehiago soilik izango lirateke.


Ulerturik justifikatzeko oso zaila izan litekeela hipotesi gorena nahiz gutxienerako hipotesia aldatu gabe mantentzea 12 edo 16 urteko proiektzio denboraldietan, erabaki da Plan Nagusian **tarteko hipotesia** kontuan hartzea, urtean milako 10eko hazkundeak, hauxe da, %1. Kasu horretan, eta honekin batera doan koadroan islatzen den bezala, **Irungo biztanleria 66.400 biztanlera** irits liteke **2016an**, **71.800 biztanlera** 2024an eta **69.000 biztanlera**, berriz, **2020an**, IRUN 2020 Plan Estrategikoaren urte mugan, hain zuzen ere.

Etorkizuneko biztanleriaren kalkulua egiten badugu Gipuzkoako lurralde historikoaren barnean Irungo **hiriak duen pisuaren** bilakaera gero eta handiagoan oinarrituta, oso

antzekoak izango lirateke kopuruak, eta bietan ere tarteko hipotesiak erabiliko genituzke, guztiz gertagarriak horiek gauzak normaltasunez aurrera egiten badu.


2.2.4 Irunerako biztanleriaren proiektzioaren grafikoa 2024 bitarte

2024. urte arteko biztanleriaren proiektzioaren koadroa aurkeztuko dugu ondoren, planteaturiko **hiru hipotesietan** oinarrituta.



2.2.5 Irunerako biztanleriaren proiektzioaren grafikoa 2020 bitarte

Plan Nagusiaren Proiektzioa IRUN 2020 Plan Estrategikorako zehaztutako urte mugarekin alderatu ahal izateko, dagokion koadroa aurkeztuko dugu ondoren, aurrekoan erabilitako hipotesi berdinak erabiliz.



3. kapitulua

INGURU FISIKOA ETA INGURUMENA

AURKIBIDEA : 3. KAPITULUA – INGURU FISIKOA ETA INGURUMENA

| | |
|--|-----------|
| 3.- INGURU FISIKOA ETA INGURUMENA..... | 1 |
| 3.1 IRUNGO INGURU FISIKOAREN IKUSPEGI OROKORRA..... | 1 |
| 3.1.1 Irungo udalerriko inguru fisikoa: deskribapena, planak eta helburuak | 1 |
| 3.1.2 Ingurumen baldintza nagusiak | 4 |
| 3.2 IRUNGO P. NAGUSIAREN AURRERAKINAREN INGURUMEN EBALUAZIOA | 7 |
| 3.2.1 Ingurumen ebaluazioaren esparrua | 7 |
| 3.2.2 Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenaren (IIT) edukia | 8 |
| 3.2.3 Aurrerakineko proposamenen ingurumen ondorio nagusiak | 9 |
| 3.2.4 Komunikabide azpiegituren proposamenen ondorioak | 10 |
| 3.2.5 Hirigintza garapenen proposamenen ondorioak | 15 |
| 3.2.6 Lurzoru urbanizaezinaren tratamendurako proposamenen ondorioak | 17 |
| 3.3 INGURUMEN FISIKOAREN ERREGULAZIOA | 19 |
| 3.3.1 Lurzoru urbanizaezinaren araudia | 19 |

3.- INGURU FISIKOA ETA INGURUMENA

3.1 IRUNGO INGURU FISIKOAREN IKUSPEGI OROKORRA

3.1.1 Irungo udalerriko inguru fisikoa: deskribapena, planak eta helburuak

Benetan balio eta interes handiko inguru fisikoa du Irungo udalerriak, esparru natural garrantzitsuenak **babesteko hainbat lege irudi** izatea horren erakusgarri. Lege horien arau lotesleak aplikatu egin behar dira edozer dela ere Plan Nagusiak zehaztutakoa, bakoitzak bere mugaketa eta identifikazioa baititu.

Substratu fisikoarekin, lurraren morfologiarekin, ur ibilguekin, lurren erabilera batzuekin, eta baita bidera daitezkeen beste erabilera batzuekin ere, loturiko elementu materialek ematen diote **lurraldeari balioa**, eta horrez gainera, esan behar da, fauna ere ugaria eta era askotakoa dela. Faktore horiek guztiak elkartzen dira **inguru fisiko** bikaina eskaintzeko, Plan Nagusiak, dituen eskumenen neurrian beti ere, **mantendu eta babestu** behar duen ingurua, hain zuzen ere.

Substratuaren eta lurren osaeraren ikuspegitik begiratuta, esan behar da, harri mota ugari daudela, Aiako Harriko granito mendigunearekin hasi, arbel, hareharri eta kareharrizko flysch mazelen artean, eta Bidasoa ibaiaren bokale eta paduren behealdean buka, kuaternarioko jalkin lurrek osatua hura.

Lurralde fisikoaren formaren ikuspegitik begiratuta, esan behar da, erliebea goratzen doala Iparraldetik Hegoaldera. Erliebe hori paduran hasten da itsasoaren mailan, hiri eremuan landa bizkar txikiek osatua hura, %20tik gorakoak ez diren maldekin, baina landa eremuan goratu egiten da eta Aiako Harriaren %50era iristen da malda, 811 metroko altuera izanik kota gorenak.

Lurren xede eta **aprobetxamenduari** dagokionean, aipatzekoak dira, nekazaritza erabilera eta basogintza, horietan izanik nagusiak landa lurrean autopistaren Hegoaldean, eta hiri eta azpiegitura erabilerak, azken honek hartzen baititu bide horren Iparraldean dauden lurak. Zabalduen dagoen lurren erabilera **zuhaizti trinkoek osaturiko basoa** da, inolaz ere; honek hartzen du lurren ehuneko berrogei, erdia koniferoak eta hostozabalak dira eta beste erdia **larreak**, horiek ehuneko hogeita bost hartzen baitute. 300 bat ustiapen dira guztira, eta horietatik gutxienez erdiak aziendak ditu.

Behealdeetako jalkin lurrek dute **gaitasun agrologiko handiena, padura agortuak** barne, eta gainerako landa lurrek murrizketa handiagoak dituzte, eta askotan basogintzarako besterik ezin dira erabili.

Sare hidrografikoari dagokionean, Bidasoa ibaiaren arro nagusira husten dira erreka guztiak, udalerrian Iparraldeko eta Ekialdeko urak jasotzen dituen ardatz gisa. Hegoaldeko ertzean Endarako erreka da adar nagusia, baina elkarrengandik bereiz dauden beste arro txiki batzuk ere badira, hiri eremua zeharkatzen dutenak: Ibarla-Artia, Olaberria-Dunboa, Ugalde, Urdanibia-Jaizubia. Lurpeko akuifero txiki bakarra dago Lastaolan.

Ibai sarearen egoera ekologikoari dagokionean, Bidasoa ibaiak Endarlatsaraino betetzen ditu UEZaren ingurumen helburuak (Euskal Autonomi Erkidegoko Barne Arroen Mugapea, Eusko Jaurlaritzak 2004). Irunen aurreko estuarioaren eremuan eta Urdanibia-Jaizubia errekaen behe arroan, uraren egoerak nabarmen hobera egin du Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen etengabeko ahaleginari esker, saneamendu eta kanalizazio lan handiak egin baitira, hiri eremuak gertu egoteak horietan oraindik eragina badu ere.

Irun dagoen Bidasoa Beherea eskualderako **ur hornidura** San Antongo urtegitik dator batik bat. Endarako errekaen burualdean dago urtegi hori Nafarroako Foru Komunitatean, eta Jaizkibelgo iturrietatik, berriz, bigarren mailako hornidura egiten da.

Lurraldeko **egungo landaredia** oso bestelakoa da gizakiak esku hartu aurretik zegoenarekin alderatzen badugu. Ugarienak hariztiak dira eta tartean larreak, bazkalekuak eta hainbat pinudi, pinu beltzak osatuak. Padurako eremuetan, berriz, ugari dira baratzeak, jatorrizko lezkadien lekuan, uretako inguruekin loturik.

Barnealdean, batik bat hostozabalen basoek osatuko lukete **landaredia**, haltzadi kantauriarrak ibai ertzetan zehar, harizti atlantikoak eta hostoerorkorren baso mistoa behealdeetan; goialde harritsuagoetan, berriz, ameztiak, harizti piriniarrek eta pagadiak.

Faunari dagokionean, Irun Gipuzkoako eta EAeko udalerriri aberatsenetakoa da goifaunaren aniztasunean, padurako espezieak nahiz mendi edo basokoak baitaude bertan, ibai ibilguekin loturiko fauna ugariz gainera.

Arrazoi horregatik, aipatzekoak dira, **GKI** edo garrantzi komunitarioko lekuak eta **Txingudi-Bidasoako HBBE** edo hegaztien babes bereziko eremuak, Natura 2000

Sareko "Habitaten Zuzentarau" gisa ezaguturiko 43/92 Zuzentarauan proposaturiko intereseko esparruak.

Plaiiaundiren inguruan, hauxe izanik Gipuzkoako padurako hegaztiak habiak egiteko eremu nagusietako bat, **Txingudi-Bidasoa GKL** onartu zen 2004an, uretako eta zingiretako habitatetako hainbat espezierekin, kontserbazio helburu gisa, eta **Txingudiko HBBE** aldarrikatu zen 2000. urtean, haren barnean kontserbatu beharreko 31 hegazti espezie egonik.

1971. urtean sinaturiko RAMSAR gobernu arteko Hitzarmeneko kide gisa, haren xedea hezeguneen kontserbazioa eta erabilera arrazionala izanik, izendapen hori merezi duten eremuak hauteman beharra etorri zen, eta Nazioarteko Garrantzizko Hezeguneen zerrendaren barnean sartu zen **Txingudiko Hezegunea** 2002. urtetik aurrera.

Nolanahi ere, 1994an eta GKL eta HBBE gisa izendatu aurretik jadanik onartua zegoen **Txingudi Bidasoa esparruko** Baliabide Naturalak Babestu eta Antolatze **Plan Berezia**. Haren hedadura GKL-HBBErena baino handiagoa da eta hirigintza legeriatik etorritako tresna da, inolaz ere.

Era berean, udalerriaren goiko eremurako **Aiako Harriko GKL-HBBE** onartu zen 2004. urtean, Kudeaketa Plana onartu gabe badago ere. Mendi izaerako hainbat habitat espezie daude haren kontserbazio helburuen artean.

Gertakizun horiek arrazoi nahikoa dira Irunen **korridore ekologikoa** proposatzeko Aiako Harriko GKLtik Jaizkibelgo GKLraino, Eusko Jaurlaritzaren Korridore Ekologikoen Sarearen azterketatik egina hura Natura 2000 sareko esparru desberdinen artean, faunak beharreko mugikortasuna izan dezan Korridoreen Sarea ezartzeko, esparru horiek etenak baitira lurralde mailan. Nolanahi ere, aipatzekoa da, korridore hori ezartzeko aukerak **baldintzatuak** daudela bertatik hainbat egitura sare igarotzen direlako: N-1 errepidea, A-8 Autopista, Renfe eta Euskotrenen burdinbide sareak, eta abiadura handiko trenarentzako proiektaturiko trazatua.

Maila juridikoan, berriz, kontuan hartu behar da Esparru Natural Babestuen Sarea; sare horretan hainbat esparru biltzen dira legez babestuak daudenak, 4/1989 Estatuko Legean, geroago aldatua hura, eta Euskal Autonomi Erkidegoko 16/1994 Autonomi Legean oinarriturik.

Horren haritik, eta Euskal Autonomi Erkidegoko Natur Parkeen barnean **Aiako Harriko Natur Parkea** dago, 1995. urtean onartua eta Natur Baliabideen Antolamendurako

Planaren (NBAP) eta Erabilera eta Kudeaketaren Plan Zuzentzailearen (EKPZ) bidez antolatua, beharreko kudeaketa jarraibide eta irizpideekin. Udalerrian Hego-ekialdeko eremuan dago Parke horren zati handi bat.

Era berean, udalaren ekimenez, **Plan Berezia** garatu da **Ibarlako** eremurako, baina oraingoz aurrerakina besterik ez da egin. Onar daitezkeen aisiarako erabilerak, izan ditzaketen ibilbideak eta jardueren gaineko beste zehaztapen batzuk jaso dira plan horretan.

Bestalde, **Tokiko Agenda 21**ek, kontuan izanik proiektio berezia duela ingurumen kontuetan, HAPN idazterakoan, eta ahal den neurrian beti ere, lurralde oreka eta mugikortasunaren inguruan **iragankortasun irizpide** batzuk jasotzea planteatzen du. Alderdi horiek Euskal Autonomi Erkidegoko Ingurumen Esparru Programan jasoak daude era berean.

Lehen helburua da **lurraldearen erabilera iraunkorra** lortzea, hiriaren berrikuntza eta eraberritzea bultzatzea, diseinu erakargarriagoa eta bizi-kalitatezkoa egitea hiri eremuetan, eta hirigintza plangintza lurralde antolamendurako tresnen helburuen eta iraunkortasun irizpideen barnean integratzea.

Bigarren helburua da **irisgarritasuna** lortzea **garapena iraunkorra** izan dadin erabilera eta jarduera desberdinetarako etxebizitza, ekonomi jarduera eta aisiarako erabilerei aplikatuz. Hori lortzeko, besteak beste, mugikortasun beharrak murriztu beharko lirateke, eta ez lirateke bultzatu behar molde motordunen eskaria areagotuko duten hirigintza jarduera eta erabilerak.

Hirugarren helburua da **ekonomi garapenaren** eta baliabide motordunen bidezko garraio eskaria areagotzearen arteko **lotura haustea**. Zehatzago esateko, ingurumen eragin txikia duten moduak bultzatu behar dira eta motorrik gabeko garraiobideak motordunekin parekatu behar dira.

Plan Nagusiaren Berrikuspenaren garapen globalaren estrategiak ahaleginak egin ditu **hiru helburu horiek antolatzeko**, hiria berritzeko beharrezko planteamenduekin eta eskari sozioekonomikoei erantzuteko lurzoru berriak izateko beharra konbinatuz, Plan berriaren lehentasunezko helburu izan behar baitute horiek ere.

3.1.2 Ingurumen baldintza nagusiak

Plan Nagusiak kontuan eduki beharreko faktoreak dira **ingurumen baldintzak**, garapenerako aukerak, erabilerak eta jarduerak mugatzearen ildotik. Azterketa

sektorialetan edo lurraldea antolatzeko izaera sektorialeko hainbat tresnatan arautuak daude horiek.

Morfologiaren ikuspegitik begiratuta, **lurraldean ageriko arroen** artean udalaren iparraldeko erdialdean dago zabalena, Irungo hiria hartzen duena, hain zuzen ere, eta hantxe daude halaber Pagogaina eta Endararenak, horiek txikiagoak dira azalera, baina balio Handia eta Oso Handia dute, hurrenez hurren, 2005eko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoaren aurreproiektuaren arabera.

Eusko Jaurlaritzaren mugaketaren arabera, **urak har ditzakeen eremu** gisa jasoak daude Irungo hirigunearen esparruan, Bidasoa ibaiaren eta Jaizubiako errekaen ertzak, eta baita horien adarrak ere.

Higadura prozesuak dituzten eremuei dagokienean, kontuan izan behar dira azpiegituren eraikuntzak eragindakoak A-8 autopistaren ezpondetan Irunen, hirigunearen hegoaldean, eta jadanik udal barrutiaren hegoaldean eta izaera naturalekoak, berriz, Aiako Harriaren inguruetan, malda handiko eremuetan gertatzen diren higadura prozesu garrantzitsuak.

EAEko lurrak **kutsa ditzaketen jarduerak** dituzten lekuen zerrendan, Irungo udalerrian 144 leku ageri dira, gehienak 4 industri eremutan bilduak eta beste batzuk errepide ondoko eremuetan edo oso toki zehatzetan. Eusko Jaurlaritzaren Industri, Merkataritza eta Turismo Sailaren **Abandonaturiko meategi egituren arriskuen** azterketaren zerrendaren arabera, Irungo udal barrutian hainbat eratako 23 meategi egitura daude abandonaturik.

Ingurumen zarataren ikuspegitik begiratuta, Irunen aipatzekoak dira hiri barneko bideetako trafikoak eragindakoa: A-8 autopista, Iparraldeko ingurabidea, kale nagusiren bat; eta burdinbideak eragindakoa, haren trazatutik hurbil dauden eremuetan batik batik: Belaskoenea, Katea, Anaka, S. Migel, Antzaran. Hondarribiko Aireportuaren zarataren eraginak pistaren burualdetik hurbilen dauden hiri eremuetan: Belaskoenea, Errotazar eta Soroxarreta, du eragina batik batik.

Hierarkikoki Plan Nagusia baino maila handiagoan dauden eta ingurumen izaerako zehaztapenak jasotzen dituzten planak, gaur egun indarrean daudenak EAEko Lurralde Antolamendurako **Gidalerroak** dira, eta Donostialdeako Lurralde Plan Partziala, berriz, oraindik tramitean dago eta burdinbiderako Lurralde Plan Sektorialak afekzioak soilik jasotzen ditu.

Ibai eta erreka ertzak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren arabera, babes arau orokorrak aplikatu behar zaizkie Bidasoa ibaiari eta haren adarrei 100 metro zabaleko lur zerrendan, ibai ibilguen bi aldeetan. Plan horrek ingurumen murrizketak ezartzen ditu Lehentasunezko Natura Intereseko Eremuetan Aiako Harriko Natur Parkearen eta Txingudiko Plan Bereziaren ertzetan, eta baita ondo Kontserbaturiko Landaredia duten beste hainbat ertzetan ere.

Gainera, Ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Zatitako Lurralde Plan horretan orain dela gutxi egin den **aldaketan**, bere lehen dokumentuan **hiri eremu** ugari jaso dira **urpean geratzeko arriskua** dutenen artean, kontuan izanik hainbat urtera begira berriro urpean gera daitezkeela.

Eguneratu gabeko kartografia batean oinarritzen den lehen dokumentu hori, kartografia horretan ez baitira ageri eginiko sare eta azpiegitura lan handi batzuk (ingurabidea, Dunboa eta Artiaren kanalizazioak) Plan Nagusiaren erredakzioan **zaila da** errealitatearekin **bat etortzea**, urpean geratzeko arriskua duten eremuen artean ageri baitira Behobia osoa eta ZAISA, Fosforerako eremuak, Palmera, Iparralde Gal, Zubimusu, Ikastola eta abar, oraingoz inolako aukera eta konponbide bideragarririk eman gabe arazo horri.

Hezegune Babestuen Katalogoan jasotako hezeguneak babesteko erregimena ezartzen duen **Hezeguneak** Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala, Txingudiko Eremuko Natura Baliabideak Babestu eta Antolatzeko Plan Bereziak ordezkutzen du Irunen.

Itsasertza Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak 500 metroko lur zerrenda antolatzea ezartzen du itsas bazterraren eta ibai ertzen barne mugatik hasi eta 5 metroko kotaraino itsas mailatik gora, baina Irunen lurralde horren zatirik handiena hiri zorua da jadanik eta Plan Bereziak arautzen du.

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala, soilik hasieran onartua hura, Urbanizaezin gisa sailkaturiko lurzoruaren antolamendua hartzen du, eta lurzoru eta jardueren erabilera erregimen bat ezartzea proposatzen du antolamenduaren kategoria desberdinetarako. Orain arte aurkeztutako dokumentazioaren arabera, badira eremu batzuk, Osinbiribil, Plaiaundi, Bidasoako meandroak eta Olaberriako harana, esate baterako, nekazaritza sektorerako balio estrategiko handia izan lezaketenak.

Hala eta guztiz ere, nekazaritza eta basogintzaren aprobetxamenduaren mantenu eta kontserbazioari **lehentasuna** eman behar bazaio ere izaera sektorialeko Plan horren arabera, irizpide horrekin bat etorri ez litezkeen beste baldintza eta estrategia batzuk

ere kontuan hartu behar dira, oraindik ez baitago onartua eskakizun sektorial bakoitzaren arteko bateragarritasun baldintzak ezarriko dituen Lurralde Plan Partziala.

Dokumentazio horretan bertan proposatzen da gaur egun urbanizaezina den eremuaren gainerakoa hartzen duen Trantsizioko Landa Paisaia izeneko eremuaren **nekazaritza azalera erabilgarria** eta gaitasun agrologikoa mantentzea. Era berean, zuhaitz estalkia mantentzea proposatzen da jadanik halakorik dagoen tokian, eta ahaleginak egin dira Lurzoru urbanizaezinaren Plan Nagusiaren erregulazioan kontu hori jaso dadin.

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza eta Ingurumen Sailak Gipuzkoako **Bizikleta Bideen** Sarearen Plana idatzi zuen 2001. urtean; plan horrek 7. ibilbidea “Bidasoa Harana” jasotzen zuen Irunen, eta beste ibilbide bat ere, “Donostia-Irun”, oraingoz gauzatu gabe dagoena. 2008. urtean **Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSaren Aurrerakina** aurkeztu da, aurreko 2001eko Planaren eskema jasotzen duena.

Zehaztapen horietatik guztietatik **lotesleak** direnak jaso dira ezinbestean Plan Nagusi berrian. Era berean, Berrikuspen honetan kontuan hartu dira oraindik tramitean dauden dokumentuetako **lotesleak ez diren zehaztapen**, gomendio eta proposamenak ere Plan berriaren geroko bateratzea errazteko asmoz.

Hala eta guztiz ere, **betiko onartu ez diren** antolamendu sektorialerako edo berariazko tresna batzuen kasuan, arrazoi osoz zalantzan jartzen dira horien zehaztapen edo proposamen batzuk, azken dokumentuetan kontu horiek guztiak berriro azter daitezzen bultzatzeko.

3.2 IRUNGO PLAN NAGUSIAREN AURRERAKINAREN INGURUMEN EBALUAZIOA

3.2.1 Ingurumen ebaluazioaren esparrua

Planen eta programen ingurumen ebaluazio prozeduraren baitan dago Irungo HAPNren berrikuspena. Hainbat lege xedapenek arautzen dute prozedura hori, horien artean aipatzekoak apirilaren 28ko 9/2006 Estatuko Oinarrizko Legea eta uztailaren 22ko 183/2003 Euskal Dekretua. **Eusko Jaurlaritza** da Irungo HAPN ingurumenaren ikuspegitik ebaluatzeko ardura duen ingurumen organoa.

Prozedura horren arabera, kontsulta prozesu bat egin behar da **Aurrerakinaren aurretik**, eta haren ondoren **“erreferentzia dokumentua”** egin behar du Eusko Jaurlaritzak; hartan zehaztuko dira planaren ingurumen ondorioen azterketak izan behar duen irismena, tramitazioan izan beharreko kontsulta modalitateak eta abar. Irungo Udalak 2008ko otsailean eskatu zuen erreferentzia dokumentu hori egiteko, baina orain arte ez da dokumentu hori jaso.

Bestalde, HAPN berrikusteko Aurrerakinak **ingurumen ondorioen azterketa** jaso behar du. Azterketa horretan bilduko dira eginiko proposamenen ondorioak, prebentzio jarduerak eta jarduera zuzentzaileak proposatuko dira eta zaintza eta jarraipen plana zehaztuko da. Ingurumen ondorioen azterketa hori **Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena “IET”** deitzen da, eta Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterketaren (ECIA azterketa 183/2003 Dekretuaren arabera) parekoa da. Aurrerakina eta IET Eusko Jaurlaritzara igorriko dira **“Ingurumen Eraginaren Atariko Txostena”** egin dezan.

3.2.2 Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenaren (IIT) edukia

Dokumentu bereizi gisa sortu eta aurkeztu da Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena, HAPNaren Berrikuspenaren Aurrerakinaren barnean badago ere. Hainbat fasetan (Hasierako, Behin-Behineko eta Betiko onarpenak) egokitu eta osatu egingo da, parte hartze-kontsulta prozesuen emaitzen arabera eta Ingurumen Eraginaren Atariko Txostenaren edukia kontuan harturik.

Aurrerakinaren IITk, hemen haren laburpena egiten baita, honako kapitulu hauek ditu:

- **Lehen kapituluak helburuak** deskribatu, Aurrerakinaren proposamena labur adierazi eta haren aplikazio faseak eta abar azaldu dira.
- **Bigarren kapituluak** azaletik erreparatzen ditu HAPNaren berrikuspenean eragina izan ditzaketen beste **plan eta programa batzuk**.
- **Hirugarren kapituluak inguruaren**, hauxe da, Irungo udal barrutiaren **diagnostikoa** laburbiltzen du.
- **Laugarren kapituluak** Aurrerakinean kontuan harturiko aukeren **ingurumen balorazio globala** egiten du.
- **Bosgarren kapituluak** proposamen desberdinen **eraginak** jaso dira laburbilduta.
- **Seigarren kapituluak prebentziozko neurri eta neurri zuzentzaile eta konpentsatzaile nagusiak** jaso dira, eragin negatiboan intentsitatea murrizteko eta eragin positiboak bultzatzeko.
- **Zazpigarren kapituluak jarraipen eta zaintza plana** proposatzen du, atariko gisa.

Modu irekian aurkeztu da aurrerakina, eta horrek esan nahi du ez dela erabakirik hartu proposaturiko aukera desberdinen artean. Helburua da parte hartze prozesuan zehar hurrengo hilabeteetan eztabaidatzea, **betiko proposamena** izan dadin Hasierako Onarpen dokumentuan jasoko dena.

Kontuan izanik Aurrerakinaren izaera irekia, eta eztabaida prozesua erraztu ahal izateko, **aukeren azterketa globala** planteatzen du "IITak", eragin handiena edo txikiena izan dezaketenak adieraziz kasu batzuetan.

3.2.3 Aurrerakinako proposamenen ingurumen ondorio nagusiak

HAPNaren Aurrerakinaren proposamenetatik etorriko liratekeen **ingurumen ondorio**, positiboak eta negatiboak, aztertu dira "IITaren" 4. eta 5. kapituluetan. Ondorio horien laburpena egin da epigrafe honetan, eta ahaleginak egin dira dibulgazio izaerako hizkuntza erabiltzeko.

Honako era honetan bildu dira izan daitezkeen **ondorio** horiek:

- Komunikazio **azpiegituren** proposamenen ondorioak
- **Hirigintza garapenen** proposamenen ondorioak
- **Zoru urbanizazina tratatzeko** proposamenen ondorioak

Aipatzekoa da, Planaren Aurrerakinak proposamen batzuk hainbat aukerarekin planteatzen dituzenean, IITean kontuan harturiko aukera horien artean ez direla jaso “**ez-esku hartzeko**” aukerak.

Hori horrela egin da kontuan hartu delako, epe labur-erdira, Irungo udalerrak halako **eskasi eta behar** batzuk zituela, indarrean dagoen HAPNak **konpondu ezin zituenak**, esate baterako, etxebizitzaren alorrean, 1999ko HAPNean aurreikusitako garapenek, oraindik gauzatu gabe zeudenek, teorikoki aukera emango zutelako hurrengo 8 urteetako beharrei erantzuteko asko jota ere; berrikuspenak, berriz, aukera emango zuten behar horiei erantzuteko gutxienez beste 10 urterako.

3.2.4 Komunikabide azpiegituren proposamenen ondorioak

Aurrerakinak bide sareak dituen arazoak konpontze aldera bideratzen du bere proposamenen zati handi bat. Kontuan izanik egungo sarea ez dela aski une honetan, jarduerak proposatzen ditu honako hauetan:

- N-1 errepidea: iparraldeko eremua bikoiztea, Osinbiril eta Behobia arteko errepidea bikoiztea (bi aukerarekin) eta lurpetik bideratzea-bikoiztea Behobia esparruan (beste bi aukerarekin).
- Hegoaldeko ingurabidea, hiru aukerarekin.
- Hegoaldeko Saihesbidea, hiru aukerarekin.

Era berean, halako jarduera batzuk proposatzen ditu burdinbide azpiegitura hobetzeko.

Bi kasuetan, hala bide sarean nola burdinbide sarean, lehen arazo batekin egiten du topo Aurrerakinak: Aurrerakinak proposatzen dituen konponbideetako batzuk **beste Erakunde batzuek** (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak eta ADIF) onartu eta gauzatu beharko dituzte.

Lehen gogoeta orokor gisa, eta IITaren edukian oinarriturik, Aurrerakina guztiz zentratua dago **bide ereduaren** eta egungo trafikoen **konponbidean**, eta

xehetasun maila aski handia duten **konponbideak** ere garatu ditu, Aurrerakin proposamena besterik ez izan arren. Kontu horri halako garrantzia eman zaio egungo trafiko zailtasunak ondorio handiak eragiten ari direlako hirian.

Aldiz, Aurrerakinaren fase honetan ez da azterketa xehea eta behin-behineko konponbideen azterketarik egin iraunkorragoak diren **beste mugikortasun modu** batzuei begira, oinezkoa eta bizikleta bidezkoa, esate baterako. Modu horiek, Irunek duen tamaina kontuan izanik eta baita aurreikusita dauden hirigintza hazkundeekin ere, oso egokiak izan daitezke hiri barnean egiten diren bidaien zati handi bat hartzeko.

ITak berak adierazten du xehetasun falta hori estali egin beharko dela HAPN berrikusteko dokumentuaren **hurrengo faseetan**, beharreko **intermodalitatea** eta **irisgarritasuna** bultzatzeko zehaztapenak jasorik, hori guztia, Udala eta beste Administrazio batzuk aurrera eramaten ari diren beste plangintza tresna batzuekin koordinatuta. Udalak hemendik gutxira egingo duen izaera zehatzeko **mugikortasun iraunkorrerako plana**, esate baterako.

Horren haritik, Plan Nagusiaren zehaztapenek aukera eta bide eman beharko dute gerora **mugikortasun iraunkorraren hobekuntza politikak** aurrera eraman daitezten, esate baterako, gaitasun handiko garraio publikoaren sistemak jasotzeko lehentasunezko sare baten ezarpena, edo hartan oinezkoentzako nahiz bizikletentzako bideak egiteko lurzoru erreserbak.

Halaz ere, aipatzekoa da, beharreko intermodalitate eta irisgarritasun politika horiek ez direla Plan Nagusi honen berariazko helburu, honek egiten duena lurzoruaren kalifikazioak ezartzea baita batik bat, baina bai jaso daitezke Udalak edo beste Administrazio batzuek aurrera eramaten dituzten beste antolamendu tresna batzuekin **modu koordinatuan** jarduteko arau gisa, modu horretan aukera emango bailitzateke gerora mugikortasun sistema alternatibo horiek ezartzeko.

Plan Nagusiaren bide proposamenak osotasunean aztertzen badira, aipatzekoa da, haren helburu nagusia **egungo bide sareak dituen eskasiei** konponbidea ematea dela, aurreko Planak konpondu gabeko eskasi horiei konponbidea ematea, alegia, eta udalerrian **gero eta handiagoa den ibilgailuen trafikoa** behar bezala bideratzea.

Trafiko areagotze horren zati bat zuzenean loturik dago aurreikusten den Irungo biztanleriaren hazkundearekin, baina beste zati baten **jatorria kanpoan** dago, **hiri barneko eta mugaz gaindiko mugimenduekin** loturik, hain zuzen ere. Horren ondorioz, bide sare irundarraren garapen maila bere eskariak sortutakoari legokiokeena baino handiagoa da, inolaz ere, mugatik hurbil egoteagatik, biztanleria

dentsitate eta okupazio handiko lurraldean egoteagatik eta bere barnean gaitasun handiko ardatz europarra edukitzeagatik.

Labur adierazteko, Berrikuspenaren Aurrerakinak proposamen eta aukera batzuk planteatzen ditu eta horien helburua da **egungo mugikortasun eskariei** ahalik eta azkarren konponbidea ematea, egitura amaitu gabe zeukan bide sarearen ondorioz arazoak sortzen dituzten gune eta ibilbideak baztertuz. Logikoa denez, aurreikusitako hazkundeetarako lurzoruetatik etorritako beharrak estaltzea litzateke beste helburua. Halaz ere, udalaz gaindiko irismena duten beste proposamen batzuk ere planteatzen ditu Aurrerakinak.

Horietan, **Hegoaldeko Ingurabidearen** proposamena da funtsezkoetako bat. Hasiera batean haren helburua udalerriko hainbat eremuren artean komunikatzeko trafikoa jasotzea bada ere, ingurabide horrek lagundu egingo luke egungo N-1 saihebidetaren ibilbidea hobetzen, gaur egun dituen trafiko batzuk kenduko bailizkioke errepide horri. Sareko funtsezko beste elementu batzuk N-1 errepidearen Hegoaldeko saihebidetaren proposamenak dira, inolaz ere, horiek ere planteatu baitira Aurrerakin honetan. **Udalaz gaindiko** trafikoari konponbidea emateko zuzenean laguntzea litzateke saihebidetaren horren helburua.

lido horretatik, bide sarea hobetzeko proposamen horiek **alderdi positiboak eta negatiboak** izan litzateke iraunkortasunaren ikuspegitik begiratuta. Alderdi positiboen artean, inolako zalantzarik ez dago ereduak balio duela egun dauden eskasi handi batzuk estaltzeko, kontuan izanik, gainera, eskasi horiek larriagotu daitezkeela etorkizunean trafikoa handituko delako, bai iragaitzazkoa bai hiriaren hazkundearen ondorioz sortutakoa. Horrenbestez, inolako zalantzarik ez dago, **bide egiturari beharreko konponbidea** eman behar zaiola.

Baina ikuspegi osoago batetik begiratuta, hobetu zehaztu beharko dira proposaturiko komunikabide sarearen garapen eta erabilera baldintzak, **ibilgailu pribatuaren erabileran** oinarrituriko estrategia ezarri ez dadin, kontu hori eztabaidan jarri baita, gero eta gehiago jarri ere, eta alderdi negatibotzat hartu baita, zalantzarik gabe, petrolioaren baitan dagoelako, erregaien prezioak seguru asko gora egingo duelako, lurraren berotze globala dakarten igorpenak egiten dituelako eta abar.

Horri begira, kontuan izan behar da Plan Nagusiak proposatzen dituen **bide erreserbei** dagokienean, **sare banatzaileentzako** ezarri den hierarkiarekin ere, guztiek ez dutela zertan izan behar ibilgailu motordunen trafikorako, edozein unetan onar baitezakete beste garraio bide alternatibo batzuekin batera jarduteko aukera.

Alderdi hori guztiz kontuan hartu beharrekoa da, **trafiko mota** edo **bide esparruaren antolamendua** ezin baitira **Plan Nagusiaren zehaztapenak** izan, eta bide esparrua garraio bide desberdinetarako erabiltzeko kontu hori erabakitzeko aukera izan behar baita beti Plan Nagusiaren aldaketetara jotzeko beharrik izan gabe.

Nolanahi ere, eta IITak adierazitakoari jarraiki, beharrezkoa da **geroagoko faseetan** HAPNak zehaztapen handiagoz jasotzea beste mugikortasun modu batzuk bideratzeko **ereduaren** aldeko proposamenak, esate baterako gaitasun handiko garraio publikoa (ildo horretatik doaz Aurrerakin honetan burdinbide sarearen alorrean egin diren proposamenak, baina horiei beste ekimen batzuk erantsi beharko litzaizkieke, autobusak, tranbia...) eta motorrik gabeko garraioak: oinez eta bizikletaz.

Bestalde, bide proposamen desberdinek **ingurumen eragin negatiboetara** eramaten gaituzte gehienetan hainbat arlotan: eragin negatiboak natur baliabideetan (landaredia, fauna, konektibitate ekologikoa) eta paisaian: ingurumen zarata, aldi baterako eragina obrek irauten duten bitartean, lur soberakinak eta abar, eta hori guztia konpondu egin beharko da dagozkion proiektuetan. Aurrerakinean erabiltzen den informazioak ez du aukerarik ematen ondorio horietako batzuk zehatz deskribatzeko, baina bai nahikoa hurbiltzeko. Hurrengo paragrafoetan ahaleginak egingo ditugu aukera desberdinen balorazioa laburbiltzeko, ingurumenaren ikuspegitik begiratuta egokienak zein diren adieraziz, ahal bada bederen, eta ahalik eta objektibotasun handienaz.

Plaiandiko eremuko iparraldeko saihebidia proposamen bakar gisa planteatzen da. Irunen, ibilbidearen zati batek eragina du, ukitu besterik ez badu egiten ere, **Txingudi-Bidasoa GKI – HBBE**an. Eremu hori aski hondakorra denez, proposamenak aurrera egiten badu, **ondorioen ebaluazioa** egin beharko da, 92/43EEE Habitaten Zuzentarauaren 6.3 artikulua zehaztu bezala.

Osinbiribil eta Behobia bitartean errepidea **bikoizteari** dagokionean, garrantzi handiko lanak dira bi kasuetan eta eragozpen handiak sor litzakete, inolaz ere, aurreikusten bada ere horietako bakar batean ere ez dela ibilgailuen egungo igarobidea itxiko. Oro har, ordea, uste dugu ondorio txikiagoak dituela “N-Ibaia 1” alternatibak “N-Ibaia 2” alternatibak baino, funtsezko bi alderdirengatik: 2. alternatibak eragina izango du ibaiaren zati batean eta Txingudi-Bidasoa GKI – HBBE uki litzake; lehenengo alternatibak, berriz, hura suspertzeko bide emango du. Ingurumen zarataren ikuspegitik begiratuta, 1. alternatibak goiko bideak estali beharko lituzke dauden etxebizitzien gaineko eragina zuzentzeko.

Behobiatik igarotzeari dagokionean, bi konponbideek ondorioak dituzte, ez oso desberdinak gainera, ingurumenaren ikuspegitik begiratuta, eta seguru asko horietako

bakar bat ere ez da nabarmen okerragoa edo nabarmen hobea alderdi horri dagokionean.

Hegoaldeko ingurabiderako planteaturiko hiru aukerek ondorio desberdinak dituzte ingurumenaren ikuspegitik begiratuta. Oro har, “R-1” Hegoaldeko Ingurabidearen alternatibak besteek baino lur eremu txikiagoa hartzen du hiri sarean sartzen delako, eragin txikiagoa du natur baliabideetan (landaredia, ur ibilguak...) eta lur soberakinen arazo txikiagoak sortzen ditu, inolaz ere.

Zarataren ondorioa ebaluatzea zaila da benetan berriazko azterketarik ez dugulako.

1. alternatibak hiri esparrua zeharkatuko luke eraikuntzetatik oso hurbil, eta horrenbestez, ezinbestekoa izango da prebentzio neurriak edo neurri zuzentzaileak ezartzea, hesi akustikoak, esate baterako. Aldiz, diseinu abiadura askoz ere txikiagoa da, eta horrenbestez, beste konponbideetan baino txikiagoa izango da zarata ere.

Beste aukerak urrunago daude hiri saretik, eta zaratari dagokionean haien ondorioa “barreiaturik” gera daiteke A-8 autopistarengatik (honek askoz ere zarata handiagoa sortzen baitu). Hauxe da, seguru asko, aukera horiek **ez dute** nabarmen **okerragotuko** A-8 autopistarekin loturiko zarataren kontua, irmotasunez baieztatu ezin badaiteke ere. Oro har, uste dugu R-1 alternatibak ondorio txikiagoak dituela ingurumenaren ikuspegitik begiratuta.

Hegoaldeko saihebiderearen hiru **alternatibei** dagokienean, “S-2” alternatiba da, neurri handi batean A-8 autopistaren egungo trazatuan oinarritzen delako eta jada aldatutako esparrua hartzen duelako, natur baliabideetan eta paisaian ondorio txikiak dituenak. Aldiz, “S-1” eta “S-3” alternatibek, natur baliabideetan eta paisaian ondorio handiagoak eragiten dituzte biak ere, lur iraultze handiagoak eskatzeaz gainera.

“S-2” eta “S-3” alternatibek duten **alde txar** handiena da trafiko bolumen handia hurbilduko dutela etxebizitzak dauden eremuetara, trafiko hori Hegoaldeko Ingurabideak eragindakoa baino handiagoa izango bailitzateke seguru asko, eta gainera, ibilgailu astunen bolumena handia izango litzateke. Horren ondorioz, zarata handitu egingo litzateke bide ardatz horretan, etxebizitzak dauden eremuetan eragingo luke eta haien egoera akustikoa okerragotuko litzateke, inolaz ere.

Hiru alternatiba horiek hartzen dute, zati batean bederen, burdinbide sare berriaren **erreserba zerrenda**. Osotasunean ikusirik eta erreserba batzuk kontuan harturik, ingurumenaren ikuspegitik begiratuta konponbide hoberena “S-2” izango litzateke, norabide bakoitzeko bideak autopistaren bi aldeetan ezartzen dituenak.

Azkenik, oro har, balorazio positiboa merezi dute **burdinbidearen alorrean** egin diren proposamenek. Ondorio negatiboak (ingurumen zarata, jada badagoena, obrak egiten diren bitartean sortzen diren eragozpenak edo kutsatuta egon daitezkeen lurren presentzia) konpentsatu egiten dituzte ondorio positiboek: intermodalitatea hobetzea, geraleku edo geltoki berriak erakargarritasun handiko eremuetan (Araso, esate baterako) eta abar.

3.2.5 Hirigintza garapenen proposamenen ondorioak

Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenak, IIT, planteaturiko hirigintza garapenen **ingurumen balorazioa** egiten du, eta horretarako, **8 lurralde eremutan** biltzen ditu, aurreikusitako garapen guztiak kontuan harturik, bai Ekonomi Jarduerak, bai Egoitza eta Ekipamendu eremuak edo Hornidura Publikoak.

Kapitulu honetan gogoeta globala egin da Irungo HAPNaren berrikuspenaren Aurrerakinean proposaturiko hirigintza garapenen ingurumen ondorioen inguruan. **Gogoeta global** horretarako, saiatu gara irizpide **kuantitatiboak** nahiz **kualitatiboak** erabiltzen. Aurrerakinaren berariazko proposamenak soilik hartu dira kontuan eta ez onartu diren eta oraindik garatu ez diren edo neurri batean garatu diren proposamenak (Txenperenea, Oinaurre...), Aurrerakinak bere gain hartzen baditu ere, dagozkien dokumentuetan ebaluatu izanik.

Lurralde ezarpenaren ikuspegitik begiratuta, honako tipologia handi hauei erantzuten diete planteaturiko garapenek:

- Gaur egun artifizializatu gabeko lurretan ezarritako jarduerak.
- Hiri sarearen barneko jarduerak.
- Hiri ertzak itxi edo zehazteko jarduerak.

Lehen multzo horretan daude, nola planteatzen diren kontuan izanik, **udalerriko natur baliabideen gainean** (landaredia, fauna, konektibitate ekologikoa, sare hidrografikoa...) **ingurumen ondorio handienak** eragin litzaketenak. Funtsean Ekonomi Jardueren hirigintza garapenak dira udalerraren ipar-mendebaldeko eremuan (Araso aldean) eta parke teknologiko edo enpresa multzoen sarearen proposamena Olaberria aldean.

Araso aldeko esparruek eragina izan lezakete intereseko landare multzoetan, Aiako Harria-Jaizkibel korridore ekologikoaren zati batean eta sare hidrografikoan, eta eragin

negatiboa izan lezakete paisaian. Horregatik, oso garrantzitsuak dira lurraldean ezartzeko modua eta izan ditzaketen ondorioak baztertu edo murrizteko neurriak.

Bestalde, **Olaberria aldeko** proposamena natura elementu batzuetatik hurbil planteatzen da, nolabaiteko balioa duten elementuak bai landarediagatik, paisaia baldintzengatik edo nekazaritza eta abere hazkuntza ustiapen estrategikoekin loturik dauden lurrak izateagatik. Gainera, kontuan eduki behar da oraindik landa izaera nabarmena mantentzen duen inguru batean erabilerak ezartzea izango litzatekeela, hasiera batean jarduerak industri eremu edo nekazaritza-industri eremu zaharretan aurreikusi badira ere, instalazio zaharkituak gehienak eta lurraldea jada eraldatu dutenak.

Hala eta guztiz ere, eta Olaberria aldean ez bezala, Araso aldean **industri eremuak eta merkataritza ekipamenduak** ezarri dira pixkanaka-pixkanaka, eta era berean, **komunikabide azpiegitura** garrantzitsuek (A-8 autopista, N-1 errepidea eta ADIF-RENFE eta EuskoTrenen trenbideak) zeharkatzen dute alde hori. Olaberria aldearen garapena, A-8 autopistaren Hegoaldean, orain arte hirigintza presio nabarmen txikiagoa izan duen eremu batean egokituko litzateke, eremu horretan industri hondakin batzuk geratzen badira ere, hainbat kolonizazio ahaleginen lekuko mutu.

Egungo hiri sarean oinarritzen dira egoitza jarduera gehienak, ildo horretatik, RENFEko geltokiaren aldeko proposamena azpimarratuz. Eremu horren tratamendu aukeren barnean 1.124 eta 2.048 etxebizitza artean (Aurrerakinean proposaturikoen erdia baino gehiago) egongo lirатеke.

Oro har, **balorazio global positiboa** merezi dute jarduera horiek, etxebizitza beharrak estaltzeko aukera emango bailukete, gaur egun urbanizaturiko lurzoruak eta kasu batzuetan egoera geografikoarekin bat ez datozenak aprobetxatuz. “Hiri ingurumenarekin” loturiko alderdietatik datoz ingurumen ondorio negatibo nagusiak, hauxe da, zarata, kutsatuak egon daitezkeen lurrak, obrak egiten diren bitartean sortzen diren eragozpenak eta abar. Ondorio horietako batzuk handiak izan daitezke, proposaturiko eremuetako batzuetan bai bederen.

Azkenik, badira esparru batzuk, gaur egun zoru urbanizaezinean garatzen badira ere, **hiri ertzen** itxitura gisa har daitezkeenak, Matxalagain eta Blaiako garapenak, esate baterako. Horien bidez **Zoru urbanizaezin multzo** bana sartuko lirатеke hiri eremuan, gaur egun hiri sarearen eta A-8 autopistaren artean daudenak. Beste hainbeste gertatzen da Zubieta aldean planteaturiko garapenekin Hondarribiarekin batera, hiri sarearen eta N-1 errepidearen arteko esparrua ixten dutenak. Balorazioak desberdinak dira bi kasuetan.

Matxalagain eta Blaiako garapenek, azalera handia badute ere, egungo hiri sarearekin loturiko behealdeetan biltzen dituzte hirigintza aprobetxamenduak, eta aukera ematen dute hiriko sistema orokorren parke publikoen sarean azalera handiak jasotzeko urbanizatu gabe. Oro har, aski txikiak dira ondorioak.

Zubieta aldean planteaturiko jarduerak, hiri sarean oinarriturik egon arren, urbanizaezin gisa definituriko eremua hartzen dute berrikusten ari garen Plan Nagusian. Jarduerak osotasunean harturik, Hondarribiko udal barrutiari dagokiona barne, gaitasun agrologiko handiko lurzoruen okupazioan eta esparruetako batzuk dituzten urak hartzeko arazoetan oinarritzen dira ondorio negatibo handienak.

Oro har, 253 Ha-ko azalera hartzen dute hirigintza garapenen proposamenek, sailkatu diren lurzoru berriak eta jadanik sailkatuta zeudenak barne, baina bestelako proposamena dute egungoaren aldean. Geltoki Aldeko (0.1.01 esparrua) 2. alternatiba garatzen bada, 246 Ha izango lirateke guztizko azalera hori. Azalera horretatik, 163 Ha gaur egun urbanizaezin gisa sailkaturiko lurretan garatuko lirateke. Horrek esan nahi du gutxi gora-behera %19an **handituko litzatekeela egungo hiri lurzoru-lurzoru urbanizagarriaren azalera**. HAPNaren Aurrerakinaren proposamen guztiak garatzen badira, Irungo udalerriko guztizko azaleraren %75,6 izango litzateke udalerriko **lurzoru urbanizaezina** eta %80, berriz, indarrean dagoen HAPNaren arabera.

Ekonomi Jarduerak garatzeko proposamenak dira, batik bat Araso aldean eta Olaberria aldean, 130 Ha-ko okupazioarekin, Zoru Urbanizaezinaren azalera handiena kontsumitzen dutenak, Aurrerakinak proposatzen duen guztizkoaren %75 inguru.

3.2.6 Lurzoru urbanizaezinaren tratamendurako proposamenen ondorioak

HAPN berrikusteko Aurrerakinak funtsean **ez du aldatzen Antolamenduaren Erabilera Globalen** egungo sistema; hiri erabilera globalen molde batzuk jasotzen ditu (esate baterako, egoitza, hirugarren sektorea, industri, ekipamendu erabilerak eta abar), eta berariazko Erabilera Globala lurzoru urbanizaezinerako, hauxe da, “Landa Eremuak (Z)”.

Landa Eremuen (Z) kategoria hori beste hiru landa eremu azpikategoriatan banatzen da era berean: **nekazaritza-abere hazkuntza eta landa, basogintza eta babes bereziko**. Halaz ere, Aiako Harriko babes bereziko eremua erantsi zaio, natur parke horren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzendarian oinarriturik arautzen den azpikategoria gisa horrelako kasu batean aurkakoak izan daitezkeen araudiak ez sartzeko, eremu honek jada onartua baitu bere berariazko antolamendua.

Berrikusmen dokumentuan ere mantendu da **kategorizazio** hori, izan ere, orain arte emaitza onak eskaini ditu kudeaketarako eta indarrean dagoen udalaz gaindiko plangintzara (LAG eta abar) egokitzen da. Era berean, eremu horien mugak ez aldatzea planteatzen da, esparruak birsailkatu eta hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri bilakatzeko beharreko murrizketak izan ezik.

Hala ere, “**baldintza gainjarri**” bat sortzea proposatzen da (Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan aurreikusitako irudia) “Legeak Babesturiko Eremuak” izenarekin.

Baldintza gainjarri honetan sartu beharko dira udal barrutiko **GKL – HBBE sarearen** barneko azalera guztiak, hauex da, Txingudi – Bidasoa GKL – HBBE (GKL ES2120018 eta HBBE ES0000243) eta Aiako Harria GKL (GHL ES2120016), era berean Natur Parkea dena.

Aurrerakinak jaso duen tratamendu horrek balorazio global positiboa merezi du, aukera ematen duelako udal barrutiko elementu baliotsuenen benetako babesa eta kontserbazioa ziurtatzeko.

3.3 INGURU FISIKOAREN ERREGULAZIOA

3.3.1 Lurzoru urbanizaezinaren araudia

Oraindik ere indarrean dagoen 1999ko HAPNk Kalifikazio Globalaren sistematizazioa egiten du erabilera orokorrerako eremu sorta baten arabera. Horien artean aipagarria da kapitulu honen xede dena, jarraian adierazi bezala deitua,

- LANDA EREMUA (Z)

Indarrean dagoen 1999ko HAPN dokumentuan hitzez hitz honelaxe esaten da landa eremuak gaitzat harturik: *“Zoru Urbanizaezinari begira Euskadiko Autonomia Erkidegoaren LAGek proposatutako lurralde ereduaren arabera garatuko dira, eta hiru antolamendu kategoria definitzen dira, horietako bakoitza bere erabilera eta eraikigarritasun erregimen zehatzarekin”*:

- a- **Baserri** aldea (BA).
- b- **Baso** eremua (BE).
- c- **Babes Bereziko Landa** eremua (BBL).

Hiru kategoria hauetan **BBL** da guztietan murriztaileena, izan ere, *“bertara biltzen dira nekazaritza, baso edo abere-hazkuntzarako balio handia duten zoruak, baliabide naturalak ustiatzeko aukera ematen dutenak, paisaia izaerako balioa dutenak, historia eta kultura izaerako balioa dutenak eta fauna, flora eta oreka ekologikoa babesten dutenak”*. Izan ere, 1999ko HAPNren memorian eta antolamendu-planoetan, sei unitate biltzen dira BBL kategoriara.

- a.- IBARLA - AIAKO HARRIA Babes Bereziko Unitatea (babesteko perimetroari berariazko erreferentzia eginez)
- b.- ALTZI-ALTAMIRAKO GAINA Babes Bereziko Unitatea (Katea aldeko autopistaren Hegoaldeko muinoak)
- c.- SAN MARTZIAL MENDIA Babes Bereziko Unitatea
- d.- BIDASOAKO IRLAK Babes Bereziko Unitatea
- e.- PLAIAUNDI Babes Bereziko Unitatea
- f.- BUENABISTAKO MUINOA Babes Bereziko Unitatea

“d” eta “e” babes bereziko unitateei dagokienez, haietan *“Txingudiko Badiako Plan Berezian zehaztutako erabakiak aplikatuko direla”* xedatzen da.

HAPNren berrikustetik sortutako Aurrerakinean 1999ko HAPNk Zoru Urbanizaezinaren tratamenduari begira funtsean **eredu egokia** planteatzen zuela esaten dugu, eta beraz,

Landa Eremuen (BA, BE eta BBL) antolamenduaren kategorietan aldaketarik ez egitea proposatzen dugu, izan ere, kategoria horiek egokiak izan dira azken urteetako kudeaketan.

Hala eta guztiz ere, kategoria hauek **zehazteko** garaian, lurraldeko eremu jakin batzuk berez dagozkien kategorietara eta araudietara jasota ez daudela hauteman dugu, ez direla zoru hauek berezko dituzten ezaugarriei dagozkien kategorietara biltzen.

Horrexegatik doitu egin dira **Babes Bereziko eremuen** inguruak, eta topografia, ingurumen balio edo paisaia balioagatik gisa honetako babesak behar zuten espazioak bildu dira, gisa honetako babes maila behar ez zuten beste batzuk alboratu diren bezala. **Aiako Harria** Natur Parkearen barrutiari dagokionez, hari begira onartutako araudiarekin identifikatzea nahiago izan dugu.

Muga horiek zehazteko kontu honen haritik, aldatu ere egin dira **baso aldean interesagatik** (BE) araututako eremuak, eta bertara bildu ere dira zuhaitzi garrantzitsuak dituzten lur eremuak, zenbaitetan babes bereziko eremuei atxikita daudenak.

Logikoa denez, **Baserri aldean** (BA) izen ofizialetan ere egokitzapen batzuk egin dira, mazelaren baten goiko partean murriztuta geratu baita, haren ezaugarriei erreparatuta beste bi kategorietara jasoa izan eta gero.

Aurrerakin honetan, era berean, ez da beharrezkotzat jotzen alde hauei begira indarrean dagoen **araudia** aldatzea. Berau 1999ko HAPNren hirigintza arauen Lehenengo Tituluan (1.1. eta 1.2. kapituluak) eta Bosgarren Tituluan (Zoru Urbanizazinean aplikagarri diren Ordenantzak) jasota dago.

Hala eta guztiz ere, 1999ko HAPNren ostean onartutako **Garrantzi Komunitarioko Lekuen** eta Atlantiko aldeko Eskualde Biogeografikoaren zerrenda eta Txingudiko HBBE onartu eta gero, ezinbestekoa da irizpide honen arabera landa eremu batzuen muga edo hedadura berriro ere aztertzea.

Honenbestez, udal barrutiko GKL – HBBE sarera bildutako azalera guztiak **BBL** Babes Bereziko Landa Eremura **jasotzea** proposatzen da. Honek zuzeneko eragina izango du Txingudi – Bidasoa GKL – HBBERen barneko lur eremuetan (GKL ES2120018 eta HBBE ES0000243) eta Aiako Harriko GKLn (GKL ES2120016). Kontuan eduki behar da Txingudiko HBBERen mugek bat egiten dutela Ramsar Hezegunearekin.

4. kapitulu

LURRALDE ESPARRUA ETA ESTRATEGIA

AURKIBIDEA: 4. KAPITULUA – LURRALDE ESP. ETA ESTRATEGIA

| | |
|---|----------|
| 4.- LURRALDE ESPARRUA ETA ESTRATEGIA | 1 |
| 4.1 INDARREAN DAGOEN LURRALDE ESPARRUA | 1 |
| 4.1.1 Abiapuntuak: lurralde esparru juridikoa EAEaren mailan | 1 |
| 4.1.2 Txingudiko hiriaren eskualde esparrua | 3 |
| 4.1.3 Plan estrategikoak eta eskualdearen egitura indartzea | 5 |
| 4.1.4 Lurralde izaerako beste esparru batzuk | 7 |
| 4.2 LURRALDE ESPARRUAN SARTZEKO PLANTEAMENDU OROKORRA | 9 |
| 4.2.1 Irunek egin duen ahalegina lurraldean integraturiko hiri gisa duen papaera indartzeko | 9 |
| 4.2.3 Beste udalerrri batzuekin bateragarri izateko proposamenak | 11 |

4.- LURRALDE ESPARRUA ETA ESTRATEGIA

4.1 INDARREAN DAGOEN LURRALDE ESPARRUA

4.1.1 Abiapuntuak: lurralde esparru juridikoa EAEaren mailan

Irungo Plan Nagusiak, bere udal lurraldea aintzat hartzeaz gainera, lurralde ikuspegi zabalago batetik hartu behar du, lurraldearen plangintza, oro har, arautzen eta integratzeko ahaleginak egiten dituen **udalaz gaindiko ikuspegia**, batzuetan aski zurruna bada ere udal mugen banaketa. Horren haritik, halako azterketa eta konklusio batzuk azalduko ditugu ondoren, Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Diagnostikoan lurralde esparruaren inguruan egindako azterketatan oinarrituak.

Euskal Autonomi Erkidegoaren mailan, EAEko **Lurralde Antolamendurako Gidalerroak (LAG)** dira, 1997. urtean onartuak EAEko Lurralde Antolamendurako 4/1990 Legea garatzeko, **esparru orokor** hori osatzen dutenak.

LAG horiek antzeko maila duten hiri eta hiri inguruen **sistema polinuklearrean** oinarrituriko lurralde eredua ezartzen dute, eta haren gainean aplikatzen da **eremu funtzionaletan** banatzeko irizpidea; eremu horiek tarteko lurralde eskala izango lirateke eta horietatik abiatuta interpretatuko litzateke lurraldea, bere funtzionamenduaren koherentziaren ikuspegi integralaren bidez.

Lurraldearen banaketa horrek, alde batetik, **oreka eta erregulaziorako estrategia orokorren** aplikazioa erraztea du xede, eta bestetik, lurralde eremu bakoitzaren **lurralde antolamendurako berariazko planen** garapena eraginkorra izan dadin lortu nahi da.

Oreka lortzeko estrategia orokorrak halako **Lurralde Plan Sektorial (LPS)** batzuetan oinarritzen dira, Autonomi Erkidego osoa antolatzeko xedean **izaera orokorreko** eta gaikako **irizpideetan** oinarriturik lurraldea osatzen duten elementu bakoitzarentzako, esate baterako, azpiegitura sareak, sare hidrologikoa edo ekoizpen jarduerak eta abar.

Lurraldearen berariazko antolamendua Lurralde Plan Partzialen (LPP) bidez planifikatzen da eremu funtzional bakoitzean. Plan horien egitekoa udal plangintzarako, hauxe da, Antolamendurako Plan Nagusiak (**HAPN**) idazteko, erreferentziako lurralde esparrua izatea da, Gidalerroen osagarri izango diren hirigintza irizpideak eskainiz,

baina haiek baino askoz ere garatuagoak eta xeheagoak eta Lurralde Plan Sektorial desberdinen artean egokitzeko balio dutenak.

Eremu funtzionalen tamainak aukera ematen du arazoan azterketarako eta lurralde antolamendurako programak ezartzeko hurbilketa egokia egiteko, **lurraldea udalaz gaindiko mailan** egituratu eta **antolatze**ko ahaleginak eginez eremuko udal barrutien arteko mugetatik etorritako baldintzatzaileak kontuan izan gabe, eta bateragarritasun arazoei konponbidea bilatuz, hain ugariak horiek elkarrengandik hurbil dauden udalerrietan.

Donostialdea – Bidasoa Beherea deituriko **eremu funtzionalaren** barnean dago Irun eta kokaleku geoestrategiko onean dago hiri eremu jarrai horretan, guztia ere Gipuzkoaren barnean, Orio eta Andoaindik hasi eta Iparraldeko mugarekin eta Hondarribiarekin buka. Eremu funtzional horren egiturak **polaritate asimetrikoa** du nolabait esateko, izan ere, Donostialdea Mendebaldetik erdialdean dagoen arren, Irungo hiriak eta Hondarribiak ekialdeko mugan orekatu eta **neurri batean konpentsatu egiten dute** Gipuzkoako hiriburua dagoen eremu horren lurralde pisu handia.

2003ko urtarrilean jarri zen jende aurreko erakusketa tramitean **Donostialdea-Bidasoa Behereko** Lurralde Plan Partzialaren **lehen aurrerakina**, LAGak onartzean hasia, eta haren tramitazioari orain dela gutxi heldu zaio berriro ere urte hauetan guztietan eskumenen mailan zailtasunak egon direlako eta haren edukiari begira irizpide desberdinak daudelako. Horrenbestez, **berriro ere abian da** hura idazteko lana eta espero da LPP horren onarpena laster egitea eta Irungo Plan Nagusiaren berrikuspenarekin **koordinatu** ahal izatea, eta baita Donostia eta Hondarribikoekin ere, horiek ere abian baitira.

Halaz ere, oraingoz bederen, Irungo Plan Nagusiaren berrikuspen prozesuari ekin egin behar izan zaio gure eremu funtzionalaren mailan **lurralde garapen integraturako irizpide nagusiak** behar bezala garaturik egon **gabe**, Euskal Autonomi Erkidegoko Lurralde Gidalerroen dokumentuan eremu honetarako aurreikusitako irizpide orokorrak orokorregiak baitira eta zaharkiturik geratzen hasiak baitira, Gidalerro horiek onartu zirenetik hamar urte baino gehiago igaro direlako.

Kontua da LAGek aurreikusitakoaren arabera, LPPalen **udalaz gaindiko plangintzaren esparru** honetan konpondu behar direla antolamendu orokorragoa duten alderdi batzuk, izaera Sektoriala duten Lurralde Planak, LPS, esate baterako, azpiegituren antolamendurako planak, ibai eta erreka ertzen planak, nekazaritza-basogintza planak eta abar, integratzeko jarraibidek emanez. LPPalen **egitekoa**

LPSalei begira gerta litezkeen **behin-behineko gatazkak konpontzea** izango litzateke neurri batean, batik bat alderdi sektorial bakoitzaren esparruan mugitzen diren ikuspegi zehatzetan oinarrituta eginak plan horiek.

Gure kasu zehatz honetan, **Donostia-Bidasoa Beherea eremuko Lurralde Plan Partzialak**, hura tramitatzen hasia baita berriro ere, lurralde irundarraren antolamenduan eragin handiena duten Plan Sektorialak integratu beharko litzuzke, urte hauetan guztietan **tramitatu eta onartu** direnak, hain zuzen ere, aurreko lurralde esparru hori izan ezean.

Honako hauek dira, besteak beste, Burdinbide Sarearen eta Sare Intermodalaren Plan Sektoriala, zati bat Udalak errekurritua; Ekonomi Jardueretarako Lurzoruaren Lurralde Plan Sektoriala, muga generikoak dituen hirugarren sektoreko erabilerei dagokienean; Kantauri aldeko ibai eta erreka ertzak antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala, 1999ko martxoaren 24az geroztik indarrean dagoena; Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala, hezeguneen zerrendan Txingudiko eremua eta padurak jasotzen dituen; Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala, Nekazaritza-basogintza eta Inguru Naturala antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala eta abar.

Irun dagoen eremu funtzionalerako orain arte Lurralde Plan Sektorialik ez izanak ekarri duen **arazoaren** aurrean, sektoreen inguruan erabaki batzuk hartu behar izan dira, Plan Sektorial desberdinetatik etorriak horiek, eta ondorioz, **bateragarritasun arazo** batzuk sortu dira elkarren artean nahiz udalaren plangintza eta interesei begira. Era berean, arazoren bat izan da plan sektorial horien beren aplikazioarekin zuzenean loturik.

Halaz ere, Irungo Plan Nagusiaren **berrikuspen prozesuaren** inguruko udal erabaki handietarako funtsezkoa da, inolaz ere, etorkizuneko Lurralde Plan Partzialak hartuko dituen erabakien **garrantzia**, bai ezarriko dituen **lurralde garapenerako esparru irizpideengatik**, bai Lurralde Plan Sektorialen aplikazioan gatazkak konpon daitezkeelako.

4.1.2 Txingudiko hiriaren eskualde esparrua

Hondarribia, Irun eta Hendaiako udalerriek hartzen duten lurraldeak **jarraipen komuna** eratzen du oso ongi zehazturiko itsas esparruaren inguruan: Txingudi Badia eta Bidasoa estuarioa, lurralde honetan erriberako ertzak etenik gabe eratzen baitira, elkarren artean loturiko azpiegitura, hornidura, bizileku eta ekoizpen eremuen sistema osaturik.

1998. urtean egitatez onartu zen gertakizun hori, eta instituzioen artean formalizatu zen, hiru udalen artean Mugaz Gaiandiko Lankidetzarako Administrazio arteko hitzarmena sinatu zenean. Hortik sortu zen **Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoa**, eskualdean proiektu berritzaileak bultzatzeko, inbertsio komunak erakartzeko eta hiru udalerrien artean gizarte eta ekonomi garapenerako eredu adosteko.

Partzuergo horren esparruan **proiektu zehatzak** eraman dira aurrera hainbat alorretan, turismo, kultura eta hezkuntza, enplegua eta prestakuntza, komunikabide, kirol, ekonomi garapen, gizarte zerbitzu eta azpiegitura eta zerbitzu publikoen alorretan, hain zuzen ere.

Horrek guztiak balio izan du, inolaz ere, **mugaz gaiandiko lankidetzaren** alorrean aurrera egiteko eta balio izan du eskualdea indartzeko, ehun mila inguruko biztanleriarekin, Euskal Autonomi Erkidego lurraldeen muturraren eta Pirinio Atlantikoen departamentuaren artean hedatzen dena, hain zuzen ere.

Hiri eremu honek duen garrantzia, **“Txingudiko Hiria”** deitzen dioguna, gero eta gehiago oinarritzen da ekonomi mendekotasunaren **elkarrekiko harremanetan**, pixkanaka-pixkanaka integratzen ari den lan merkatuan eta udalerrietako bakoitzak eskualdeari eskaintzen dizkion paper osagarrietan, hauxe da, Irunek duen hirugarren sektore eta ekoizpen gaitasuna hornidura garapen handiarekin, Hondarribiak dituen turismo erakargarritasuna turismoaren alorrean eta lurraldeko aireportua, turismoaren eta aisiaren aldeko apustua Hendaiaren kasuan eta portu instalazioak azken bi udalerririk horietan.

Eskualdearen egitura antolatzeko oinarritzko elementuetako bat, ondorio guztietarako **eurodistrutu** gisa har daitekeena, garraio sareen eskaintza handia da, inolaz ere, horiek osagarri gisa jardun eta indartu egiten baitute lurralde jarraia errotula papera.

Errepide eta burdinbide sare nazional eta autonomiko **ugari daude** eskualdean, beste udalerririk batzuk zerbitzatzeko edo/eta zeharkatzeko dituztenak, eta baita lurraldeko aireportua ere Txingudiko hiriaren erdian kokatua.

4.1.3 Plan estrategikoak eta eskualdearen egitura indartzea

Esparru honetan aipatu beharreko ekimen nagusia da 1993. urtean egin zen **Bidasoako Plan Estrategikoa**. Plan horren bidez ahaleginak egin ziren Irungo ekonomia birbideratzeko mugak zabaltzeko eta aduana zaharrak desagertu ondoko urteetan.

Batik bat **ekonomi** izaera zuen plan estrategiko hark, eta jarrera finko eta erabakigarria hartu zuen eskualde osoko jardueraren zati handi bat, bertako ekonomi oinarri handienetakoa izan zena, arriskuan jartzen zuen egoera aldaketa haren aurrean.

Plan haren helburua erronka hari erantzutea izan zen, Europa mailan banaketa eta komunikabide **jarduera gune** garrantzitsua sendotuz, logistika zerbitzu berriak garatu eta ezarri ahal izateko eta errenta eta enplegua sortzeko bidean industri sektorearen ekarpena handitzeko, **mugaz gaindiko sektore integrazioaren** ikuspegiarekin zeuden enpresen mantenu eta garapena bultzatuz, eta enpresa eta enpresa zerbitzu berriak sortu eta erakarriz.

Era berean, **merkataritza sektorea sendotzea** planteatzen zen, ekonomia suspertzeko oinarriko sektore gisa, orduan zegoen merkataritza horniduraren lehiakortasunaren arrazionalizazio eta hobekuntzaren bidez eta merkataritza bide berriak garatuz.

Plan Estrategiko horri esker bultzaturiko jarduera garrantzitsuenak, eta **lurraldean eragin** handia izan zutenak, zera izan ziren, enpresak kokatzea **ZAIS**aren fase desberdinetan, horrekin loturik enplegu ugari sortuz, eta Garraio, Merkataritza eta Marketing (GMM) Institutuaren sorrera. Prestakuntza arautu eta arautu gabeko ikastaroak eman eta enpresa garapenerako azterketak aurrera eraman ditu eta garraio eta merkataritza enpresei aholkularitza zerbitzua eskaini die institutu horrek.

Beste jarduera garrantzitsu bat, lurraldean eragin handia izan zuena, **merkataritza hornidura** hobetzeko ekintzak abian jartzea izan zen, eta bereziki, udal merkatua berritzea, ekimen publikokoa hura, eta Txingudi Merkataritza Gunea eraikitzea, ekimen pribatuak bultzatua hura, Arasoko eremuan, Katea auzoan, hori guztia aldeztetik egin zen Irungo merkataritza hirigintzaren Azterketan oinarriturik.

Era berean, garrantzi handia izan du **Bidasoa Turismo** bulegoaren sorrerak. Bulego horren bidez eskualdea sustatu da eta Irun, Hondarribia eta Hendaia hiru udalerrien artean elkarlana egin da eta, besteak beste, itsasoko eta lehorreko garraiorako baliabide publiko berriak ezarri dira aipaturiko lurralde horien artean.

Azpiegituren ikuspegitik begiratuta, uren saneamendua egin eta ibilguak garbitu dira Txingudi Badiaren ezker aldean, kolektore batean jaso eta beharreko tratamendua eman zaie Irun eta Hondarribiko hiri hondakinei eta haiekin bateratu daitezkeen industriako hondakinei, balio handieneko natur elementuak: hondartzak eta itsasertza, Jaizkibel, Aiako Harria eta Txingudi Badia, suspertu eta bultzatu dira, eta Hendaia

kirol kaiaren garapena bultzatu eta Hondarribiko kirol kaia eraiki da hondartzaren atzealdean.

Era berean, lan egin da partzuergo Euskomodala sortzeko, **merkantzien zentro multimodalaren** bideragarritasunaren inguruan hainbat azterketa egiteko xedean, eta beharreko azterketak egin dira industri zorua prestatzeko eta industri poligonoak urbanizatu eta garatzeko.

Plan Estrategiko hori aztertzen badugu, kontuan harturik ia hamabost urte igaro direla sinatu zenetik eta **lortutako emaitzak** ikusirik, esan daiteke helburu zehatzen zati handi bat bete dela, nolabait ere mugaz gaindiko jarduera berreskuratu baita logistikan eta garraioan, eta Europa mailan erreferentzia bilakatzea ere lortu da. Era berean, aipatzekoa da, emaitza nabari gisa, industri jarduera indartu dela eta merkataritzaren presentzia garatu dela, toki mailatik eskualde mailara igaroaz.

Ekonomi jardueren **dibertsifikazio** handiagoa edo **iraunkortasun irizpideak** aplikatzea bezalako alderdi batzuk ez ziren jaso Plan hartan, askoz ere gehiago oinarritu baitzen orduan arrisku handiena zuten sektoreetan ekonomi jarduera mantentzeko premian. Hala eta guztiz ere, esan daiteke ardatz gisa balio izan zuela udal ekonomiaren garapenean seguru asko txarrena izan zen momentu hura behar bezala gainditzeko.

Une hauetan jadanik lanean ari dira plangintza estrategikorako ikuspegi berri batean, **IRUN 2020 Plan Estrategikoa**, hain zuzen ere. Plan horren helburua da Irunek ekonomikoki bultzatu behar dituen jarduera desberdinen sendotze lanarekin jarraitzea, eta Plan Nagusiak berrikuste prozesuan jasotzea, planteatzen diren erronka desberdinei erantzuna emanez.

Plan Estrategiko horrek halako eremu estrategiko batzuk ezarri ditu eta berrikuntzaren esparruan funtsezko diren proiektuak hauteman ditu, **hiria suspertuz**, zerbitzuak, merkataritza, aisia eta turismoaren ikuspegitik begiratuta. Era berean, helburua da gune teknologiko bat sortzea bertan **berrikuntza jarduerak** ezarri eta **enpresak sortu** ahal izateko.

Era berean, unibertsitate izaerako goi-mailako hezkuntza eskaintza garatzeko proposamena jaso da plan horretan. Lurraldearen eta Naturaren alorrean, berriz, Planaren Berrikuspenaren planteamenduekin bat datozen **ekonomi jardueretarako** lurrak egokitze irizpideak planteatzen ditu, eta **burdinbide esparrua** berriro antolatzeke estrategia bultzatzen du Irunerako aukera handi gisa erdigune papera indartu ahal izateko.

IRUN 2020 Plan Estrategikoak beste helburu batzuk ere planteatzen ditu, Bidasoako Plan Estrategikoaren lanarekin jarraitzeko asmoz, esate baterako, ibilgailu pribatuen mugitzea ez bestelako sistema alternatiboak bultzatzea, egungo garraio arazoak konpontzeko bide sareak eratzea edo Irunek Donostia-Baiona lurralde esparruan duen zentralitate faktorea sustatzea, eta noski, bi plangintza dokumentuen planteamenduetan bat egin behar dute helburu horiek.

4.1.4 Lurralde izaerako beste esparru batzuk

Azken hamarkadetan halako **gogoeta teoriko** batzuk egin dira hiri sare oso jarriak eratzen duen ongi zehaztutako aglomerazioa identifikatzeari buruz, Donostia ingurutik Baionaraino hedatzen denaz ari gara, hain zuzen ere, baina ideia hori eta berekin daraman multzo ikuspegia ez dira gorpuztu lurralde plangintzarako erabaki zehatzetan.

Donostia–Baiona eurohiri gisa ezagutu zen aglomerazio horrek, guztira 600.000 biztanle inguru izanik, azterketa eta gogoeta haien arabera, eremuko ekonomi eta hirugarren sektoreko jarduera berriak integratzeko estrategia antolatu beharko luke, maila handiagoko lurralde antolamendu esparrua kontuan harturik, esparru, azpiegitura eta hornidura kontuetan elkarren osagarri izateko aukera handiak eskaintzen baititu. Estrategia horrek lagunduko luke agian **Euskadi-Akitania eurolurraldeari** pisu handiagoa ematen.

Lurralde horiek osatzen dituzten udalerrien **aniztasun funtzional** handian dautza arrazoiak, hiriburu administratiboak, industri edo zerbitzu guneak, turismo baliabideetan oinarrituriko udalerrak, landa eremuan gehiago oinarritzen diren udalerrak eta abar. Hala eta guztiz ere, onartu behar da, aniztasun horren gainetik dagoela funtzionamendurako bi **administrazio desberdin** izateak eragiten duen zailtasuna, baina hala ere onartu egin behar da lurralde errealtate eztabaiaezin hori, erraz asko ikus baitaiteke esparru osoaren aireko edozein iruditan.

Irunerako guztiz garrantzitsua da Txingudiko hiriaren hiri multzoa Baiona-Donostia eurohiriaren **erdiko puntu geografikoan** egotea, Euskal Herriko Ipar-ekialdeko ertzean dauden hiri eta lurraldeek osatua, Donostialdea eskualdearen eta Lapurdiko lurralde historikoaren artean. Ikuspegi geografikotik begiratuta, linealki eta hainbat herrigunerekin 60 km-ko kostan zehar, Oria eta Adour ibai arroen artean, hedatzen den mugaz gaindiko esparruko konurbazio baten errotulan egokituko litzateke Irun.

Lurralde Antolamendurako Gidalerroak ulertzeko ikuspegitik, eta neurri batean eurohiriaren ikuspegiarekin bat etorririk, Donostialdea eremu funtzionalaren barneko udalerrak multzoak, mugei eta egiturari begira identifika daitekeen lurraldea osatuko luke

halaber, Iparralderantz zabalduz Baionara iritsi arte, Pirinio Atlantikoen departamentu frantsesean. Horrenbestez, aski garbi dago **hiri korridore** bat eratzen dela, Biarritz-Angelu-Baiona (BAB) eta Donostia funtsezko hirigune izanik.

Hiri-aglomerazio horren hegoaldeko zatiak **industri osagai** handia du benetan, aldiz Ipar Euskal Herriko zatiak askoz ere gehiago begiratzen dio **turismo egoitza** jarduerari, baina horrek ez du esan nahi bien artean lurralde jarraipenik ez dagoenik eta ekonomi jarduera ugarien eremu bat ez dagoenik. Jarduera horien guztien garapena eta integrazioa sakondu egin beharko litzateke ahalmen handiagoko eta erakartzeko gaitasun handiagoko lurralde esparru gisa sendotu ahal izateko.

Nolanahi ere, aipatzekoa da, hiri jarraipen horretan guztian, **hirugarren sektore eta zerbitzuetarako joera** dela nagusi korridoreko itsas aldean, turismo izaerako espezializazioa nabarmena da, inolaz ere, eta oso ongi egituratutako euskarria du bai burdinbidearen ikuspegitik begiratuta: sare nazionalak, sare autonomikoak eta abiadura handiko etorkizuneko sarea, bai errepidetik, Autopista/Autobideekin, Bilbo, Gasteiz, Irunea eta Bordelerekiko zuzenean loturik, lurraldeko bi aireportuekin osatua, Hondarribia-Donostia, Hondarribian bata, eta Biarritz-Angelu-Baiona (BAB), Angelun bestea.

Nolanahi ere, eta administrazio egitura berriak osatzea komeni bada ere, **elkarlanaren bidez gauzatu** beharko lirateke **konpontzeko dauden** kontu asko, esate baterako, garraio sistema lurralde zabal horren mailan, abiadura handiko trenaren azken trazatua, egungo aireportu azpiegituren osagarritasuna eta arrazionalizazioa, logistika instalazioen koordinaketa, osasun, unibertsitate, kultur, turismo horniduren indartzea, elkarlana arrantza kontua batera ustiatzeko, hirigintza elkarren artean ulertzea eta abar.

Iraunkortasunaren ikuspegitik begiratuta ere badira alderdi batzuk kontuan hartu beharko liratekeenak, hiri esparru zabalagoa kontuan hartzeak ekar ditzakeen ingurumen izaerako eta lurraldearen garapen sozioekonomikoaren eraginak, esate baterako, eta ildo horretatik oso garrantzitsua da Txingudiko hiriak (Hendaia-Irun-Hondarribia) joka dezakeen papera garapenerako baldintzak eta jarraibideak zehazterakoan.

Pasaia-Irun korridorean azpiegitura berrien sorrerarekin loturiko ekimen gehigarria eta aurreikusita dagoen Pasaia Badiaren suspertzea aipatu behar dira azkenik. Eszenatoki aldaketa horretan **Jaizkibia** elkarte publiko kudeatzailearen barnean sartu dira Hondarribia eta Irun eta, haren esparruan, Jardueren Plan Integrala garatzen ari

da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurraldea Antolatu eta Sustatzeko Saila, jarduera horiek integratzeko dauden ekimenen lehen azterketa harturik abiapuntu gisa.

4.2 LURRALDE ESPARRUAN SARTZEKO PLANTEAMENDU OROKORRA

4.2.1 Irunek egin duen ahalegina lurraldean integraturiko hiri gisa duen papera indartzeko

Indarrean dagoen Plan Nagusiak jadanik jaso zuen Irungo udalerrria **maila handiagoan** sartzeko beharra, Txingudiko hirian duen paperak zehaztutakoa, hain zuzen ere, kontuan harturik Bidasoa Beherea eskualde mailako hiri multzoa dela, Txingudi, Hendaia, Irun eta Hondarribia biltzen dituena. Era berean, aintzat hartzen zen Donostia-Baiona korridorean daukan kokalekua, eremu horretan erdialdean baitago eta lurraldeen arteko gontza baita Irun, pisu espezifiko handiarekin biztanleria, hornidura eta jardueraren ikuspegietatik begiratuta.

Modu horretan ulertze horrek berekin zekarren hiri multzo horren barnean **Irunez duen funtzio espezifiko**a onartu beharra, hasiera batean **industri jarduerak eta mugaz gaindiko jarduerak** osatzen zuen joerarekin, Hendaian eta Hondarribian nagusi diren bizileku eta turismo jardueren aurrean.

Halaz ere, argi eta garbi ikusten hasi zen pixkanaka-pixkanaka **jarduerak dibertsifikatzearen** aldeko apustua, **hirugarren sektorea**, merkataritza, aisia eta zerbitzuak bezalako jardueren alde, horiek garrantzi handia hartu baitute azken urte hauetan. **Kalitatezko egoitza erabilera kolektiboak** kokatzeko aukera ere kontuan hartu da oso inguru zaindu eta ekonomikoki lehiakorretan, horrelakoak ere garatu baitira.

Egituraren ikuspegitik begiratuta, planteatzen zen, esparru zabal horretan Irunez duen erakargarritasuna handitu behar bazen, bertako **hiri eszenatokia hobetu** behar zela ezinbestean, hiri gisa jadanik zuen pisu espezifiko aprobetxatuz eta korridoreko gainerako hiri eremuekiko **lehiakortasun espezifiko**a bilatuz. Horregatik, egin diren urbanizazio jarduera ugariak, alde batetik, eta zaharkiturik zeuden eremuak eraberritzeko lanak, bestetik, funtsezkoak izan dira eta dira udalerrri honetarako funtzioak dibertsifikatzeko orduan.

Erdi mailako egoitza hiri baten aukera, ondo hornitutako hiria hornidura zerbitzuen eta hirugarren sektoreko ekipamenduen ikuspegitik begiratuta, Txingudi Badiaren turismo baliabide handien eta lurraldeko ingurumen baliabideen ondoan kokatua,

kontuan izanik gainera oso gertu daudela herrialde mailako bi hiriburu eta horiekiko lotura ugari dituela, benetan balio handiko aktibo gisa jasotzen du, oro har, Plan Nagusiak, eta horrenbestez, pentsa dezakegu **kalitatezko etorkizuna** izango duela hazkundeari eta ikuspegi sozioekonomikoei dagokienean.

Horregatik, Irunek korridoreko gontz gisa eta haren erdialdeko funtsezko leku gisa duen papera indartzeko edozein esku hartzek beti izango duen eraginaz gainera, Plan Nagusiarentzako garrantzi berezia dute **ingurumen kalitatea hobetzeko** funtzioak bultzatzeko bideratzen diren jarduerak, **ibai fatxadaren** eraberritze integrala, esate baterako. 20 esku hartze desberdinek osaturiko multzoa da, horietako asko jadanik gauzatuak daude eta beste batzuk egiten ari dira, eta kontuan hartu behar dira gainera udal arteko eta hirirako irisgarritasun arazoak konpontzeko jarduerak.

Etorkizuneko Iparralde hiribideari eta haren inguruari indar eta protagonismo handiagoa ematea, huraxe baita udalerrian sartzeko ateetako bat, Behobia auzoa eta haren bidez hirian sartzeko bideak hobetzea, Hondarribirako sarbideak hobetzea, horiek ere ekarpen handia dira Irunen **egitura integraziorako ahalegina** bideratzeko, eta gainera, horretatik etekina aterako dute Hendaia eta Hondarribiak ere.

Aurreko Plan Nagusian jadanik planteaturik zeuden proiektu horiek guztiak berriro hartu eta **Berrikuspenean sartu dira**, auzoen arteko trafikoa eta udalerritik kanpoko hiri arteko **trafikoa bideratzeko proposamen berriekin** batera. Era berean, apustu handia egin da **burdinbide esparrua eraberritzeko**, hiriaren zentralitate alderdiak hobetzeaz gainera, garraio publikoan komunikabideen ikusmolde berria bultzatzeko.

Esku hartze horiekin guztiekin, pixkanaka-pixkanaka, **lurralde integrazio handiagoa** lortuko da eta **hiri gisa Irunek** egiten duen eskaintzaren **kalitatearen mailak gora** egingo du, inolaz ere, hiri multzo jarraia erdigune eta bihurtune gisa duen papera indartuz, gero eta garbiagoa baita paper hori korridorea, eurohiria edo, besterik gabe, eremu funtzionalen multzoa dei diezaiokegun eremu horretan.

4.2.3 Beste udalerrri batzuekin bateragarri izateko proposamenak

Lurralde Antolamendurako Gidalerroek, LAG, proposaturiko tresnen artean, udalerrri multzoetarako **plangintza integratuak** egiteko beharra planteatzen zen, alderdi komunak zeudenean edo lurraldea partekatu behar zenean, **Irun eta Hondarribiko** plangintza bateragarri izateko **obligazioa** zegoen, zehatz adierazteko.

LAGen arabera, azterketa, proposamen eta kudeaketa esparruek udalarena ez den esparru txikia gainditzeko duten kasuetan, **arazoak** daudenean, plangintza bateratu

behar da ezinbestean, gatazkak konpontzeko eta inplikaturiko udalerrietan eragina duten aukerak gorpuzteko **lurralde maila egokia** bilatuz.

Gainera, udalen arteko bateragarritasun hori zehaztua dago Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean, **Bateragarritze Planaren** irudi berria garatu baita. Haren 63. artikulua adierazten du hainbat udal barrutitako mugako eremuetan hiri garapenaren ezaugarriak eta beharrak ukituriko plangintza orokorren **egitura antolamendua koordinatzeko** eskatzen dutenean, eta hura egingo duen lurralde antolamendurako tresnarik ez dagoen bitartean, Lurralde Plan Partziala, esate baterako, Bateragarritze Plana egiteko erabakia hartu ahal izango dutela dagozkien udalek.

Geroago, **105/2008 Premiako Neurrien Dekretuak**, 2/2006 Legea garatzeko, bere 14. artikuluan adierazten zuen bateragarritze lan hori antolamendu xehearekin loturik dagoenean, eta gutxienez udalerrietako batek alde aurretik eskatu ondoren, **antolamendu xehearen bateragarritze plana** egin, tramitatu eta onartu ahal izango dela Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 63. eta 92. artikuluek zehaztutako prozedurarekin. Horrez gainera alde aurreko akordio bat badago, Hondarribiko plangintzan jaso beharreko zehaztapenak, esate baterako, elkarrekin eginak, nabarmen erraztuko da prozedura hori.

Interesgarria da **bateragarritze prozesu** hori bideratzeko **irizpide** garrantzitsuenak aipatzea; batik bat Gidalerroetan proposaturiko udalaz gaindiko lurralde ereduaren aplikazioa bideragarri egitea da horien oinarria. Irun eta Hondarribiaren kasuan aspalditik ari gara lanean hirigintza plangintzaren zehaztapenak bateragarri egiteko, modu integratuan jaso daitezten eta errealitate funtzional eta morfologikoarekin bat etor daitezten, bi udalerrietako lurzoruaren erabileretan osagarritasuna lortu ahal izateko.

Gidalerroen dokumentuan bertan aztertu dira, bereziki aztertu ere, Irun eta Hondarribiak osaturiko hiru eremuaren ezaugarri nagusiak, eta adierazi da, mendekotasun eta osagarritasun harreman ekonomikoen muntak agerian uzten duela bi hiri horien hirigintza integrazioaren eta integrazio funtzionalaren errealitatea. Hamar urte geroago integrazio hori sendotu egin da intentsitatean eta proiektuen koordinazioan, udalen arteko bateragarritzea lortzeko lanaren adibide bilakatuz.

Premisa horietan oinarriturik, eta Udalak gaur egun indarrean dagoen Irungo Plan Nagusia onartzeko erabakia hartu ondoren, sinatu zen **Irun eta Hondarribiko** udalerrien arteko **Protokoloa**, eta hartan finkatu ziren plangintzak bateratzeko eta ekintzak koordinatzeko oinarriak.

Bateragarri egin behar ziren alderdien artean sartu ziren hasieran Jaizubiako plangintzaren garapen integratua, benetan aurrera eraman dena, eta oraindik onartu gabe dauden beste alderdi batzuk, esate baterako, hirigintza garapena eta Irungo kirol ekipamenduen garapena **Zubietako** eremuan, Hondarribiarekin partekaturiko lurretan.

Era berean, arestian aipaturiko Protokolo horren gai izan da bi udalerrien arteko **bide loturen hobekuntza**, proposamena Txingudi Badiako Plan Bereziaren aurreikuspenekin loturik beti ere. Protokolo hori zabalik geratu da egoitza, merkataritza, industri eta zerbitzu komunak kudeaketa jarduerari dagokienean elkarlanerako beste formula batzuetara iristeko.

Bateragarritzeko helburu berri horien artean egongo litzateke saihasbidearekiko loturaren aldaketa Eskualdeko Ospitaletik hurbil, eta horien artean egon beharko du Zabaleta eremuan ekonomi jardueretarako sektore berriak batera garatzeko proposamenak.

Era berean, beharrezkoa izango da **Lezo eta Oiartzungo** udalerriekin bateragarritze prozesurik behar den aztertzea udalerrian mendebaldean dagoen eremuan planteaturiko esparru berriekin lotutako alderdiren bati begira, edo dagokion kalifikazio xehea homogeneizatzeko, alde aurreko akordioekin aski izango ote den ikusi beharko da.

Azkenik, eta **plangintza aukerak bateragarritzeari** dagokionean, dagozkion esparru akordioak hartu beharko dira Hendaia eta Urruñarekin, horrekin osaturik elkarbizitze egokiaren ildoak eta elkarren interesekoak diren alderdiak indartuz; hori guztia legezko obligazioetatik edo instituzio izaerako gomendio hutsetatik harantzago.

Hori bereziki beharrezkoa da **Txingudi Badiako esparru partekatuen, ibai esparru komunaren** inguruko azpiegitura eta irisgarritasunaren, **bidegorrien** jarraipena, esate baterako, **Bidasoako fatxaden** tratamenduaren, Behobia auzoaren eta Pausuko eremuaren arteko harremanaren, **ekipamenduen** alorrean osagarri izateko beharrezkoen eta Irundik edo Hendaia eta Urruñatik planteatutako beste gai batzuen inguruko erabakiak hartu behar direnean.

5. kapitulua

HIRI EGITURA ETA

ZORUAREN KUDEAKETA

AURKIBIDEA: 5. KAPITULUA – HIRI EGITURA ETA ZOR. KUDEAKETA

| | |
|---|----------|
| 5.- HIRI EGITURA ETA ZORUAREN KUDEAKETA | 1 |
| 5.1- HIRI EGITURA: PROPOSAMEN NAGUSIAK | 1 |
| 5.1.1 Abiapuntuak: hiri eta lurralde egitura | 1 |
| 5.1.2 1999ko HAPNaren arabera helburuak eta hiri egitura | 2 |
| 5.1.3 Plan Nagusiaren Berrikuspenaren helburu eta proposamen nagusiak | 4 |
| 5.1.4 Planaren proposamena kopuru orokorretan | 8 |
| 5.2.- ZORUAREN KUDEAKETA | 12 |
| 5.2.1 Zoruaren kudeaketaren oinarriak; lege-esparrua. | 12 |
| 5.2.2 Hirigintzaren oinarri nagusiak. | 14 |
| 5.2.3 Hiri zoruaren araudia. | 15 |
| 5.2.4 Zoru urbanizagarriaren araudia. | 16 |
| 5.2.5 Zoru urbanizaezinaren araudia. | 17 |
| 5.2.6 Sistema orokorren hornidura sarea | 18 |
| 5.2.7 Plangintzaren estandarrak. | 19 |
| 5.2.8 Eraikigarritasuna. | 21 |
| 5.2.9 Antolamendu xehea. | 23 |
| 5.2.10 Sistema lokalen hornidura sarea. | 24 |
| 5.2.11 Plangintza tresnak. | 25 |
| 5.3- ESPARRUEN FITXAK | 27 |
| 5.3.1 Esparruen Fitxen helburuak eta edukia | 27 |
| 5.3.2 Esparruen Fitxen egitura eta antolakuntza | 29 |
| 5.3.3. Planaren Berrikuspenaren arabera esparru berrien zerrenda | 30 |

5.- HIRI EGITURA ETA ZORUAREN KUDEAKETA

5.1- HIRI EGITURA ETA ZORUAREN KUDEAKETA

5.1.1 Abiapuntuak: hiri eta lurralde egitura

Elkarrekin loturik azaltzen zaizkigun **hainbat ikuspegi eta azterketa mailatatik** bideratu beharra dago **hiriaren eta** dagokion **udalerrriaren analisia**, lurraldeko zati bakoitzeko erabilerak eta intentsitateak arautuko dituen hiri plangintza global bat proposatu edo, Irungo kasuan gertatzen den bezala, berrikusi nahi badugu.

Ezinbestekoa da horretarako osagai sozioekonomikoen **gaien arabeko analisi zehatza** bideratzea, aintzat harturik aldi berean ingurune fisikoa, lurraldea, komunikabide-azpiegiturak, egoitza eta etxebizitza erabilerak, ekoizpen-jarduerak, hornidurak eta espazio libreak eta, horrelakorik bada, ondarea. Planaren dokumentuaren **kapitulu berezia** osatzen duten horrenbestez ikuspegi hauek eta haien arabeko proposamenak.

Alabaina, hiriaren arazoak eta hiriaren eta bere ingurunearen arteko harremanak modu integratuan konpondu eta bideratu ahal izateko, maila horietako bakoitzean **hautemaniko premia eta defiziten aurreko soluzio zehatzak** garatzen edo proposatzen diren aldi berean, ezinbestekoa da halaber elementu desberdinak nola zehazten diren eta elementu horien eta lurraldean nolako loturak gauzatzen diren aztertzea, hau da, **hiri edo lurralde egitura** bere horretan hartzea, eta **ikuspegi global** batez jardun beharra dago horretarako.

Irudi dagokionez, **hiri egitura**, hau da, dagoeneko **eraikirik eta**, oraingoz urbanizaturik edo gauzaturik ez dagoen arren, **planifikaturik dagoen hiriaren** egitura zehaztasun **maila handian definitua** du 1999ko HAPNak, eta egun hein handi batean sendoturik dago gainera.

Plan horren berrikuste lanari ekin diogun honetan, inoiz ez da egitura aldatzeko xedea aintzat hartu, dituzkeen muga eta arazo guztiengatik ere, baizik eta haren arabeko **disfuntzioak eta desegokierak gainditzin** saiatu gara, hiriaren ingurune bizi-kalitatearen maila goratzearren.

Egitura lurralde mailan aintzat hartzen badugu, hau da, kontuan hartzen baditu era berean udalerriko eremu guztiak eta inguruko eskualde eta lurralde-errealitateak, guztiz nabarmentzekoak dira Irungo kasuan, aldameneko udalekiko harremanetan duen

garrantzi berezia eta bere udalerriko ingurune fisikoaren **ingurumen-balioa**. Oso **sendoa** da, horrenbestez, besteen aldean ere, **lurraldean ageri eta betetzen duen lekua**. Halarik ere, hirigune guztien garapenak etenik ezagutzen ez duenez, ongi kontuan hartuko ditu betiere Plan Nagusiaren zeinahi berrikustek proiektaturiko **hiriaren mugak berriro zehaztu beharrak** eta ingurunearekiko interakzioek sorraraziko dituzten arazoak.

Muga-alde eta hiria zabal litekeen eremu hauetan zabal dezake argiago Planaren berrikuste batek bere eragina, eremu horien aldaketa edo urbanizazioa zein neurritan gertatuko den zehaztuz, alde horietako **erabilerak eta intentsitateak graduazio egoki batez neurtuz**, eta hiri zoruaren edo zoru urbanizagarriaren mugan dagoen ingurune fisikoa edo lanada eremua behar bezala zainduz, lurralde orotan desiragarria den **erabilera-orekari** eutsi ahal izateko. Hau dugu, inolaz ere, Plan Nagusiaren dokumentu berriak ekin beharreko erabaki-eremuetako bat.

5.1.2 1999ko HAPNaren arabera helburuak eta hiri egitura

1999ko plangintza orokorra, orain berrikusten ari garena, hirigintzan 1965eko Plan zaharraren arabera egin ziren oker eta desmasien **bideratze** prozesu ausart batez abiarazi zen. Izan ere, egiazko hiri plangintzarik ez zegoela-eta, inolako artikulaziorik gabeko eremu-banaketa baten helburu soiltzat hartu zen aurreko urte haietan lurraldea.

Zorionez, **bidea eragotzi zion** 1999ko Planak aurreko egoeraren arabera hiri garapenari eraikuntza gauzatzen hasia ez zen eremuetan, eta dentsitateak apalaraziz eta hirigintza-tipologiak aldaraziz batean, **beste garapen-eredu bat** negoziarazi zuen Udaletik, horretarako aukera baldin bazen oraindik.

Era berean, lehentasun gisa proposatu zuen 1999ko Planak nagusiki etxebizitzak edo industria-lantegiak zeuden aldeak **ekipamenduz eta espazio librez hornitzea**. Horrenbestez egituratu ahal izango zen auzo berrien eta aurreko hiriaren artean lotura eraginkor bat zehaztuko zuen **hiri-proiektua**.

1999ko Plan Nagusiaren erredakzio-prozesuaren garaian, urbanizatu gabe zeuden eremuetako **plan eta zehaztapenak aldatu ahal izan ziren**, eta eredu iraunkorragoa eta atseginagoa bideratu ahal izan zen horrenbestez une hartan eraikitzen hasi ziren **auzo berrietan**. Jarduera bereziak bideratu ziren, halaber, **hiri barneko eremu batzuetan**, bertan itxirik, zabaltzeko aukera handirik eta sarbide egokirik gabe, gelditu ziren industriei aukera berriak eskaintzearen.

Kontuan harturik Irunek sektore horretan duen egokiera pribilegiatua eta mugen erregimenean izaniko aldaketak baliatuz, kokaleku egokiagoak bilatu ziren **garraioen arloari** begira. Aldi berean, indartu eta aniztu egin **merkataritza arloa**, eta beste aukera batzuk eman zitzaizkien zerbitzuen sektoreko beste erabilera batzuei.

1999an onartu zen Plan Nagusiaren edukiaren gaia eta helburua izan zen hura guztia. **Harrera egin zien**, orobat, erredakzio garaian bideratu ziren aldaketei eta orduko hartan eginiko aurreikuspen asko **guztiz gauzatu dira** onarpenaren ondoko urteetan, aplikatu zenetik hamar urte igaro ez diren arren.

Honi dagokionez, argi eta garbi azpimarratu beharra dago 1999ko Plan Nagusia, berrikuste-plan honen aurreko plana alegia, eraginkortasunaren erdua izan dela molde horretan plangintza-tresnen artean, guztiz baieztar baitaiteke erredaktatu zirenean bideratzen zail ziruditen jardueretako batzuk, **hiri egitura aberastu eta sendotu** duten jarduerak hain zuzen ere, bukatuxe daudela egun, Udalaren jardunari, eta hari bezala, eta beste administrazio batzuen lanari eta ekimen pribatuari eskerrak.

Berregituratze honen **ageriko adibideak** dira Plaiaundiko paduraren berreskuratzea (Gipuzkoa eta Euskadiko hezegune baliotsuenetako bat da), Dunboa eta Artiako kanalen biziberritzea, edo Letxunborroko eta Euskal Herriko hiribide berrien zabaltzea.

Maila berean nabarmendu beharko liriateke **garrantzi handia duten beste jarduera batzuk**, hala nola ZAISA-guneen eraikuntza hiru fasetan, FICOBA erakustazokaren eraikuntza Kostorbeko kamioi-zabalgunearen ordea harturik, Palmera-Montero edo/eta Fosforera lantegien eremuen eraldatze sakona, Mendibil Parke Komertzialaren eraikuntza lehengo merkatuan eta Arasoko merkataritza-gunean, hirian hainbat parke berri atontzea, hala nola Alai-Txoko, Gain-gainean edo Oñako Baroiaren etxekoa, bai eta beste hornidura berri batzuk ere, hala nola Azkenportuko igerileku berriak eta hiriko beste ekipamendu batzuk.

Ahalegin horretan paper oso garrantzitsua jokatu du **Bidasoaren ardatz** guztiari, **Irungo ibai-aurrealde berriari**, eman nahi izan zaion balio berriak, hartan egokitu eta egokitzen ari baitira ibaiaren ertza modu erabakigarrian itxuraldatzen ari diren ingurumen, aisia eta hornikuntza mailako jarduerak. Irun Hendaia eta Ipar Euskal Herrirantz zabalduko zuten jarduera-esparru batzuk aurreikusi zituen Plan Nagusiak eta aintzat hartu zuen, besteak beste, Iparraldeko Hiribidearen eraberritzea. Izan ere, oinezkoentzako ibilbide garrantzitsu batez hornituko da hirirako sarbide zahar hau.

Agerian uzten dute jarduera hauek 1999ko Plan Nagusiak aintzat hartu zituen helburu nagusietako asko hein handian gauzatuak direla. Gauzatzeke daude beste batzuk, baina bidean edo haiei betikoz ekiteko puntuan, eta ahalegin honi esker **bidean jarri ahal izan da** onera ekarritako hiri honen **egitura-eredua**.

5.1.3 Plan Nagusiaren Berrikustearen helburu eta proposamen nagusiak

Igaro den epea oraingoz labur xamarra dela kontuan harturik, argi eta garbi esan dezagun **1999ko Planaren helburuetako batzuk** ez direla epe horretan guztiz gauzatu ahal izan, hala nola **San Joan Plazaren** eraberritzea, merkatuan **babeseko etxebizitza** aski jartzea, **San Migel-Anakako** jarduerak, **ibai-aurrealdearen** birmoldatzea –jarduera asko gauzatu den arren–, **Iparraldeko Hiribidearen** ingurua, eta abar.

Jarduera zail eta konplexuak ziren horiek guztiak; egoera bereziak baldintzatzen zuen jarduera batzuetan, San Joan Plazaren eraberritzearen kasuan bezala, eta hainbat interbentzio biltzen ziren beste batzuetan, Bidasoa ibaiaren aurrealdearen kasuan bezala, eta **epe luzeagoa** behar zuten inolaz ere gauzatuko baziren. Izan ere, tramitazio-bidean edo jardunean daude egun jarduera horietako gehienak eta, logikoa denez, Plan berrian egin zaie harrera, hasieran aurreikusiriko **egitura-eredua** guztiz **baieztatuz** horrenbestez.

Beste aspektu batzuk, ordea, orain berrikusten ari garen plangintzaren bitartean hasi ziren aintzat hartzen eta, duten garrantzi handiagatik, egiazko erronka bilakatu dira Plana berriaren begietan, haren **helburu nagusi** bihurtzeraino. Plan Nagusiak erabaki duen neurrien oinarrian dauden ardatz nagusi horiek lotura zuzena dute, hein handian, **hiriaren oinarrizko egituraren sendotzearekin**.

Halatan, ekipamendu-estandar nabarmen batez, gizarte eta hornikuntza mailatan hirialdeen integrazio ezak zekartzan arazoak neurria handian bideratu eta gainditu diren arren, hirigintza eta lurraldearen ikuspegitik beti bat dira batez ere egitura mailakoak diren arazo batzuek. Horrexegatik, hain zuzen ere, ezinbestekoa da **hiriaren egituraren jarduten jarraitzea** aintzat hartu diren **helburuak iritsiko baditugu**.

Zentzu honetan, **bideen artikulazioa** da irtenbide baten premia duen arazo nagusia, **lehen funtsezko helburua** izateraino. Helburu horren arabera, bide-ardatz zati batzuk osatu behar dira hiri barneko sarean, argi eta garbi bereizirik bide banatzaileen sarea eta tokiko bideen sarea. Horrenbestez erdietsiko da trafikoen hierarkizazio egoki bat,

komunikazioak arinagoak eta arrazionalagoak izango diren hiri egitura-eredua plazaratuko duena.

Egungo sareko elementu batzuen diseinu berri bat eskatzen du komunikazioak hobetzeko xedea duen lehen helburu honek. Horien artean, beharrezkoa da N-1eko **Iparraldeko saihebidia** aintzat hartzea, eta hainbat aldaketa proposatu dira Osinbiribilerainoko bide-tarteetan aurkezturiko aurreproiektuen aurrean. Proposatu ere egin dugu Artia eta Behobia artean galtzadaren bikoizte-lanak gauzatzea, eta Behobiako auzoan, jakinik konponbideek nolako zailtasun teknikoak dakartzaten, igarobidea arrazionaltzea.

Baina beharrezkoa da, era berea, Hegoaldeko eraztun banatzailea ixtea. Halatan, hainbat alternatiba eman zaizkio Berrikustearen dokumentuan **Hegoaldeko Erronda** delakoari. **Ingurabide** moduko hiri-soluzioa izango da, eta hartara bideratu ahal izango dira egun Colon Ibilbidea eta erdialde guztia igarotzen dituzten trafikoak.

Erronda honetaz gainera, kontuan hartzekoak dira, halaber, Berrikustearen dokumentuak **N-1eko Hegoaldeko Saihebideari** begira proposaturiko soluzioak. Saihebidia honek Nafarroako errepidearekin lotu behar du egungo N-1 delakoa Kateko bilgunean, eta Hegoaldeko Errondarako alternatiba bakoitzarekin lotzen eta osatzen dira soluzio hauetarako alternatibak.

Aintzat harturik eraikitako hiri-multzoa eta hazkunderako aurreikuspenak, bai eta hiriarteko eta pausuko trafikoen hazkunde gero eta handiagoa, zera proposatzen du Plan Nagusia Berrikusteko dokumentuak, **perimetroko eta auzoen arteko trafikoak** Errondak hartzea, hirian barne eraztun bat eratuko duen aldetik.

Bestalde, **hiriko kanpo trafikoa** deskarga lezake Hegoaldeko Saihebidia eta **A-8 autopistatik** Irun aldera zuzenago joko lukeen **sarbide berri bat** eginez osa liteke planteamendu hori (zoru-erreserba aurreikusi da horretarako). Soluzioak ere eskaintzen ditu berrikustearen dokumentuak Hegoaldeko auzoen **artikulazioari** begira, autopistako sarbide berriaren banaketa orekatua hiri-garapenetan oinarrituz eta Behobiarako komunikabide berri bat, Iparraldeko saihebidiearen azkeneko tartean trafikoa murrizaraziko duena, sortzeko asmoz.

Bide-sarearen hobekuntza globalarekin lotua betiere, Plan berriaren **bigarren helburu handia** da burdinbide-aldeak eragiten duen **etena gainditzea**, Geltokiaren eremuan hiri-erdialde berri bat sorraraziz eta trenbideen arrastoa murriztuz eta gutxienez ekarritz. Horretarako, haien artetik **igarobide berriak** sortzea proposatzen dugu: kale berriak izango dira eta hiriaren mendebaldea hobekiago integratu eta lotu ahal izango

da erdialdearekin. Horrez gainera, aurre egin ahal izango zaio egun burdinbideek eragiten duten hesi-efektu ikaragarriari, Colon Ibilbidea – Hondarribia kalea ardatzeko pausuak baizik ez baitu egun erdialdean eten hori gainditzen.

Era berean, **burdinbide-sareari** berari begira oraingo honetan, hainbat jarduera hartu ditugu burutan haren arrazionalizazioari begira. Neurri horiek ezin hartu izan ziren aintzat aurreko plangintzan, ADIF enpresa, eremu horien erakunde kudeatzailea, alde horretako eraberritze eta interbentziorako aukerak zehazten hasi bitartean ez baitzen horrelakorik egiterik. **Burdinbide-geltoki berri bat** eraikitzeke aukera hartu da aintzat, Colon Ibilbideko zubiraino hiri-espazio handi bat libre utzirik. Zabalik geratuko litzateke, horrenbestez, gune horretan egoitza, zerbitzu eta hornikuntzarako eraikinak egiteko aukera.

Bide beretik, **Euskotren** burdinbidearen trazatua aldatzea ere planteatu dugu, zentzu batean 1999ko Planak iradokirikoari segida emanaz: Renferen trenbide-sarearen ondoan egokituko litzateke. Hiriaren erdialdean dagoen arren, “topoaren” egungo azpiegituraren leku-aldatzearen baitan dago egun **Pio XII Zabaldiko** aldearen eraberritzea, guztiz behartzen baitu burdinbide horren igarobideak Irungo hiri-sarearen egitura.

Gauzatzeaz dagoen beste aspektu garrantzitsu baten eskutik datorkigu **hirugarren funtsezko helburua: ekonomia-jardueretarako lur berrien atontzea**. 1999ko Planak aurreikusitako zituenak erabili eta gero, inolaz ere bilatu beharra dago industria-zoruaren eskariari egoki eta modu iraunkorrean erantzuteko modua. Guztiz baldintzatua dago arlo honetako soluzioa, horretarako **oso eremu egoki gutxi** daudelako. Izan ere, zabalak izan ohi dira erabilera horien arabera behar izaten diren eremuak eta, errepide nagusietatik sarbide egokiz hornitu beharrak izateaz gainera, bateragarriak izan behar dute erabilera horiek ingurumen-iraunkortasunaren araberrako eskakizunekin.

Plan Berriaren proposamenek bereziki azpimarratu dute udalerrriaren mendebaldeko lurren **okupazioa osatu beharra, errentagarritasun handiagoko ekoizpen-erabilerak** bultzatuz –parke teknologiko edo enpresa-parkeen moduko ekimenak, oraindik ere libre dauden eremu maldatsuetan–, eta erabilera-mota horiek **Olaberria-Katea korridorean** egun okupaturik eta alde batean hondaturik dauden eremuetan egokitzeke komenentziari buruzko eztabaida plazaratuz. Proposamen horien guztien artean, ordea, 1999ko Plan Nagusian aintzat hartu ahal izan zena baino hedadura eraikigarri askoz ere txikiagoa lortu da, une hartan dezente handiagoa baitzen okupaturik gabeko lurrek erabiliak izateko eskaintzen zuten aukera.

Laugarren funtsezko helburua da **babeseko etxebizitzak** eraikitzeke zoru gehiago atontzea eta prestatzea, arrazoi beteko eskaera bati erantzun eta, nolana ere, Lege

berriak xedaturiko gutxienekoak bete ahal izateko. Egoitza-erabilerarako eta, aldi berean, haien inguruko espazioen eta sarbideen urbanizaziorako eta abarretarako lur libre egokiak eskuratzeko zailtasunak begien bistakoak diren arren, **gune berri batzuk** proposatu ditugu Plan berriaren garapenaren bitartean babeseko etxebizitzaren arloan dauden eskari mota desberdinei erantzun ahal izateko.

Aurrekoa bezain garrantzitsua da, halaber, **Plan Nagusi berriaren bosgarren helburua: hornidurak osatu beharra**, hain zuzen ere. Osatu behar dira hiriko biztanle guztien neurrietara ekarriz eta **espazio librean** erreserbak **zabalduz**. Sortuko dira, halatan, parke berriak hiriko periferian eta handiagotu egingo dira egungo batzuk. Horrez gainera, molde desberdinetako espazio libreak atonduko dira eraikuntzari begira, Irungo auzoetan eta hirialdeetan erabili ahal izan daitezten.

Seigarren helburua da ingurumenaren antolamendua harmonizatzeko borondate irmoa, hiria bere lurraldean egokiro txertatzeko, gune babestuak eta babesgarriak egitura jarrai batean integratuz, eta gainerako landa-eremu menditsua, Aiako Harriraino, eta Bidasoako eta haren adarretako ertz eta erriberetako espazioak hiriguneari egokiro batuz.

Oro har, 1999ko Plan Nagusiak eta haren ondoko garapenak eta exekuzioak udalerriko hiri egituraren bideratzeko modurik izan ez zituzten **hutsuneak** sorrarazitako **arazoak** dira guztiak. Orain, berrikuste prozesu berri honetan, aurrez eginiko **eztabaida eta gogoetetatik** abiatzeko aukera izan dugu, eta arazo horiei guztiei irizpide-aniztasun garrantzitsu bati harrera egin dioten teknika eta kudeaketa-ikuspegi askotarikoetatik heltzeko modua dugu horrenbestez.

Balitzko soluzioei begira jarri ondoan, eginiko aukeren aldekoak eta kontrakoak haztatu ahal izango ditugu. Zentzu honetan, Planaren berrikuste prozesuak berak lagundu beharko du **erabaki egokienak mamitzen** eta **hartzen**. Aukera handia dugu honako hau, **eginiko lanetik abiaturik** egin baitezakegu **aurrera**, irizpideak eta erabakiak batuz. Horrenbestez txertatu ahal izango ditugu gure ahaleginean dagoeneko jardunean diren proiektuak, haietako batzuk beste ikuspegi batetik sortuak diratekeen arren, hiria hobetzea baita guztien helburu nagusia.

Plan Nagusia berrikusia **helburu hauei** begira **erantzun egokia** emateko eta **soluzio praktikoak** bideratzeko gauza bada, inolaz ere bete ahal izango da hau bezalako udal antolamendurako dokumentu baten egiteko edo helburu nagusia. Helburu horiek bost multzo handitan banatuak dira, eta Irungo udalerriko hiri-multzoaren eta ingurumenaren egitura osatzea eta artikulatzea da haietako bakoitzak, zein bere aldetik, aintzat harturiko helburua.

5.1.4 Planaren proposamena kopuru orokorretan

Planaren araberako **kopuru handien** sintesi bizkor bat eskaini dugu atal honetan, zoruen okupazio maila eta haien sailkapena zertan diren ikusi ahal izateko. Kopuru hauek 1999ko Plan Nagusiaren egoerarekin alderatzen dituen eskema-koadro bat ere aurkeztu dugu azpi-kapitulu honen bukaeran, dokumentu hartan aurreikusitakoa egun arte onartu diren plan-aldaketak ere erantsirik, garabi baitago horixe dela Berrikuste honen araberako erabakiak hartzerakoan aintzat hartu beharko den **egoera erreala**.

Era berean, **1999ko Plan Nagusiarekiko** alderatze-koadro bat ere aurkeztu dugu ondoko orrialdean, kontuan harturik **betikoz onartu zen dokumentua**. Ekarri egin ditugu koadro horretara dokumentu haren Memoriaren 12. kapituluaren adierazi ziren kopuruak. Nolanahi ere, argi eta garbi ikusiko dugu Plan haren kopuru handiekiko aldeak oso txikiak direla.

Datuetatik erraz ondoriozta daitekeen bezala, Plan Nagusi berrirako proposamenak aurreko Plan Nagusiak baino milioi eta erdi metro koadro **gehiago**, 163 ha inguru, hartzen dituzte **hiri zoru** eta **zoru urbanizagarri berrien** sailetan (orain arteko **plan-aldaketa guztiak kontuan harturik**). Ehunekoetan izaniko emendio hau **zoru urbanizagarrian izaniko hazkundearen** ondorio dugu funtsean, %94 hazi baita zoru mota hori. Beraz, eremu guztian, 100.000 m² baizik ez dira hartu zuzenean hiri zorutzat, hau da, zoru mota horien %6 baino ez. Orain proposatu den emendioak %19ko **hazkundera** dakar dagoeneko hiri zorutzat edo zoru urbanizagarritzat harturiko lurren aldean.

Alderatze honetan, **1999ko Plan Nagusiaren** dokumentua urte hartan onartu zen bezala hartuz gero, handiagoa litzateke **hiri zoru eta zoru urbanizagarrien emendioa**, 185 ha-koa guztira. Nolanahi ere, alderatze honetan gehiago izango lirateke, %60 hain zuzen ere, hiri zoruko lurak, Plan hura indarrean hasi zenetik hainbat plan partzial eta berezi gauzatu direnez hiri zoru bilakatu baitira lehen urbanizagarri baizik ez ziren zoruak. Alderatze modu honi eutsiz gero, %22koa genuke **ehunekotako emendioa**, orduan hiri zoru eta zoru urbanizagarritzat harturiko eremuen aldean.

Hala eta guztiz ere, dagoeneko urbanizaziorako sailkatuak diren zoruen emendio hori **zoru ez urbanizagarriaren %5eko murriztearen** ispilua baizik ez da (%1,6koa 1999an onarturiko dokumentuaren kopuruaren aldean). Proporzio oso txikia da beraz, eta autopistaren iparraldean kokatua da alde hori gehiena. Gogora dezagun Olaberriako inguruetan proposaturiko interbentzioa dela alde horretako salbuespen bakarra.

Elkarren arteko koherentziari eusten diote kopuru hauek, **hirigintza iraunkor** baten aldeko estrategiaren bidean. Konbinatu nahi dira, alde batetik, autopistaren iparraldean hiri helburuei begira **oraindik bideragarri litzatekeen** zoru guztia hala sailkatzeko ahalegina eta, bestetik, Hegoaldeko **landa eremua** errespetatzeko borondatea. Izan ere, ez du alde honek hedadura esanguratsurik galduko; ez, nolana ere, ingurumen-balio berezia dukeen alderik.

Emendio honetaz, %1,3 baizik ez da handituko **hiri zorua**, egungo egoeraren aldean. Baina logikoa da hala gertatzea, betekizun jakin batzuk dituen ekintza arautua baita zoru mota honen sailkapena. Izan ere, hilerriko terrenoak eta Lope de Irigoien eta Zubimusu arteko espazio libreak baizik ez dira hiri zoru berrizat hartu.

Aldiz, zoru oraindik urbanizagarrien egungo egoeraren aldean, kontuan hartzekoa da **zoru urbanizagarrian** izaniko **emendioa**, lehengoaren **halako bi** baikenuke ia-ia, **%193ko** emendioaz. Hau da, egun halakotzat hartua dena baino bi aldiz handiagoa da zoru urbanizagarritzat harturiko lurren eremua.

Halarik ere, Plan Nagusiaren dokumentua onartu zenekoan zen bezalakoa hartuz gero, orduan urbanizagarritzat harturikoaren %45 baino ez da kopuru hori emendatu. Hau da, orduan halako zorutzat hartu zen lurraren **erdia** baizik ez. Izan ere, gogora dezagun berriro, orduan urbanizagarritzat harturiko zoru haien zati garrantzitsu batzuk hiri zorua ditugu egun.

Bereziki azpimarra dezagun, azkenik, Plan Nagusiaren Berrikustek **proposaturiko esparru berriek** 900.000 m² inguru hartzen dituztela sendotu gabeko hiri zoruan eta 1.085.000 m² zoru urbanizagarrian, eta Olaberria inguruan bideratuko den interbentzioko 600.000 metro koadroak erantsi beharko genizkieke azken hauei. Beraz, **2.570.000 m² genituzke guztira** birmoldaketarako edo urbanizazio berrietarako **esparru berrietan**, hau da, egungo hiri zoru eta zoru urbanizagarri guztien %19. Beraz, eraberritze jarduera baten jomuga edo sailkapen berri baten ondorio dugu etorkizuneko hiriak okupatuko duen lurraldearen **bostena** inguru.

Adieraz dezagun azkenik, garrantzitsua baita, Aurrerakin honetan lurren hirigintza-sailkapena bideratzerakoan, sendoturiko **hiri zorutzat hartu** izan dela aurren-aurrenik **zuzeneko lizentziaz** araturiko hori zorua, haren antolamendua birmoldaketarako inolako proposamen menpean ez dagoenean. Halakotzat hartu dira, orobat, indarrean dagoen, hau da, 1999ko Plan Nagusiaren arabera **garatu beharreko esparruetako** hiri zorua eta zoru urbanizagarria, haien garapenerako planak betikoz onartu badira,

eta dagokien urbanizazioa gauzatu bada edo Plan Nagusi hau hasierako onarpenari begira aurkeztu aurretik gauzatzea espero bada.

**ZORUAREN SAILKAPENA M² ZORUTAN
1999KO HAPOAREN ARABERA ETA ONDOKO ALDAKETEKIN EGUNERATUA**

| HIRI ZORUA | | % |
|---|-------------------|----------------|
| HIRI ZORU EZ SENDOTUA | | |
| - GARATZEKE DAUDEN ESPARRUAK 1999ko HAPN | 624.301 | |
| HIRI ZORU SENDOTUA | | |
| - ZUZENEKO LIZENTZIA DUEN ZORUA | 7.054.789 | |
| HIRI ZORUA GUZTIRA | 7.679.090 | 18,50% |
| ZORU URBAZIGARRIA | | |
| - GARATZEKE DAUDEN ESPARRUAK 1999ko HAPN | 646.374 | |
| - ZORU URBANIZAGARRI EZ PROGRAMATUA | 150.657 | |
| ZORU URBANIZAGARRIA GUZTIRA | 797.031 | 1,92% |
| ZORU URBANIZAEZINA | | |
| ZORU URBANIZAEZINA | 33.033.124 | |
| ZORU URBANIZAEZINA GUZTIRA | 33.033.124 | 79,58% |
| HIRI ZORUA ETA ZORU URBANIZAGARRIA GUZTIRA 1999ko HAPN ALDAKETEKIN | 8.476.121 | 20,42% |
| UDALERRIKO ZORUA GUZTIRA | 41.509.245 | 100,00% |

HAPOAREN BERRIKUSTEAREN ARABERA (AURRERAKIN DOKUMENTUAK)

| SUELO URBANO | | % |
|---|-------------------|----------------|
| HIRI ZORU EZ SENDOTUA | | |
| - GARATZEKE DAUDEN ESPARRUAK 1999ko HAPN | 580.779 | |
| - BERRIKUSTERAKO PROPOSATURIKO ESPARRUAK | 883.886 | |
| - HIRI ZORU EZ SENDOTUA GUZTIRA | 1.464.665 | |
| HIRI ZORU SENDOTUA | | |
| - ESPARRU GARATUAK 1999ko HAPN | 2.493.421 | |
| - ZUZENEKO LIZENTZIA DUEN ZORUA | 3.818.654 | |
| - HIRI ZORU SENDOTUA GUZTIRA | 6.312.075 | |
| HIRI ZORUA GUZTIRA | 7.776.740 | 18,73% |
| ZORU URBANIZAGARRIA | | |
| - GARATZEKE DAUDEN ESPARRUAK 1999ko HAPN | 646.374 | |
| - BERRIKUSTERAKO PROPOSATURIKO ESPARRUAK | 1.084.702 | |
| - OLABERRIA ALDERAKO PROPOSAMENA | 600.882 | |
| ZORU URBANIZAGARRIA GUZTIRA | 2.331.958 | 5,62% |
| ZORU URBANIZAEZINA | | |
| - ZORU URBANIZAEZINA | 31.400.637 | |
| ZORU URBANIZAEZINA GUZTIRA | 31.400.637 | 75,65% |
| HIRI ZORUA ETA ZORU URBANIZAGARRIA GUZTIRA | 10.108.698 | 24,35% |
| UDALERRIKO ZORUA GUZTIRA | 41.509.335 | 100,00% |

1999KO HAPO ETA ALDAKETEN ETA HAPOAREN BERRIKUSTEAREN ARTEKO ALDEAK

| | | |
|---|-------------------|----------------|
| HIRI ZORUAREN EMENDIOA 1999KO HAPNAREN ALDEAN | 97.650 | 1,27% |
| ZORU URBANIZAGARRIAREN EMENDIOA 1999KO HAPNAREN ALDEAN | 1.534.927 | 192,58% |
| HIRI ZORU ETA ZORU URBANIZAGARRIAREN EMENDIOA 1999KO HAPNAREN ALDEAN | 1.632.577 | 19,26% |
| ZORU URBANIZAEZINAREN MURRIZTEA 1999KO HAPNAREN ALDEAN | -1.632.487 | -4,94% |

**ZORUAREN SAILKAPENA M² ZORUTAN
1999KO HAPOAREN ARABERA (ONARTU ZEN BEZALA)**

| HIRI ZORUA | | % |
|---|-------------------|----------------|
| HIRI ZORU EZ SENDOTUA | | |
| - - GARATZEKE DAUDEN ESPARRUAK 1999ko HAPN | 2.341.635 | |
| HIRI ZORU SENDOTUA | | |
| - ZUZENEKO LIZENTZIA DUEN ZORUA | 4.315.705 | |
| HIRI ZORUA GUZTIRA | 6.657.340 | 16,04% |
| ZORU URBAZIGARRIA | | |
| - GARATZEKE DAUDEN ESPARRUAK 1999ko HAPN | 825.222 | |
| - ZORU URBANIZAGARRI EZ PROGRAMATUA | 779.095 | |
| ZORU URBANIZAGARRIA GUZTIRA | 1.604.317 | 3,86% |
| ZORU URBANIZAEZINA | | |
| - ZORU URBANIZAEZINA | 33.247.678 | |
| ZORU URBANIZAEZINA GUZTIRA | 33.247.678 | 80,10% |
| HIRI ZORUA ETA ZORU URBANIZAGARRIA GUZTIRA 1999ko HAPN | 8.261.657 | 19,90% |
| UDALERRIKO ZORUA GUZTIRA | 41.509.335 | 100,00% |

1999KO HAPNAREN ETA HAPOAREN BERRIKUSTEAREN ARTEKO ALDEAK

| | | |
|--|-------------------|---------------|
| HIRI ZORUAREN EMENDIOA 1999KO HAPNAREN ALDEAN | 1.119.400 | 16,81% |
| ZORU URBANIZAGARRIAREN EMENDIOA 1999KO HAPNAREN ALDEAN | 727.641 | 45,36% |
| HIRI ZORU ETA ZORU URBANIZ.AREN EMENDIOA 1999KO HAPNAREN ALDEAN | 1.847.041 | 22,36% |
| ZORU URBANIZAEZINAREN MURRIZTEA 1999KO HAPNAREN ALDEAN | -1.847.041 | -5,56% |

5.2.- ZORUAREN KUDEAKETA

5.2.1 Zorua kudeaketaren oinarriak; lege-esparrua.

Esana da honez gero Diagnostikorako dokumentuan, Plan Nagusiaren Berrikusteak jaso eta bere egin behar dituela Euskadiko Lurzorua eta Hirigintza arautzen duen 2006ko ekainaren 30eko **2/2006 Lege berriak** eta haren osagarria den **Premiazko Neurrien 105/2008 Dekretuak** xedaturiko terminologia berria eta kontzeptu, oinarri eta instituzio berriak. Horrek esan nahi du ahalegin garrantzitsu bat egin beharko dela egoera berri hori Plan berrian txertatzeko. Lehen dokumentu horretan azalduko edukiaren ildotik joko dugu horrenbestez.

Berritasun esanguratsuenetako batek bereziki azpimarratzen du **egituraren antolamenduaren eta antolamendu xehearen egitekoen** arteko aldea, eta bereizkuntza honek berebiziko eragina du hirigintzaren oinarria nagusiak, zorua sailkapenerako irizpideak, sistema orokor eta lokalen hornidura-sare kontzeptua, eta hornidura, babeseko etxebizitza eta egoitzen estandarrak zehaztu eta bideratzeko unean

Egituraren antolamenduari dagokionez, eta aipaturiko Legearen 61.a) artikuluari jarraiki, udalerrri osoaren egituraren antolamendua zehaztu beharra dauka gutxienez Plan Nagusiak. Bestalde, **hiru maila** bereizten dira antolamendu mota horretan, 53) artikulua arautzen duen bezala: hiri zorua eta zoru urbanizagarri sektorizatua, zoru urbanizagarri ez sektorizatua, eta zoru ez urbanizagarria.

Udalerrri osoan, honako oinarritzko zortzi parametro hauek definitu behar ditu Plan Nagusiak:

- 1.- Hiri-bilakaerarako eta lurzorua okupaziorako estrategia
- 2.- Zorua sailkapena (zoru urbanizagarrian zoru sektorizatua eta ez sektorizatua bereiziz).
- 3.- Zorua kalifikazio globala, aldean arabera (erabilera publikoko eta pribatuko aldeak bereiziz)
- 4.- Garapen-plangintzetarako eta zorua programaziorako epeak.
- 5.- Jarraibideak ezartzea Ingurumena babesteko, natura zaintzeko, paisaia eta elementu naturalak eta kultura ondarea defendatzeko jarraibideak.
- 6.- Sistema orokorren sarea, exekuzio esparru jakinei lotuz edo, hala badagokio, haietan sarraraziz, eskuratu ahal izateko. Bestalde, hala jakatuko da halaber antolamendu zehatzeko eremu bat edo batzuk garatzeko "funtzionalki beharrezkoak" direnean ere, gauzatu eta haien kostua aintzat hartu ahal izateko.

- 7.- Babes publikoko etxebizitzan eta hornidura-lojamenduen estandarrak eta kopuruak beteko direla bermatuko duten zehaztapenak.
- 8.- Eremuen eta sektoreen mugak zehazteko aintzat hartuko diren irizpideak, horregatik egituraren antolamendua aldatu beharko ez bada ere, Plan Nagusiaren helburuak errespetatzeko parametroak finkatuz.

Hiri zoru eta **zoru urbanizagarri sektorizatuaren** kasuetan, egituraren antolamenduaren moldeetan egingo ditu Plan Nagusiak bere zehaztapenak:

- 1.- Eremu eta sektoreen perimetroa mugatuko dira.
- 2.- Plan Berezi edo Partzialen bidez antolatuko diren eremuak eta sektoreak zehaztuko dira.
- 3.- Berezko erabilerraren eta erabilera osagarrien eraikigarritasuna zehaztuko dira (bigarrenen kasuan, hiri-eraikigarritasunaren portzentaje gorena zehaztu beharra dago inolaz ere).
- 4.- Sistema lokalen oinarrizko ezaugarriak eta urbanizaziorako gutxieneko baldintzak zehaztuko dira. Zoru urbanizagarrian, aurreko azpiegituren arteko lotura eta sendotzeko neurriak.

Zoru urbanizagarri ez sektorizatuaren kasuan, honako zehaztapen hauek egingo ditu Plan Nagusiak egituraren antolamenduaren moldeetan:

- 1.- Sektoreak mugatzeko behar diren gutxieneko irizpideak.
- 2.- Dauden edo aurreikusitako sistema orokorren sare-loturak.
- 3.- Erabilera bateraezinak edo debekatuak, eta onartutakoak.
- 4.- Zoru-erreserben hautazko mugaketa, zoruaren ondare publikoari begira.

Azkenik, **zoru ez urbanizagarrian**, honako hau finkatuko du Plan Nagusiak, egituraren antolamenduaren maila hierarkikoaren arabera:

- 1.- Zoruaren kalifikazioa, lurralde antolamendurako tresnen arabeko kategoriak bideratuz, eta antolamendurako beste azpikategoria batzuk emendatuz.
- 2.- Maila edo kategoria bakoitzean onarturiko eta debekaturiko erabilerrak eta eraikuntzak.
- 3.- Hiriguneen mugak, haien antolamendurako irizpideak plangintza bereziaren bitartez zehaztuz.
- 4.- Ezinbestez finkatu beharreko hornidura eta azpiegitura publikoak, oinarrizko parametroak zehazturik.
- 5.- Zoru-erreserben hautazko mugaketa, zoruaren ondare publikoari begira.

Horrez gainera, 103.2 artikuluari jarraiki, espresuki berezi behar ditu Plan Nagusiak Planaren **berezko zehaztapenak** eta, haren osagarri diren arren, bere legezko funtzioa ez baizik eta **antolamendu xehearen** egitekoak diren zehaztapenak. Orain horren argi planteatu den bereizkuntza hau oso garrantzitsua da Plan Nagusian etorkizunean bidera litezkeen **aldaketei** begira, berezko zehaztuenean aldaketarako espedientea tramitatzea behar duten bitartean, halakoak ez direnak hiri antolamendurako Plan Berezi baten bidez aldatu ahal izango baitira hiri zoruan –70. artikulua– edo Plan Partzial baten bidez zoru urbanizagarrian –104.a) artikulua.

Bada, nolana ere, salbuespen bat aurreko arauaren kasuan. Izan ere, Plan Nagusia aldatzeko espediente baten tramitazioa beharrezkoa izatean, bere lege-mailaren araberrako zehaztapenak egin behar diren kasu batzuetan hain zuzen ere, Kontabilizaziorako Plan baten eta Sektorizaziorako Plan baten bidez aldatu ahal izango dira egitura mailako zehaztapenak egoera jakin batzuetan, 104. d)- artikulua dion bezala.

5.2.2 Hirigintzaren oinarri nagusiak.

Plan Nagusia idazterakoan irizpide gisa erabili behar diren **zazpi oinarri nagusiak** zehazten ditu 2/2006 Legeak (3. eta 9. bitarteko artikulua). Haietatik, bereziki nabarmendu beharra dago, zoruaren okupaziorako estrategiak eskatu bezala, eta Legearen 3. artikulua espresuki aipatzen duen garapen iraunkorra xedatzen duen oinarriaren arabera, garrantzi berezia ematen zaiola, guztien arteko **lehen aukeratzat** jotz, **zoruaren birgaitze eta berrerabilerari**, hiriaren banaketa eta barreiatzea saihestearren. Horretarako, zuzen integratu eta lotuko dira espazioan erabilera guztiak, hiri barruko mugikortasun maila ahalik eta txikiena izan dadin.

Honekin guztiarekin lotu beharra dago **eraikuntza iraunkorra** kontzeptua, hau da, lehenetsuna eman behar zaio eraikitako eta urbanizaturiko ondarearen birgaitzeari, eta hutsik dauden etxebizitzak erabilerari. Zehazki, garapen iraunkorrerako oinarri honen ildotik jorik, 55.1 b) artikulua arabera, guztiz mugatu behar dira egungo gune historikoak, ahalik eta hobekien zaintzearen, eta eremu degradatuak ahalik eta hobekien eraberritzearen.

Gainerako oinarri nagusietatik, guztiz behartzen gaitu hiri antolamenduaren **koherentziaren oinarriak** koherentziaz idatziriko agindu-zehaztapenen eta “antolamenduaren helburu zehatzen” arteko kontraesanak interpretatzera eta hornidura publiko gehiago, ingurumen hobetoagoa eta interes publiko handiagoa

eskaintzen dituen irtenbidearen alde jokatzera. Halatan, argiro zehaztu behar ditu Plan Nagusiak antolamenduaren helburuak, egoera horietan gidari izan ahal izateko.

Bestalde, **hiritarren partaidetza** dugu hiri antolamendu guztia inspiratu behar duen oinarria. Hari begira zehaztu dira “Partaidetzarako programak” deituak eta Hirigintzaren Kontseilu Aholkularia. Horrez gainera, partaidetzarekin hertsiki loturik dago **jakinarazte publikoaren** oinarria. Izan ere, eta betekizun berria da hau, oinarri honen arabera, “informazio-tresna adierazleak eta konparaziogileak” bideratu behar dituzte ezinbestez Administrazio Publikoek, egungo egoera eta etorkizuneko irudia zertan diren jakin dadin. Era berean, zehatz-mehatz xedatzen du 108. c) artikulua partaidetzarako bitarteko gisa, informazioaren **hedapenerako materialaren** prestakuntza, legez eskatzen diren dokumentuekin batean, Planaren ulerpena eta zabalkundea errazteko.

5.2.3 Hiru zoruaren araudia.

Udalerri osoaren zoruaren sailkapena dugu, 10. eta 14. artikuluen bitartean, egituraren antolamenduari begira egin beharreko beste zehaztapen bat. Hona hemen laburrean zertan den:

Honako ezaugarri hauek zoruak dituzte **Hiri zoru sendotuko** eremuetako zoruak:

- Dagoeneko eraikiak edo eraldatuak dira.
- Egungo hiri sarearen barruan daude edo egon daitezke.

Hiri zoruak dira egungo eta plangintzan aurreikusitako eraikinetarako honako 4 zerbitzu hauek dituztenak:

- 1) Ibilgailuetarako sarbideak, bide edo galtzada zolatuz eta erabilera publikoaz hornituak.
- 2) Urez hornituriko zoruak dira.
- 3) Hondakin-uren –euri uren eta ur beltzen– hustubidez hornituak dira.
- 4) Behe tentsioko argi-indarrez hornituak dira.

Hauetako zerbitzu bakarren bat ez badute baina eraikuntzak horretarako diren espazioen bi heren hartua badu eta espazio horiek urbanizaturik badaude, hiri antolamenduaren eskakizunen arabera hartu ahal izango dira **hori zoru sendotutzat**.

Zuzenean eraiki ahal izango dira (eraikigarriak izango dira) eta **orubetzat** hartuko dira horrenbestez (12. artikulua), gainera ere beste honako hauen jabe diren zoruak:

- antolamendu xehea
- plangintzaren araberako lerrokadurak eta sestrak
- Eta gainera, gutxienez honako urbanizazio molde hau:

- 1) Hiriko udal bideren edo hiri zoruan luzaturiko hiri publikoren baten ertzean daude.
- 2) Oinezkoentzako sarbidea, espaloiak eta argiteria publikoa aurrean dituzten bide guztietan
- 3) Ur eta argi-indar hornidurak unean uneko eta plangintzaren araberako erabilera-premiak asetzeko moduko emari eta indarrez.
- 4) Hondakin-uren hustubideak estolda-sarera, unean uneko eta plangintzaren araberako erabilera-premiak asetzeko moduan.

Urbanizazio sendorik ez dutenez, **hiri zoru ez sendotutzat** hartuko dira honako zoru hauek (11.3b), -1- artikulua):

- a.- Urbanizazioak ez ditu plangintzak ezinbestez behar dituen hornidura, zerbitzu eta azpiegitura guztiak, edo baditu baina haien proportzioa, tamaina eta ezaugarriak ez dira unean uneko edo etorkizuneko eraikuntzarako egokiak.
- b.- Unean uneko urbanizazioak berritu beharra dauka, hirigintza-aldaketen bitartez hobetuz edo birgaituz (hornidurak emendatuz).

Ez sendotutzat hartzen ditu halaber Legeak Plan Nagusiak dagoena baino **hiri eraikigarritasun ponderatu handiagoa** egozten dieten zoruak, kasu horietan eraikigarritasun maila emendatuko dela irizten diolako.

Plan Nagusiak zehaztuko du hiri zoruan zoru sendotuak eta ez sendotuak bereiziz egin beharreko **kategorizazioa**, eta antolamendurako zehaztaperen xehea izango da, 61.a) eta 56.1.c) artikuluek xedatzen duten bezala.

5.2.4 Zoru urbanizagarriaren araudia.

Legearen 14. artikulua arabera, honako hauek izango dira **zoru urbanizagarriak**:

- ez daude edo ezin egon daitezke egungo hiri sarearen barruan.
- egokiak dira hirigintza-erabileren euskarri izateko.
- ez dira hiri zorutzat ez ezta zoru urbanizagarritzat hartuak izan.
- haien tamaina honako hau izango da:
 - a) populazioaren hazkundearen aurreikuspenen araberakoa, haien harreragaitasuna kontuan harturik.

b) babesturiko etxebizitza-programak betetzeko aukera eskainiko dute.

Lur horiek sektore berean badaude **zoru urbanizagarri sektorizatua** izango dira, eta ez badira inongo sektoretakoak **zoru urbanizagarri ez sektorizatua** dira. Legeak ez ditu azken kategorizazio horretarako irizpiderik zehazten, eta Plan Nagusiaren zeregina da bete-betean hori, hark zehaztuko baititu zoru urbanizagarriko lurrak kategoriatan edo bestean sarrarazteko parametroak edo baldintzak, edota arlo horretan harturiko erabakiak arazoituko ditu kasu bakoitzean.

5.2.5 Zoru urbanizaezinaren araudia.

Legearen 13) artikulua araberan, zoru ez urbanizagarritzat hartu behar da **hirigintza-aldaketa** oro **bideraezina** den lur oro. Izan ere:

- a) lurraldearen antolamenduak edo sektore-legeriak edo hiriaren antolamenduak babesturik daude duten balioagatik: laborantza, basogintza, abere-hazkuntza, baliabide naturalen ustiakuntza, fauna, flora edo oreka ekologikoaren defentsa.
- b) ondare publikoa babesten duen sektore-legeriak galarazten du hartan hirigintza-aldaketarik bideratzea.
- c) haren hirigintza-aldaketak arrisku naturalak sorraraziko lituzke, hala nola: higadura, lur-jauziak, luiziak, suteak, uholdeak edota hondamendiak.
- d) beharrezkoak dira azpiegitura, zerbitzu, hornidura edo ekipamendu publikoen babesari begira.

Zoru ez urbanizagarritzat hartuko dira, halaber, arrazoiak arrazoi hiri garapenerako egokiak ez diren lurrak. Izan ere:

- a) babestu egin behar da haien landa-izaera, hirian iraunkortasunaren alde bultzatu beharreko estrategia bermatzeko
- b) lehen sektorearekin lotu beharrak dira, haren sustapen ekonomikoari begira, sormarkak badirelako.

Zoru urbanizagarri ez sektorizatuan eta zoru ez urbanizagarrian, Plan Nagusiaren **hautazko** eta **egituraren antolamenduaren moldeko egitekotzat** hartua da **zoru-erreserben** mugaketa, zoruaren **ondare publikoari** begira. 119. eta 122 artikuluen bitartean arautu da zoru-erreserbaren irudi hau.

5.2.6 Sistema orokorren hornidura sarea.

Legeak bere 54. artikuluan zehazten duen bezala, egituraren antolamendurako zehaztapen baten arabera, Plan Nagusiak gutxienez definitu behar duen beste elementu bat dugu **sistema orokorren sarea**. Horrez gainera, guztiz arrazoitu beharra da sistema orokor horien sarrera honako edo harako exekuzio esparruetan, guztiz zehazteko haien eskuratze eta gauzatze prozesuak eta kostuak, antolamendurako esparru baten edo batzuen garapenari begira **funtzionalki beharrezkoak** direnean.

Honako hornidura hauek aipatzen ditu, gutxienez, legeak:

- 1.- **Espazio libreak** eta jabari eta erabilera publikoko berdeguneak (5 m²/ biztanleko proportzioan). Bere 105.2 artikuluan xedatzen duen bezala, PPlan Nagusiaren Aldaketa baten arabera egoitzen hiri-eraikigarritasuna emendatzen bada, aipaturiko 5 m²/ biztanleko proportzioan emendatuko dira halaber espazio libreak eta berdeguneak.
- 2.- **Titulartasun publikoko ekipamendu kolektiboak** (hezkuntza, kultur-, osasun, asistentzia, kirol eta administrazio erabileretarako).
- 3.- Zerbitzu azpiegiturak. Horien artean nolanahi ere, urbanizazioa definitzen duten zerbitzuak ematekoak, eta bereziki zerbitzu hauek: ibilgailu eta oinezkoentzako bidea, uraren eta energia elektrikoaren hornidura, saneamendua, argiteria, telekomunikazioak, eta ibilgailuen aparkalekua. Bai eta teknologiaren bilakaeraren arabera, eraikuntza guztiek zeinek bere erabilerarako eduki beharko dituztenak ere. Era berean azpiegitura horiek garatzeko aurreikuspen orokorrak ere.
- 4.- **Bide publikoak**, oinezkoentzako bideak eta ibilgailuentzako bideak. Bide horiek horniduren sareko elementu guztiak lotuko eta komunikatuko dituzte beren artean, elementuok sare bakar bezala funtzionatzea bermatzeko.
- 5.- **Ekipamendu kolektibo pribatuak** (merkataritza, erlijio, kultura, irakaskuntza, kirol, osasun, asistentzia, zerbitzu tekniko eta garraio guneak, bai eta interes publikoa edo gizarte-interesa duten gainerako ekipamendu pribatuak ere). Ekipamendu hauek inolaz ere ez dira hornidura publikoen ordezkotzat hartuko.
- 6.- Egituraren antolamenduak hala xedatuz gero, **egoitza-hornidura babestua**, hau da, babes publikoko etxebizitzak eraikitzeke kalifikatu diren lurren jabetza.

Bestalde, ezinbestez zehaztu beharko du Plan Nagusiak nola **erdietsiko** diren aipaturiko hornidurak egokitzeko lurrak, edo nola finantzatuko den haien eraikuntza, hau da, desjabetzearen bitartez edo exekuzio unitateen barnean aintzat harturik edo haietan sarrarazirik.

5.2.7 Plangintzaren estandarrak

Legearen arabera, egituraren antolamenduan egin beharreko zehaztapena dugu halaber **estandarren betetzea bermatzeko** modua. Aintzat hartuko dira babes publikoko etxebizitzaren estandarrak, alde batetik, eta hornidura-lojamenduen estandarrak, bestetik. Legearen 80. eta 81. artikuluek arautzen dituzte estandar horiek.

Babes publikoko etxebizitzaren estandarrei dagokienez, bi kasu bereizi behar dira inolaz ere, kontuan harturik zorua hiri zoru ez sendotuko eremua edo zoru urbanizagarriko sektorea den. Jarduera integratuan gauzatuko den eta erabilera globala egoitza duen hiri zoru ez sendotuaren kasuan, Plan Nagusiak, edo Plan Bereziek, haietara jo behar izanez gero, lurra kalifikatu beharko dituzte xede horri begira, gutxienez egoitza erabilerako hiri-eraikigarritasunean izaniko emendioaren gutxienez %40 gauzatu ahal izateko, kontuan harturiko aurrez gauzaturiko kopurua. %20 izango da babes ofizialeko etxebizitzetarako eta etxebizitza tasatuetarako, udal nahiz autonomiko, gainerakoa.

Erabilera global egoitza duen zoru urbanizagarriko sektore bakoitzaren kasuan, Plan Nagusiak, edo Plan Bereziek, haietara jo behar izanez gero, lurra kalifikatu beharko dituzte xede horri begira, gutxienez egoitza erabilerako hiri-eraikigarritasunean izaniko emendioaren gutxienez %75 gauzatu ahal izateko, kontuan harturiko aurrez gauzaturiko kopurua. %55 izango da babes ofizialeko etxebizitzetarako eta etxebizitza tasatuetarako, udal nahiz autonomiko, gainerakoa.

Babes publikoko etxebizitzaren estandar hauek **banan-banan** beteko dira exekuzio sektore, eremu edo unitate bakoitzean, edo **batera**, baldin eta Plan Nagusiak estandarrak bestela betetzeko zehaztapenak xedatu baldin baditu, hala hiri zoru ez sendotuak eta zoru urbanizagarriak osaturiko multzo guztian, edo bi zoru mota hauen artean, edo exekuzio sektore, eremu edo unitate desberdinen artean. Horretarako, baimena eman beharko du aurrez Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, erreserben kalifikazio orekatu bat bermatzeko eta espazioan segregazio sozialerako arriskuak saihesteko.

Hala eta guztiz ere, exekuzio unitate batzuk **erreserba-betebehar** horretatik kanpo geldi litezke, kontuan harturik aintzat harturiko etxebizitza kopurua. Kasu horretan, udal etxebizitza tasatuen moldekoak izango dira exekuzio unitate horretan bideratuko direnak. Bestalde, babes publikoko etxebizitzaren gutxieneko estandarrak modu globalean bete ahal izango dira **etxebizitza-transferentziak** eginez. Horretarako, ezinbestekoa izango da babes publikoko etxebizitza kopuru bat aurrez edo aldi berean eraikitzea, eta kopuru hori transferentziak egingo diren esparruetako etxebizitza libreen arteko balio-aldeen araberakoa izatea.

Hornidura-lojamedurako erreserben estandarrei dagokienez, zoru-azalera bat kalifikatuko du xede horri begira, erabilera nagusitzat egoitza duten eremuetan. Azalera horrek 1,5 metro koadro izango du, gutxienez, egoitza-erabilerarako emendatu den 100 metro koadroko sabai bakoitzeko edo, bestela, plangintzan aurreikusi den etxebizitza berri bakoitzeko edo, hala behar balu, gutxienez bi sail autonomo sorraraziko duen portzentajekoa. Hala eta guztiz ere, antolamendu xeheak zehaztuko du lojamendu horien kokalekua.

Sistema orokor eta lokalen hornidurei buruzko beste estandar batzuk arautzen dira legearen 78. eta 79. artikuluetan. Plan Nagusiari dagokionez, espazio libreetako berdeguneak eta hiri parkeen (orain arte eremuak barne) alorrean indarrean dagoen 5 m² biztanleko estandarra baizik ez da ezinbestez bete beharrekoa. Haren ondoan honako korrelazio hau zehazten da, hiri zoru eta zoru urbanizagarriko etxebizitza erabileraren alorrean: biztanle bat 25 m² eraikiko. Egoitza erabilera nagusia duen zoru urbanizagarriko sektoreetako **sistema lokalen** hornidurei dagokienez, bere borondatez eta, hori bai, plangintza zeherako tresnaren bitartez betiere, zehaztu ahal izango ditu Plan Nagusiak honako erreserba hauek, gutxienerako estandarrak betetzearren:

- a) Sistema lokalen sareko hornidura publikoetarako: hornidura publikoetz bestelako erabileretarako sestraren gainean 25 metro koadroko sabai-azalera dagoen bakoitzeko, 10 metro koadro zoru. Erreserba horretan, sektorearen azalera guztiaren %15, gutxienez, berdeguneetarako eta espazio libreetarako erabili beharko da; azalera horretan, gainera, ez dira kontatuko sektorean sartutako sistema orokorrak.
- b) Ibilgailuen aparkalekuetarako: titularitate pribatuko partzeletan, hornidura publikoetz bestelako erabileretarako sestraren gainean 25 metro koadroko sabai-azalera dagoen bakoitzeko, 0,35 aparkaleku; eta hornidura publikoko erabileretarako, berriz, konputatze berdina eginda, sestraren gainean 25 metro koadroko sabai-azalera dagoen bakoitzeko, 0,15 aparkaleku. Hornidura publikoetako aparkalekuen ezaugarriak erregelamendu bidez zehaztuko dira.
- c) Tokian tokiko sistemen sareko ekipamendu pribatuetarako: hornidura publikoetz bestelako erabileretarako sestraren gainean 25 metro koadroko sabai-azalera dagoen bakoitzeko, metro koadro bat zoru.
- d) Landareetarako: bizitegietarako lurzoruan, etxebizitza bakoitzeko, zuhaitz bat landatu beharko da; orobat industrietarako edo hirugarren sektorerako lurzoruan ere, hirigintza-eraikigarritasuna gehitzen den eremuaren barruan, eraikitako 100

metro koadroko gehikuntza bakoitzeko. Hiri zorurako ere berdin-berdin balio du landareetarako estandar horrek.

Erabilera globala industria edo zerbitzuak duten/dituzten zoru urbanizagarriko sektoreetan, egin beharreko erreserba ez da sektorearen guztizko azaleraren %12 baino txikiagoa izango, sistema orokorren hornidura publikoetarako eremuak bereizi eta gero. Berdegunea izango da erreserba horren erdia. Zoru urbanizagarriko sistema orokorren hornidura publikoen estandar horien kasuan, ez dago gutxiago bideratzerik, edo beste sektore edo exekuzio esparru batera eramaterik ere.

5.2.8 Eraikigarritasuna.

Hiri zoruan eta zoru urbanizagarri sektoretan, **eraikigarritasunak zehaztu** beharko ditu egituraren antolamenduak, 53.2.c) artikulua xedatu bezala. Horretarako, guztiz kontuan hartuko dira legeak 35. artikuluan zehazturiko eraikigarritasun berriak eta 77. artikuluan ezarritako mugak.

A) Eraikigarritasun fisikoa edo gordina

Hirigintza-antolamenduak lurralde-eremu jakin baterako ezarritako sabai-azalera osoa, eraikitakoa eta eraiki gabea, sestra gainekoa eta sestra azpikoa, da **eraikigarritasun fisikoa**. Bi eratara adierazi ahal izango da: sabai-metro koadroko guztizko kopuru batez, edo zoru-metro koadro bakoitzeko sabai-metro koadrotan. Lehendik dauden orube, lur-sail edo eraikuntzen kasuan, hirigintza-antolamenduak bi aukera izango ditu: perfilak, garaierak edo eraikuntzaren forma edo bolumena arautzeko beste parametro batzuk zehaztuz, edo aurrez zegoen eraikigarritasuna berretsiz.

B) Hirigintza-eraikigarritasuna

Hirigintza-antolamenduak lurralde-eremu jakin batean kokatzen dituen probetxamenduzko erabilera edo jardueri dagokien eraikigarritasun fisikoa da **hirigintza-eraikigarritasuna**. Beraz, kanpoan geldituko da eremu horretarako lehendik dauden edo aurreikusita dauden zuzkidura publikoen eraikigarritasun fisikoa.

C) Eraikigarritasun ponderatua

Biderkadura batzuen batuketa da lurralde-eremu jakin bateko **eraikigarritasun ponderatua**. Honako hauek dira biderkatuko direnak: erabilera bakoitzaren edo balio bera duten erabilera-multzo bakoitzaren eraikigarritasuna, alde batetik, eta zoru urbanizatuak, eremuaren berezko erabileratzat harturiko erabileraren erreperkusiobalioaren arabera, erabilera edo erabilera-multzo bakoitzerako duen erreperkusiobalioaren ponderazio edo homogeneizazio koefizienteak. Berezko erabileraren sabaimetro karratutan adierazten da eraikigarritasun ponderatua.

D) Batez besteko eraikigarritasuna

Eremuaren eraikigarritasun ponderatua eremu horren guztizko azaleraren artean zatitu ondoko koefizientea da **batez besteko eraikigarritasuna**. Kalkulu honi begira, unean uneko lurralde esparru bakoitzean sistema orokorren hornidura publikoei eta haien eskuratzeari begira bereizi diren lurren azalera guztiak erantsiko zaizkio guztizko azalera horri. Hartatik kanpo geratuko dira hiri antolamenduak ordurako sendoturik zituen sistema orokorrak.

Eraikigarritasunaren mugak

Hiri Zoru ez sendotuko eremuetan eta **nagusiki egoitza erabilera** duten jarduera integratuen bitartez bideratu eta gauzatuko diren exekuzioetan, kopuru **goren** batek mugatuko du sestra gaineko eraikigarritasun fisikoa hornidura publikoetarako ez diren erabilera guztietan, eta inoiz ez du gaindituko 2,3 metro koadro sabaiko indizea eremuaren azalerako metro karratu bakoitzeko, kontuan hartu gabe sistema orokorretarako bereizi den lurra. Salbuespen gisa, hirigintza-eraikigarritasun maila handiagoak onartu ahal izango dira hiriaren erreforma eta eraberritze jardueretan, izaera orokorreko indizea bideratzeko aukerarik ez badago.

Hiri Zoru ez sendotuko eremuetan eta **nagusiki egoitza erabilera** duten jardueretan, eta hornidura publikoetarako ez diren erabilera guztietan, sestra gaineko eraikigarritasun fisiko gorenak ez du 1,3 metro koadro sabaiko indizea inoiz gaindituko, eremuaren azalerako metro karratu bakoitzeko, kontuan hartu gabe sistema orokorretarako bereizi den lurra. Salbuespen gisa, hirigintza-eraikigarritasun maila handiagoak onartu ahal izango dira, haren maila gorena %10ekoa izango delarik.

Bestalde, nagusiki egoitza erabilera duen Eremu edo Sektore bakoitzean, eta sestra gaineko **eraikigarritasun fisiko txikiena** ez da hornidura publikoetarako ez diren

erabilera guztietan 0,4 metro koadro sabaiko indizea eremuaren edo sektorearen azalerako metro karratu bakoitzeko aplikatu ondoren sortuko dena baino apalagoa izango, kontuan hartu gabe sistema orokorretarako bereizi den lurra. Hala eta guztiz ere, batez besteko malda %15ekoa edo pikoagoa duten zoruen kasuan 0,3 metro koadro sabaiko indizea izango da indize hori metro karratu bakoitzeko, eta balio txikiago bat onartu ahal izango da, halaber, salbuespen gisa, haren maila gorena %20koa izango delarik

Hiru Zoru ez Sendotuko Eremuetan eta erabilera nagusia **industria** edo **zerbitzuak** duten/ dituzten Sektoreetan, eremu edo sektore bakoitzaren guztizko azaleraren gutxienez %30 okupatu beharko du eraikuntzak.

Oro har, beren horretan iraungo dute plangintzaren etorkizuneko aldaketetan hirigintza-eraikigarritasun gorenek eta txikienek, eta haiek bezala sistema orokorren sareko hornidura publikoetarako lur-erreserbek ere, berrikuste prozesutik kanpo bideratu arren.

5.2.9 Antolamendu xehea

Plan Nagusiaren 61.a) artikulua arabera, hiri zoru sendotuan baizik ez da derrigorrezkoa **antolamendu xehea**. Era berean eta, 61.b) artikulua zehazten duen bezala, hautazko izaeraz, **hiri zoru ez sendotuan** eta **zoru urbanizagarri sektorizatuan** ere xeda dezake Plan Nagusiak antolamendu xehea. Hala eta guztiz ere, bigarren aukera horretan, nahikoa izango du garapenerako plangintza batera jota.

Hona hemen antolamendu xehearen berezko egitekoak, 56.1 artikulua arabera:

- 1.- Sistema lokalak definitu (79. artikulua estandarrek errespetatuz), eta sistema horiek Plan Nagusian definituriko sistema orokorren sarearekin lotu eta hartan integratu.
- 2.- Hirigintza Jarduera Programa (HJP) bakar baten helburua diren jarduera integratuak zehaztu, hiri zoru ez sendoturiko eremuetan eta zoru urbanizagarriko sektoreetan.
- 3.- Zoruan hiri zoru sendotu eta ez sendotu kategoriak bereizi.
- 4.- Hiri zoruan, Jarduera Isolatuen bitartez eraiki daitezkeen orubeak eta lur-sailak zehaztu.
- 5.- Baimenduriko erabilera bakoitzaren gehienezko eta gutxienezko ehunekoekin bateragarriak diren eraikigarritasun fisiko xeheak eta erabilera bateragarriak 35. eta 77. artikuluen argitan finkatu.

- 6.- Erabileren artean ponderazio-koefizienteak ezarri, hala hiri zoruan nola zoru urbanizagarri sektorizatuan (banaketa berdinerako tresnen bidez eguneratuko dira).
- 7.- Eraikuntzaren eta eraikinen oinarriko osagaiak zehaztu (altuerak, solairu-kopurua, hegalkinak, ibilgailuen aparkalekuak).
- 8.- Lerrokadurak eta sestrak zehaztu. Azterketa Xehe baten bidez zuzendu ahal izango dira, 73. artikulua araberera.
- 9.- Antolamendutik kanpo geratuko diren eraikuntzak eta eraikinak banan-banan identifikatu, 101. artikulua araubideari jarraiki (haien desagerpena aurreikusi behar baita epe jakin batean, Jarduera Isolatu, Jarduera integratu edo sistema orokor edo lokala baten arabera Exekuzio Jarduera batean sartu direlako)
- 10.-Azterketa Xeheen erredakziorako irizpideak, 73. artikulua aintzat hartu eta gero.
- 11.-Planaren antolamenduaren arabera lursail-banaketa, eta etorkizuneko aldaketetan kontuan hartu beharreko baldintzak eta mugak, zehazturiko esparru bakoitzari dagokion gutxienezko lur-saila zehaztuta.

Maila hierarkikoari dagokionez, eta 58. artikulua xedaturikoari jarraiki, antolamendu xehearen zehaztapenak ezin etorriko dira egituraren antolamenduaren kontrakarrean, Plan Nagusia aurrez edo aldi berean ez bada aldatu edo berrikusi. Egituraren antolamenduaren eta antolamendu xehearen arteko kontraesan baten aurrean gertatuz gero, Plan Nagusiak egituraren antolamenduari begira xedaturikoa lehenetsiko da beti.

103.3 artikulua araberera, egituraren antolamenduaren eta antolamendu xehearen zehaztapenak **bereiztea** guztiz garrantzitsua da, halaber, Plan Nagusiaren Aldaketari begira, egituraren antolamenduaren berezko arauetara eta antolamendu xehear, Plan Partzialen edo Hiri Antolamendurako Plan Berezien bidez, ekarritako hobekuntzetara moldatuko baita Aldaketa hori (104.a artikulua).

5.2.10 Sistema lokalaren hornidura sarea.

Plan Nagusiak hiri zoru sendotuan antolamendu xehea zehaztu behar izango duen uneetan, edo bere ahalez beste zoru mota batzuetan hala jokatzeko erabakitzen duenean (56.1.a artikulua), eremu edo sektore bateko erabilera eta zerbitzu nagusiaren funtzioen arabera horniduren multzoak osatuko du, 57. artikulua xedaturikoari jarraiki, **sistema lokalaren** izaera izango duen hornidura sarea. Honako hornidura hauek dira zehazki:

- 1.- Berdeguneak eta espazio libreak (hiri parkeak, lorategiak eta plazak), etxebizitza berri bakoitzeko zuhaitz bat estandarraren arabera. Sektorearen kasuan, azaleraren %15, 79. artikulua zehazten duen bezala.
- 2.- Titularitate publikoko ekipamendu kolektiboak (hezkuntza, kultura, osasun, asistentzia, kirol eta administrazio guneak), 10 m² zoru sestra gaineko 25 m² sabaiko estandarraren arabera, 79. artikulua zehazten duen bezala.
- 3.- Urbanizazioa zehazten duten zerbitzuen azpiegiturak (ibilgailu eta oinezkoentzako sarbideak, uraren ekarrera eta hornidura, argi-indarraren ekarrera eta hornidura, saneamendua, argiteria, telekomunikazioak eta ibilgailuen aparkalekuak) eta, gainera, teknologiaren bilakaeraren arabera, eraikuntzak bere hornidurarako beharko dituen guztiak, bai eta azpiegituren garapenari begira eginiko aurreikuspen orokorren arabekoak ere.
- 4.- Bide publikoak –ibilgailu eta oinezkoentzako–, horniduren sarera bilduriko elementu guztiak elkarren artean lotuz eta komunikatuz, sare bakar baten jarduera bermatzearen.
- 5.- Ekipamendu pribatuak (merkataritza, kultura, hezkuntza, kirol, osasun, asistentzia, erlijio eta garraio guneak) honako estandar honen arabera: m² bat sabai / 25 m² sabai, 79. artikulua zehazten duen bezala.

5.2.11 Plangintza tresnak

Irungo Plan Nagusia Berrikusteko prozesuaren lege-esparruaren gainbegiratu labur honi amaiera emateko, eta, Diagnostikoaren dokumentuan aurkeztu ditugularik, Legearen beste alderdi garrantzitsu batzuk, hala nola, moldatu ezin daitezkeen eraikinen auzia, zoruaren jabetzaren edukia edo hirigintza-exekuzioa, aipatu ere egingo ez ditugula jakinik, merezi du, halarik ere, egun bidera daitezkeen **plangintza tresnen laburpen** bat egitea, azalekoa bada ere.

Guztiz bereizten ditu Legeak, **Egituraren antolamendurako planak**, hau da, Plan Nagusia, Sektorizazio Plana eta Bateratze Plana, alde batetik (63. artikulua), eta **Antolamendu xeherako planak**, hau da, Plan Partziala, Hiri Antolamendurako Plan Berezia eta , osagarri gisa, Azterketa Xehea, eta, zenbait afekzio eta aspektu bideratu ahal izateko koordinazioa ezinbestekoa delarik, hainbat udalen arteko **bateratze planak**, bestetik.

Sektorizazio Planaren eta Konpatibilizazio Planaren **garrantzia** handia da, Plana Nagusiak egituraren antolamendurako eginiko zehaztapenak osatu eta, areago, guztiz eraberritu baititzakete, aldaketarako espedientera jo gabe. Haien edukiei dagokienez, **zoru urbanizagarri ez sektorizatuaren** egituraren antolamendua zehazten du **Sektorizazio Planak** (64. eta 66. artikulua bitartean), eta **hainbat udalerriren** arteko mugaldea antolatzen ditu **Bateratze Planak**, Plan Nagusien arabera egitura-antolamendua koordinatu ahal izateko. Maila horretako zehaztapenak arautu ahal izango dituzte **Antolamendu xehetako bateratze planek**, hala behar bada.

Plan Nagusiak **xeheki antolatu ez duen hiri zoruaz** arduratuko da **Hiri Antolamendurako Plan Berezia** (70. artikulua). Zoru urbanizagarria arautuko du Plan Partzialak. Egun, ordea, Plan Nagusiak zoru urbanizagarriko sektore zehatz bati begira eginiko zehaztapenak ere alda ditzake, antolamendu xehetari dagokion maila hierarkikoa duenean eta aldaketarako espedientera jo beharrik izan gabe (67. eta 68. artikulua).

Antolamendua xehetia osatzen du **Azterketa Xehetia** zeinahi zoru motatan (73. artikulua), lerroak eta sestrak zuzenduz, bolumenak ordenatuz, eta urbanizaziorako obren estetika eta konposizio-ezaugarriak arautuz, baina ezin du hirigintza-erakigarritasun maila goratu, zoruaren helburua aldatu edota bideak kendu edo murriztu, bide berriak edo hornidura publiko berriak gauzaraz ditzakeen arren.

Azkenik, egituraren antolamenduaren berezko zehaztapenetara mugatuko da, bestalde, **Bateratze Plana** bere edukian eta egitekoan. Hala eta guztiz ere, haren xede eta helburuei begira komenigarri bada, antolamendu xehetaren berezko zehaztapenetara ere luza litezke bateratzearen edukiak, Zoruaren eta Hirigintzaren Legea garatzen duen Premiazko Neurrien 105/2008 Dekretuaren 13. eta 14. artikuluetan zehaztu den bezala.

5.3- ESPARRUEN FITXAK

5.3.1 Esparruen fitxen helburuak eta edukia

Zoruaren kudeaketaren lege-esparruari buruzko azpi-kapituluan azaldutako guztiaren arabera, 1999ko Plan Nagusiak erabili zuen irizpide berari eustea erabaki dugu eta, beraz, **Zehaztapen eta parametro fitxa** banaren bidez identifikatuko dira antolatu beharreko esparruen **etorkizuneko garapenerako baldintzak**. Gure kasuan, zuzenean lotuko dugu fitxa hori Planaren dokumentua erredaktatzeko bideratu dugun Informazio Geografikorako Sistemarekin.

Oraingo Plan Nagusietan ezinbestez aintzat hartu behar diren **kontzeptu desberdinetatik** eskutik datorkigu fitxa hauen eta 1999ko Plan Nagusiaren Fitxen artean kontzeptu mailan dagoen desberdintasun handiena. Izaera lotesleko kontzeptuak dira horiek guztiak: egitura izaerako zehaztapenak, hain zuzen ere, legeria berriak kontzeptu horietaz egin duen definizioak azaltzen duen bezala.

Halatan, Fitxak prestatzerakoan, argi eta garbi bereizi nahi izan dugu betiere **hirigintza-egituraren antolamendua** eta, beraz, alde batean zehaztu dugu **erabilera globalen erreferentzia grafikoa** eta beste batean **parametroak** (erregimen orokorra, Erabilera Globalak eta Erabilera eta Hirigintza-eraikigarritasunerako Baldintzak, zehazten dituzten zenbakiak).

Testuan idatziriko baldintzen bitartez adierazi dira **zehaztapenak** eta Fitxaren Aurrerakinera bertsioan aurkeztu dira, izaera egituratzailekoak izango diren ala ez oraindik erabaki ez den arren. Era berean, alde bat utzi dugu **hirigintzaren antolamendu xehea**, haren arabera zehaztapenak ez baitira egituratzaileak. Hala behar badu, Fitxaren betiko bertsioan egingo zaie harrera zehaztapen mota hauei, Hasierako Onarpenerako dokumentuan.

Beraz, Planak **proposaturiko esparru berriei** dagozkien Esparru Fitxak baizik ez dira **Aurrerakinaren fasean** aurkeztu eta garatuko. Haiekin batera joango dira, halaber, aurreko Planetik datozen esparru aldatuei buruzko Fitxak ere: kasu honetan, irabazizko probetxamenduak dituzten esparruen Fitxak baizik ez dira kontuan hartuko.

Hasierako Onarpenerako dokumentu osoan egingo zaie harrera 1999ko Plan Nagusiaren arabera Esparru Fitxari, kontuan hartu gabe gauzatu diren, gauzatzen ari diren edo tramitazioan dauden. Kontuan hartuko da Plan Nagusiaren ikuspegitik

komenigarritzat jo dela plangintza-esparru gisa irautea. Harrera egingo zaie, era berean, Ekipamendu eta Espazio Libreen esparruei.

Fitxei erraz ulertzeko eta identifikatzeko **itxura** ematen saiatu gara, **arloz arlo sistematizatuz** eta esparru bakoitzaren garapena aurreikusteko momentuan kontuan hartu beharreko baldintza-multzo guztien kontsulta bizkorra erraztuz. Halatan, **formatu edo txantilo bera** bideratu dugu hiri zoru sendotuetan eta zoru urbanizagarrietan, hala ekoizpen-jardueretarako esparruetan nola egoitzarakoetan. Logikoa denez, bete gabe geldituko dira kasu batzuetan arlo batzuk, esanguratsuak ez direlako (industria-esparruetako etxebizitzari dagozkionak, esate baterako).

Garrantzitsua delako adieraz dezagun Esparruen Fitxak **hirigintza-legeriaren** zatitza hartu behar direla, eta garapenerako plangintza-esparru bakoitzari dagozkion **zehaztapan egituratzaile** guztiak ageriko dituzte, hala hiri zoru ez urbanizatuan bola zoru urbanizagarri sektorizatuan. Fitxa komun batez adierazi ahal izango da zoru urbanizagarri **ez sektorizatua**, baina eskema berari jarraiki betiere. Kasu horretan datu xingleoak aurkezten dituen fitxa bidera liteke eremu bakoitzean.

Aurrerakinean aurkezturiko fitxetan, hainbat ataletan garatu dira **Zehaztapan** orokorrak: Kokapena eta Deskripzio Orokorra egiten dira aurreneko **A atalean**, jardueraren Helburu Orokorrak zehazten dira bigarren **B atalean**, Hirigintza-Antolamendurako Zehaztapanak egiten dira **D atalean**, eta "Aintzat hartu beharreko beste zehaztapan batzuk ageri dira **azkeneko atalean**. Hasierako Onarpenerako fasean hautatuko dira izaera loteslekotzat hartuko diren edukiak, hirigintza-antolamendu egituratzailekoak diren aldetik.

Edukia oraindik zabalik duten zehaztapanak ageri ditu **azkeneko D atalak**. Halatan, antolamendu xeherako gomendio gisa edo izaera loteslez sarraraziko dira ondoren, lanen ondoko garapenaren eta jendaurreko informazio-kanpainaren emaitzen arabera. Hala eta guztiz ere, ez dira esparru hauen hirigintza-antolamendu xehearen parametroak ez eta haiei buruzko datuak jaso.

5.3.2 Esparruen Fitxen egitura eta antolakuntza

Plangintzaren arabera berrikusi beharreko esparru berrien Esparru-Fitxak liburuki autonomoan koadernatu dira, honako egitura honen arabera:

HIRIAREN EGITURAREN ANTOLAMENDUA – ERREFERENTZIA GRAFIKOA

Erabilera Globalen Planoa

HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA – ASKOTARIKO ZEHAZTAPENAK

- A- Kokapena eta Deskripzio Orokorra**
- B- Jardueraren helburu orokorrak**
- C- Hirigintza-antolamendurako Zehaztapenak**
- D- Aintzat hartu beharreko beste zehaztapen batzuk**

HIRIAREN EGITURAREN ANTOLAMENDUA – PARAMETROAK

- **Erregimen orokorra**
Hirigintza-sailkapena, antolamendu xehea zehazteko tresna, Programazio eta exekuzio erregimen orokorra, Esparruaren guztizko azalera sistema orokorrak barne, Hirigintza-eraikigarritasuna azalera guztian, Eraikigarritasun-indizea azalera guztian.
- **Erabilera Globalak eta Sistema Orokorrak**
Kalifikazio global bakoitzaren kode eta izenaren eta bakoitzak okupaturiko zoru-azaleraren erreferentzia eginez.
- **Erabilera eta Hirigintza-eraikigarritasunerako baldintzak**
Honako erreferentzia hauek eginez: berezko erabilera globala, Eraikigarritasun Fisikoa sestra ganean eta pean, Baimenduriko erabilera bateragarriak, egoitza erabilerarako eraikigarritasunaren emendioa, egoitza erabilerako esparruetan baizik ez, eta Etxebizitza Librean, Babesturiko Etxebizitzen, Etxebizitza Tasatuen eta Hornidura-Lojamenduen azaleraren eta etxebizitza-kopuruaren portzentajeak, orientabide gisa.

Horiez gainera, Hasierako Onarpenerako dokumentuan beteko den laugarren Fitxa bat aurreikusi da.

HIRIAREN ANTOLAMENDU XEHEA – PARAMETROAK**5.3.3. Planaren Berrikustearen araberako esparru berrien zerrenda**

Hona hemen planaren berrikustearen araberako esparru berrien zerrenda osoa, haien artean kontuan harturik ekoizpen-jarduerei, egoitza erabilera globaltzat dituzten eremuei eta hornidura izaerako guneei dagozkienak.

GARATZEKE DAUDEN 1999ko HAPNko ESPARRU ALDATUAK**DATU OROKORRAK: GAKOA ETA AZALERA GORDINA**

| GAKOA | IZENA | ERBILERA GLOBAL NAGUSIA | AZALERA GORDINA m² zoru |
|--|-------------------------|--------------------------------|---|
| 0.1.01 | GELTOKI INGURUA 1. ALT. | BURDINBIDEA-ASKOTARIKOAK | 386.924 |
| 0.3.01 | KOSTORBE | EKIPAMENDUA | 20.962 |
| 1.1.10 | ARASO IPAR: LUZ: | INDUSTRIA | 214.478 |
| 1.1.11 | OIANTZABALETA LUZ. | INDUSTRIA | 117.539 |
| 1.1.12 | ARASO-SASIKOBURUA | ZERBITZUAK | 40.561 |
| 1.2.02 | ARABA KALEA | EGOITZA | 12.008 |
| 1.2.13 | KATEA ERDIALDEA | EGOITZA | 29.584 |
| 1.3.10 | BELASKO ERAIKINA | RESIDENCIAL- ASKOTARIKOAK | 29.247 |
| 1.3.11 | ARRETXEKO MALDA | EGOITZA | 1.839 |
| 2.1.07 | JAIZKIBEL ASISTENTZIA | EKIPAMENDUA | 17.811 |
| 2.1.08 | ZABALETA | ENPRESA – TEKNOLOGIA PARKEA | 292.618 |
| 2.1.09 | URDANIBIA-ZUBIETA | ENPRESA – TEKNOLOGIA PARKEA | 90.916 |
| 2.1.10 | PUIANA-KIROL. | EKIPAMENDUA | 34.402 |
| 3.2.09 | SAN MIGEL EKIPAMENDUA | EKIPAMENDUA | 4.197 |
| 4.1.02.01 | ZUBIMUSU I | ESPAZIO LIBREAK - EKIPAMENDUA | 70.712 |
| 4.1.02.02 | ZUBIMUSU | ESPAZIO LIBREAK | 59.368 |
| 6.2.07 | RATAPLAN | EGOITZA | 9.373 |
| 6.2.08 | ALEI | EGOITZA | 6.658 |
| 6.3.08 | EGUZKITZALDEA | EKIPAMENDUA | 45.810 |
| 7.1.03 | ARTIAKO IBILBIDEA | EGOITZA- ASKOTARIKOAK | 10.422 |
| 7.2.08 | MATXALAGAIN | EGOITZA- ASKOTARIKOAK | 165.436 |
| 8.2.05 | BLAIA | EGOITZA- ASKOTARIKOAK | 172.069 |
| 8.2.06 | GAZTELUBERRI | ESPAZIO LIBREAK - EKIPAMENDUA | 20.125 |
| 8.3.04 | LASTAOLA POSTETXEA | EGOITZA | 17.642 |
| 8.3.05 | MENDIPE | EGOITZA | 19.064 |
| 8.3.12 | PAUSU | ZERBITZUAK- ASKOTARIKOAK | 9.762 |
| 9.1.01 | IBARROLA | EKIPAMENDUA | 35.036 |
| 9.1.02 | OLABERRIA ALDEA | ENPRESA – TEKNOLOGIA PARKEA | 600.882 |
| PROPOSATURIKO ESPARRUEN AZALERA GUZTIRA | | | 2.535.445 |
| 0.1.01 | GELTOKI INGURUA 2. ALT. | BURDINBIDEA-ASKOTARIKOAK | 310.782 |
| GUZTIRA 2. ALT. GELTOKI INGURUAREKIN BATERA | | | 2.459.303 |

6. kapitulua

KOMUNIKAZIO SAREAK

AURKIBIDEA: 6. KAPITULUA – KOMUNIKAZIO SAREAK

| | |
|--|----------|
| 6.- KOMUNIKAZIO SAREAK | 1 |
| 6.1- BIDE AZPIEGITURA: PROPOSAMENAK | 1 |
| 6.1.1 Egoeraren hausnarketarako oinarriak | 1 |
| 6.1.2 Errepide sareko arazo nagusiak | 1 |
| 6.1.3 Proposamenen planteamendu orokorra | 3 |
| 6.1.4 Bide sarearen hobekuntzarako proposamen nagusiak | 5 |
| 6.1.5 N-1 Saihesbidea: egungo egoera eta baldintzak | 6 |
| 6.1.6 N-1 Iparraldeko Saihesbidea (“N”) Alternatibak) Egungo trazatua banatzeko prop. | 9 |
| 6.1.7 “N-Ibaia 1” alternatiba Osinbiribil eta Behobia artean: galtzada gainezarriak | 10 |
| 6.1.8 “N-Ibaia 2” alternatiba Osinbiribil eta Behobia artean: maila bereko galtzadak | 12 |
| 6.1.9 “N-Behobia 1” alternatiba Behobiako igarobidea: Autopistarako egungo lotuneari eutsita | 13 |
| 6.1.10 “N-Behobia 2” alternatiba Behobiako igarobidea: Autopistarako sarbide berria | 13 |
| 6.1.11 Hiriaren Hegoaldeko Ingurabidea. | 14 |
| 6.1.12 “R-1” alternatiba Hegoaldeko Ingurabidea: Autopistaren iparraldeko trazatua | 16 |
| 6.1.13 “R-2” alternatiba Hegoaldeko Ingurabidea: Trazatua Autopistaren bi aldeetan | 17 |
| 6.1.14 “R-3” alternatiba Hegoaldeko Ingurabidea: Autopistaren hegoaldeko trazatua | 17 |
| 6.1.15 Hegoaldeko Saihesbidea (“S” Alternatibak): Proposamena A-8 autopistaren paraleloan | 18 |
| 6.1.16 “S-1” Alternatiba. Hegoaldeko Ingurabidearen trazatua A-8aren hegoaldean | 20 |
| 6.1.17 “S-2” Alternatiba. Hegoaldeko Ingurabidea. Trazatu indep. A-8aren hegoaldean | 21 |
| 6.1.18 “S-3” Alternatiba. Hegoaldeko Ingurabidea. Trazatua A-8aren hegoaldean eta ipar. | 21 |
| 6.1.19 Beste soluzio batzuk egitura sare banatzailean.- Proposamenak | 22 |
| 6.2.- BURDINBIDE AZPIEGITRURA: PROPOSAMENAK | 24 |
| 6.2.1 Egoeraren hausnarketarako eta arazoen identifikaziorako oinarriak | 24 |
| 6.2.2 Burdinbide sareko proposamen nagusiak. | 27 |

6.- KOMUNIKAZIO-SAREAK

6.1- BIDE-AZPIEGITURA: PROPOSAMENAK

6.1.1 Egoeraren hausnarketarako oinarriak

Komunikabideen azpiegiturei dagokienez, **egungo egoeraren gaineko hausnarketa**-lan sakona bideratu dugu Plangintzaren Aurrerakinaren fase honetan eta, analisi horri begira, egungo sarearen errealitatea bezala hartu ditugu kontuan azkenaldi honetan 1999ko Plan Nagusian aurreikusitakoaren arabera bultzaturiko jarduerak.

Aintzat hartu ditugu era berean 2007. urtean trafiko eta garraio-ereduetan espezializaturiko aholkulariek eginiko **aurre-azterketak**, egungo arazo nagusiak kopurutan neurtzeko aukera emateaz gainera etorkizunean, errepideen sarearen hobekuntzari eta zabalkuntzari begira neurriak hartu ezean, epe erdian eta luzean azalduko zaizkigunak hautemateko parada ere eskaini digutenak.

Sarearen desegokiera, eskasia eta itomen-arazo horietako asko aipatuak dira gaurgero Plan Nagusiaren berrikuste prozesuan **Diagnostikoaren** berri eman zen **Txostenean**, eta Irungo Udalaren **Agenda 21aren** konklusioen artean zehaztu ziren halaber haietako batzuk.

Gainera, Aurrerakina prestatzen ibili garen hilabeteotan, hainbat **lan-bilera** egin dira hirien arteko errepide-sarearen arduradunekin, bai eta **Hondarribiko Udalarekin** ere, bi hirion lurraldea zeharka nahiz zuzenean eragina duten arazoaren konponbidea elkarrekin adosturik zehaztu eta bideratu nahian.

6.1.2 Errepide sareko arazo nagusiak banan-banan

Oinarri horietatik guztietatik abiatu eta gero saiatu gara errepide-sarean, egungo egunean den horretan, hautemaniko **arazo** eta premia **nagusiak** zehazten. Hona hemen banan-banan, sare barruko mailen arabera sailkatuak:

HIRIEN ARTEKO SARE NAGUSIA

- Aldundiak Gaintxurizketaren eta Osinbiribileko lotunearen artean aurreikusiriko bide-banaketari esker, handitu egingo da N-1 saihesbideak **Hondarribiak** eta **Aireportuak** N-638 errepidearekiko lotunean **sorrarazitako trafikoak** hartzeko

duen gaitasuna, sarbide horiei egoki erantzunez, baina kogestio-arazoa eragingo du Osinbiribileko lotunean, Irun hiriaren erdialdean hain zuzen ere.

- Horrela segituz gero, N-1 saihesbidea ez da etorkizunean **Osinbiribil eta Behobia bitartean** sorraraziko den trafiko-emendioa hartzeko gauza izango.
- Kogestio-arazoak, diseinu desegokiak eraginak, N-1 saihesbidearen eta **Iparraldeko Hiribidearen** arteko **bidean**, alde batetik, eta N-1 saihesbidearen eta Nafarroarako N-121 errepidearen eta Baionarako N-10 errepidearen arteko bidean, **Behobiako** lotunean hain zuzen, bestetik.
- Irungo hiri-saretik **sarbide berri bat** bideratu beharra dago **A-8 autopistara**, egun Katea eta Behobia lotuneetan daudenen artean, hiriaren erdialderako sarrera zuzenagoa izan dadin.
- A-8 autopistarako sarbide berri hau gauzatuz gero, komenigarria litzateke hiriaren **Ekialderanzko fluxuak** hartara bideratzea. Apaldu egingo litzateke, horrenbestez, N-1 saihesbideak egun pairatu beharreko presioa.

HIRI BARNEKO EGITURA-SARE BANATZAILEA

- Hegoaldeko eremuak eta auzoak eta hirialde horretan oraindik garatzeke dauden hirialde berriak lotuko dituen **perimetro-bidea** artikulatu beharra, egiteko horretaz gainera, Irungo perimetroko eta auzoen arteko trafikoa hartuko dituen eraztuna guztiz ixteko.
- A-8 autopistarekin lotzeko, premiazko hartu den sarbide berriaren banaketa-bide gisa erabiliko da halaber bide hori.
- Burdinbideko espazioa birmoldatzeko bidera litezkeen jarduerak ere baliatu beharko lirateke **banaketa-bide berriak trazatzeko**. Bide-sorta berri horrek artikulatu eta osatu beharko luke hiri-sarea, eta funtsean hobe liteke, horrenbestez, hiriaren erdiko gunearen eta mendebaldeko lurraldeen arteko lotura, Colon Ibilbide eta Hondarribia kalearen gaineko trafiko-presioa arinduz.
- Hiriko **barne-sareko hierarkia** argitu beharra, gaitasun aski emanaz egituratzaile izango diren, hau da, bideak banatzeko gaitasuna izango duten bide, bidegurutze eta biribilguneei. Tokiko bidetzat hartuko dira gainerako bide guztiak, hau da, etxe-sail eta lur-sailetarako sarbide eta aterabide xeheak baizik ez dira izango.

TOKIKO SAREA

- Bideak hierarkia baten arabera ordenatzeko ahalegin honetan, beharreko neurriak hartuko dira toki izaera duten bideen sareak **etenik izan ez dezan bere bilbean**, ahalik eta sargarritasun maila egokiena eskaini dezan.
- **Erdi mailako erabilera-intentsitatean** eutsi behar zaio hiriko barne-zirkulazioari, egungo maila gainditu gabe. Halatan ekin ahal izango diogu karrika batzuetan **oinezkoen bideak** zabaltzeko edo/eta **bi motatako trafikoak** onartuko dituen plan bati. Karrika horiek toki izaerakoak eta erdialdekoak izango dira partikularzki. Neurri hauen bitartez, babestu egingo da hiri barneko bide-sarea eta egoitza-erabilerarekin, hau da, alde horretako erabilera nagusiarekin bateragarriak izango da beti alde horietako trafikoak.
- Hiri barneko zirkulazioa moderatzeko estrategiarekin batean, ahalik eta neurri handienez **arindu** beharra dago **Colon ibilbideko ardatzetik** eta haren luzapenetatik (Hondarribia kalea eta Nafarroako Hiribidea) igarotzen den trafikoak (hiri barrukoa eta hirien artekoa), ardatz horren banatzaile izaerari eutsiz betiere.
- **Plan Nagusiaren antolakuntzaren** arabera, bide-sarearen lerrokaturak zehazterakoan guztiz kontuan hartu beharko da oinezkoen eta bizikletarien zirkulazio-sarea bideratuko duen plana, hau da, **higikortasun iraunkorrerako plana**, aintzat harturik, aldi berean, garraio kolektiborako bide-sareak, ibilgailu pribatuaren aurreko alternatiba gisa. Plan Nagusitik **bereiz bideratu** ahal izango dira plan hauek, ez baitira horretarako haren zehaztapenak aldatu behar izango.

6.1.3 Proposamenen planteamendu orokorra

Plan Nagusi berriak bide-sarean konpontzeko xedea hartu dituen arazo nagusiak zein eta zertan diren zehaztu dugun honetan, xeheki aztertu ditugu bide-komunikazioan ditugun arazo horien aurrean **bidera litezkeen soluzioak**, **Aurrerakinaren dokumentuan** soluzio posible horietako bakoitzak dituzkeen **aldeak eta kontrakoak** argi eta garbi azaltzeko aukera izateko.

Kontuan hartu dira, halaber, Plan Nagusiaren **aurre-azterketetan Irungo higikortasun eta trafikoaren** arloetan eginiko azterketak eta proposaturiko jarduera estrategikoak (2007ko otsaila), haien aplikazio praktikoak leharzkitzeko egiazko aukerak ebaluatu nahian.

Zentzu honetan, kontuan har dezagun betiere, Hiri Antolakuntzarako Plan Nagusiaren egiteko zehatza trafikoen eta hiri higikortasunaren plangintza xehea ez den arren, guztiz beharrezkoa dela, aldiz, **garraioan** osotasunean **soluzioak ahalbidetuko** dituen ikuspegi batetik lan egitea. Halatan, egun sendoturik dauden eremuetako eskariari bezala erantzun behar diete soluzio horiek hirigintzarako proposatuko diren eremu berriei ere.

Zera erabaki da, bestalde, hauteman diren arazo nagusiei dagokienez: Udalaren Plan Nagusiak ez luke **A-8 saripeko autopistaren** egungo jarduera eta ustiakuntza-baldintzak aldatzeko komenentziaren gaineko eztabaidan sartu beharko, egungo arazoen konponketa ustez oraingoz hartuko ez den erabaki baten baitan ez uztearren. Nolanahi ere, uste izatekoa da haren erabilera erraztu edo libre utziko duten aukerak aintzat hartuko diren unea noizbait iritsiko direla, Irungo hirian barrena igarotzen den tartean behinik behin.

Era berean, **N-1** errepideak sorrarazten dituen arazoen premiazko konponketari dagokionez, banan-banan hartu dira arazo horiek guztiak, **edukiera handiko sarea** dela kontuan harturik. Izan ere, Bidasoaldeko **joan-etorrien eskariaren** portzentaje garrantzitsu bat hartzea eta bideratzea da sare horren egiteko nagusia. Hartara, eraman beharreko trafikoen izaera, **hiriaren arteko trafikoen** izaera batez ere, hartu dira bereziki aintzat.

Hala eta guztiz ere, **N-1 errepidearen Iparraldeko Saihesbidea** hartu dugu aintzat hiriaren iparraldean eta ekialdean, **hiri zoru sendotuan barrena egiten baitu ia-ia bere bide guztia. Ingurabidearena** da, halaber, haren **egitekoa**, alde horietan zabaltzen diren auzoetarako sarbideak eskaintzen dituen aldetik. Argi dago, itxuraz, eta N-1 saihesbide honi Irunen barrena etorkizunean egokituko dioten diseinua alde bat utzirik, ezin murriztu egingo dela **hiri barruko trafikoari perimetroko bide gisa** eskaintzen dion **zerbitzua** murriztu.

Aztertu ere egin dugu sareak Hegoaldetik osatzeko duen premia, ezin utzizkoa. Aintzat hartu dugu, Irungo hiriaren berezko **hiri-sareztat** jo dugunaren barnean, barneko ingurua osatuko duen **Ingurabide** bat, egungo eta etorkizuneko auzoei Hegoalderako sarbidea eskainiko diena. Hainbat dira ingurabide honetarako aurkeztu diren alternatibak.

Bereziki saiatu gara Ingurabide berriaren Hegoaldeko tartea zehazten. **Hiri izaerakoa** izango da, argi eta garbi, eta haren **exekuziorako** ahalik eta gehien baliatu beharko lirateke alde horretan garapenerako aurreikusitako diren esparru berriak.

Baina denboran luzeago jorik, **N-1 errepidearen Hegoaldeko Saihesbiderako** soluzio bat planteatu nahi izan du Planak hirialdearen ertz horretan. Hainbat alternatiba aztertu ditu horretarako: izan ere, Ingurabiderako alternatiba bakoitza **osatzen du** era berean Saihesbiderako alternatiba bakoitzak ere. Beraz, epe erdian edo luzean gauzatuko litzatekeen bigarren fasean egingo litzateke Hegoaldeko Saihesbide hori, egun hiri-eremuetatik horren hurbil igarotzen den Iparraldeko Saihesbideko ibilgailuen emana **arintzeko**.

Aurrerakinean aurkeztu diren **gainerako bide-soluzio berriei** dagokienez, garbi esan dezagun garrantzitsuak badira ere **bigarren mailakoak** direla eta oso puntualak kasu batzuetan. Plan Nagusi berriaren erronka handi bati begira zuzenduriko soluzioak dira, eta auzoen arteko higikortasuna ziurtatzea eta hiriko erdialdetik beste helmuga batzuetarako trafikoak aldentzea ditugu erronka handi horren helburu nagusiak.

6.1.4 Bide sarearen hobekuntzarako proposamen nagusiak

Aurrekari hauek guztiak aintzat hartu eta gero, azpiegitura landuko duten honako **interbentzio-multzo** hauetara bildu dira Plan Nagusiaren Aurrerakinak proposaturiko alternatiba nagusiak:

- **N-1 errepidearen Iparraldeko Saihesbidearen bideragarritasunaren hobekuntza, “N” soluzioak.** Hainbat proposamen egin dira haren banatzeari eta lotura-bide berriei begira, aintzat harturik halaber haren trazatua.
- **Zoru-erreserbak** hartu dira aintzat epe luzean, egungo **N-1** osatuko lukeen **Hegoaldeko Saihesbide** osagarriari begira, **“S” soluzioak**.
- **Hainbat alternatiba** hartu dira kontuan **hiri barneko eraztuna Hegoaldeko Ingurabide batez osatzeko, “R” soluzioak**. Egitura-bide banatzailearen izaera izango luke.
- **A-8 Autopistatik** Irungo hiriaren erdialderanzko **sarbide berri bat** zabaltzeko aukera.
- **Banaketa-bide batzuk** burdinbideak egun okupatzen duen espazioko trenbide-sarean barrena eta beste alde batzuetan **urrarazteko** aukera.
- Beste **banaketa-bide tarte estrategiko** batzuk, sargarritasuna eskasa duten hiriko gunek puntualago batzuetan.

6.1.5 N-1 Saihesbidea: egungo egoera eta baldintzak

N-1 errepide nazional zaharra Irungo hirian barrena igarotzen zen egungo Gipuzkoako Hiribide, Colon Ibilbide eta Nafarroako Hiribidetik, eta duela hogeita hamar urte pasa utzi zion hirigunearen erditik igarotzeari, tarte horren alternatiba eraiki eta gero: **N-1 errepidearen Saihesbidea**, Planaren dokumentuetan N-1 errepidearen Iparraldeko Saihesbidea deituko duguna.

Ardatz honek **Gipuzkoako iragaitzazko trafikoaren** zati handi bat eramaten du, ibilgailu astunen garraioa barne, eta funtzio garrantzitsua betetzen du, halaber, hiriaren iparraldeko ingurabide gisa, bai eta auzo askoren lotura-bide gisa ere, honako lotune hauen bitartez: Loiolalde - Letxunborroko Hiribidea, Zubimusu, Iparraldeko Hiribidea, Osinbiribil eta Behobia. Era berean, neurri txikiagoan erabilarazi ditu orain arte honako lotura-bide hauek: Urdanibia, Ospitalea, Plaiaundi - Lope de Irigoien, Artia, eta besteren bat.

Egun eta Aldundiaren kargu (gogoan har bedi haren administraziopean dagoela N-1 errepidearen saihesbidea) saihesbidea **banatzen** ari dira, norabide bakoitzak bi lerro izan ditzan, Gaintxurizketa gainaren eta Loiolalden A-8 autopistarako sarbidea abiatzen den lotunearen artean, eta sarbide berri bat atontzen ari dira Iparraldeko Hiribidera.

Era berean, **proiektua onartu** du Aldundiak saihesbidea Kateako lotunetik Osinbiribilerraino banatzeko eta Hondarribirako lotura-bidea, N-638 errepidearekin loturik, atontzeko. Banatze hau Hondarribiko lurretan egingo litzateke tarte batean eta aintzat hartu da Irungo Plan Nagusiaren berrikuste prozesuan. Era berean, Mendelun saihesbidea **lurperatzea** aurreikusi da eta, beraz, kendu egingo da Letxunborroko hiribiderako lotura-bidea. Haren ordez, biribilgune bikoitzeko sistema bat atonduko da Plaiaundi aldean.

Proiektu hauetatik landa eta kontuan hartu gabe azken urte hauetan egin eta proposatu diren azterlanak eta soluzioak, Irunen ez dago oraingoz **Osinbiribil-Behobia tartean** egokitze, banatze eta sarbideen hobetze lanen inguruko proiektu aski garaturik, eta egoera berean dago Behobian barrena igarotzen den bidea, kontuan harturik tarte honetan guztian bideak errail bana duela bi norabideetan.

Bereziki azpimarra dezagun **Osinbiribileko biribilgunearen eta Behobiaren arteko tarte** dela galtzada bikoitzeko zailtasun handien ageri duena, egungo sekzioa guztiz **mugaturik eta hertsaturik** baitago iparraldetik eta hegoaldeetik, hau da, Bidasoa ibaiaren ertzaren eta Artia auzoko Dario de Regoyos kaleko eraikinen ertzetako hormen artean.

Hartu beharreko erabakiak guztiz finkaturik ez dauden egoera honetan, garbi dago Plan Nagusiari dagokiola **soluzioaren aldeko proposamenak** egitea, kontuan harturik betiere saihebidetuz honen bi betekizun nagusiei hobekien erantzun egokia irtenbidea. Izan ere, ikuspegi horretan kontuan hartu beharra dago Gipuzkoako errepide nagusiko atala den arren ezinbestekoa dela, halaber, haren hiri izaera, Irungo hiriaren erdialdetik igarotzen den aldetik.

Arrazoizko epe batean N-1 errepidearen saihebidetuz guztizko alternatiba Hegoaldetik urratzeko unean itxuraz azaltzen ari diren zailtasun tekniko eta ekonomikoen aurrean, eta kontuan harturik saihebidetuz banatzeko **egun** aintzat hartuak diren **proiektuak aurreraturik** daudela, bide honen edukiera handitzeko premiak guztiz behartzen gaitu haren **banatzea osatzera**, norabide bietan bina lerro bideratuz Behobiaraino. Aldiz, banatzeko lanak egin ahal izateko, guztiz eraberritu eta birmoldatu beharko da **N-1 errepidearen bukaerako lotunea Behobiako gunean** berean.

Aldi berean, beharrezkoa da halaber saihebidetuz honetako **lotuneak eta biribilguneak** berriro diseinatzea, haietan barrean igaro beharreko trafikoen geldotzeak, "buxonak" alegia, saihestu ahal izateko. Bi aspektu hauek, saihebidetuz banatzea eta lotuneen egokitzapena, elkarren osagarriak eta, beraz, ezinbestekoak dira, aseko gaituen soluzioa lortuko badugu.

Bestalde, argi eta garbi aitortu beharra dago N-1 saihebidetuz, Loiolaldetik Behobiaraino, **hiri-sarean guztiz txertaturik** dagoen bidea dela. Izan ere, hiri barruko joan-etorrietarako egiten den erabilera ez ezik, kontuan hartu beharra dago fisikoki hirian sendoturiko zoruak eraiki edo egokituriko egoitza, hornidura nahiz berdeguneetatik oso hurbil igarotzen dela.

Duela urte franko saihebidetuz hartu zuten bide hau hiriaren erditik igarotzen zen errepidearen egiazko alternatiba izan zen hasieran, baina hiri ardatzean guztiz txertaturik dago egun eta, beraz, garbi dago erabakiko duten soluzioek, hirien arteko bideragarritasuna bermatzeaz gainera, **beste baldintza batzuk ere kontuan hartu beharko dituztela**, hala nola aldameneko hiri-erabileren ondoan edo haiekin batean egon beharra (begi edo ingurumen-inpaktuei dagokienez) edota gune babestuetan (Plaiiaundi edo Bidasoa ibaiaren ertza bera) eduki dezakeen eragina.

Baina gogoan eduki beharra dago era berean, hiriaren Iparraldean eta Iparmendebaldean beste ingurabiderik ez dagoenez, eta Iparralde horretatik saihebidetuz ez litzatekeen ingurabidea egitea erabat ezinezkoa litzatekeela, erabakiko diren

soluzioek **aintzat hartuko dituztela betiere sarbideak**, hau da, egungo sarrera eta irteera-bideak, saihebidetarako hirian barrena 5 km-tik gorako bidean dituen lotura-bideen arabera zerbitzuei eutsiko badie.

Halatan, **ikuspegi integratzailea** bideratu nahi izan dugu Plan Nagusitik bide honen edukiera handitzea eskatzen duten arazoan soluzioaren aurrean, eta **bi fase nagusi** bereizi ditugu funtsean jarduera handi honetan.

“Iparraldeko Saihebidetarako gainerako jarduera” deitu dugu **lehen fasea**, eta hainbat **“N”** proposamen eta alternatiba bereizi ditugu hartan, egungo saihebidetara iparraldetik sendotzeko eta egokitzeko, ardatz honek herrien arteko mailan duen eskariari begira. Egokiro doitu da trazatua egungo bide guztian.

“Hegoaldeko Ingurubidetarako exekuzioa” hartuko du bereziki aintzat **bigarren faseak**. Hiru alternatiba planteatu dira aztertzeko: **“R-1”**, **“R-2”** eta **“R-3”**, kontuan harturik A-8 autopistaren paraleloan lihoakeen trazatu berri bat.

Hegoaldeko Ingurubidetarako aurreko hiru alternatiba horiek **autopistaren paraleloan luzaturik** aztertu eta hartu dira aintzat, gogoan edukirik era berean Katean eta Behobian eratuko lirakeen lotuneak. Halatan, guztiz kontuan hartu beharra dago hemendik aurrera hiru alternatiba horietatik zeinahi bihurtu litekeela noizbait N-1 errepidearen egiazko Hegoaldeko Saihebidetara osoa.

Elkarren osagarritzat eta, modu berean, **denboran aldizka hartu beharrekotzat** hartu dira Iparralde Saihebidetara eta Hegoaldeko Ingurubidetarako gainerako planteamenduak, oinarrian soluzio posibleen aurreko bi ikuspegi desberdini dagozkionak. Egungo Aurrerakin fase hau dugu, bestalde, hiriko hirigintza eta garraio-arazoak konpontzeko bide desberdinak aztertzeko une egokienak, aintzat harturiko planteamendua bideragarritasun teknikoaren logikaren arabera bada.

Aitor dezagun, hala eta guztiz ere, maila hauetan **arazoak konplexu xamarrek** direla, erabilera sendotuek eta urbanizazioen garapen oso handiak baldintzaturiko eremuetan konpondu behar baitira. Halatan, teknikoki zailak eta seguruenik garestiak izango dira inolaz ere soluzioak. Baina egoera hori ez da soil-soilik Irungoa: aitzitik, ia beti gertatzen da horrelako zerbait zabaltzen ari den hiri baten hazkundeagatik haren barruan gelditu den bide-azpiegitura garrantzitsu bati ekin behar zaion aldiro.

Bestalde, garbi dago ezinbestekoa dela soluzioei inolako **atzerapenik gabe** ekitea. Alde batetik, haziz doa etengabe ibilgailuen trafikoa eta joera hori berresten digute igurikapen guztiek; beste alde batetik, egiten ari diren lanen ondorioz errazagoa da

zirkulazioa lantzen ari diren gunetan, baina nabarmenagoak dira aldi berean desegokierak eta buxonak; azkenik, integratzaileagoa izango da hartuko den zeinahi soluzio alde aurretik ezagutzen eta, beraz, plangintzan aintzat hartuko diren eta, areago, dagoeneko edo berehala exekuzioan dauden edo egongo diren garapenetan txertatzen badira, eta **Plan Nagusiaren ezinbesteko egitekoa** da hori.

6.1.6 N-1 Iparraldeko Saihesbidea (“N” Alternatibak) Egungo trazatua banatzeko proposamenak.

“N” alternatiba izena eman zaie Iparraldeko Saihesbidearen trazatua N-1 errepide gisa osatzeko zuzendu diren proposamenei, norabide bietan bina lerroko bide-banatzea gauzatuz, hala Iparraldeko Hiribideko bidegurutzerainoko tartean nola Osinbiribileko biribilgunetik Behobiarainoko tartean. Egin beharreko lanen lehen faseko egitekotzat har litezke alternatiba horiek, eta A-8 autopistaren hegoaldean abiadura handiko trenerako eginiko zerrenda-erreserbak eta gainerako baldintzek inposaturiko mugak argitzen diren ahala gauzatuko dira.

Aldundiaren aurrean azaldu eta harekin adostu da **Eskualdeko Ospitalerako sarrera-lotune berriak** eremu txikia hartu beharra daukala. Obra hau maila desberdinetan gauzatuko da, hasieran aintzat hartu zena ez bezalako diseinu batez, bide horren hiri izaera luzera guztian sendotzeko eta hiribidearen bi bazterretan oinezkoen lotura errazteko, ahortzi gabe gainera Ikastolaren inguruan aurreikusi den barne-bidearekiko loturak (Zubieta).

Zati handi batean Hondarribiko udal lurretan bideratuko da jarduera hau eta, beraz, auzoko udalerriko plangintza orokorra berrikusteko prozesuarekiko koordinazio betean eginga da proposamen hau.

Bestalde, **Plaiiaundiko eremuarekiko lotura** planteatu du Irungo Udalak, hainbat mailatako biribilguneak eta trenbideen azpitik pasabide bat aintzat harturik. Erraztu egin nahi da, alde batetik, oinezkoen lotura padura-aldearekin, eta trantsiziozko hirigune batzuk zehaztea, bestetik, egungo institutua egokiro sendotzearen. Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren arduradunekin negoziatzen ari da Udala proposamen hau.

Plaiiaundin egun babesturik dagoen **kantoi txiki** baten okupazioa ere proposatu da, trenbide-hondartzatik hurbilen dagoen aldean. Konpentsazioz, mendebaldetik zabalduko litzateke gunea naturala. Soluzio honetaz, Iparraldeko Saihesbideak Plaiiaundin izango duen lotuneraino luzatu ahal izango litzateke Letxunborroko Hiribidea eta lotura-bide bat artikulatu liteke, halaber, Iparraldeko Hiribideraino.

Saihesbidea Osinbiribileko biribilguneraino banatu ondoren, soluzioen **oso azterketa xehea** eskatzen dute Osinbiribiletik Behobiarainoko saihesbide-tarteak eta Behobiako lotuneak berak, Bidasoa ibaiaren ertzaren eta Artia auzoko eta Dario de Regoyos kaleko hirialdeen arteko lur-zerrendaren estutasunak sorrazten dituen zailtasunengatik. Berebat gertatzen da Behobiako gunean oso murrizta baita bertako zoruak bidea zabaltzeko eskaintzen dituen aukerak.

Zailtasun hauen aurrean, **jarduerarako alternatiba batzuk** proposatu ditu Plan Nagusiaren Aurrerakinak. Behobiarainoko saihesbide-tarteari dagokionez, hor daude **“N-Ibaia 1”** eta **“N-Ibaia 2”** alternatibak, Osinbiribileko biribilgunearen eta Behobiako auzoko gunearen arteko tarteari dagozkionak. Hona hemen zer proposatzen duten: galtzadak bikoiztea eta gainezarririk bi mailatan garatzea (“N-Ibaia 1” alternatiba), edo galtzadak maila berean bikoiztea (“N-Ibaia 2” alternatiba).

Bi alternatiba hartu dira halaber aintzat Iparraldeko Saihesbideak Behobiako auzoko gunean barrena egiten duen bidean: **“N-Behobia 1”** eta **“N-Behobia 2”**. Trazatuaren banatzea eta lurperatzea hartzen dituzte biak aintzat, autopistarekin egun lotzen duen bidea kontuan hartuz eta osatuz (“N-Behobia 1” alternatiba), edo Iparraldeko Saihesbidearen, Nafarroako errepidearen eta A-8 autopistaren artetik beste lotura-bide bat proposatuz (“N-Behobia 2” alternatiba).

Argitu beharra dago, nolahi ere, Iparraldeko Saihesbidearen tarte horietan gauzatuko liratekeen alternatiba horiek N-1 Iparraldeko Saihesbidearen bide osoaren zati bana baizik ez luketela hartuko, eta eraginik ez lukete izango Saihesbidearen gainerako atalean, Osinbiribileraino hain zuzen ere, bidea banatzeko aintzat hartu diren proposamenetan.

Hona hemen xeheago alternatiba bakoitza zertan den:

6.1.7 “N-Ibaia 1” alternatiba Osinbiribil eta Behobia artean: galtzada gainezarriak

“N-Ibaia 1” Galtzada gainezarrien alternatibaren kasuan, **arkupe-egitura** baten gainean eraikiko litzateke gaineko galtzada, beheko maila erdi lurperaturik utzirik. Hala eta guztiz ere, argi naturalaz hornituriko bao handiak irekiko lirateke pilareen artean eta lanpara artifizialez sendotuko litzateke etengabe barruko argiteria.

Behar adina goratuko litzateke **gaineko atala** %6ko malda gaindituko ez luketen aldapa progresiboak bermatzeko, hala Osinbiribiletik goratzean nola Behobiarantz beheitiratzean, eta norabideetako bat hartuko luke printzipioz, mendebaldetik ekialdera luzatzen dena, Osinbiribiletik Behobiarakoa hain zuzen ere. Koro edo **ganga** batek

estaliko luke osorik edo zati batean atal hau; haren eremuan hein batean goraturiko plataforma bat eratuko luke Juan Thalamas Labandibar kalearen luzapenean. Horma batek edo landare alde batzuek eutsiko liokete plataforma honi tinkotuz.

Egungo trazatutik bizpahiru metrotik behera hondoratuko litzateke **azpiko atala**; halatan, egungoaren mailatik 4 bat metrotaraino goratuko litzateke gaineko lerroa, gorago ezin jorik. Beraz, halako tartea geratuko litzateke betiere Artia auzoko kaleetatik eta Dario de Regoyos kaletik.

Ekialde-Mendebalde norabideko trafikoa hartuko luke printzipioz azpiko atal honek eta uren hustuketarako sistema bat aurreikusi beharko litzateke hartan larrialdietarako. Nolanahi ere, zati batean lurpean eta alboko ezponda batek Bidasoa ibaiaren eraginetik babesturik egonik, inongo lekuan ere ez litzateke ibai-uren uholdeen mendean gertatuko.

Bestalde, Bidasoa ibaiaren ertzak pairatu beharko lukeen **paisaia-inpaktua** egungoa baino apalgora izango litzateke ezen, soluzio hau bideratuta, barnealderantz zabaldu ahal izango bailitzateke egungo oinezkoen aldea. Gainera, trafikoa oinezkoan ibilbidetik beherako kota batean, galeria moduko batetik, edo gorako kota batean, albotik betiere hormatxo babesturik egongo litzatekeen lerro batetik, luzatuko litzatekeenez, apalgora izango litzateke oinezkoen ibilbide horren gaineko kutsadura akustikoa, eta Bidasoa ibaiaren ertzaren garrantziaren arabera ingurumen-kalitatea lortu ahal izango litzateke horrenbestez.

6.1.8 “N-Ibaia 2” alternatiba Osinbiribil eta Behobia artean: maila bereko galtzadak

“N-Ibaia 2” Maila bereko galtzaden alternatibaren kasuan, beharrezkoa litzateke biak espazio berean txertatzea, **bi lerro berrien okupazio-eremu ahalik eta murriztena bideratuz**. Halatan, beharrezkoa litzateke tarte berezi honetan bazterrak ere kentzea kontuan hartzea.

Era berean, Juan Thalamas Labandibar kaleari goialdetik eusten dion ezponda hustu beharko litzateke, haren ordezkari horren kanpoko ertza goratuko litzatekeen **horma bertikal** bat eraikiz. Helburua da ahalik eta eremu handiena irabaztea, zabaltze lan horiei begira.

Egoitzaldea modu eraginkorrean babesteko, **plataforma bat hegaldaraz liteke** barruko galtzadaren gainetik, kaleko espaloia balaustrada edo babeserako hormatxo bateraino luzaturik, plataforma horren ertzean halako errematea itxuratuz luzera osoan.

Hala jokaturik, txikiagoa izango litzateke zirkulazio-lerroen begi-inpaktua eta bete egingo lirateke kutsadura akustikotik babesteko gutxieneko estandarrak.

Bidasoa ibaiaren ertzean, **pasabide edo plataforma muntagarri** baten bidez konpentsa liteke egungo espazioaren murriztea. Ibaiaren ertzen gainetik 3 eta 5 metroan aurrera hegaldutako litzateke, eta horrenbestez ziurtatuko litzateke oinezkoen eta bizikletarien ibilbidea ardatz horren guztiaren luzeran.

Erriberaren gaineko **begi eta belarri-inpaktuak** apaltzeko, hesi akustiko xurgatzaileak bidera litezke bi alboetan, edo eremua goratu kanpoko lerroaren bazterrean, metro eta erdi inguruko goratasunean, ibaia alderantz lerratuko litzatekeen ezponda malda goxo bat itxuratzeko. Halatan, erdi lurperaturik geratuko litzateke itxuraz galtzada, eta horrenbestez saihestuko lirateke galtzadaren ikuspegia eta ibilgailuen batez ere azpietatik letozkeen hots-emisioak.

Soluzio bietan izango da beharrezkoa **Artiako auzorako sarbidea** Jose Maria Franco kaletik bermatzea baina, erditik bereizitako galtzada bikoitzaren kasuan ibilgailuak ezkerraldera biratu ahal izateko modurik gabe gertatuz gero, Osinbiribil-Behobia norabidean baizik ez da sarbide hori bermatu ahal izango. Halatan, auzoko trafiko-norabideak aldatu eta sarbide hori bermatu ahal izango da Berroeta Margolaria kalea erabiliz gero.

6.1.9 “N-Behobia 1” alternatiba Behobiako igarobidea: Autopistarako egungo lotuneari eutsita

Alternatiba honetan lurraren azpitik eta estalirik izango litzateke lehenengo zatian bide berri banatuaren igarobidea Behobiako auzoan barrena, ZAISAko egungo biribilguneraino, eta lurraren azpitik baina estali gabe bigarren zatian, N-121 Nafarroako errepidearen kota egun Antton Ttipirako zabaltzen den biribilguneraino gutxi gora-behera. Trazatu berri honi esker ez litzateke Behobiako gunea aurreikusi den biribilgunea egingo, baina birmoldatu egin beharko lirateke Lastaola Postetxea esparrua eta egun gasolindegia hartzen duen eremua.

Haize zabalean, estali behar izan gabe, geratuko lirateke **bide nagusi** honetan egungoa baino maila beherago batean egokituko liratekeen bide-tarte guztiak, eta halako segurtasun-lezoiz babestuko lirateke kasu guztietan. Lezoi hauen bitartez bermatuko litzateke azpiegitura honen babesa, uholdeak gertatuz gero. Hala eta guztiz ere, ponpaketa-sistema bat instalatu beharko litzateke larrialdietarako, segurtasunak hala eskatuta.

Soluzio honen arabera, kendu egingo litzateke egun **Antton Ttipirako sarbidea** zabaltzen duen biribilgunea eta neurri egokiko beste **biribilgune berri bat** eraikiko litzateke bide nagusian. Halatan, Behobiako auzunea igaro eta gero, bi norabideetan, Frantzia eta Nafarroa aldera, luzaturiko lotura-bideen bitartez lotuko litzateke saihesbidearen trazatu berriarekin.

Era berean, biribilgune berri hau eginez, **egungo trazatuan eutsiko litzaioke Autopistarako sarbideari**. Saihesbidearen soluzio honi esker, **bide bat** luzatuko **zoruaren mailan** auzo barruko trafikoaren banaketari begira. Horrenbestez sendotuko litzateke egungo merkataritza-gunea. Azkenik, **bigarren biribilgune goratu bat** aurreikusi da Puntta aldean, Nafarroako errepidearen gainean. Modu horretan, errepide horren emana eten gabe bermatu ahal izango dira autopistarako sarbide guztiak.

6.1.10 “N-Behobia 2” alternatiba Behobiako igarobidea: Autopistarako sarbide berria

Hasiera batean, **antzeko soluzioa** eskaintzen dio bigarren alternatiba honek Behobiako egoitza-guneko igarobideari, hau da, bi galtzaden lurperatze progresiboa ondorio positibo berberak lortu ahal izateko: auzo honetako espazio publikoa eta komunikazio-gunea berreskuratzea. Izan ere, bidea lurperatu gabe banatzen bada, guztiz murriztuko litzateke merkataritzarako espazioa eta handiagoa litzateke Behobiako auzoko erdibitzea.

Trazaturako bi alternatiben (N-Behobia 1 eta N-Behobia 2) oinarrian dago, hasieran behinik behin, **Mendipe esparrurako** zehazturiko ordenazioa babesteko xedea, baina posible litzateke halaber esparru horren ordenazio berria ontzat jotzea. Kasu horretan, hobekiago egokituko litzateke esparru hori aurreikusiriko trazatu berrira.

Aurrenekoaren aldean, hona hemen bigarren alternatibak eskaintzen duen berezitasuna: **Antton Ttipirako sarbidea eskaintzen duen egungo biribilgunea aldatzea**, aintzat harturik neurri egokiak izango dituen berri baten eraikuntza, egungo kokagunearen eutsirik betiere. Halatan, saihesbide berriak egungo N-121 Nafarroako errepidearen kota berreskuratuko du biribilgune hau igaro eta gero, saihesbidearen trazatu berriarekin lotuko litzateke biribilgune berria bi norabideetan, Frantzia eta Nafarroa aldera, luzaturiko lotura-bideen bitartez. Honez gainera, auzo barruko bide-sistamarako sarbidea ere eskainiko luke.

Bestalde, **biribilgune handi bat** aurreikusi du halaber alternatiba honek **Autopistaren egungo zubiaren azpian**. Iparraldeko Saihesbidearen eta Nafarroako errepidearen eta

Autopistaren arteko lotunea edo gurutzebidea ere izango litzateke gunea hau. Horrenbestez erraztuko litzateke, udalerrri barruko bide-saretik guztiz aparte, soil-soilik hirien arteko bideak diren errepideen bidegurutze baten exekuzioa. Soluzio hau aurreikusterakoan, kontuan hartu dira autopistaren hirugarren lerrorako zoru-erreserba eta Hegoaldeko Saihesbide posibleak gunea horretan egingo lukeen lotura.

6.1.11 Hiriaren Hegoaldeko Ingurabidea.

Alde bat utzirik N-1 saihesbidearen trazaturako betikoz erabakiko den soluzioa, eta kontuan harturik aldi berean N-1 saihesbideak egun Iparraldeko Ingurabide gisa betetzen duen papera ezin baztertuko dela inolaz ere, **eraztuna osatu beharra dauka** Irunek bere **barne banaketarako egitura-sarearen** ezinbesteko osagarria den aldetik, haren bidez lotuko baitira hiriaren hegoaldeko egungo eta etorkizuneko auzoak.

Perimetro-eraztunetan oinarrituriko hiri bateko bide-sare nagusiaren egiturari esker, zirkulazio arin bizkorragoa eskainiko duen erreferentziaren alde joka dezake bertako trafikoak, egin beharreko bidea luzeagoa izanagatik ere. Perimetroko eraztunaren eraginaren ondorioz, arindu egiten dira hiri barneko bideak eta aukera ematen du, aldi berean, erdialdeko guneeetan igarobidea murrizteko edo oinezkoentzako eremuak edozein unetan antolatzeke.

Plangintza honen arrazoiak dira, alde batetik, lotura mota hau artikulatu beharra, **Irungo hegoaldearen erdialde osoan** behinik behin, hau da Oñurre eta Artia bitartean. Zabalik geratuko da ondoren ingurabide hori Antton Tipiraino luzatzeko aukera, N-1 errepidearen hegoaldeko saihesbiderako soluzioen mendean gelditu gabe.

Hirien arteko iragaitzazko trafikoei begira beste soluzio batzuk aurreikusi direnez gero, **lerro bakarra norabide bakoitzeko** izan liteke, **lehen fasean** betiere, eraztun-ingurabide honen **gutxieneko sekzioa**. Hala eta guztiz ere, komenigarria litzateke Plan Nagusiak aurrerantzean norabide bakoitzean beste lerro bat erantsi ahal izateko beharko litzatekeen **zoru-erreserba** kontuan hartzea, Ingurabide honek norabide bakoitzean bina lerro izan ditzan azkenean.

Aurrerakinaren berri eman eta alternatibak hautatu ondoren ekin ahal izango diogu Plan Nagusiak Irunerako proposaturiko bide-sistema guztiaren **modelizazioari**. Eta zera gertatuko da, seguruenik, haren ondoko emaitzen arabera guztiz arrazoituko dela ingurabide berriaren sekzioak norabideko bi lerro hartu beharreko iritzia.

Plan Nagusiaren Aurrerakinak **hiru soluzio posible** eskainiko ditu Hegoaldeko Ingurabidearen **trazatuari begira**. Bere moduan erantzuten die haietako bakoitzak

lurrealdearen baldintza fisikoei, bere diseinu-aukera bereziak ere egiten dituzten bezala: zoru sendotuetan barrena edota hala izateko proposatuetan edo gauzatzeko zain daudenetan barrena.

Hiru alternatiba aurreikusi dira beraz **Hegoaldeko Ingurabiderako**. R-1 alternatiba egungo Autopistaren iparraldean garatuko litzateke eta **garapenerako proposaturiko egoitza-esparruen atal gisa** bidera liteke, hala lurren zesimoari dagokionez, nola bide-atal bakoitzaren exekuzioari berari dagokionez. Autopistaren bi aldeetan gauzatu litzateke bigarren soluzioa edo **R-2 alternatiba**, eta egungo autopistaren hegoaldean garatuko litzateke osorik **R-3 alternatiba** delakoa.

Trazatua luzatu eta **Katea eta Behobiarekiko lotura** ziurtatzeko moduan aztertu dira Hegoaldeko Ingurabiderako hiru alternatibak. Horrenbestez itxuratuko litzateke Hegoaldeko Saihesbide oso bat, Iparraldeko Saihesbidearen etorkizuneko alternatiba gisa.

Gainera, hiru alternatibetan aurreikusi da, Txenperenea esparruaren hegoaldean hain zuzen ere, **A-8 Autopistarekiko bide-lotura** bat, horixe baita alde horretan abiadura handiko trenerako dagoeneko egina den zoru-erreserba aldatu gabe gisa horretako obra onartzen duen leku bakarra. Nolanahi ere, Gipuzkoako Aldundiarekin batean bidera beharko litzateke Hegoaldeko Ingurabiderako proposaturiko eraztunaren banatzaile papera indartu beharrak arrazoitzen duen jarduera hau.

Proposaturiko lotura-bideak igarobidea eskainiko luke Hegoaldeko Ingurabidetik autopistara eta alderantziz, hau da, **bi norabideetan**, eta eraztun hartatik **banatu** edo **bideratuko** litzateke trafikoa Hegoaldeko Ingurabidearekin loturiko biribilguneetara, erabiltzaileek helmuga dutena hautatu ahal izan dezaten (Oñurre, Txenperenea, Erribera, Altzukaitz, Artia, Blaia, eta abar).

Modu honetan jokaturik, guztiz saihestu nahi da A-8 autopistarekiko lotura-bide berria sarbide horietako batekin zuzenean lotu behar izatea, trafiko-metatzeak sarbide bakar baten eta haren mendeko bide-sareren funtzionaltasuna eragotz ez dezan. Gainera, estrategia honen bitartez, biziki indartzen da Hegoaldeko Ingurabidearen **banatzaile papera**, eta murriztu egiten dira hango gune bakar bat leporaino asetzeko aukerak.

6.1.12 “R-1” alternatiba Hegoaldeko Ingurabidea: Autopistaren iparraldeko trazatua

Ardatz bateratzaile gisa definitzen du Plan Nagusiak Ingurabide hau eta **hiru ataletan** banatzen da. Beharreko jarraitasuna emango dio ingurabideari atal haien elkarren

arteko loturak. Hona hemen zein diren: Oñaurre - Erribera atala, Erribera - Artia atala eta Artiaren eta Nafarroako errepidearen arteko atala.

Lehenengo atalean, Oñaurreko esparruan barrena abiatuko litzateke Hegoaldeko Ingurabidea, eta hegoaldetik ukituko zituen ondoren Txenpereneko esparruko lurak, Erriberako esparruaren hegoaldera igaro aurretik. Eraikinen babesak ezarriko lirateke hiru eremu horietan. Txenperenean eta Erriberan egongo lirateke lehen atal honekiko lotura-bide nagusiak.

Ondoren, **Matxalagainen** proposaturiko esparru berrian barrena segituko luke, soluzio honen arabera, Hegoaldeko Ingurabideak. Tunel edo sasitunel batek urratuko luke bidea, muino honetako mazela-aldea gainditu ahal izateko, eta egungo Altzukaitz kaletik joko luke gero. Auzoen arteko lotura-bide izaerakoa litzateke azken hau eta hartara egokitu beharko litzateke haren diseinua.

Egun Altzukaitz eta Arbesko Errota kaleen artean dagoen biribilgunean artikulatuko lirateke Erribera eta Altzukaitz arteko **bigarren atal honetako lotura-bideak**. Horretarako, diametroa eta edukiera handitu beharko lituzke biribilgune horrek. Bestalde, biribilgune berri batean antolatuko litzateke Artiako ibilbiderako lotura.

Blaiako esparru berrian barrena joko luke **Hegoaldeko Ingurabide honetako hirugarren eta azken atalak**. Proposaturiko egoitzaldean hegoaldetik igaroko litatzeke, ekialdetik Antton Ttipiko Erdialdeko Hiribidearekin lotzeko. Tunel txiki batez gaindituko lirateke Blaiako malda eta muinoa.

Hirugarren atal honetan, **birmoldatu** egin beharko litzateke Antton Ttipiko poligonoko **erdialdeko hiribidea**, sorrarazitako trafikoa poligonoaren jarduna eten gabe hartu ahal izateko. Beste bide batek lotuko luke ingurabidea egun hilerrira doan errepidearekin, eta lehengo 54. poligonoaren erdialderanzko sarbide baterako alternatiba bat ere eskainiko luke horrenbestez, hilerrira doan bide horren malda patar handiegia den gune batean.

Oro har, izatez eta kontzepzioz **funtsean udalarena** den bide-azpiegitura honek modu egokian aseko lituzke egun eta etorkizunean Irungo Hegoaldean higikortasunaren arloan dauden eta daudekeen eskari guztiak, egin beharreko bideen diseinu-koordinazioari esker. Izan ere, ingurabide honek **auzo berrietarako sarbidea** ere eskaintzen du halaber eta, beraz, haren exekuzioa aurreikusiriko egoitza-jarduera berrien barruan egitea planteatu daiteke.

Etorkizunean N-1 errepidearen Hegoaldeko Saihesbidea diseinatuko beharko balitz, saihesbide horrekin lotu beharko litzateke Hegoaldeko Ingurabidea, honako bi gune hauetan gutxienik: Oñurre eta Artia.

6.1.13 “R-2” alternatiba Hegoaldeko Ingurabidea: Trazatua Autopistaren bi aldeetan

Autopistaren bi aldeetan garatuko litzateke Ingurabiderako alternatiba hau. Hala eta guztiz ere, bete-betean ukitzen du haren arabera aintzat hartu den eremua abiadura handiko trenerako zoru-erreserbak, eta hegoalderantz eraman beharko litzateke erreserba hori.

Aurreko alternatiban zehazturiko lehen atala, Txenperenea eta Erribera artekoa, aldarazten du alternatiba honek bere trazatuan. Halaz ere, bat letorke lehenengo alternatibarekin bigarren eta hirugarren atalei, hau da, Arbes eta Behobiako lotuneei, dagokienez. Lehen atalean, bitan banatuko litzateke ingurabidea autopistaren bi aldeetan, eta egokiago moldatuko litzateke horrenbestez autopistaren iparraldeko espaziora, baina eragina izango luke abiadura handiko trenerako eginiko zoru-erreserban.

6.1.14 “R-3” alternatiba Hegoaldeko Ingurabidea: Autopistaren hegoaldeko trazatua

Ingurabiderako hirugarren alternatibak **Autopistaren Hegoaldeko eremua hartzen du erabat** kontuan, eta eragina du printzipioz abiadura handiko trenerako eginiko zoru-erreserban. Berrito diseinatu beharko litzateke erreserba hori, eta Hegoaldera eraman.

Alternatiba honen arabera, bide bat luzatuko litzateke A-8 autopistaren hegoaldetik, Oñurre aldetik Ibarla alderaino. Udal bide-sarearekin lotzeko, **hiru lotune** edo biribilgune aurreikusi dira: Txenpereneko esparruaren hegoaldean lehena, Eguzkitzaldea kalearekiko bidegurutzean bigarrena eta Ibarlako errepidearekiko bidegurutzean hirugarrena.

Egungo bide-saretik **bereiz** gauzatuko litzateke Hegoaldeko Ingurabiderako alternatiba hau, eta ezinbestez eskatuko luke, bestalde, aurreko alternatibetan zehaztu den bigarren atala ere, Erribera eta Altzukaitz artekoa, egitea, hiriko alde horretan hiri-sareari jarraipena eman ahal izateko.

Halaz ere, soluzio honetaz ez zen Behobiarekiko barne loturako hirugarren atala Antton Ttipin barrena egin behar izango. Izan ere, etorkizunean hirugarren atal horren

paraleloan egin beharko litzateke Hegoaldeko Saihesbidea eta alferrekoa litzateke beraz lotura-bide hori bikoiztea.

6.1.15 Hegoaldeko Saihesbidea (“S” Alternatibak): Proposamena A-8 autopistaren paraleloan

Plan Nagusiak haren banatzeari eta haren lotune-bideak hobetu eta zabaltzeari buruzko eginiko proposamena kontuan harturik ere, alde bietan **hirialdeak zeharkatzen dituen** edozein azpiegiturak dituen **ohiko eragozpenak** azaldu ditu epe luzean N-1 errepidearen Iparraldeko Saihesbideak.

Eragina izango du halaber hartan hiri barruko trafikoari eskaintzen dion **funtzio partekatu** bezain saihestezinak, eta arazo bi horiek emendatu egingo dira itxura guztien arabera denbora joan ahalean eta Bidasoa ibaiaren ertz guztian aurreikusitako birmoldatze lanak eta Hondarribian, Zubieta aldean batez ere, aintzat harturiko garapenak gauzatu doazen heinean.

Halatan, gogoeta egin behar izan du ezinbestez Plan Nagusiak Iparraldeko Saihesbideak Gipuzkoako alde honetako herrien arteko trafikoak bide-saririk ordaindu gabe lukeen bide libre bakar gisa **epe luzean lukeen bideragarritasunari buruz**. Zentzu honetan, egungo iparraldeko saihesbidearen etorkizuneko alternatiba gisa, iragaitzako trafikoak hiriaren hegoaldera eta hiri-saretik kanpora eramateko aukera azaldu da; horrenbestez, hirien arteko garraiorako bereziki zuzenduko litzatekeen bidera eramango lirateke trafiko horiek.

Hegoaldeko Saihesbide berri bat zabaldurik (oraingoan N-1 errepidearen saihesbidetzat har genezake egiaz bide hau, luzera guztian ertz edo kanpoaldetik joko bailuke), **hirien arteko trazatuen jarraitasun handiagoa** bermatua ahal izango litzateke, inolaz ere ez bailuke egun Iparraldeko saihesbideak dituen bezainbeste oztopo izango (gogoan har bitez saihesbide horretan, Irungo hiri-sarearekin lotzeko, ugaltu diren lotune-bide, biribilgune eta sarbideak)

Alternatiba hau noizbait bideragarria izateko, oraintxe bertan hasi beharko luke Plan Nagusiak horretarako **beharko liratekeen zoruaren erreserba** egiten. Aukera bideragarrienak aztertu behar izan ditugu, beraz, azken momentuan haren exekuzioa Udalaren egitekoa izan ez den arren.

Aintzat hartu beharko liratekeen trazatuen gaineko lehen azterketan (**azterketa-fasean dauden alternatibak** dira nolana ere horiek guztiak Plan Nagusiaren iritziz), honako **baldintza hauek** hartu dira kontuan:

- Bateragarria izango da N-1 errepidearen Hegoaldeko Saihesbiderako alternatiba oro ingurabiderako aurreikusiriko alternatiba batekin.
- Proposatutako trazatu oro luzatuko da A-8 autopistatik hurbil eta ahal neurrian haren paraleloan, exekuzio-kostuak beharrezkoak ez liratekeen tunel eta zubibideen bitartez ez garestitzeko.
- Hegoaldeko Saihesbideak Irungo hirialdean sartu baino lehen lotu beharko du egungo N-1 errepidearekin, Gaintzurizketan ahal neurrian.
- Hegoaldeko Saihesbidea egokiro lotuko da n-121 Nafarroako errepidearekin eta N-10 Pausu eta Baionako errepidearekin.
- Funtzioari dagokionez, A-8 autopistatik guztiz bereiz jardungo du saihesbideak, harekiko loturaren bat aurreikusitako ere.
- Kontuan hartuko da egun abiadura handiko trenerako dagoen zoru-erreserbak dakarren oztopoa, A-8 autopistaren ondo-ondoan baitago lur-zerrenda hori. Halaz ere, ez da betirako eta erraz moldatu ahal izango da etorkizunean.

Baldintza hauek guztiak kontuan harturik, **hiru alternatiba posible** aukeratu dira Hegoaldeko Saihesbiderako proposamen horri begira aztertu diren aukeren artean, eta egoki elkartzen dira hirurak Hegoaldeko Ingurabiderako aintzat hartu diren alternatibekin.

Hona hemen soluzio horiek zertan liratekeen: **S-1 alternatiba**, Hegoaldeko Ingurabiderako R-1 alternatibarekin lotuko litzatekeena eta Autopistaren hegoaldetik joko lukeena; **S-2 Alternatiba**, Hegoaldeko Ingurabiderako R-2 alternatibarekin lotuko litzatekeena eta Autopistaren paraleloan eta haren bi aldeetan luzatuko litzatekeena eta, azkenik, **S-3 Alternatiba**, Hegoaldeko Ingurabiderako R-3 alternatibarekin lotuko litzatekeena eta batez ere Autopistaren hegoaldetik jo eta ardatz horren iparraldean Arbes eta Behobia arteko atala osagarri edukiko lukeena.

Bat dute, aldiz, soluzio hauek guztiek **A-8 autopistaren paraleloan luzatzen** direla ia bide guztian eta kasu guztietan zehazten dituztela hiriaren **Hegoaldeko Ingurabidearekin** litzateketen **lotura-bideak**, Plan Nagusiak proposaturiko bide-sarearen elementu horrekiko bateragarritasuna bermaturik. Zentzu honetan, aski litzateke Hegoaldeko Ingurabidearekin **lehenengo lotura-bide** bat bermatzea. Bakarra izan liteke, eta komuna Txenperenea eta Erribera-Olaberria eremuetarako, eta

Hegoaldeko Ingurabiderako trazatu berriaren barrena joko luke. Horrez gainera, **bigarren lotura-bide** bat luza liteke Artia aldean.

Hiriaren **hegoaldeko sarbide** gisa erabil litezke lotura-bide hauek erdialdeko bi gunetan, eta autopistako Arasoko irteeratik egingo lukete sarrera saihebidetara berri honetatik. Soluzio honi esker, ez zen A-8 autopistatik Irungo erdialdera sarbide berri bat ireki behar izango. Inolaz ere kontuan har bedi soluzio hori planteatu dela hirirako sarrera hobetzeko eta hiriko kaleetan mendebaldetik sartzen den iragaitzazko trafikoa saihesteko. Nolanahi ere, guztiz baliatuko litzateke A-8 autopistaren eta Hegoaldeko Ingurabidearen artean gauzatuko litzatekeen lotura-azpiegitura.

Bat dute halaber hiru alternatiba hauek kasu guztietan **abiadura handiko trenerako** eginiko **zoru-erreserbaren** oztipoa. Beraz, hegoalderantz aldenarazi beharko litzateke lur-zerrenda hori bi gunetan. Aldenarazte honek zerrenda horren atal batean, 20 edo 25 metro, izango luke eragina “S-1” eta “S-3” alternatibetan, eta eragin txikiagoa “S-2” alternatiban baina, burdinbidearen trazaturako erreserba arrazoitzeko erabili ziren irizpideekin bateragarria dirudien arren, erakunde eskudunaren erabakia edo onarpena beharko litzateke aldaketa gauzatzeko.

Hona hemen xeheago alternatiba bakoitza zertan den:

6.1.16 “S-1” Alternatiba. Hegoaldeko Ingurabidearen trazatua A-8aren hegoaldean.

Lau lerroko **trazatu independientea** edukiko luke Hegoaldeko saihebidetara “S-1” alternatibaren arabera. Elkarren ondoan joango lirateke lau errail horiek bide ia guztian. Eremura moldatzerakoan hainbat arazo gainditu beharko lirateke exekuzioan, batez ere pasabidea estuagoa den alde batzuetan. Mendi-ebakiak eta soluzio logikoki konplexuagoak bideratu beharko lirateke kasu horietan.

Aintzat hartuak dira betiere saihebidetara honek hirien arteko bide-sistemaren muturretan eduki beharreko lotuneak (Katea eta Behobia), bai eta haren lotura Ingurabidearekin hiriaren erdialdean, hiri barneko sarean trafikoaren banaketa egokia erraztuz.

N-1 errepidearen saihebidetarako alternatiba hau gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa litzateke A-8 autopistatik egun Areso aldean abiatzen den lotura-bidetik hasita; halatan, Oiartzungo errepidea desnibelean gurutzatu eta gero, bi galtzada bikoitzak zabalduko lirateke, zein bere norabidean eta Autopistaren paraleloan, baina lortatz desberdinean, N-121 Nafarroako errepidearekiko lotunera bitarte. 6 km pasa izango litzateke errepide berri honek.

6.1.17 “S-2” Alternatiba. Hegoaldeko Ingurabidea. Trazatu independentea A-8aren hegoaldean.

“S-2” alternatibaren oinarrian dago bi lerro pareen banaketa, bina lerro norabide bakoitzean, **A-8 autopistaren alde bietatik** zuzenaraziak bi pareak. Autopistaren trazaren ondotik luzatuko lirateke, beraz, baina autopistan dagoeneko aurreikusi den hirugarren lerroko zoru-erreserban oztoporik sortu gabe, eta bi azpiegituren artean trafikoa nahasarazi gabe.

“S-2” alternatibak abantaila luke aurrekoaren aldean, **dagoeneko urratua den azpiegitura-lorraz batean** landuko bailitzateke. Alabaina, logikoa denez, zabaldu egin beharko litzateke egungo autopistaren plataforma, eta horretarako irtenbide egokia bilatu beharko litzateke **gune gatazkatsu** batzuetan. Beharrezkoa litzateke, esate baterako, egungo autopista metro gutxi batzuk kurritzea, gune jakin batzuetan lerro guztiak egokiro txertatu ahal izateko. Bestalde, **abantaila handia** litzateke alternatiba hau, errepide-sorta indartsu bakar batera bilduko bailitzateke iragaitzazko trafiko guztia eta, beraz, aurreztu egin liteke begi eta belarri-inpaktuen aurreko neurri zuzentzaileak bideratzerakoan.

6.1.18 “S-3” Alternatiba. Hegoaldeko Ingurabidea. Trazatua A-8aren hegoaldean eta iparraldean

“S-3” alternatibaren arabera, lau lerroko **trazatu independentea** luzatuko litzateke. Elkarren ondoan joango lirateke lerro horiek ia bide guztian eta biribilgune batzuek artikulatuko lukete ingurabidea erdialdeko atalean. Eremura moldatzerakoan hainbat arazo gainditu beharko lirateke exekuzioan, batez ere pasabidea estuagoa den alde batzuetan. Mendi-ebakiak eta soluzio logikoki konplexuagoak bideratu beharko lirateke kasu horietan.

“S-1” alternatiban aurreikusi den trazatu berbera hartu da aintzat Mendebaldean. Ekialdean, Arbestik Behobiaraino, A-8 autopistaren iparraldean hartu da aintzat saihasbidearen trazatua, egungo bide-sarearekiko lotura eta moldaera erraztearren.

N-1 errepidearen Hegoaldeko Saihasbide posiblerako hiru alternatiben planteamendua, interbentzio teknikoki bideragarriak sintesian aurkeztuz, ahalbidetu dituzten aurreazterketak egin eta gero, arrazoizkoa dirudi Plan Nagusiak ez duela haien **definizio zehatzago bat** zertan aurreratu, administrazio eskudunak haien gainean halako erabakia hartzen ez duen bitartean.

Hala eta guztiz ere, komenigarria litzateke, aukeratzeko unean behinik behin (kontuan har bedi alternatiba horietako bakoitzak molde desberdineko soluzio xeheak eskatuko lituzkeela ondoren), alternatiba horien artean bat hautatzea, **Plan Nagusiaren aldetik**, Hasierako Onarpenerako dokumentuan hain zuzen ere, tokian tokiko lurretan **beharreko zoru-erreserbak egin daitezten**, begi-bistakoa baita ezinbesteko betekizuna litzakeela hori etorkizunean, zeinahi alternatibaren exekuzioari ekin nahi izango litzaiokeen unean.

6.1.19 Beste soluzio batzuk egitura sare banatzailean.- Proposamenak

Egitura-sare banatzaileari dagokionez, **burdinbide-espazioaren gaineko hiru igarobide** hartu dituzte aintzat proposaturiko interbentzio nagusiak. Berriak izango lirateke haietako bi.

Proposatutakoen artetik, Anaka kalearen eta Pio XII auzoaren arteko **lotura-bide berria** genuke garrantzitsuena. Sebastian Errazu kalean barrena bideratu litzateke, Txanaleta plazatik 300 bat metrotara baizik ez. Egungo **Eraustietako zubia**, Soroxarreta Belaskoenea eta Arretxe aldeekin lotzen duena, genuke hurrena. Eta berria izango litzateke halaber hirugarrena, mendebalen egokituko litzatekeena, Letxunborroko Hiribideko Eskortzako biribilgunearen eta Kateako auzoaren artean hain zuzen ere. Egun **Elizatzoko Hiribidetik** abiatzen den zubiaren ordea hartuko luke, kontuan harturik kendu egin beharko dela abiadura handiko trenaren igarobiderako behar bezain garai ez delako.

Erdialdearen birmoldatze lanen artean, bi bide luzatuko dira trenbideen paraleloa, eta banatzaile-lan guztiz garrantzitsua bete lezakete gainera biek. Gauzatu beharreko proposamentzat hartu behar dira, era berean, Letxunborroko Hiribidearen eta N-1 errepidearen Iparraldeko Saihesbidearen arteko lotura-bidea, Hondarribiko Zubieta aldean, eta Eskualdeko Ospitalerako sarbide eta lotunearen diseinu berria. Ongi kontuan hartzekoa da, halaber, Lope de Irigoien kalearen eta N-1 Saihesbidearen arteko lotura garrantzitsua.

Letxunborro Hiribidearen eta **Anaka kalearen** arteko **lotunean** aurreikusitako hobekuntza ere jaso da, bidegurutze horren edukiera handiagotzeko. Bestalde, **biribilgune** berri bat hartu da aintzat **Gibeletan**, San Migel auzorako sarbidea antolatzeko, bai eta **Zubimusuko biribilgunearen** berrantolakuntza ere, kontuan harturik Hondarribiko egoitzaldeei eskaintzen dien zerbitzua, Donostia eta Hondarribia kaleen funtzio berrian oinarrituta.

Esanguratsua da, halaber, **Urdanibiarako** eta Puianako Hiribidearen Mendebalderako **sarbide berri bat** irekitzeko proposamena, Letxunborroko Eskortza aldeko biribilgunetik. Aintzat hartua da, halaber, egungo Potzuetakogaina kalearen zabaltzea eta birmoldatzea: horrenbestez konpentsatu ahal izango da N-1 saihesbidetik Urdanibiarako sarbidearen desagerpen posiblea.

6.2.- BURDINBIDE AZPIEGITURA: PROPOSAMENAK

6.2.1 Egoeraren hausnarketarako eta arazoek identifikaziorako oinarriak.

Diagnostikoan adierazi den bezala, **lurralde-zerrenda zabal bat** okupatzen dute burdinbide-instalazioek, eta **eten espazial eta funtzional** handi bat eragiten dute horrenbestez hiriaren erdialdeko hiri-sarean. Eten honen ondorioz, handiak dira hiriak pairatzen dituen inpaktuak, haren jarduna oztopatuz eta hirigintzaren garapena mugatuz.

Instalazio hauei eratzikirik daude C.A.F. enpresaren instalazioak, iparraldeko ertzean, eta "Topo" burdinbidearen trazatua, haren hegoaldeetik igarotzen baita hiri barnean egiten duen bide ia guztian. Etena eta bereizkuntza areagotzen dituzte bi faktore horiek. Euskotren zerbitzuen trazatua Renfe burdinbidearen plataformatik bereizten da hiriaren erdialdean eta, beraz, bikoiztu egiten du eten hori hirigunearen barnean.

Oro har, eten hori are larriagoa da kontuan hartzen bada **zeharreko lotura** egiteko zeinen **elementu** gutxi dauden, halako edukiera duen igarobide bakarra baita Belaskoeneko zubiaren eta Iparraldeko Saihesbidekoaren artean. Colon Ibilbideko zubia da hori. 2 km-ko luzerako tartea geratzen da Belaskoeneko eta Colon Ibilbideko zubien artean, eta alde hartan zabaltzen da burdinbide trazatuko eremu urbanizatuena.

Hiri-espazioaren eten honek igarobide bakarra du Colon Ibilbidea eta guztiz eragozten dio hiribide horri duen zentraltasun izaera hedatzen eta zabaltzen. Era berean, burdinbide-plataformen alde bien artean lotura-elementurik ez dagoenez, muga eta estutasun garrantzitsuak eragiten ditu hiri osoko bide-egituran eta garraio publikoan.

Bestalde, **eguneratze** eta birmoldatze **prozesuan** daude egun murgildurik bi burdinbide-sistemak, Renfe eta Euskotren. Nahi dute horrenbestez bidaiarien eta salgaien zerbitzu-maila hobetu. Halatan, diagnostikoan azaldu den bezala, hiriari probetxu handia ekarriko lioketen birmoldatze jarduerak garrantzitsuak bidera litezke une honetan.

Renferen egingo **bidaiari geltokiari** dagokionez, premiazkoa da hura goitik behera berritzea, Geltokiaren eta gainerako zerbitzuen eraberritze fisiko, funtzional eta estetikoari ekinez, etorkizunean iritsiko den abiadura handiko trenaren instalazioak egokitzeko, alde batetik, eta hiri barruko integrazioa eta oinezkoen nahiz garraio publikorako hiriko nahiz hiriarteko zerbitzu-sistemarekiko lotura-gaitasuna hobetu behar dituelako, bestetik.

Bestalde, arazo berezia da **Euskotren** zerbitzuen azpiegitura. Aurreko kasuaren antzera, guztiz berritu beharra dauka, jarduera-maiztasuna emendatzeko aukera eskainiko dion esparru bat eskuratuko badu, Geltoki zerbitzuak hiri barruan hobekiago integratu ahal izateko, eta horretarako trenbidea ere bikoiztu beharko luke Kateara iritsi aurretik.

Begi-bistakoa da, bestalde, burdinbide-garraio sareetako zeinahi soluzio **Pasaia-Irun-Hendaia** komunikazio-ardatzaren barruan aintzat hartu beharko dela, udal lurraldearen mugak gainditzen dituen lurralde-esparru zabalago bat hartzen duen arazoa izaki.

Hala eta guztiz ere, guztiz aitortu beharra dago **Irungo** ikuspegitik, hiriak duen espazio garrantzitsuena del bertako **burdinbide-espazioa**, Hendaiaraino zabaltzen dena, eskerga baita erabilera horrek gure udalerrian okupatzen duen lurraldea. Handiak dira, gainera, espazio horren guztiaren birmoldatze prozesuak dagoeneko sorrarazi dituen igurikapenak.

Zentzu honetan, funtsezkoa da aintzat hartuko den zeinahi jarduerak burdinbide-espazioko **hiri-sarearen batasuna eta artikulazioa** izan ditzala helburu. Halatan, guztiz baliatu beharra dago aukera paregabe hau burdinbide-espazioaren bi aldeetan dauden auzoen arteko lotura funtsean hobetzeko eta hiriaren erdialdeko espazioa zabaltzeko.

Azken urteotan abiadura handiarekin eta trafiko intermodalarekin loturiko azpiegituren definizioari buruz egin edo abaiarazi diren azterketa eta proiektuen artean, bereziki hartu behar dira kontuan **Burdinbide Sarearen Lurralde Plan Sektorialaren** alderdi arau-emaileak (haren aipamena egin da dagoeneko hirigintzaren informazio-fasean), eta Sustapenerako Ministerioari **Irungo burdinbide-espazioaren berrantolakuntzari** eta ondoren Hendaiarekin izango duen loturari **buruz** agindu zaion **azterketa**, zuzeneko ondorioak izan bailitzake bi puntutan: etorkizuneko burdinbide-sarean bideratuko den antolakuntza eta espazio horretako zoruen liberalizazio beste erabilera batzuei begira.

Zentzu honetan, Geltoki aldean eta ondoko trenbide-hondartzak artzen dituen eremuaren birmoldaketa egin eta gero **eskura geldituko liratekeen lur** batzuen zirriborroa aurkeztu du dagoeneko Ministerioak eta hartan oinarrituta planteatu ahal izan dira lur horietan bidera litezkeen erabilera berriak eta Anakako isolamendu-egoera, duela urte frankotik bideratu gabe dagoen arazoa, konponduko luketen bide-loturak.

Honi dagokionez, garrantzitsua da, halaber, Francisco de León Molina arkitektoak Burdinbide Espazioaren Antolakuntzari buruz eginiko ikerlanak, mantendu beharko ez liratekeen instalazioak alde bat utzi eta gero burdinbide-eremuan geldituko liratekeen erabileren formalizazio eta definizioa aztertzeko xedean.

Pasaia-Irun ardatzean hainbat jarduera ari dira instituzioetako foruetan (Pasaialdeko Institutioen arteko Batzordea, Jaizkibel S.A.) lantzen eta perfilatzen, hainbat plan sektorialen bitartez: Burdinbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala, Garraio Sare Intermodal eta Logistikarako Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerakina, eta eskualde mailako beste plan batzuen bidez: Donostialdea-Behe Bidasoako Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakina, Jarduera Plan Integrala.

Jaizkibeleko Korridore Intermodal deituaren kasuan, aipaturiko jarduera horien giltzarri ditugu Pasaiaiko kanpo portuaren zabalkundea, logistika-plataformak eta bide-azpiegituren sendotzea.

Burdinbide-sareari dagokionez, **Euskadiko abiadura handiko Y** trenarekin lotzen dira funtsean eginiko aurreikuspenak. Tren honen zerbitzuak salgaien eta bidaiarien garraioa du helburu, eta hainbat proposamen daude geltoki intermodalen kokalekuari begira: haietako batek Katea eta Hendaia arteko burdinbide-trazatua hartzen du gune nagusitzat, eta haren alternatiba legoke Lezoko udalerrian, Gaintxurizketa aldean.

Adieraz dezagun, bestalde, argi eta garbi proposatu dela trenbide berriko eremuetan aintzat hartu zen **salgaien geltoki intermodala** lekuz aldatzea. Aurreko proiektu batzuetan jaso zen hasierako proiektu hura.

Burdinbide-azpiegiturei dagokienez, Hegoaldean proposaturiko bide-soluzio batzuk baldintzatzen dituen **afekzioa** dugu Sustapenerako Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak etorkizuneko **abiadura handiko trenari** begira eginiko zoru-erreserba. Lur-zerrenda hori A-8 autopistaren paraleloan luzatzen da Hegoaldetik ia bide guztian, eta autopistaren gainetik ere jartzen da atal batzuetan.

Udal eskuduntzatik erabat kanpo dauden erabaki batzuen baitan dago oraingoz **zoru-erreserba** hori, eta bere zorrotzean zurrun gauzatuko balitz, Hegoaldean ingurabide edo saihezbide baterako alternatiba batzuk ezdeusean utzi ez ezik, autopistako hirugarren lerroa zabaltzea ere galaraziko luke. Hori dela-eta, Plan berriak erreserba hori alde jakin batzuetan berriro definitzea proposatzen eta arrazoitzen du, aurreikusiriko zabaltze lanetarako espazioa uztearren. Halatan, etorkizuneko administrazio eskudunarekiko **negoziaziorako elementu** gisa balio du proposamen honek.

6.2.2 Burdinbide sareko proposamen nagusiak

Irungo udalerriko burdinbide-azpiegituraren inguruan hartu beharreko erabaki gehienak **beste administrazio batzuen eskuduntza** dira onarturik (estatu mailakoak dira horietako gehienak), eta erabaki horietako gutiz gehienak egun betikoz onartu gabe edo onartu beharreko plan eta programen barruan daudela kontuan harturik, Aurrerakin fase honi dagokio bereziki gai honetan dauden azken asmo eta proposamenak **biltzea**, Planaren gainerako zehaztapenak haiekin koordinatu ahal izateko.

Proposamen nagusien deskripzioa egiterakoan, beren horretan hartu ditugu aintzat Diagnostikoak **burdinbide-espazioan** bereizten zituen hiru esparruak: Hegoaldea, Erdialdea eta Iparraldea.

Hegoaldeko esparruan, hau da, Gaintxurizketatik egungo Auzolan zubiraino zabaltzen den aldean, abiadura handiko trenaren trazatu berria nazioarteko sarearekin Irungo geltokiraino sartuko litzatekeen by-pass batez komunikatzea proposatzen dugu. Halatan, Katea eta Auzolaneko zubiak birmoldatu beharko lirateke.

Era berean, **trenbide mistoa** Pasaiaiko porturaino **luzatzea** eta Euskotren zerbitzuaren trenbideak Arasotik bikoiztea aurreikusten dugu, bikoitzak baitira gunen horren eta Katearen arteko bidean.

Proposamen nagusia, administrazio autonomikoak aintzat hartu behar duena, dugu **Euskotrenek** Arasoko merkataritza gunean / etorkizuneko zabalgunean **geraleku berri bat** kokatzea, kontuan harturik gunen hartara bilduko diren industria eta zerbitzu-erabilera berriak. Hau guztia egiten da, zerbitzu horren eskaria handituko delakoan eta horrenbestez ibilgailuen hiri barruko trafikoa murriztuko delakoan. Beste geraleku baten txertatzeak Donostiatik gunen hartaraino egin beharreko bide-denbora emendaraziko balu ere, kontuan har bedi, konpentsazioan, geltoki bakar batera bildu nahi direla, Renferen ondoan, egungo Belaskoenea eta Colon Ibilbideko geralekuak.

Era berean, **Kateako geralekuaren** hobekuntza ere hartu da aintzat, sarbideak trenbideen bi aldeetara, haien gaineko pasabide batez, ziurtaturik. Letxunborro aldera zabalduko litzateke horrenbestez zerbitzu hau.

Erdialdeko esparruan, hau da, Auzolaneko zubiaren eta Colon Ibilbideko zubiaren arteko aldean, salgaien eta bidaiarien trafikoa bereiztea proposatu da (orain arteko proposamenetan hau da bideragarrienetako bat orain arte). Egun dagoen lekutik

hegoalderago egokituko litzateke bidaiarien **geltoki berria**, eta liberatu egingo litzateke Aduana zaharraren ondoko burdinbide-espazioa.

Burdinbide-instalazioak birmoldatzeko jarduera honekin batera, **estali** ere egin liteke trenbide-eremuko zati bat, Geltoki aldea zehazkiago. Hiriko sarera ekarriko lirateke horrenbestez sorturiko espazio berriak.

Helburu hauen artean, funtsezkoa da, halaber, **Euskotren zerbitzuaren trazatua aldatzea**, Renferen trenbide-plataformaren barruan egokitzeko. Haien paraleloan eta ondo-ondoan luzatuko litzateke, eta eremu hartan egingo litzateke era berean geltoki berria. Halatan, liberatu egingo litzateke ordura arteko burdinbide-espazioa eta desagertu egingo litzateke hiriaren erdialdean eraginiko ebakia. Bestalde, nabarmen hobetuko lirateke bi burdinbide-sistemen intermodalidadea eta zerbitzuen eskaintzak, eraikiko litzatekeen geltoki komunari esker.

Komenigarria izango litzateke, Kateako burdinbide-geltokien aldean eta nazioarteko zubiaren eremuan, **disuasiorako aparkalekuak** antolatzeke aukera kontuan hartzea. Erdialdetik kanpoko eremuetan egokituriko ekipamendu mota hauek izugarri errazten dute garraioaren erabilera arrazionala eta bide eskaintzen dute hiri trafikoa eta hiriko beste eremu batzuetan aparkaleku eskaria murrizteko.

Iparraldeko esparruan, hau da, Colon Ibilbidearen eta Bidasoa ibaiaren arteko aldean, **salgaien gune intermodal** bat egokitzea proposatu da. Trenbideak salgaien truke-zerbitzuetara egokituriko atari luzeen azpian instalatuko dira eta zuzenean lotuko dira errepede-sarearekin. Neurri handiko konposizioak bideratu ahal izateko, burdinbide-plataformaren azpian lurperatu beharko da N-1 errepedearen Iparraldeko Saihesbidea eta, beraz, zabalgunek bat sortu beharko litzateke errepede horrekin eta hiriaren erdialdearekin lotzeko.

Era berean, **geraleku berri bat** proposatu da Euskotren zerbitzurako, erakustazokaren ondoan, eta Bidasoa ibaiaren gaineko zubiak zabaltzea, Hendaiako geltokiarekiko lotura hobetearren.

7. kapitulua

ETXEBIZITZA

AURKIBIDEA : 7. KAPITULUA – ETXEBIZITZA

| | |
|---|----------|
| 7.- ETXEBIZITZA | 1 |
| 7.1 Proposamenerako abiapuntuak | 1 |
| 7.2 Egoitza erabilerako proposamen berriak kokatzeko irizpideak | 4 |
| 7.3 Egoitza erabilerako lurzoru berrirako proposamen nagusiak | 6 |
| 7.4 Egoitza proposamenaren kunatifikazioa | 11 |
| 7.5 Etxebizitza beharren kalkulua Gidalerroetan oinarriturik | 14 |

7.- ETXEBIZITZA

7.1 Proposamenerako abiapuntuak

Etxebizitzari dagokionean, eta Aldez aurreko Diagnostikoan azaldu zen bezala, kontuan izan behar da, Irungo plangintza nagusiaren berrikuspena hasteko unean zein egoeratan zegoen, **indarrean dagoen Planean aurreikusitako etxebizitzetatik %50etik gora** oraindik eraiki gabe baitzeuden, kopuru horretan sarturik 1999tik aurrera onarturiko plangintzaren aldaketetan jasotakoak.

Sendotu gabeko hiri lurzoruak osaturiko esparruetan nahiz esparru urbanizagarrietan aurreikusi diren etxebizitzak kontuan hartzen baditugu, jadanik tramitatuak dauden edo gauzatzen ari diren esparruetan oraindik eraiki gabe daudenak eta tramitatzen hasi ez diren esparruetan aurreikusitakoak barne, egungo garapenerako plangintzaren arabera, guztira **egin daitezkeen etxebizitza berriak 4.000 etxebizitza** inguru dira, berrikuspeneraren Aurrerakina aurkezteko unean.

Bestalde, kontuan hartu behar da Irunen dagoen urteko etxebizitza berrien **batez besteko eraikuntza erritmoa**, erritmo hori aldatu egin baita; izan ere, 400 ingurukoa zen 2000. urteen hasieran, eta 250ekoa, berriz, azken urte hauetan. Horrek esan nahi du, antzeko erritmoa mantentzen bada, indarrean dagoen Plan Nagusiak egoitza erabileretarako sailkatu edo kalifikaturiko lurzoruak oraindik **gaitasuna** izango lukeela datozen hamabi edo hamabost urteetan etxebizitzaren eraikuntza eskariari osotasunean erantzuna emateko, hiri zoru sendotuan geratzen den gaitasuna gauzatzeko denbora luzeagoa behar izango litzatekeen arren.

Garbi dago Plan Nagusi berriak **areagotu egin behar duela egoitzarako lurzoruaren eskaintza** denbora epe luzeagoa estaltzeko eta datozen urteetan lurzoru sailkatua agortu ez dadin lortzeko, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek zehaztutako etxebizitzaren kopurua kalkulatzeko irizpideen arabera, baina onartu behar da halaber, era horretako lurzoruei dagokienez, eta etxebizitzaren kopurua, oro har, eta gauzatu gabe dauden lurzoruak kontuan harturik, **Irungo egungo egoerak** aukera ematen duela egoitza erabilerak behar duen hazkunde horri halako erosotasun batez erantzuteko.

Horregatik, Plan berriaren erronketako bat, epe luzeago baterako eta legeak aurreikusten dituen hazkunde estandarrek ezarritako mugen barnean etxebizitza beharrak estaltzeko beharreko **era desberdineko egoitza jarduerak** aurreikustea da.

Horrenbestez, Plan Nagusiaren berrikuspenak, logikoa denez, **zoru berriak**, barnetik antolatu beharrekoak nahiz **egoitza erabileretarako** urbanizagarriak, kalifikatzeaz gainera, indarrean dagoen Plan Nagusian jadanik erabilera horretarako jasota **zeudenak** sartzen ditu etxebizitzetarako lurzoruen etorkizuneko eskaintzaren barnean, bai tramitean daudenak baina etxebizitzak datozen urteetan egingo direnak bai tramitatzen hasi ez direnak eta etorkizunean etxebizitza eskaintza handitu ahal izango dutenak, tokiko hirigintza arazoak konpontzen lagunduz bide batez.

Nolanahi ere, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen **legegintza esparru berriak** aldatu egin ditu 3.000 biztanletik gorako udaletan aplikatu beharreko **gutxieneko estandarrak, etxebizitza babestuetarako gutxieneko kopuru** batzuen arabera, Lege horren **80. artikuluan** zehaztuak horiek.

Horretan aurreikusitakoaren arabera, **sendotu gabeko hiri lurzoruen eremuetan**, horien exekuzioa **batik bat egoitza erabilerako jarduera integratuen** bidez aurreikusten denean, Plan Nagusiak berak edo Plan Bereziek, hala behar badu, egoitza erabilerako hirigintza eraikigarritasunaren hazkundearen **%40 gutxienez** gauzatzeko beharreko lurrak antolatu beharko dituzte babes publikoko erregimenen batekin loturiko etxebizitzak egiteko.

Bi zatitan banatuko da sendotu gabeko hiri lurzoruan %40ko portzentaje hori: **gutxienez %20**, hauxe da, portzentaje horren erdia gutxienez, erregimen orokorreko eta **erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak** eraikitze erabiliko da, eta gainerako portzentajea, %40ra iritsi arte, **erregimen tasatuko babes ofizialeko etxebizitzak** egiteko erabili ahal izango da.

Era berean, **erabilera nagusia egoitza duen zoru urbanizagarriaren sektore** bakoitzean, Plan Nagusiak eta gero Plan Partzialek, egoitza erabilerako hirigintza eraikigarritasunaren hazkundearen **%75 gutxienez** kalifikatzeko beharreko lurrak jarri beharko dituzte babes publikoko erregimenen batekin loturiko etxebizitzak egiteko. Zoru urbanizagarrian %75eko portzentaje hori bi zatitan banatuko da halaber: **erregimen orokor eta erregimen bereziko babes ofizialeko** etxebizitzetara **gutxienez %55** tokatuko zaie eta gainerako portzentajea %75era iritsi arte erabili ahal izango da **erregimen tasatuko babes ofizialeko etxebizitzak** egiteko.

Plangintza esparruetan indarrean dagoen Plan Nagusiak **babes publikoko erregimenen batekin loturiko etxebizitzetarako**, prezio tasatukoak barne, jadanik kalifikaturiko zoruak kontuan harturik, gutxi gora-behera era horietakoren bateko 1.850 etxebizitza eraikitzeko gaitasuna izango litzateke, hauxe da, jada definituriko sendotu gabeko hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren plangintza esparruetan guztira eraiki litezkeen 4.000 etxebizitza horien %45.

Lurzoruaren Lege berriak aurreikusten du etxebizitza babestuen ehunekoak aplikatu behar direla, gutxienez %40 hiri lurzoruaren esparruetan eta %75 lurzoru urbanizagarrian, **eraikigarritasunaren hazkundearen gainean** eremu bakoitzean aurretik gauzatutakoarekin, eta horrek esan nahi du, kalkulu hori egiteko kendu egin beharko litzatekeela eremu horietan gaur egun eraikita dauden egoitza eraikuntzen aprobetxamendua.

Gainera, **aprobetxamenduaren zenbatekoaren** gainean aplikatu behar dira portzentaje horiek, eraiki daitezkeen metro karratuak kontuan harturik, eta ez **etxebizitza kopuruaren** gainean, Plan Nagusiak modu loteslean kopuru hori zehaztea ez baita beharrezkoa, parametro hori **orientagarri** gisa azaltzen jarraituko badugu ere, ulertzeko errazagoa delako Plan berriak etxebizitzaren alorrean egiten duen eskaintza baloratzeko.

Lege berriak ezarri dituen **gutxieneko estandarren** hazkundearen ondorioz, eta egungo Plan Nagusia onartu zenean hiri lurzorian eta lurzoru urbanizagarrian orduan indarrean zegoen legeak eskatzen zituen etxebizitza babestuen portzentajeak gainditu baziren ere, oraindik tramitatu gabeko egoitza esparruetan, horiek mantendu egin baitira Plan berrian ere, etxebizitza babestuen mota desberdinetarako **eraiki daitekeen egoitza azaleraren** portzentajea **handitzera** behartzen du **estandar berrien aplikazioak**.

Plan Nagusiaren Berrikuspenak proposaturiko **egoitza esparru berrien** gainean gutxieneko estandarrak aplikatu beharra erantsi behar zaio horri. Gaur egun aurreikusitakoaren aldean, etxebizitza babestuen mota desberdinen kopurua askoz ere handiagoa izango da horrenbestez.

Hasiera batean, Legeak aurreikusten du babes publikoko erregimenen batekin loturiko etxebizitzetarako eraikigarritasunaren **gutxieneko estandarren betetze** hori banaka aplikatu behar dela sektore, eremu edo exekuzio unitate bakoitzean, baina era berean aukera ematen du Plan Nagusia berrikustean legeak agintzen dituen estandar horiek **beste era batean** betetzeko aukera jasotzeko, bai sendotu gabeko hiri lurzorian eta

lurzoru urbanizagarrian bai bi lurzoru mota horien artean, eta baita sektore, eremu edo exekuzio unitate desberdinen artean ere.

Hala eta guztiz ere, azken kasu horretan beharrezkoa izango da etxebizitzaren alorrean eskumena duen administrazioaren **baimena**, plangintzak erreserben kalifikazio orekatua izan dezan ziurtatu ahal izateko eta era bateko eta besteko etxebizitzaren artean gizarte eta esparru mailan bereizketak izateko arriskua baztertzeko.

Nolanahi ere, garbi dago, Plan Nagusi berriak ziurtatu egin behar duela estandar horien **betetzea**, proposaturiko egoitza lurzoru berrietan nahiz aurreko dokumentutik datozenetan aplikatuz. Aurrerakinean eraikigarritasunen **lehen banaketa** egin da dagoeneko era bateko eta besteko etxebizitzetarako, erabilera nagusia egoitza duten esparru urbanizagarri eta sendotu gabeko hiri lurzoru bakoitzari arauzko zenbatekoak aplikatuz.

Hala eta guztiz ere, Hasieran Onartzeko dokumentuan zehaztuko da xehetasun osoz era bateko eta besteko lurzoruen arteko estandar horien betetzea **kontabilizatzeko** formula. Gainera, eta portzentajeak lurzoru multzoari eta ez esparru bakoitzari aplikatzea erabaki izateagatik beharrezkoa bada, dagokion baimena eskatuko da, etxebizitza babestuen banaketa lurraldean modu orekatuan egin dela justifikatuz, gizarte eta esparru mailan inolako bereizketarik egon ez dadin lortzeko.

Horrez gainera, Legearen **81. artikulua** aurreikusitakoa bete behar da **hornidura bizilekuetarako** beharreko estandar berri eta erreserben gutxieneko zenbatekoen inguruan, horiek aplikatu behar baitira Irunek bezala 20.000 biztanletik gora dituzten udalerrietan.

Legearen xedapen horrek, **erabilera nagusia egoitza** duten esparruetan, egoitza erabilerako 100 m²-ko hazkunde bakoitzeko edo plangintzak aurreikusitako etxebizitza bakoitzeko **1,5 m²**-tik beherakoa izango ez den lurzoru azalera hornidura bizilekuetarako kalifikatzera behartzen du, eta egitura antolamenduak jasotako zehaztapenen bidez erabakiko da haien kokalekua.

7.2 Egoitza erabilerako proposamen berriak kokatzeko irizpideak

Egoitzarako lurzoria kokatzeko irizpideei dagokienean, eta etxebizitzaren alorrean legeak ezarritako baldintzak betetzeaz gainera, **lehen irizpidea** da 1999ko Plan Nagusiak hasitako **hiri erdiaren hiri izaera handitzeko** estrategia osatzea, oraindik eraiki gabe dauden lursail urriak aprobetxatuz, erdialdearen hedadura suspertu behar diren eremu hondatueta zabalduz eta erabilera zaharkituak eta arazoak sortzen

dituztenak aldatuz, hala behar izanez gero, beste kokaleku batzuk eskainiz, jadanik ekoizpen jardueretarako erabiltzen den Mendebaldean ahal bada.

Komeni da estrategia horren eta Ekonomi Jardueren Lurralde Plan Sektorialean aurreikusitakoaren arteko bateragarritasuna kontuan edukitzea, plan horren arabera, udalerrri beraren barnean **mantendu edo konpentsatu** egin behar baitira gaur egun jarduera horietarako diren lurretan kokaturiko **industri erabilerak**, plangintzak xede hori aldatu eta beste erabilera batzuetarako izatea erabakitzen badu.

Plan Nagusiaren Berrikuspenean beste lurzoru batzuk proposatu dira ekonomi jardueretarako, eta horietan eraiki daitekeen metro kopurua askoz ere handiagoa da egoitza erabileretarako birsailkatzea planteatzen den industri lurzorua baino. Proposaturiko estrategia orokorra **jardunean ari diren** ekoizpen jardueren erabileretarako **kokaleku berriak eskaintzea** da, eta horretarako malgua izango da Lurralde Plan Sektorialean aurreikusitakoaren aplikazioa.

Egoitza erabilerak kokatzeko funtsezko **bigarren irizpidea** da **gaur egun dauden hutsuneen aukerak** xehe aztertzea, eta bereziki oraindik hiri sailkapenik ez duten lurrenak eta gehien bat hiriak hartzen duen eremuan daudenak, baina beti ere **A-8 autopistaren Iparraldean dagoen zerrendan**.

Hiri lurzorutik kanpo baina jadanik hiritik hurbil dauden egoera horietan egoitza hazkundeak egiteko aukera proposatu da; izan ere, alde batetik, ingurumenari eta topografiari begira **egokiak diren eremuetan** etxebizitzak kokatzeko aukera eskaintzen dute, eta bestetik, **sarbide berrietan** bermatzen dira, jarduera berriak hiri sarean behar bezala egokitzeko aukera emanez, eta era berean, hiri egitura orokorra hobetzeko esku hartze gisa balio izango dute.

Horri **hirugarren irizpidea** erantsiko genioke. Kasu honetan proposamen batzuk dira esparru berriak sortu gabe, indarrean dagoen Plan Nagusiak jadanik jasotzen zituen baina oraindik erabat tramitatu edo gauzatu gabe zeuden sendotu gabeko hiri lurzorua **birmoldatzeko esparruen baldintzak** eta mugak **aldatzen dituztenak**.

Hirugarren kasuan helburu nagusia izan da esparru horien **zehaztapenak** eskakizun berrietara edo baldintza berrietara **egokitzea** antolamenduaren edo egoitza tipologiaren ikuspegitik begiratuta, edo bestela, orain arte aurreikusitako kasuak aldatzen dituzten sare orokorraren gaineko jardueretara egokitzea.

Gainera, eta etxebizitzak eraikitzeako aukera berriak eskaintzeko irizpide orokorren zati gisa, jadanik **sendoturiko egoitza eremua hobeto aprobetxatzeko** aukera dago

ordenantzen bidez erregulazioan aldaketa txiki batzuk eginda. Horiek etxebizitza zaharren tipologiari aplikatzen zaizkio, duten tamainarengatik horietan ordezkatzeko jarduerak egin baitaitezke hondoak, altuerak eta barneko banaketa hobeto aprobetxatuz, eta horrenbestez, etxebizitza gehiago egiteko aukera emanez eraikitako eremuen profil orokorra aldatu gabe.

Horrenbestez, estrategia horren bidez, **dauden eraikinak eraberritu** edo **berritzeko** aukera izango litzateke kasu batzuetan, eta modu horretan etxebizitza eskaintza handitu egingo litzateke oso hiri izaerako erdialdeko eremuetan, azken urte hauetan gertatu dena modu egokian bideratu ahal izateko, %10etik inguru dagoen lizentzia portzentajea eraberritzeko edo erabilera aldatzeko jardueretako eskatu baita.

Hala eta guztiz ere, Plan Nagusiaren Aurrerakinak etxebizitza berrien kontabilitatean ez du jaso nahi izan **hazkunde posible hori**, era horretako jarduerak programatzeak ez baitu zentzurik eta denbora luzean garatu baitaitezke. **Baldintza zehatzak** araudian jasoko dira Hasierako Onarpen dokumentuan, indarrean dagoen legeria dela eta hiri lurzoruko egoitza lurzoruaren hazkundeari aplikatu beharreko baldintzak beterik.

Lau eratako irizpide horiekin, barnean sarturik dauden eraikinetako batzuk eraberritzeko emango den aukera, **etorkizuneko egoitza eskaintza** ziurtaturik egon behar luke **tipologia eta kokaleku aukerari** dagokionean, hori funtsezkoa baita etxebizitzaren alorrean berrikuspenak planteaturik dituen erronkei erantzuna emateko.

7.3 Egoitza erabilerako lurzoru berrirako proposamen nagusiak

Egoitza erabilerarako kalifikaturiko lurzoru berriaren proposamen desberdinen artean, haxe da, egoitza erabilera globala, edo gehiengoa, den lekuetan, aipatzekoak dira **hiri erdian** garatzen direnak eta **hainbat auzotan** planteatzen direnak.

Egoitza erabileraren eskaintza osatzeko helburua dute guztiek ere, eremu eta auzo desberdinetan zuzen banaturik, Irun bezalako hiri batek, luzeran hainbat kilometrotan zehar hedatzen baita, egoitza **aukera berriak** eskain ditzan eremu bakoitzean.

Azalerari begira garrantzitsuena, Irunek duen egituran eta funtzionaltasunean izango duen eraginagatik, **Geltokiaren inguruko** lurzoruetan planteatzen dena da, inolaz ere, birmoldatze lan handia izango baita benetan. Hari erantsiko zaio bere garaian San Migelen jadanik aurreikusia dagoen egoitza jarduera, eremu hori guztiaren eraldaketa osatuko duena, hain zuzen ere.

Aurrerakinean planteatu den bezala, esparru hori beste **esparru zehatzago batzuek** osatzen dute era berean: Renferen Geltokia bera, Aduana zaharraren eraikinaren eremua, Trenbide berrien eremua, Belaskoeneako egoitza eremua, Lopez de Becerra kalearen eremua, CAFen tailerren eremua. Horiek guztiak bereiz gara daitezke, baina beti ere **proiektu komun baten barnean koordinatu** behar dira.

Kontuan izanik oraindik ez direla erabaki zehatz batzuk hartu trenbidearen eremuak **harturiko lurzorua liberatzeari** begira, eta gainera, **CAFen instalazioak aldi baterako beste leku batera**, burdinbide sarearekin loturiko eremu batera baina udalerraren barnean beti ere, eramateko erabakia ere ez denez hartu, Geltokiko jarduera berriak lurzoru gehiago edo gutxiago izango du egoitza erabileretarako.

Horren haritik, **bi Alternatiba** planteatu dira Aurrerakinean, horien aldea lur gehiago edo gutxiago okupatzea izanik, kontuan izanda biek ere jadanik badituztela burdinbide azpiegituren organo kudeatzailetik hasiera batean proposatu diren lurrak, **etorkizunean lur horiek erabili ahal izango direlako** bertako trenbideak edo instalazioak desagertu egingo baitira, jadanik beharrezkoak ez izateagatik.

Esku hartze handi horrekin Irungo hiriaren **barne hazkundera osatu** nahi da, planteatzen den aukera handia aprobetxatuz, hainbeste urteren buruan, trenbide espazioek **okupazio behar txikiagoa** izateagatik; horri esker, nabarmen murriztuko baita burdinbideak hirirako eragin izan duen **hesia**, eta egungo hiri sarea osatuko duen sarea egituratuko baita, trenbideen bi aldeetako auzoetarako bide komunikazio eta komunikazio funtzionalari konponbidea emanez.

Era berean, esan behar da, kontua ez dela soilik lur horietan etxebizitzak kokatzea, baizik eta **erdialdeko eremu hori** suspertzeko helburua lortzeko, **beste era bateko erabilerak** ere planteatu beharko direla, hirugarren sektorekoak, hornidura edo zerbitzu erabilerak, hain zuzen ere, hiriari zentralitate esparrua emanez, duen funtzioa ziurtatzeko beharreko erabilerak nahasirik. Nolanahi ere, jarduera horrekin ziurtatu ahal izango den **egoitza eskaintza** Irunen planteaturikoetan **garrantzitsuena** izango da, alde handiz gainera, plangintzaren berrikuspen honetan izan ezik aspaldiko urteetan ere.

Gainera, hiriaren **erdi-erdian** sortzeak ematen dion abantaila izango du esku hartze honek, hesitua eta zatitua egon den eremu batean, baina hiri ehunean **integratzeko** eta ehun hori osatzeko **gaitasun** izugarriarekin, eta oso **xarma** bereziarekin egoitza okupaziorako eremu gisa aukeratzeko.

Halaz ere, birmoldatze lan garrantzitsu horrez gainera, beste jarduera batzuk planteatzen dira, eraldatzeko gaitasuna dutenak horiek ere, baina **toki mailan**. Horien artean, aipatzekoak dira, **Katea auzoan**, Araba kalean eta Katea Erdialdean, aurrera eramango diren bi esku hartzeak.

Araba kaleko esku hartzean, kalea **zabaltzea** da helburua, haren trazatua erregularizatu eta urbanizatuz, **Katea auzoko ingurabide** papera bete dezan. Era berean, **egoitza eraikuntza** txiki bat eskaini nahi da, Araba kalean amaitu gabe dagoen zatiaren irekitzea finantzatzeko aukera emango duena gainera.

Katea Erdialdeko esku hartzean, Kateako herrigunearen Ipar-ekialdean eta trenbide sarearen Hegoaldean kokatua hura, kontua da auzorako **erdiko esparru berezi bat** sortzea, kalitatezkoa eta izaera publikokoa, neurriko altuerako egoitza eraikuntzetan etxebizitza eskaintza eginez. Gainera, jarduera horren bidez, hobeto egokitu nahi da **herrigune osoak burdinbide eremuarekin duen lotura**, Euskotren-Renfe baterako geltokia eraikiz, goitik oinezkoentzako igarobidearekin, Kate lotu ahal izateko trenbideen Iparraldean dagoen hiri eremuekin.

Geltokiaren Hegoaldean, berriz, **Belaskoko industri eraikinean** esku hartzea planteatzen da. Kontua da **pixkanaka-pixkanaka** eta beti ere neurri batean Iparraldeko aurrealdean dauden egungo industri instalazioak **ordezkatzea**, dagoen egoitza inguruarekin eta Iparraldeko eraikinean eraikiko diren bi solairuetan kokatu beharreko **egoitza eskaintza berriarekin** bateratzeko zailak diren jarduerak Hegoaldeko eraikinera edo beste eremu batzuetara eramanik eta jardueren eremutik bereiz egongo diren sarbideekin.

Jarduera horren bidez **industri eraikuntza suspertzeko** prozesua erraztuko litzateke, lekualdatze lan handirik egin gabe, Geltokiaren ingurutik hurbilen dagoen kale eremuan **espazio publiko** bat egokituz, eta gainera, Oñako Baroia eta Alai-Txoko parkeekiko jarraipena emanaz Elizatxo hiribidea estaltzeko konponbide berriaren bidez.

Espazio publiko berri horren sestraren erregularizazioak berekin eramango luke Iparraldeko eraikineko beheko solairuan kokaturiko lokalen altueraren murrizketa, egoitza eremuan **hirugarren sektoreko erabilera bateragarriak** egokitzeko aukera emanaz, eta modu horretan, **erabat berritua** geratuko litzateke Iparraldeko fatxada.

Hiriaren **Hego-mendebaldeko** eremuan halako sendotze jarduera batzuk planteatzen dira. Horiek **Elizatxo hiribidea bukatzeko** aukera emango lukete, haren aurrealdea erregularizatuz, eta egoitza jarduera txikiei bide egin ahal izango lieketen erabilerek okupaturiko hiri hutsarteak aprobetxatuz.

Arretzeko Malda bezalako esparruak dira horiek, Auzolan kalearen eta Elizatxo hiribidearen artean, gaur egun automobil kontzesionario eta tailerrak okupatua, hain zuzen ere, eta horrek egoitza sustapenari egingo lioke leku. Beste hainbeste gertatzen da **Rataplan** esparruarekin, honek hiribidera ematen du eta Elatzeta eta Lapitze kaleak ditu muga. Esparru horren lerrokadura berriak aukera emango du bide kalifikazioa duen espazio handi bat lortzeko, eta gauzatu ahal izango da hiribideko zati honetarako aurreikusitako konponbidea.

Era berean, eta **Elizatxo hiribiderako aurreikusitako lurperatzetik** hurbil, Alai-Txoko parkearen aurrealdean, **Alei** deituriko esparru berrian, Oinaurreko egoitza jardueraren ekialdean, gaur egun baratze txikiek okupaturiko eremuan, udalerraren erdialdean egonik egoitza jarduera txiki bat gauzatu litzakete.

Artiako kanalaren Iparraldeko eta Ipar-mendebaldeko eremuetan, **Artia Ibilbidea** deituriko esku hartze txikia planteatzen da, hiltegi zaharraren eraikinaren lurretan, aldameneko eraikuntzak barne. Eremu horretan **beste egoitza antolamendu bat** egitea proposatzen da, kanalaren ertzean jada eraikitakoaren antzeko tipologiarekin. Era berean, jarduera horrekin **kanalaren aurrealdearen erregularizazioa** osatu nahi da, **ertzeko espazio libre linealaren jarraipenerako** egungo oztopoa kenduta, horrek eragozpenak sortzen baititu begiz eta ingurumenari begira ibaia Ibarlako haranarekin lotzeko.

Behobia auzoan, eta errepide nazionalaren etorkizuneko bikoizketatik etorritako ezinbesteko esku hartzearekin loturik, **Lastaola Postetxea** izeneko esparrua birmoldatzea planteatzen da, izen bereko kalean zehar luzatzen den eremuan. **Beste bide trazatu bat** aurreikusten da, jada tramitean dagoen garapenerako plangintzak aurreikusitakoa ez bezalakoa, esparruaren **eraikigarritasuna berriro antolatu eta egokituz** eta Behobia auzoan **askoz hobeto konektaturiko** egoitza eremu berria sortzen lagunduz.

Jarduera horrekin loturik dago halaber **Pausun** proposaturiko esparru berrikoa. Eremu horretan **Behobiako merkataritza gunea** birmoldatzea aurreikusten da, hango sarbideak eta antolamendua aldatu egin beharko baitira N-1 errepidea bikoizten denean, eta baita aduana kontrolerako eraikin zaharra ere, hura antolamendutik kanpo geratuko baita. Esku hartze horri esker, merkataritza horniduraren funtzionaltasuna hobetuko da eta baita Elizaren inguruko eta Bidasoa ibaiaren ertzeko espazioarekiko lotura ere.

Goiko eremuan, berriz, **Gazteluberri**, jarduera planteatzen da. Gaztelu Iparraldea esparrua hartzen duena, Antton Ttipi esparruko Plan Partzialak definitua. Esku hartze honen helburu nagusia ekipamendu lursail handi bat sortzea da eta, esparru horretatik sortutakoa osatuz, **eskola ekipamendua** kokatu liteke bertan, Behobiako eremu osoaren eta Artia auzoaren beharrei erantzuteko.

Irungo Hegoaldeko eremuan bi egoitza jarduera garrantzitsu planteatu dira gaur egun **urbanizaezin** gisa sailkaturiko lurzoruan. Kontua da egungo bi muinoen egoera aprobetxatzea, horietan ezin baita eraikuntzarik egin aireportutik hurbil egoteagatik zortasunak dituztelako, horien beheko aldeetan nolabaiteko garrantzia izango duen egoitza eskaintza egiteko.

Arrazoi horiengatik, bi esparru horiek **garatzeko baldintzak**, eraiki ezin diren **espazio libreak** hirirako **zesioan ematearekin loturik daude ezinbestean**, hauxe da, bi muino horien alde garrantzitsuena eta **sarbideetarako** beharrezko zatiak. Kasu bakoitzean **baterako kudeaketa** egiten bada soilik onartu ahal izango da orain berrikuspenak proposatzen duen lurzoruaren sailkapen aldaketa hori, egun duen urbanizaezin sailkapenetik urbanizagarrira, hain zuzen ere.

Matxalagain esparru berria, izen bereko muinoaren mazelen inguruan kokatua, Ermita eta Arbesko Errota kaleek eratzen duten lurzoruaren egungo mugaraino hedatzen da. Eremu horretan **egoitza antolamendua** proposatzen da mazelaren ekialdeko ertzeko behealdean, inguruko balio topografikoekin bat etorriko den eraikuntza eta bide egitura erregularizatzeko aukera emango duena beti ere.

Esparru berriko gainerako lurrek **Espazio Libreen Sistema Orokorra** sailkapena dute, Matxalagain muinoaren goialdeko ingurumen balioak zainduz, eremu horretan ezin baita eraiki topografia eta ikusgaitasun arrazoiengatik eta paisaia babestu behar izateagatik, eta horrenbestez, **hiri-inguruko parke** handi bilakatuko litzateke, eta hiriaren eta badiaren ikuspegi ederrak ikusi ahal izango dira bertatik. Bide Sistema Orokor gisa Erriberako eremutik sarbidea izateko gordeko da esparruaren zati txiki bat.

Blaia esparru berria Buenabistako muinoaren mazelen inguruan dago, haren Iparraldeko ertza barne, Cesar Figuerido kalearekin muga egiten duena, eta Hegoaldetik, berriz, Lekuenea eremuraino eta autopistaren trazatuaren eta Blaiako errepide ondoko eraikuntzen esparru zabaleraino iristen da. Gaur egun **ez dira urbanizagarriak** lur horiek, eta Buenabistako muinoari dagozkionetan ezin da eraikuntzarik egin malda handiengatik eta ikusgaitasunagatik eta paisaia babestu behar izateagatik.

Hedadura handiko esparru horretan, **egoitza antolamendua** aurreikusi da aldaparik txikiena duen eremuan, Blaiako errepidearen hegoaldean. Etxebizitza blokeak izango lirateke, eta egoitza erabileren eskaintza horrek osatuko luke Irunen planteaturiko egoitza aprobetxamendua duten proposamen berrien multzoa.

Esparru berri horretan dagoen gainerako lurra **Espazio Libreen Sistema Orokor** gisa kalifikaturik geratuko da, eta berdegunea ere egongo da Blaiako udal hornidura instalazioen Hegoaldean eta Mendebaldean. Era horretan mantendu egingo dira Buenabistako muinoak dituen egungo ingurumen balioak, eta haren kokalekua aprobetxatuko da hirian hiri-inguruko beste parke osagarri bat egiteko, Bidasoa ibaiaren eta badiaren gainean ikuspegi bikaina duena gainera.

Esparru horren zati bat Sistema Orokor gisa kalifikatuko da, Artia ibilbidetik **sarbidea** egiteko, haren bidez lotuko bailitzateke hiri erdiarekin, eta Hegoaldeko ingurabide berria osatzeko ere balio izango luke aldi berean.

7.4 Egoitza proposamenaren kuantifikazioa

Azalera eraikigarria eta **estimaturiko etxebizitza kopurua** hartu dira kontuan egoitza proposamena ebaluatzeko, berrikuspen berri honen irismena eta izan dezakeen indarraldia baloratu ahal izateko etorkizuneko etxebizitza eskariari behar bezala erantzungo zaion ikusteko, bai guztizko kopuruak bai babes publikoko erregimenen batekin loturiko motak eta etxebizitza libreak bereizita.

Egungo lurzoru legeriaren arabera, **etxebizitza kopurua ez da loteslea**, baina hala eta guztiz ere, eta proposamenaren irismena hobeto uler dadin laguntzeko, kuantifikazioa egin da baina estimazio gisa hartuko da beti ere eta, etorkizunean Geltoki Ingurua birmoldatzeko **1. alternatiba** hautatzen bada, ia **3.300ra** igoko litzateke **eraiki daitezkeen etxebizitza berrien kopurua**, horietatik erdia inguru **erregimen babestukoak** edo **etxebizitza tasatuak** izan litezke. Guztiko kopuru hori **2.350 etxebizitza** izango lirateke, berriz, Geltoki Ingurua birmoldatzeko **2. alternatiba** hautatzen bada.

Azken hamarkadan izandako **urteko batez besteko erritmorra** iritsi eta hura mantentzen bada, hauxe da, 350 etxebizitza urtean, hazkunde horretatik etorritako etxebizitza eskaintzak **7 eta 9 urte** bitarteko eskariari emango lioke erantzuna, Geltoki Ingurua birmoldatzeko hautatzen den aukeraren arabera.

Nolanahi ere, guztizko etxebizitza eskaintzan kontuan hartu behar dira gaur egun tramitazioan dauden edo gauzatzen ari diren plangintza esparruetan eraiki daitezkeen

4.000 etxebizitzak, Plan Nagusiaren Berrikuspenak horiek mantendu egiten baititu. Horrenbestez, Plan berriak **7.300 etxebizitza** inguruko **eraikuntza gaitasuna** izango luke **guztira** plangintza esparruetan, edo **6.350 etxebizitza** Geltoki Ingurua birmoldatzeko 2. alternatiba hautatzen bada.

Guztizko etxebizitza kopuruari **hiri lurzoru sendotuko** orubeetan eraiki daitezkeen etxebizitzak eransten badizkiogu, aurreikuspen horiek ez dituzte gainditzen etxebizitza gaitasuna kalkulatzeko magnitudearen parametroak, **Lurraldea Antolatzeko Gidalerroek** zehaztu bezala, hurrengo azpikapitulan garatua, honek kontuan hartzen baitu biztanleriaren hazkundera ez ezik etxebizitza bakoitzeko biztanleen ratioaren jaitsiera, turismo etxebizitzak eta indize zuzentzaile bat ere merkatuaren malgutasunari eusteko, kontuan izanik kalkulaturiko zenbateko horiek bikoiztu egiten dituela ia.

Laburbilduta, esan daiteke epe luzerako urteko eraikuntza erritmoa batez beste **urtean 350 etxebizitzakoa** bada, etxebizitza berriak eraikitze gaitasun horrek balio izango lukeela **eskariari** ongi erantzuteko **2020.** urtera arte (4.200 etxebizitza berri behar dira), hauxe da **Plan Estrategikoaren urte muga** bitarte, eta baita **2024.** urtera arte ere (5.600 etxebizitza berri behar dira), urte hori bitarteko **biztanleria proiektzioak** egin baitira 2. kapitulan azaldutako kalkuluen arabera.

Egia esan, hiri lurzoruko eraikinen ordezkoko gisa edo eraberritze moduan eraiki daitezkeen etxebizitza gehigarriak kontuan hartzen ez dituzten proiektzio horiek, aukera emango lukete Plan Nagusi berriak **etxebizitza eskari guztiei erantzuteko** gaitasuna handi dezan aztertutako denboraldi horietatik aurrerago ere.

Honako hauek dira Plan Nagusia berrikusteko proposamenaren barnean dauden **egoitza eremu berrien datuak**, gauzatzen ari diren edo tramitean dauden esparruetan eraiki daitezkeen azalera eta etxebizitzak kontuan hartu gabe:

**PROPOSATURIKO EGOITZA ESPARRU BERRIAK
LURZORU AZALERAK ETA AZALERA ERAIKIGARRIAK**

| GAKOA | IZENA | AZALERA GORDINA m ² zoru gord. | EGOITZA AZALERA m ² zoru garb. | EGOITZA ERAIKUNTZ. HAZKUNDEA m ² c eraik. | % ETXEBIZITZA MOTAREN ARABERA LIBREA/BABES/TASAT | | |
|--|---------------------------|---|---|---|--|-------|----|
| | | | | | | | |
| 1.2.02 | ARABA KALEA | 12.008 | 12.008 | 4.598 | 60 | 20 | 20 |
| 1.2.13 | KATEA ERDIALDEA | 29.584 | 17.036 | 7.348 | 60 | 20 | 20 |
| 0.1.01 | GELTOKI INGURUA 1. AUK. | 386.924 | 174.220 | 179.124 | 60 | 20 | 20 |
| 1.3.10 | BELASKO ERAIKINA | 29.247 | 29.247 | 11.906 | 60 | 20 | 20 |
| 1.3.11 | ARRETXEKO MALDA | 1.839 | 1.839 | 1.076 | 60 | 20 | 20 |
| 6.2.07 | RATAPLAN | 9.373 | 3.667 | 2.428 | 60 | 20 | 20 |
| 6.2.08 | ALEI | 13.082 | 6.658 | 2.812 | 60 | 20 | 20 |
| 7.1.03 | ARTIA IBILBIDEA | 10.422 | 6.782 | 3.416 | 60 | 20 | 20 |
| 7.2.08 | MATXALAGAIN | 165.436 | 42.003 | 23.995 | 25 | 55 | 20 |
| 8.2.05 | BLAIA | 172.069 | 55.109 | 30.574 | 25 | 55 | 20 |
| 8.2.06 | GAZTELUBERRI | 20.125 | 2.605 | 1.620 | 60 | 20 | 20 |
| 8.3.04 | LASTAOLA POSTETXEA | 17.642 | 16.241 | 6.763 | 25 | 75 | 0 |
| 8.3.05 | MENDIPE | 19.064 | 19.064 | 10.720 | 71,52 | 28,48 | 0 |
| ESPARRU GUZTIAK OROTARA | | 886.815 | 386.479 | 286.380 | | | |
| 0.1.01 | 2. AUKERA GELTOKI INGURUA | 310.782 | 98.078 | 98.008 | 60 | 20 | 20 |
| GUZTIRA (2. AUK. GELTOKI Ingurua) | | 810.673 | 310.337 | 205.264 | | | |

**PROPOSATURIKO EGOITZA ESPARRU BERRIAK
ETXEBIZITZA HAZKUNDEAK**

| GAKOA | IZENA | HAZK. ETXEBIZ. LIBREAK etxeb. kop.. | HAZK. ETXE. BABESTUAK etxeb. kop. | HAZK. ETXEBI TASATUAK etxeb. kop. | HAZK. GUZTIRA etx. kop. |
|--|-------------------------|--|---|---|-------------------------------|
| | | | | | |
| 1.2.02 | ARABA KALEA | 31 | 11 | 11 | 53 |
| 1.2.13 | KATEA ERDIALDEA | 49 | 17 | 17 | 83 |
| 0.1.01 | GELTOKI INGURUA 1. AUK. | 1.194 | 421 | 421 | 2.036 |
| 1.3.10 | BELASKO ERAIKINA | 79 | 28 | 28 | 135 |
| 1.3.11 | ARRETXEKO MALDA | 7 | 3 | 3 | 13 |
| 6.2.07 | RATAPLAN | 16 | 6 | 6 | 28 |
| 6.2.08 | ALEI | 19 | 7 | 7 | 33 |
| 7.1.03 | ARTIA IBILBIDEA | 23 | 8 | 8 | 39 |
| 7.2.08 | MATXALAGAIN | 67 | 155 | 56 | 278 |
| 8.2.05 | BLAIA | 85 | 198 | 72 | 355 |
| 8.2.06 | GAZTELUBERRI | 11 | 4 | 4 | 19 |
| 8.3.04 | LASTAOLA POSTETXEA | 19 | 44 | 16 | 79 |
| 8.3.05 | MENDIPE | 86 | 32 | 0 | 118 |
| ESPARRU GUZTIAK OROTARA | | 1.686 | 934 | 649 | 3.269 |
| 0.1.01 | GELTOKI INGURUA 2. AUK. | 653 | 231 | 231 | 1.115 |
| GUZTIRA (2. AUK. GELTOKI Ingurua) | | 1.145 | 744 | 459 | 2.348 |

7.5 Etxebizitza beharren kalkulua Gidalerroetan oinarriturik

Euskal Autonomi Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Gidalerroek zehaztutakoaren arabera, Plan Nagusi berriak gutxienez bideratu beharreko etxebizitza kopurua kalkulatu behar da LAGetan jasota dagoen bost faktore edo osagarrik osaturiko formula baten aplikazio irizpideen arabera. Argi utzi behar da dokumentu horrek **izaera lotesleko zehaztapen** gisa jasotzen duena lurzoruaren kuantifikazio egokia dela, Plangintza Nagusiaren tresnen arabera etxebizitzari dagokionean 8 urteko epean benetan egongo den eskariari erantzun ahal izateko, horixe baita LAGek kontuan hartu duten erreferentzia.

Bi kontzeptu desberdin dira horrenbestez, horietan lehenengoak **Planak etxebizitzarako kalifikatu behar duen lurzoruaren kopurua** zehazten du, etxebizitza horien ehuneko bat gutxienez Planaren exekuzio denboraldian benetan eraikiko dela ziurtatzeko beharreko zorua, hain zuzen ere, lurzoru kopuru hori bat etorriarik Planaren urte mugan **benetan behar izango diren etxebizitzen** bigarren kontzeptuarekin.

Lehenengo kopuruak, etxebizitza eraikigarri bilakatua, bigarrena baino handiagoa izan behar du logikoa denez, eta horretan eragin nabarmena du **eskaintzaren zurruntasuna zuzentzeko faktorea** deiturikoak, izan ere, planifikaturiko etxebizitza multzo bat izango da, arrazoiak arrazoi denboraldi horretan eraiki ezin izango direnak, aurrerago baizik, Planak ez baitira bat batean bukatzen, eta gainera, eskaintzak eta eskariak behar bezala jardun dezaten, komeni da denborali jakin baterako hertsiki behar dena baino etxebizitzarako lurzoru kalifikatu gehiago egotea.

Gauza horiek guztiak argitu ondoren, Gidalerroek zehaztutako **ETXEBIZITZA ESKAINTZA KUANTIFIKATZEKO** prozedura betetzeko eragiketak azalduko ditugu urratsez urrats. 8 urteko denbora mugarekin egin behar da kalkulu hori.

LAGetan deskribaturiko 5 osagaiak batu behar dira **Formula** hori lortzeko:

$$C1 + C2 + C3 + C4 + C5$$

- C1 Lurralde Ereduaren Inplikazioen osagaia

Gidalerroen Dokumentuaren arabera Irun ez dagoenez Hazkunde Selektiboaren irizpideak esleitzen zaizkien udalerrien artean, eta ezta Deskongestio Habitat gisa hartzen direnen artean ere, osagai hori zero izango da.

Horrenbestez:

$$C1 = 0 \text{ etxebizitza}$$

- C2 Hazkunde demografikoaren osagaia

Hazkunde demografikoaren kalkuluak egiteko, **1996 eta 2006ko Biztanleria Errolden** datuak hartu dira kontuan, estatistikoki informazio fidagarria eta estatistika terminoetan beste datu batzuekin alderatzeko modukoa izateagatik. Era berean, esan behar da, horiek direla datu **berrienak**, eta horrenbestez, egungo egoera hoberen islatzen dutenak. Okupaturiko etxebizitza kopurua, berriz, udal datuetatik hartu da.

Hala eta guztiz ere, eta kontuan izanik Plan Nagusiaren Berrikuspena idatzi den unea, **Oinarri urtea 2008.** urtea izango da proiektzioen kalkuluak egiteko.

PB₁₉₉₆ (1996. urteko erroldako biztanleria) : 55.215 biz.
PB₂₀₀₆ (2006. urteko erroldako biztanleria) : 60.648 biz.
PB₂₀₀₈ (2008 Oinarri urterako aintzat hartutako biztanleria) : 61.300 biz.

VOB₁₉₉₆ (1996. urteko erroldako etxebizitza okupatuak) : 18.100 etxeb.
VOB₂₀₀₆ (2006 Oinarri urtean etxebizitza okupatuak) : 22.690 etxeb.

TAC (Biztanleriaren Urteko Hazkunde Tasa 2008-1996):

Urteko batez besteko hazkunde tasa: = $(61.300 - 55.215) / 12 = 507$ biz/urtean
eta Urteko Hazkunde Tasa: $TAC = 507 / 55.215 = \mathbf{0,00918}$

TMF Egitatezko biztanleriaren Batez Besteko Famili Tasa okupaturiko etxebizitzako:

TMF₁₉₉₆ (Biztanleriaren Batez Besteko Famili Tasa okupaturiko etxebizitzako 1996an):
Batez besteko tasa 1996an: $PB_{1996}/Etxeb. okup.= 55.215 \text{ biz}/18.100 \text{ etxeb.}) = \mathbf{3,0505}$

TMF₂₀₀₆ (Biztanleriaren Batez Besteko Famili Tasa okupaturiko etxebizitzako 2006an):
Batez besteko tasa 2006an: $PB_{2006}/Etxeb. okup.= 60.648 \text{ biz}/22.690 \text{ etxeb.}) = \mathbf{2,6729}$

TMFren urteko batez besteko murrizketa honako formula honen bidez kalkulatu behar da:

$$= (TMF_{2006} - TMF_{1996}) / 10 / TMF_{1996} =$$

$$= (3,0505 - 2,6729) / 10 / 3,0505 = 0,3776 / 10 / 3,0505 = - 0,01238$$

Horrenbestez, **Vm batez besteko aldaketa** honako koefiziente honekin zehaztuko da:

$$1 - 0,01238 = 0,98762$$

Halatan, datozen zortzi urteetarako ($n = 8$), horiexek hartu behar baitira kontuan formula aplikatzeko, honako hau izango da Batez Besteko Famili Tasa 2016an:

TMF₂₀₁₆ (Batez Besteko Famili Tasa 2016an):

$$= TMF_{2006} \times (Vm)^8 = 2,6729 \times (0,98762)^8 = 2,6729 \times 0,9051 = \mathbf{2,41936}$$

PH₁₆ (Biztanleria Muga 2016 abiapuntu gisa 2008ko Biztanleria kontuan harturik)

$$= PB_{2008} (1+TAC)^8 = 61.300 \times (1,00918)^8 = 61.300 \times (1,07584) = \mathbf{65.951 \text{ biz.}}$$

gero:

CD₂₀₁₆ (Hazkunde Demografikoa)

$$= PH_{2016} - PB_{2008} = 65.951 - 61.300 = \mathbf{4.651 \text{ biz.}}$$

eta horrenbestez:

ND₂₀₁₆ (Biztanle berrientzako Etxebizitza beharrak)

$$= CD_{2016} / TMF_{2016} = 4.651 / 2,41936 = \mathbf{1.922 \text{ etxeb.}}$$

horiexek izango lirateke datozen 8 urteetan Irunek izango dituen biztanle berrientzako benetan behar diren etxebizitzak.

$$\mathbf{C2 = 1.922 \text{ etxebizitza}}$$

- C3 Famili Egituraren Aldaketaren osaqaia

Pixkanaka-pixkanaka familia bakoitzeko kideen kopurua murrizteagatik egungo famili unitateak zabaltzeko behar izango diren etxebizitza berriak kalkulatu dira faktore honekin. 2006 oinarri urtean zeuden Etxebizitza Okupatuen datua hartu dugu oinarritzat, horixe baita errolda datuak ditugun azken urtea (VOB₂₀₀₆).

Eguno biztanleentzako etxebizitza berrien beharrak

$$= PB_{2006} / TMF_{2016} - VOB_{2006} = 60.648 / 2,41936 - 22.690 = \mathbf{2.738 \text{ etxeb.}}$$

Hauxe da, etxe berriak osatuko dituzten Irungo egungo biztanleentzako, daudenez gainera, beste hauek beharko dira

$$\mathbf{C3 = 2.738 \text{ etxebizitza}}$$

- **C4 Eskaintzaren Zurruntasunaren osagaia**

Osagai honi begira, Gidalerroek Irungo udalerriri ematen dioten balioa hartu behar da kontuan, Hiri Hierarkiaren 3. Maila, hain zuzen ere, hauxe da, Bilboko metropoli aglomerazioaren atzetik, hark 1. Maila baitu, eta herrialdeko beste hiriburuen atzetik, horiek 2. Maila baitute. Horrenbestez, horrek egoera malguagoan ezartzen du lurzoru sailkatu nahikoa ezartzeko beharrari dagokionean.

CR (Zurruntasun koefizientea) Irunerako = 0,15

Eskaintzaren zuzenketa

$$\begin{aligned} &= (\text{VOB}_{2006} + C2 + C3) \times CR = (22.690 + 1.922 + 2.378) \times 0,15 = \\ &= (26.990) \times 0,15 = \end{aligned}$$

4.049 etxeb.

horrek esan nahi du hemendik 8 urtera benetako eskari gisa aurreikusitako 26.549 etxebizitza horiek eraikiak eta okupatuak egon ahal izateko, 3.980 etxebizitza gehigarriko lurzoru kalifikatua eduki beharko da, hauxe da, guztizko etxebizitzaren %15, edo Irungo kasu zehatzean, etorkizuneko beharrari erantzuteko aintzat hartu den etxebizitza kopuru zehatzaren bikoitza baino zertxobait gehiago.

C4 = 4.049 etxebizitza

- **C5 Bigarren Etxebizitzaren osagaia**

Kasu honetan, Irun ez badago ere Gidalerroen Dokumentuak turismo osagai nabarmena duten udalerriri gisa zehazten dituen zerrendetan, egoitza osagai hori badago Irunen eta bultzatu egin da sektore batzuetan, oraindik ere aski minoritarioa izan arren. Hala eta guztiz ere, kontuan eduki behar da, izan ere, Plan Nagusiak udalerrian egoitza esparru batzuk birkalifikatzeko eta oso erdiguneko eremu batzuk birmoldatzeko proposamena, neurri batean bederen, **bigarren etxebizitzaren** faktorea kontuan harturik egin da, egon daitekeen etxebizitza berri horien eskariaren zati gisa.

Irunen kalkulatu da gaur egun %3 direla bigarren etxebizitzak, etxebizitzaren azken erroldan halako gisa azaltzen direnak eta hutsik egonik bigarren etxebizitza edo turismo izaerako egiteko hori izango luketenak barne. **Irun** Txingudi eskualdean **erabat integratzeari** begira, eskualdeak turismo osagai handia izanik, beharrezkotzat hartu da gutxienez turismo etxebizitzaren %3 hori mantentzea.

Horrenbestez, honako hauek izango lirateke azken osagai honengatik aplikatu beharreko koefizienteak:

CSR_{2006} (Aintzat hartutako Bigarren Etxebizitzaren koefizientea 2006 oinarri urterako) = **1,03**

CSR_{2016} 2016. urterako proposatua = **1,03**

Horrenbestez, dagokion formula aplikaturik:

$$= (C2 + C3 + C4) \times (CSR - 1) \times 0,5 = (1.922 + 2.378 + 4.049) \times (1,03-1) \times 0,5 = 8.349 \times 0,03 \times 0,5 = \mathbf{125 \text{ etxebizitza}}$$

Hauxe da, 120 etxebizitza berri aurreikusi behar dira, turismorako bigarren etxebizitzaren funtzio hutsa izateko.

C5 = 125 etxebizitza

KUANTIFIKAZIOA GUZTIRA

Kalkulu horiek honako Guztizko kuantifikazio honetara eramango gaituzte:

$$\mathbf{C1 + C2 + C3 + C4 + C5 = 0 + 1.922 + 2.378 + 4.049 + 125 = 8.474 \text{ etxebizitza.}}$$

Kalkulaturikoaren arabera, Plan Nagusiak sailkaturiko egoitza lurzoru berriak gaitasuna izan beharko du honako etxebizitza hauek eraikitzeko:

8.474 etxebizitza berri

kopuru hori bat dator Plan Nagusiak sendotu gabeko hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren esparruetarako aurreikusitakoan oinarriturik kalkulaturikoarekin eta hiri lurzoru sendotua birmoldatu eta osatzeko gaitasunarekin.

8. kapitulua

EKONOMI JARDUERAK ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA

AURKIBIDEA : 8. KAPITULUA EKON. JARDUERAK- H. S. ERABILERAK

| | |
|---|----------------|
| 8.- EKONOMI JARDUERAK ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERAK | 1 |
| 8.1 Proposamenerako abiaputnuak |1 |
| 8.2 Ekoizpen erabileren proposamen berriak kokatzeko irizpideak |4 |
| 8.3 Ekonomi jardueren erabileren eskaintza estrategiak |5 |
| 8.4 Ekoizpen eta h. sektoreko erabileretarako lurzoru berriaren proposamen nagusiak | 7 |
| 8.5 Ekoizpen eta h. sektoreko erabileren proposamenaren kuantifikazioa |12 |

8.- EKONOMI JARDUERAK ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERAK

8.1 Proposamenerako abiapuntuak

Ekoizpen jardueren erabilerei dagokienean, Aurretiko Diagnostikoan azaldu zen bezala, 1999ko Plan Nagusiak sendotu egiten zuen **udalerrriaren Mendebaldeko eremuan** era horretako erabileren presentzia, Letxunborro hiribideari bide komunikazioen ardatz egituratzailearen papera emanaz, neurri batean erabilera horiek sorturiko trafikoari begira, eta industri eremuen ezarpen antolatua bideratuz Katearen Mendebaldean eta Hegoaldean.

Nolanahi ere, kontuan eduki behar da, Irungo plan Nagusiaren berrikuspena hasi zen unean, 1999ko Plan Nagusia jaso ziren ekoizpen jardueretarako lurzoru esparru gehienak **ia erabat garaturik** zeudela, Plan horretan aurreikusitakoaren arabera urbanizatu eta prestaturiko ia lurzoru guztia okupatua egonik.

Horren arrazoia da azken urte hauetan egon den **lurzoru eskari** handia era horretako erabilera ezartzeko, eta gaur egun mantendu egiten da eskari hori, bai industria lursailean modalitatean bai industri pabilioiei dagokienean. Gainera, esan behar da, horren ia bi heren udalerrian egokituriko enpresen eskariak izan direla.

Egoeraren errealitatea zera da, dauden poligono eta industri lursailetan osatzeko geratzen diren jarduera txiki batzuk kenduta, etorkizun hurbil samarrean udalerrian eskura egongo den industri lurzoruaren sektore garrantzitsu bakarra **Araso Iparraldea** esparrua dela, gauzatze prozesuan hura.

Bestalde, **oso erdiko eremuetan** eta gehienbat egoitza erabilera duten lurzoruaren barnean dauden industri instalazio batzuek leku egin diezaiekete egoitza edo hornidura aprobetxamenduari, erabilera hori askoz ere egokiagoa izango bailitzateke instalazio horiek gaur egun dauden eremuetarako.

Berrikuspenaren proposamenerarako abiapuntu nagusiak, horrenbestez, **ekoizpen ezarpen berriak sortzearen** inguruan oinarritu behar du, etorkizunean egon daitezkeen ekonomi jarduerak instalatzeko eskariei erantzuteko, interesik handiena duten eta okupaturiko azalerako enplegu errentagarritasun handiena eskainiko duten jarduerak, hain zuzen ere, ildo horretatik hobetuz lan biztanleriaren interes ekonomikoei begira lurzoruaren errendimendu txikia duten instalazio berri batzuk.

Hala eta guztiz ere, beste alde batetik kontuan hartu beharko da erdiko eremu batzuetan **hiri sarearen suspertzea eta homogeneousazioa** osatzea komeni dela, eta horretarako, leku ezegokietan dauden industri ezarpenak birkokatu beharko dira eta udalerraren barnean **aukerak** eman beharko dira, abantailak eskaintzen dituzten aukerak, besteak beste, sare nagusietarako sarbide errazagoak izateagatik eta egoitza erabilerekin batera egoteak eragiten dituen ondorioak baztertzeagatik.

Nolanahi ere, Diagnostikoan jadanik sumatu zen arazoa zera da, industri izaerako erabileretarako, eta garatu gabe dauden edo gauzatzen ari diren lurzorua salbu, **A-8 Autopistaren Iparraldean** Araso Iparraldeko eremua eta Oiantzabaletaren luzapena bakarrik daudela, eta kasu horietan ere, muga fisiko eta ingurumenarekin loturiko muga handiak daude, eta horiek murriztu egiten dituzte era horretako erabileretarako lurzoru urbanizagarrien esparru berriak hedatzeko aukerak.

Ekonomi jardueren erabilerak ezartzeko erabil daitezkeen beste lurzorua **Zubietako** mazelako eremuak, Hondarribiarekin zehaztutako bateragarritasun Protokoloaren gai diren lurra horiek, eta **Zabaleta** eremukoak dira, eremu hori ere udalerririk horretako lurren artean zangalatrau. Esan behar da, bi eremu horiek mugaturik daudela topografiagatik eta komunikabide sare nagusietatik asko ikusten direlako.

Udalerririk lurretan A-8 autopistaren Hegoaldean, eta Alunda eta Lastaolako ibai-terrazak bazterturik, horiek dituzten ingurumen ezaugarri bereziengatik bateraezinak direlako, **egon daitezkeen aukera bakarra**, sarbide zailtasunak dituela eta ingurumen alderdiekin bateragarritasuna lortu behar dela kontuan hartuta ere, **Olaberria – Katea korridorea** deiturikoan bermaturiko barne lur batzuk dira, inolaz ere, horietako gehienak bigarren mailako erabilerak edo erabilera zaharkituak baitituzte une hauetan.

Hala bada, Plan Nagusia Berrikusteko Aurrerakinak **lurzoru** urbanizagarri **berriak** sailkatu ditu **ekoizpen jardueren erabileretarako**, eta etorkizuneko eskaintza gisa jaso du Araso handitzeko poligonoa, indarrean dagoen Plan Nagusian jadanik erabilera horretarako ezarri zena, etorkizunean eraikiko diren instalazioek jada neurri batean erantzun egingo baitiote gaur egun planteatzen den industri lurzoruaren eskariari.

Garraio jardueretarako lurzoruei dagokienean, indarrean dagoen Plan Nagusiak hiru jarduera jaso zituen dagoeneko (ZAISA eta Antton Ttipi); horiek elkarren segidako faseetan garatu ziren eta garraioarekin loturiko jardueretarako izan dira batik bat, iraganean Irunerako oso garrantzitsua izan zen jarduera mota bat mantendu nahian, baina bertsio eguneratuan beti ere eta egoera berrira egokitua mugaldeko kontrolak desagertu ondoren.

Modu horretan osatu ahal izan zen **Garraio Gune** garrantzitsu bat, era berean nazioko eta lurraldeko esparruan egokitua. Gune hori normaltasun osoz ari da lanean eta oraingoz bederen badirudi ez duela lurzoru plataformen okupazioa handitzeko eskatzen duten presazko beharrik planteatzen, are gehiago kontuan hartzen badugu era horretako erabilerak ezartzeko lur egokiak izateko aukera urri dagoela udal barruti osoan.

Merkataritza izaerako **hirugarren sektoreko jardueri** dagokienean, aipatzekoa da, 1999ko Plan Nagusiak jaso zituela 1992an Bidasoa eskualderako eginiko Plan Estrategikoan eta Merkataritzarako Hirigintza Planean zehaztutako merkataritza aurreikuspenak. Plan horrek Irungo merkataritza tradizionala suspertzea eta lurraldean zeukan lehiarako egoera hobetzea izan zuen helburu.

Molde estrategikoko plan horiek gorpuzteko, bi jarduera garrantzitsu gauzatu ziren, bata hiri erdian, Mendibil Merkataritza Gunea, hain zuzen ere, merkatu zaharraren lekuan, eta bestea hiritik kanpo, Txingudi Merkataritza Gunea, Arasoko eremuan.

Lurraldean merkataritza ekipamendu handien **balizko instalaziorako** plangintza, jarraipena eta kontrola Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendurako Sailari badagokio ere, berrikuspenaren Diagnostikoan planteatu da iraunkortasunaren ikuspegitik begiratuta, **hiri baten kanpoko merkataritza ekipamenduen** ereduak funtzionamendurako halako ondorio batzuk badituela, azalera handia okupatzen dutelako, garraio behar handiagoak sortzen direlako eta hiri erdiaren abandonua ekar dezakeelako.

Horregatik, oraingoz **ez da planteatu** beste merkataritza gune handi bat ezartzeko aukerarik, baina komenigarria izango litzateke Arasoko eremura sartzeko azpiegiturak aprobetxatzea aurreikusitako esparru berrietako bat, Araso – Sasikoburua deiturikoa, **erdi tamainako** eta ahal bada gaikako gairen baterako **merkataritza instalazioren baterako** erabiltzea, Eusko Jaurlaritzak Merkataritzaren Lurralde Plan Sektorialean aurreikusitako murrizketekin bateragarria bada beti ere.

Nolanahi ere, Plan Nagusiaren berrikuspenak kontuan izango du **MSPB** plana, Irungo Udalak, Industria, Merkataritza eta Turismo sailaren laguntzaz eta Mugan Merkatarien Elkartearen parte hartzearekin prestaturiko Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia, hain zuzen ere. Plan horrek sektorearen modernizazioa sustatzea eta haren garapenean laguntzea du xede, hirigintza mailako eta merkataritza egiturako jarduera batzuen bidez.

8.2 Ekoizpen erabileren proposamen berriak kokatzeko irizpideak

Azaldutako abiapuntuen eta Plan Nagusiaren berrikuspen lanen lehen fasean eginiko diagnostikoaren arabera, badirudi garbi dagoela Irungo udal barrutian, topografia, zentralitate eta sarbideen komunikabide sare nagusiekiko bideragarritasunagatik hoberen egokituriko lurak **judanik hartuak daudela** hiri erabilerekin, edo 1999ko Plan Nagusiak garatzeko aurreikusten zituen esparruen artean sartu zirela.

Bestalde, ekoizpen jarduerak halako **ezaugarri berezi batzuk** behar izaten dituzte normalean: plataforma lauetan antolatzeke moduko lurak, lursail handiak diseinatzeke aukera emango dutenak, garraio ibilgailuentzako sarbide errazak egiteke modukoak eta era horretako edozein jardueraren ohiko baldintzekin bateragarriak diren eremuak, trafikoa, zaratak eta abar sortzen baitituzte jarduera horiek.

Lurralde irundarra **gutziz markaturik** geratu da **A-8 Autopistarengatik**, ez kasualitate hutsez Iparraldean lau samarra den lurzorua mugatzen duen lerrotik eta Hegoaldean dagoenetik trazatu baitzen hura. Hain zuzen ere Hegoaldean hasten dira lurraren maldak igotzen Aiako Harri aldera haran eta muinoen bidez, eta oso zaila da alde hori egokitzea bertan hiri azpiegitura erabilerak ezartzeko, eta topografikoki errazagoak diren lurretan baino gehiago kostako dira beti ere.

Gertakizun horri **ingurumen kontsiderazioa** erantsi beharko litzaioke, hura ere garrantzitsua baita. Zati handi bat A-8 autopistaren Hegoaldean dauden lurretan egokitu behar izango litzatekeenez, lurraldea eraldatzeko edozein esku hartze berri bideratzeko, halako parametro eta bateragarritasun baldintza batzuk ziurtatu beharko lirateke, eta horiek, alde batetik, aprobetxamenduak murriztuko lituzkete, eta bestetik, esku hartzeak garestituko lituzkete.

Horregatik, eta baldintza fisikoen ildoei jarraiki, hiriaren hiri garapena bide azpiegitura garrantzitsu horren **Iparraldean** oinarritu da ia osorik, lurak hirigintza garapenaren funtzioetara egokitzeko lanak merkeen ateratzen ziren lekuan, hain zuzen ere. Horren emaitza izan da pixkanaka-pixkanaka **erabat bete** egin direla Bidasoaren, Hondarribiarekiko mugaren eta A-8 autopistaren artean dauden lurak.

1999ko Plan Nagusian hirigintza garapen **gehienak A-8 autopistaren Iparraldean kokatzeko** izan ziren arrazoi berdinengatik, plan horren berrikuspenean orain berriro ere planteatzen da autopistaren muga Hegoaldera ez pasatzeko irizpidea plangintza esparru berriak egokitzeko, Olaberria-Katea inguruan esku hartze etenaren planteamenduan izan ezik. Horrekin lortu nahi de Plan berria **bideragarri** izatea teknika nahiz ingurumen mailetan, eta jakina, ekonomia mailan ere, proposatzen diren

etorkizuneko garapenatarako, eta hori bereziki beharrezkoa da ekoizpen jardueretarako eremu berrien planteamenduetan.

Horregatik, muturrera eraman da autopistaren Iparraldean dagoen eremuan era honetako hirigintza erabileretarako izan daitezkeen **lurrak aukeratzeko** lana, baina onartzen da, Diagnostikoan egin zen bezala, aukerak urriak direla benetan eta batik bat Katea Mendebaldeko eta Arasoko industri eta hirugarren sektoreko eremuen luzapen gisa egokitzen direla, alde batetik, eta Zubieta eta Zabaleta bezalako kokaleku berezi samarretan, bestetik.

Nolanahi ere, autopistaren Iparraldean dagoen azaleraren mugak agerikoak direnez, **hasieran baloratu** nahi izan dira ekoizpen jardueretarako eremuak **autopistaren Hegoaldean** kokatzeko aukerak, kontuan izanik gaur egun badaudela erdi abandonatuak edo zaharkituak eta gutxiegi erabiliak dauden instalazio batzuk, San Nartzison barrena Olaberriatik Kateara doan errepidearen korridorean zehar modu etenean banatzen direnak.

Hain zuzen ere aurretik instalazio horiek (Iginitz, Zamora, Urantzuri, Urune, Epele eta San Nartziso) egotea, bakoitza bere egoeran baina, oro har, denak zaharkituak, eta hasiera batean, lurzoru horiek beste erabilera batzuk modu antolatuan kokatzeko eskaintzeko aukera izan dira, Aurrerakinak **lurraldearen erabilera optimizatuko** duen aukera proposatzeko arrazoia, nolabait ere jadanik halako eragin negatibo bat eragiten ari baita bertan.

Horrekin, ekoizpen erabileretarako eskaintza handitzeaz gainera, arestian aipaturiko erabilera zaharkitu horiek gaur egun inguruarekin duten **harreman negatiboa** hobetu nahi dugu eta modu positiboan berreskuratu nahi ditugu behe-ibar oso horretan ingurumenaren ikuspegitik begiratuta esanguratsuenak diren elementuak, eraldakuntza edo hondamenetik aktiboki babestuz.

8.3 Ekonomi jardueren erabileren eskaintza estrategiak

Beti ere ekonomi jardueretarako **lurzoruak erabiltzeko aukera** urria denez, erabil daitezkeen lurzoru bakarretan ekonomi eta ekoizpen moldeko hainbat tipologiako ezarpenak bideratzea planteatu da, horien artean sarturik erdiko eremuetan edo eremu ezegokietan dagoen industri erabileraren bat **birkokatzeko** balio izango dutenak.

Era berean, egiten ari diren eskarien ereductara **eguneratu** nahi da ikuspegi dibertsifikatzaile hori, eta eraikigarritasun indize egokia proposatu nahi da dauden

lursailak **hobeto aprobetxatzeko** eta, ahal den neurrian bederen, gutxiegi erabiltze hori baztertzeko, horixe gertatuko bailitzateke poligonoak lursail handietan ezarriko balira haien zati bat soilik okupaturik edo lurzoruak biltegi jardueretarako erabiliko balira, ia enplegurik sortu gabe, **jarduera dentsitate handiagoa** izan dezaketen poligono eta garapenetan.

lido horretatik, alde batetik, **“habia” moduko** industri aprobetxamendua duten poligonoak proposatu dira lursail bat osorik aprobetxatzeko, jarduera ongi erregularizaturik, mehelinez bidez eratxikitako nabe edo eraikinetan eta araudi berak arautuak, jarduerak bi mailatan izateko modukoak aurkako kaleetatik sartuta, eskura dauden lurren berdintzeak aprobetxatuz, hain zuzen ere, kota desberdinetan egokituriko plataformak egiteko, solairuetako bakoitzak sarrerak bereiz izateko aukera ere aurreikusiz.

Baina ekoizpen erabilerak beste era batean biltzeko aukera ere proposatu da, **Parke Teknologikoaren** formularen arabera, hain zuzen ere. Horietan lursail handienetan, ez derrigorrez erregularizatuak ertzetan eta ongi egokituak poligonoen muga irregular batzuetara, espazio handiagoa behar duten enpresa espezifikoak egokitu daitezke, ezarpen berezi edo esanguratsuak, hain zuzen ere, kasu honetan araudi berdindinak edo oso zorrotzak jarraitzeko beharrik izan gabe.

Era berean **Enpresa Parkearen** formula proposatu da. Horretan, barruan bulegoak, despatxuak, edo tailerrak ere, egokitzeko eraikinak planteatu dira, bertan lan egiten duten pertsonentzako beharreko zerbitzu guztiak izateko eremu batean antolatuak.

Onartu behar da tipologia horiek aukera ematen dutela **ekoizpen erabilerak eta merkataritza moldekoak ez diren hirugarren sektoreko erabilerak nahasteko**, baina hain zuzen ere horixe da Irun bezalako hiri batentzako interes handiena izan dezaketen eskaintzek eratzen dituzten **egungo erabileren konbinaketaren** ezaugarri garrantzitsuenetako bat, hiri garapen heldu eta orekatuarekin, biztanleentzako onuragarrienak diren ekoizpen ezarpenak bultzatzeko.

Kontua da Irungo etorkizuneko lurzoru eskaintzei **erakargarritasun handiagoa ematea**, udalerrri honek jadanik baitu ekoizpen jardueretarako lurzoru ehuneko handi bat, esku hartze bakoitzean balio erantsi handiagoa lortu ahal izateko eta egokitu daitezkeen ezarpen berrien aukerak ahalik eta errentagarrien izateko. Horrekin batean, aukera eman nahi da **ekoizpen tipologia ugari** ezar daitezkeen.

8.4 Ekoizpen eta hirugarren sektoreko erabileretarako lurzoru berriaren proposamen nagusiak

Ekoizpen erabileretarako kalifikaturiko lurzoru berriaren proposamen desberdinen artean, hauxe da, erabilera mota horiek erabilera globalak direnetan, edo gehiengoa hartzen dutenetan, aipatzekoak dira, **udal barrutiaren Mendebaldean** garatzen direnak, Kateako industri poligonoen jarraipen gisa, **N-1 errepede ondoko mazeletan** planteatzen direnak Hondarribiarekin partekatzen diren lurzoruetan, eta **Olaberria-Katea ingurua** aztertu beharreko aukera.

Proposamen horiek guztiek **ekoizpen erabileren** egungo **eskaintza** osatzea dute xede, eskakizunen ikuspuntu desberdinetatik begiratuta egokiak diren eremuetan dauden lurretan kokaturik.

Plan Nagusiaren ikuspegitik begiratuta **tradizioz industria** erabilera gisa hartutakoak Arasoko eremuaren Mendebaldean daude, ibar leunak dituzten lurretan baina hala eta guztiz ere **erregularizatu** egin beharko dira. Horiek **oso sartuak** geratu dira komunikabideen azpiegitura ardatz desberdinen artean, baina **sarbide erraza** dute arrazoi horixe berarengatik eta estrategikoki kokatuak daudelako Kateako autopistarako sarbidearen eta Gaintxurizketako biribilgune berriaren artean.

Esparru horietan zabalena **Araso Iparraldearen Luzapenak** hartzen duena da, inolaz ere, Araso Iparraldeko poligonoaren jarraian, industria erabilerakoa hura ere, indarrean dagoen plangintzak jada aurreikusia. Udalerrriaren Mendebaldeko mugaraino eta burdinbidearen ertzeraino iristen da esparru hori.

Esparru horretan **industria moldeko jarduerak** ezartzea proposatu da, Araso Iparraldeko industrialdea luzatuz multzo handi eta habia industria tipologiarekin, bi altueratan egokituak horiek, bi altuera horiek eratzeko lurrak ezinbestean hainbat terrazatan egokitzeko desnibelak aprobetxatuz. Horrek guztia Araso Iparraldeko erdiko bidearen luzapenean bermatuko litzateke, berrikuspen honen proposamenen artean industri erabilerarako azalera eraikigarrian **jarduera garrantzitsuena** izanik, inolaz ere.

Jarduera horrekin bateragarria da **lur erreserba** handi bat, babes bereziko espazio libre gisa kalifikatu dena, Jaizkibel mendia eta Aiako Harria lotzen dituen **ingurumen korridoreak** igarotzen duen inguruan. Era berean, kontserbatu egingo dira gaur egun dauden hariztien ingurumen balioak.

Mendebaldeko eremu honetan proposaturiko beste eremua **Oiantzabaletaren Luzapena** da, Oiantzabaleta poligonoaren jarraian kokatua. Esparru hau errepede nazionalaren trazatuak mugatzen du Iparraldetik eta burdinbideak, berriz, Hegoaldetik,

eta bertan industria moldeko ekoizpen jarduerak ezartzea planteatu da hasiera batean bederen.

Lehen alternatibak kontuan hartu du lursailak **sarbide zuzena izan dezakeela burdinbidetik**, garraiobide horren bidez garraiaturiko merkantziak irten edo sartzeko. Topografia erregularizatzea aurreikusi da kota berean plataforma jarraia osatu ahal izateko eta ibilgailuentzako sarbidea egiteko. Sarbide hori Ipar-mendebaldeko muturretik egin beharko litzateke Zaldunbordako biribilgune berriaren bidez N-1 errepedearen gainean.

Bigarren alternatiba izango litzateke poligono bat garatzea egungo Oiantzabaleta poligonoaren luzapen gisa, lurrari egokituriko terraza baten gainean eta poligono horren erdiko bidearen luzapenean bermatua.

Bi kasuetan kontua da **industria jardueren** erabileretarako dagoen lurzorua **osatzea**, Mendebaldean eta Autopistaren Iparraldean dagoen Irungo eremu batean, eremu horretan era horretako erabilerak baitaude batik bat. Era berean, eremu honek balio izango luke **Irunen barnean birkokatu** beharreko **industri ezarpenak egokitzeko**, burdinbidearekiko sarbide zuzenarekin lehen alternatiban, edo burdinbide saretik bereiz bigarreanean.

Eremu honetan proposatzen da halaber **Araso – Sasikoburua** esparrua, tamaina txikiagokoa, Arasoko merkataritza gunearen Ipar-mendebaldean, Sasiko erreka txikiak bereizten baitu hartatik, eta abiadura handiko trenaren Irungo geltokira sartzeko erreserbaturiko zerrendaren Hegoaldean. Hirigintza antolamenduak **sail lineal handi bat** jasotzen du, sartzeko bide nagusiak erabat zerbitzatua, eta era berean Araso poligonorako egungo sarbidearekin lotua.

Planaren Aurrerakinak eremu honetarako proposatu duen lehen alternatiba da egungo merkataritza gunearen azalera handiaren eskaintza osatzea beste **hornidura** batekin, **merkataritza** hornidura hura ere, egungo Araso merkataritza poligonoak jadanik eskaintzen dituen zerbitzuak eta egungo sarbideak aprobetxatuz. Merkataritza izaerakoa ez den hirugarren sektoreko erabileraren bat aurreikusiko litzateke bigarren alternatiba batean.

Nolanahi ere, eta Eusko Jaurlaritzaren Plan eta arauen aplikazioaren ikuspegitik begiratuta aurreko aukera horiek ez balira egokiak izango, beste aukera bat hartu beharko litzateke kontuan, hauex da, esparru hau **industria moldeko** erabileretarako izatea, udalerrriaren Mendebalde osoan proposaturikoak osatuz beti ere.

Beste era bateko ekoizpen jardueretarako erabileretarako proposamenen artean dago, berriz, **Urdanibia-Zubieta** esparru berria. Urdanibia jauregiaren eta Eskualdeko Ospitalearen artean dago eremu hori, Txingudi Ikastolatik hurbil eta Puiana auzoaren Iparraldean. Eremu honetan bideek eta hainbat erabilerarekin jada okupaturiko zoruek inguraturik geratu diren lur batzuk aprobetxatuko lirateke, kontuan izanik gainera oso sarbide onak dituztela.

Hondarribiko udal barrutiko lurrekin partekaturiko eremua da hori, haren **jarraian baitago erabat**, eta erabilera berarekin jasoko da etorkizuneko Plan Nagusian. Esparru honetan sartu dira hasiera batean gaur egun **Zalditegiak** hartzen dituen udal lurrak. Jarduera hori bideek inguraturik garatuko litzatekeenez, komenigarria izango litzateke beste leku egokiago batera eramatea, landa inguruarekin lotzeko aukera handiagoak dituen eremu batera, hain zuzen ere.

Esparru horretarako **sarbideak** egiteko Ospitaleko Hiribidearekiko lotune berria aprobetxatzea planteatu da. Horretarako, bi biribilgune egingo lirateke, bata beheko aldean Ikastolarekin lotzeko, eta beste biribilgunea goiko aldean. Horrek, gainera, aukera emango luke Zubieta inguruan Hondarribiko udal barrutian dagoen Parke Teknologikorako esparrura sartzeko. Irundik zuzenean joango litzateke horretara Puiana auzoaren bidez.

Esparru honetako hirigintza garapenaren helburua betetzeko, Hondarribiarekin **koordinaturiko baterako jarduera** planteatu da, azalera handiarekin. Hasiera batean merkataritza izaera ez duen hirugarren sektoreko erabileren moldeko ekonomi jarduerak ezarriko lirateke, **Parke Teknologikoa** izanik lehentasunezko aukera, edo bestela molde mistoak, aukera erakargarria eskainiko lukeen **Enpresa Parkearekin**, edo bi erabilera mota horiek konbinaturik ere eskain litezke. Nolanahi ere, **leku honek lehentasuna** du Irunen Parke Teknologikoa ezartzeko.

Esparruaren barnean **bi ekipamendu eremu** erreserbatzea planteatu da, beheko aldean eta egungo Ikastolaren bi aldeetan, alde batetik Ikastolaren zerbitzurako **aparkalekua** handitzeko, eta bestetik, Ikastolaren mendebaldean dagoen lursaila definitzeko. Lursail horretan **Unibertsitatearen** egoitza berria jar liteke, hezkuntza-unibertsitate moldeko hornidura gisa.

Zabaleta esparru berria da bestelako izaerako ekoizpen jardueren erabileretarako proposaturiko beste eremua. Eremu hori N-1 errepidearen, Irunen sartzen denean, eta errepide horren eta A-8 autopistaren arteko lotunearen artean dago, eta Jaizkibel urbanizazioa du Ipar-ekialdean.

Esparru honen berezitasuna zera da, Ipar-mendebaldean **Hondarribiko** udal barrutiko lurrak dituela muga eta harekin partekatzen duela eremu bat. Aldameneko udalerrri horren izaera orokorreko hirigintza plangintzan ere antzeko erabileretarako aurreikusia dago eremu hori.

Hasiera batean N-1 errepidearen gaineko biribilgune berriaren bidez planteatzen da esparru honetarako **sarbidea**, eta antolamenduaren hirigintza garapena bide ia horizontal batean oinarritzen da paisaiarekiko eraginak ahalik eta txikiak izan daitezen, berriro ere sarbidearekin ixten den eraztuna osatuz. Antolamendutik sorturiko **zerrenda eraikigarrietan** bildu ahal izango dira erabilerak.

Ahal izanez gero **Parke Teknologikoa** edo **Enpresa Parkea**, edo **mistoa**, ezartzeko erabiliko da esparru hau, lur horiek aukera bikaina eskaintzen baitute molde bereziko ekoizpen erabileretarako dagoen lurzoru eskaintza osatzeko. Horrenbestez, N-1 errepidearen ertzean fatxada erakargarria duen poligonoa ezar liteke, guztiz ongi komunikatua gainera.

Azkenik, eta ekoizpen jardueretarako proposamenen barnean, pentsatu da berrikuspenaren Aurrerakina une egokia zela **Olaberria inguruko** hainbat lekutan esku hartzeko aukera eztabaidara eramateko. Leku horietan jadanik badaude **jarduera zaharrak** landa ekonomiarekin zuzenean loturik ez daudenak, eta esparruren bat ere badago Plan Nagusiak uneren batean lurzoru ez programatu gisa jaso zuena. Kontua da orain aukera aprobetxatzea eremu horiek ekoizpen jardueretarako lurzoruen eskaintza orokorrean jasotzeko.

Esku hartze hau **hainbat jarduera proposamenen multzoa** da egia esan. Jarduera horiek modu **etenean** egokituak daude korridoreko ibarrean zehar, ibilbide zirkularra eratzen dute, eta behin A-8 autopista zeharkatu ondoren Kateako eremuan hasten da eta San Nartziso eta Urunetik igaro ondoren, Olaberria haranera iristen da.

Korridore horren barnean hiritik gertuen dauden bi jarduerak topografikoki mazela leun batean dauden bi esparru dira, **Iginiz eta Zamora esparruak**, hain zuzen ere, eta nekazaritza eta abere hazkuntzarako instalazio zaharkitu bat dago azken horretan. Gainera, beste jarduera batzuk proposatu dira **barnealderago dauden eremu** batzuetan; horietan hainbat instalazio daude, eraldatze, biltegi eta ataltze instalazioak, Urune, Epele, Urantzuri eta San Nartzisokoak, esate baterako. Bi lehenengoen urbanizazioa proposatua dago indarrean dagoen Plan Nagusian.

Hirigintza antolamendua **formalki independenteak** diren jarduera batzuetan oinarrituko litzateke, eta banan-banan garatzeko aukera ere egongo litzateke, baina

beti ere elkarrekin **koordinaturik**. Guztiak ere ertzean kokatuko lirateke errekaren ibilguari dagokionean, **erdiko bide** baten bidez elkarri lotuak, egungo errepidetik bereiz ibilbidearen gehiengoan, eta hartatik sartuko litzateke eremu urbanizagarri berrietara.

Era honetan bi erlazio sistema mantenduko lirateke: egungo **Olaberriako errepidea**, honek duen landa errepidearen izaerari eutsiko lioke eta dauden eraikuntzetarako sarbidea emango luke, oinezkoentzako eta bizikletentzako bideekin osaturik; **bigarren bide sistemak**, berriz, ekonomi jardueretarako lurzoruetara ibilgailuak sartzeko aukera emango luke, eta Olaberriako errepidetik bereiz joango litzateke zatirik handienera.

Baterako esku hartze honen hasierako planteamendua, nekazaritza eta basogintzarekin zuzenean loturik ez dauden erabilerekin lehenagotik okupaturik zeuden eremuetan **soilik jardutea** da, gainerako landa eremuan ingurumen eragin berriak ez sortzeko, lurralde horretako natura babestea planteatu baita. Batik bat erreka nagusian eta errekatxoetan zehar kokatuko dira **espazio libreak** eta **ekipamendu** eremuak.

Jarduera honen helburu nagusia Aurrerakinean autopistaren Iparraldeko hiri jarraipenean aurreikusitako gainerako esparruei aukera osagarria ematea da, bertan Parke Teknologikoa edo Enpresa Parkea bezalako **ekonomi jarduerak** ezartzeko, landa eremuarekin loturik egoteagatik bestelako ezaugarriak dituen eremu batean.

Ekimen hori aurrera eramateko **zailtasun** handiena **sarbideen** eta **azpiegitura sareen** eraikuntzan dago, inolaz ere, horiek hiriaren gainerakoarekin eta komunikabide ardatz nagusiekin lotu behar bailirateke, eta bereziki Hegoaldeko Ingurabidearekin edo balizko Hegoaldeko saihebiderekin. Nolanahi ere, beharrezkoa izango litzateke proposaturiko dentsitatea eta egon daitekeen trafiko karga ebaluatzea, obrak planteatzen diren eskakizunetara egokitu ahal izateko.

Kapitulu honetan ez da deskribatu, etxebizitzarenean baizik, **Belasko industri eraikina birmoldatzeko** proposamena, benetan proposaturiko aprobetxamenduaren hazkundera batik bat egoitza erabilerarako planteatu baita, kontuan izan behar bada ere egungo industria lokalen hirugarren sektoreko erabilera bultzatuko dela, egoitza erabilerekin bateragarria bada bederen.

Azkenik, garrantzitsua da, Behobiako hirugarren sektoreko erabilerako eremua birmoldatzeko proposamena aipatzea. Hori eremu berean birkokatu ahal izango da, Pausuko 8.3.12 esparru berrian, aprobetxamenduaren kokaera eta sarbideak hobetuz.

8.5 Ekoizpen eta hirugarren sektoreko erabileren proposamenaren kuantifikazioa

Azalera kalifikatua eta azalera eraikigarrietan ebaluatu da ekoizpen erabileren eta hirugarren sektoreko erabileren proposamena, berrikuspen berriaren irismena baloratu ahal izateko erabilera mota desberdinen etorkizuneko eskariei erantzuteko gaitasunari dagokionean, bai guztizko azalera bai xeheka, ekoizpen erabilera eta hirugarren sektoreko erabilera mota desberdinetan.

Hona hemen proposamenaren datuak:

EKONOMI JARDUERAK ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERAK INDUSTRIA ERABILERAKO ERABILERA PROPOSAMEN BERRIAK

| GAKOA | IZENA | AZALERA GORDINA m ² lurzorua | INDUSTRI AZALERA* m ² lurzoru | ERAIKIGARRIT. GORENA m ² c eraikiak |
|----------------|-----------------------|---|--|--|
| 1.1.10 | ARASO IPAR. LUZAPENA | 214.478 | 120.802 | 85.791 |
| 1.1.11 | OIANTZABALETAK LUZAP. | 117.539 | 117.539 | 47.015 |
| GUZTIRA | | 332.017 | 238.341 | 132.806 |

* Globalki industri gisa kalifikaturiko azalera.

EKONOMI JARDUERAK ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERAK PARKE TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESA PARKEA ERABILERA PROPOSAMEN BERRIAK

| GAKOA | IZENA | AZALERA GORDINA m ² lurzoru | PARKE TEKN. ENPRESA PARK/ AZALERA * m ² lurzoru | ERAIKIGARRIT. GORENA m ² c eraikiak |
|----------------|-------------------|--|---|--|
| 2.1.08 | ZABALETAK | 292.618 | 222.800 | 73.154 |
| 2.1.09 | URDANIBIA-ZUBIETA | 90.916 | 82.972 | 22.729 |
| 9.1.02 | OLABERRIA INGURUA | 600.882 | 600.882 | 150.220 |
| GUZTIRA | | 984.416 | 906.654 | 246.103 |

* Globalki Parke Teknologiko-Enpresa Parke gisa kalifikaturiko azalera

EKONOMI JARDUERAK ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERAK HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA ESPARRU ESKLUSIBOETAN

| GAKOA | IZENA | AZALERA GORDINA m ² lurzoru | HIRUG. SEKT. AZALERA m ² lurzoru | ERAIKIGARRIT. GORENA m ² c eraikiak |
|--------|-------------------|--|---|--|
| 1.1.12 | ARASO SASIKOBURUA | 40.561 | 40.561 | 25.000 |
| | GUZTIRA | 40.561 | 40.561 | 25.000 |

EKONOMI JARDUERAK ETA HIRUGARREN SEK. ERABILERAK PROPOSATURIKO EREMUETAN ERABILERA OSAGARRI GISA BAIMENDUTAKO HIRUGARREN SEKT. ERABILERAK

| GAKOA | IZENA | ERAIKIGARRIT. GORENA m ² eraikiak |
|--------|--|---|
| 0.1.01 | GELTOKI INGURUA 1. ALT. | 67.930 |
| 1.1.10 | ARASO IPARRALDEAREN LUZAPENA | 17.158 |
| 1.1.11 | OIANTZABALETAREN LUZAPENA | 9.403 |
| 1.2.02 | ARABA KALEA | 988 |
| 1.2.13 | KATEA ERDIALDEA | 2.443 |
| 1.3.10 | BELASKO ERAIKINA | 3.123 |
| 1.3.11 | ARRETXEKO MALDA | 194 |
| 2.1.08 | ZABALETA | 14.630 |
| 2.1.09 | URDANIBIA-ZUBIETA | 4.545 |
| 6.2.07 | RATAPLAN | 926 |
| 7.2.08 | MATXALAGAIN | 1.365 |
| 8.2.05 | BLAIA | 1.631 |
| 8.2.06 | GAZTELUBERRI | 324 |
| 8.3.04 | LASTAOLA POSTETXEA | 1.343 |
| 8.3.05 | MENDIPE | 4.264 |
| 8.3.12 | PAUSU | 2.491 |
| 9.1.02 | OLABERRIA INGURUA | 30.044 |
| | GUZTIRA | 162.802 |
| 1.1.10 | GELTOKI INGURUA 2. ALT. | 29.560 |
| | GUZTIRA (2. ALT. GELTOKI Ingurua) | 124.432 |

9. kapitulua

ESPAZIO LIBREAK ETA EKIPAMENDU PUBLIKOAK

AURKIBIDEA : 9. KAPITULUA ESPAZIO LIBREAK ETA EKIP. PUBLIK.

| | |
|---|-----------|
| 9.- ESPAZIO LIBREAK ETA EKIPAMENDU PUBLIKOAK | 1 |
| 9.1 ESPAZIO LIBRE PUBLIKOAK | 1 |
| 9.1.1 Sistema Orokorren proposamenetarako kontuan hartu beharreko estandarrak eta irizpid. | 1 |
| 9.1.2 Abiatze egoera Sistema Orokorreko Espazio Libreei dagokienean | 4 |
| 9.1.3 Sistema Orokorreko Espazio Libreen kokaleku irizpideak eta proposamenak..... | 5 |
| 9.1.4 Sistema Orokorreko Espazio Libreen estandarrak betetzea. | 7 |
| 9.1.5 Sistema Orokorreko Espazio Libreen zerrenda eta kuantifikazioa. | 10 |
| 9.2 EKIPAMENDU KOLEKTIBO PUBLIKOAK | 12 |
| 9.2.1 Abiatze egoera Ekipamendu kolektibo publikoei dagokienean | 12 |
| 9.2.2 Sistema Orokorreko Ekipamenduen kokaleku irizpideak eta proposamenak | 13 |
| 9.2.3 Hezkuntza Ekipamendua..... | 14 |
| 9.2.4 Sistema Orokorreko Kirol Ekipamendua | 18 |
| 9.2.5 Laguntza Ekipamendua | 22 |
| 9.2.6 Osasun Ekipamendua | 24 |
| 9.2.7 Ekipamendu Sozio-Kulturala | 25 |

9.- ESPAZIO LIBREAK ETA EKIPAMENDU PUBLIKOAK

9.1 ESPAZIO LIBRE PUBLIKOAK

9.1.1 Sistema Orokorren proposamenetarako kontuan hartu beharreko estandarrak eta irizpideak.

Ekipamendu eta espazio libreen hornidurak, komunikabide azpiegiturekin batera, **hornidura publikoaren ezinbesteko osagarria** dira edozein hiri jarduerarako, egoitza eta ekoizpen jarduerak nahiz hiri sarean egokitu eta garatzen diren hirugarren sektoreko edozein jarduera mota izan.

Indarrean dagoen legeriak bereizi egiten ditu **Sistema Orokorrekoak** diren ekipamendu kolektibo publikoak eta espazio libreak, hauxe da, udalerriko biztanleriaren edo udalerriko eremu handien beharrei erantzuteko helburua dutenak, eta **Toki Sistemako** ekipamendu edo espazio libreak, hauek eremu txikiago batekin lotuak daude zuzenean, auzo bakar batean edo urbanizazio edo poligono zehatz batean kokatzen direlako.

Plan Nagusiak ekipamendu mota handi bakoitzaren hornidura **ziurtatu behar du**, bere kategoria desberdinetan: osasun, laguntza, hezkuntza eta kirol ekipamenduak, ekipamendu sozio-kulturalak eta abar, eta azpikategoria batzuk ere kontuan hartu behar ditu, esate baterako, hezkuntza ekipamenduaren maila desberdinak, hau da, haur hezkuntza, irakaskuntza ertaina, goi-mailako irakaskuntza edo unibertsitate irakaskuntza. Horietako batzuk izaera orokorrekoak dira, esate baterako, eskualdeko ospitale bat, institutu bat edo kirol pabilioi bat, eta beste batzuek, berriz, toki izaera izango dute, inolaz ere.

Gauza bera gertatzen da **espazio libreekin**, Plan Nagusiak horiek ere ziurtatu egin behar baititu. Espazio libreak dira, batik bat, hiri-inguruko parkeak, hiriko parke eta lorategiak, plaza lorategidunak eta espazio publikoko beste elementu esanguratsu batzuk, kaleak, etorbideak eta errepideak bezala bereziki komunikazio fluxuak bideratzeko ez direnak.

Kasu honetan ere badira hiriko eremu handiei zerbitzua ematen dieten espazio libreak, parke handiak, esate baterako; horiek erabilera dentsitate txiki samarra izan dezakete eta berdegune handien diseinua eta eremu maldadunetara egokitu daitezkeen baso multzoak ere izan daitezke. **Espazio Libreen Sistema Orokorrak** izango lirateke horiek.

Aldiz, **tamaina txikiko erreserba** askok biztanleen berehalako beharrei erantzuten diete, beren inguru hurbilean, inolaz ere; kasu honetan erabilera dentsitate handiagoak dituzte, eta horrenbestez, herritarrak ibiltzeko, egoteko eta jolaserako esparru handiagoak uzten dituzten diseinua izaten dute eta eremu laueta egiten dira gehienetan. **Espazio Librean Tokiko Sistemak** dira horiek.

Hirigintza legeriak halako **irizpide eta estandar** batzuk ezartzen ditu, gehienak zuzenean edo zeharka hornidura horien biztanle onuradunei dagozkienak eta plangintzan derrigorrez bete behar direnak. **Sistema Orokorren mailakoak** diren espazio libreak Plan Nagusietan aurreikusi behar dira eta **Toki Sistemaren mailakoak** direnak, berriz, sendotu gabeko hiri zoruan edozein Plan Berezi edo lurzoru urbanizagarrian edozein Plan Partzial garatzean eskatuko dira.

Hiri zoru sendotuan ez dago berariazko lege eskakizunik toki sistemako espazio libreetarako, eta horrenbestez, Plan Nagusia bera izango da abiatze egoera aztertuko duena eta tokiko hornidura hori mantendu edo zabaltzeaz arduratuko dena.

Gainera, Plan Nagusiak **aurreikusi egin behar ditu** egungo biztanleria kopuruarentzako izan ezik aurreikusitako egoitza garapen berrietan biziko diren biztanleentzako beharko diren Sistema Orokor guztiak ere. Gainera, kontuan izango du, ekonomi jardueren lurzoruek ere beren Sistema Orokorreko espazio librean hornidurak behar izango dituztela.

Nolanahi ere, indarrean dagoen legeriak, Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 78. artikulua, egoitza lurzoruetarako soilik ezartzen du **Espazio Librean Sistema Orokorren gutxieneko estandarra**, oro har, biztanleria guztiari aplikatu beharrekoa, egungoa eta Plan Nagusian aurreikusitakoa barne.

Estandar hori **5 m²-ko Espazio Librean Sistema Orokorra da biztanle bakoitzeko**, baina lurzoru horiek non eta nola kokatu behar diren baldintzatu gabe, eta horrenbestez, Plan Nagusiaren egitekoa da horiek ahalik eta modu egokienean **banatzea** auzo guztietako biztanleek sarbide berdina izan dezaten.

Legearen 78. artikulua horretan bertan proposaturiko **baliokidetasun formula**, 105/2008 (16. art.), Premiazko Neurrien Dekretuak berretsia hura, eraikitako **25 m² lurzoruko biztanle batek** osatzen duen korrelazioa da hiri zoruan eta zoru urbanizagarrian eginiko eraikuntza aurreikuspen berrietarako, hauxe da, esate baterako, etxebizitza bakoitzeko batez beste 100 m² eraikiko azalera kontuan hartzen

badugu, proportzio horrek **etxebizitza bakoitzeko 4 biztanleko batez bestekoa** emango luke gutxi gora-behera.

Izan daitezkeen biztanleen eta azalera eraikiaren arteko **korrelazioa** kalkulatzeko modua da eta, lege beraren arabera, **aldatu** ahal izango da familia egituraren bilakaeraren eta etxebizitzaren batez besteko ezaugarrien arabera. Izan ere, gaur egun okupaturiko etxebizitzaren eta Irungo erroldan jasotako biztanleen kopuruei erreparatzen badiegu (61.300 biz. / 23.625 etxeb.), **etxebizitza bakoitzeko 2,6 biztanle** izango litzateke batez besteko okupazio dentsitatea.

Sistema Orokorreko Ekipamendu kolektibo publikoei dagokienean, Udalak dira erreserba desberdinen kopurua eta dentsitatea erabaki behar dutenak. Era berean, kasu horietan ere zerbitzatzen dituzten biztanleria taldeengandik ahalik eta hurbilen egongo dira ekipamendu horiek, duten funtzioa ongi betetzeko azalera, forma eta irisgarritasun baldintza egokienak dituzten lurretan edo etorkizuneko lurzoru zesioetan.

Toki Sistemei dagokienean, bai ekipamendu kolektibo publikoetan bai Espazio libreetan, legeria berak 79. artikuluan estandar xeheago batzuk ezartzen ditu, **garapenerako plangintzak** egiteko orduan: Plan Bereziak eta Plan Partzialak, derrigorrez bete behar direnak.

Horregatik, Plan Nagusiak hornidura horietako batzuen kokalekuak **zehaztu baditzake ere**, ez du geroago gauzatuko diren garapen planetan derrigorrezko zesio gisa sortuko direnak azaldu eta zehazteko betebeharririk. Aldiz, Plan Nagusiak bai adierazi behar ditu **hiri lurzoru sendotuan** dauden ekipamenduak, jadanik eraikitako eremu horietan hiriak behar bezala funtzionatuko duela ziurtatu ahal izateko.

Espazio Libreen Sistema Orokorren **erabileraren esleipena** Plan Nagusiak zehazten badu ere modu eskusiboan, **Ekipamenduen Sistema Orokorri** dagokionean, horietako asko azpikategoria zehatz batekin loturik geratuko dira, eskola edo laguntza ekipamendu motak, esate baterako, baina beste kasu batzuetan komenigarria izan daiteke Plan Nagusiak horien etorkizuneko xedea **ez baldintzatzea**, geroago garatuko diren lurzoru esparruak direnean batik batik.

Kontua da Legeak ez badu inolako estandar edo gutxienezko aurreikusirik, Planak ere ez duela erreserba batzuen **etorkizuneko xedea baldintzatu** behar, erreserba horiek, biztanleriaren beharrak eboluzionatu ahala planteatzen diren eskakizunetara egokitu daitezkeen.

Logikoa denez, **malgutasun horrekiko baldintza** da Plan Nagusiak zehaztu gabe utz ditzakeen ekipamendu horiek aurreikusitako izaera kolektibo eta publikoko hornidura publikoetarako erabili beharko direla beti ere, erabilera horren esleipen zehatza egiteko Plan Nagusia aldatzeko beharrik izan gabe.

9.1.2 Abiatze egoera Sistema Orokorreko Espazio Libreei dagokienean

Sistema Orokorreko Espazio Libreei dagokienean, Atariko Diagnostikoan azaldu bezala, 1999ko Plan Nagusiak eginiko aurreikuspenaren arabera, 65.000 biztanleko guztizko biztanleriarako, **biztanleko 6 m²-tik** oso hurbil dagoen estandarrera iristen zen, orduan legeriak, oraingo lege bera izanik, eskatzen zituen **biztanleko 5 m²** horiek baino handiagoa horrenbestez.

Bestalde, azken urteetan tramitaturiko **plangintza aldaketek**, biztanleria aurreikuspenak handitu badituzte ere, hein berean handitu dute berdeguneen sistema orokorra, eta horrenbestez, mantendu egin da eskaturikoa baino handiagoa den kopuru hori.

1999ko Plan Nagusia **onartu aurretik** zeuden parke handiak ia ez ziren iristen 80.000 m²-ra, baina Plan horrek Sistema Orokor gisa proposatu zituen erreserba berriekin, eta Plan Nagusiaren aldaketa batzuen ondorioz **geroago zehaztu zirenekin**, guztira 438.000 m²-ko erreserbara iritsi gara gaur egun, planimetria berriaren arabera birkalkulaturiko azaleraren arabera.

Egoera horrek, Plan hartan aurreikusitako (12. kap. Plana zenbakitan) biztanleko 6,11 m²-ko estandar hori igotzera eramango gintuzke, 65.000 biztanleko biztanleria estimatuan oinarriturik, **biztanleko 6,74 m²-raino**.

Beste kontu bat da aurreikusitako parke handi haietako batzuen **gauzatze** erritmoa, Gain-Gainean parkearen kasua, esate baterako, hura tramitazio fasean baitago eta epe erdira bukatzea aurreikusi baita, edo Osinbiribileko etorkizuneko parkea, hartan jadanik amaitu baita lurak besterentzeko fasea.

Halaz ere, egia da oraindik ez dela indarrean dagoen Plan Nagusiak aurreikusitako biztanleria mugara iritsi, eta horrenbestez, esan daiteke, ia ez dagoela sistema orokorreko espazio libreen defizitik une honetan, eta nolana ere datozen urteetan beteko dela defizit hori.

Egoera hori aski aldekoa bada ere, Irungo herritar guztientzako Sistema Orokorreko Espazio Libreen **hornidura maila handia** lortzeko helburu nagusia betetzeko, **arauzko estandarrak betetzeaz** gainera, Berrikuspenak planteatu du erabilera horretarako izango diren lurzoru erreserbak handitzea, 2024rako biztanleria horizonte berritik sorturiko eskariari **lasai** erantzun ahal izateko, eginiko aurreikuspenen arabera, 72.000 biztanlera iritsi baitaiteke.

Sistema Orokorreko Espazio Libreen kalifikazio aurreikuspen berriekin, **Plan Nagusiaren lehentasunezko egitekoa** baita horiek **zehaztea eta kokatzea**, garapenerako plangintzen jarduerak garatzen diren neurrian bideratzeko zeregin gisa geratuko da erreserba horiek gauzatzeko lana.

Egiteko geratzen diren erreserbei dagokienean, plangintza esparru bakar baten mende ez dauden lurzoruetan egokituak horiek, aurreikusi bai baina oraindik eraiki ez diren parke horiek gauzatzeko zailtasunak eragin dituzten kudeaketa alderdiak bideratu ahal izango dira.

9.1.3 Sistema Orokorreko Espazio Libreen kokaleku irizpideak eta proposamenak

Azaldutako abiapuntu horien eta Plan Nagusiaren berrikuspen lanen lehen fasean eginiko diagnostikoaren arabera, badirudi garbi dagoela Irunen **gaur egun ez dagoela defizitik** era horretako hornidurei dagokienean, horien gutxieneko zenbatekoa Legeak arautzen baitu gainera. Halaz ere, Espazio Libreen eskaintza dibertsifikatzeko eta hiri osoan zehar homogeneouski banatu ahal izateko, nahiago izan da gutxieneko **estandarrak handitzea** (ikus kapituluaren amaieran dauden taulak, oinarri kartografiko berrian oinarriturik eguneratutako azalera guztiekin).

Ildo horretatik, eta alderdi kuantitatiboaz gainera herritarren zerbitzurako Espazio Libreen kalifikazioan, pieza **aukera handi batean** erakusten da dibertsifikazioa. 1999ko Plan Nagusiak jadanik kalifikaturik zituenen barnean, **hiriko plaza** garrantzitsuenak aurki daitezke, Urdanibia, San Joan eta Zabaltza plazak, esate baterako, horiek hektarea erdiko azalera izanik, eta baita **neurri txikiko** baina ingurumen balio handiko **parkeak** ere, Sarjia, Mendibil, Oñako Baroia edo Alai-Txoko parkeak, esate baterako, horiek hektarea 1 edo 1,5 izanik.

1999ko Plan Nagusitik datoz halaber **neurri ertaineko** parkeak, Soroxartakoa edo Pinudi parkea, esate baterako, eta baita **parke handiak** ere, Gain-Gainean, Osinbiribil, Jaizubia edo Muga-Behobiakoa, esate baterako, horiek 3 eta 10 hektarea bitarteko azalera izanik, erabilera estentsiboko berdegune aukera direnak. Era berean, kontuan

eduki behar dira **etorkizuneko parke erreserbak**, sistema orokorretarako plangintza tresnen zeszioetatik etorriak, Oinaurre edo Txenpereneako parkeak, esate baterako. 1999. urteaz geroztik onartutako Plan Nagusiaren aldaketa guztietatik etorritako Sistema Orokorreko Espazio Libre guztiak sartu dira.

Plan Nagusiaren Berrikuspenaren **proposamen berrian**, gainera, kontsideratu da aurretik **egitura** izaerako gisa izendatu ziren parke batzuk, orain Sistema Orokorren mailan sartu behar zirela, bai hiri sarean sartzan direlako tokikoa baino esparru handiagoei zerbitzu emanaz, bai hirigintza garapenaren arrazionaltasuna eta koherentzia eta erabilera kolektiboko espazioen kalitatea eta funtzionaltasuna ziurtatzeko duten gaitasunagatik, Legeak dioen bezala (53.1.f art.).

Parke horiek jadanik duten edo etorkizun hurbilean izango duten **funtzio erreala** aintzat hartzea da kontua. Besteak beste, Erribera, Arbes, Azken Portu, Eguzkitzaldea parkeak dira horiek, edo erribera ertzetako parke linealak, Artiako Kanalaren, Dunboako Kanalaren edo Bidasoa Ibaiaren ondoko pasealekuak, esate baterako (ikus taula kapituluaren amaieran).

Azkenik, Berrikuspen proposamenak Sistema Orokorreko Espazio Libreen **erreserba berriak** jaso ditu; proposaturiko garapenerako plangintza esparru berrietan daude gehienak, eta garapen berri horietan gertatuko diren biztanleria kopuruaren hazkundearekin loturik daude, inolaz ere.

Egoitza esparruetan bertan espazio libre bat mugatzeko irizpidea hartu da kontuan, **esparru bakoitzean beharreko hornidura** ziurtatu ahal izateko, beste esparru batzuen kudeaketaren baitan ez utzirik. Esparru jakin batzuetan hornidura handiagoa ere proposatu da, lurren zati bat eraikuntza erabileretarako ezin delako erabili edo paisaia duen kokalekuagatik.

Batzuk **txikiak** izan daitezke, horietan erabilera dentsitate handia aurreikusten bada ere duten kokalekuagatik, Katea Erdialdean, Geltoki Inguruan edo Txanaleta Plazaren inguruan aurreikusitako espazio libreak, esate baterako; beste proposamenak, berriz, **parke handiagoak** dira, Arburusasetakoa, esate baterako, udalerraren Mendebaldeko muturrean, Arasoren edo Zabaletaren luzapenaren ondoan, izen bereko esparru berrian (ikus taula osoa kapituluaren amaieran). Arburusasetakoak udal arteko bateragarritasuna eskatzen du Lezo eta Hondarribiko udal barrutietara luzatzen delako zati batean.

Azkenik Sistema Orokorreko **hiri-inguruko bi parke** handi proposatu dira, biak ere malda eta paisaia arazoengatik eraiki ezin diren bi muinotan kokatuak horiek, orain arte

lurzoru urbanizaezinak ziren bi eremutan: **Matxalagain** eta **Portugain** (Buenabista gisa ere ezagutua).

Gauza da autopistaren Iparraldean eraikitako eremuaren segidan dauden bi muino horiek aprobeztatzea erabilera intentsitate txikiko espazio libreen osagarri izan dadin, bertan **kirol ibilbideak** egin ahal izateko. Bi muino horiek bi **ikuspegi panoramiko** desberdin eta osagarri eratuko dituzte hiriaren eta batik bat inguruko lurraren gainean: Bidasoa, Txingudi Badia, Jaizkibel, Aiako Harria eta Hendaia.

Zubimusuko espazio libre berria, 4 Hektarea baino gehiagorekin, oso kasu berezia da eta aukera ematen du Plan Nagusiaren Berrikuspenetik **Plaiiaundiko paduren zabalpen** handia egiteko. Esparru horrek babes bereziko lurzoru urbanizaezin sailkapena izango luke eta espazio natural horri eratzetikiko litzaioke zuzenean.

Jarduera hori **gauzatu ahal izateko**, 4.1.02.01 Zubimusu I deituriko esparrua mugatu da, Plaiiaundiko Institutuaren Iparraldean aurreikusitako Iparraldeko Saihesbidearen trazatu berriaren ezinbesteko emaitza gisa sortua hura, esku hartze horrek Hegoaldeko muga eratzen baitu paduraren inguruan Lope de Irigoyen kalearekin lotzeko biribilgune berria sortzean. Biribilgune horretatik izango du sarbidea Plaiiaundin aurreikusitako intermodalitate eremuak.

Neurri batean bederen bidearen antolamendu berritik etorritako jarduera horrekin beste erreserba bat lortuko da, eta horri esker, lurak suspertu ahal izango dira birnaturalizazio prozesu baten bidez; Plaiiaundirentzako trantsizioko **eremu urbanizaezin** gisa balio izango du eta Hondarribiko errepidean zehar gaur egun eraikitako lursailetatik bereziko du. Jarduera hori, egungo kirol gunea kentzeaz gain, Ingurumen sailarekin **negoiatzeko elementuetako bat** izan daiteke egungo inguru naturaleko lur zati txiki baten berregokitzearen konpentsazioa justifikatzeko, lur zati hori okupatu beharko baitu N-1 errepidearen saihesbidearen trazatu berriak.

9.1.4 Sistema Orokorreko Espazio Libreen estandarrak betetzea.

Sistema Orokorreko Espazio Libreen proposamena ebaluatu da **eskura dagoen guztizko azalerari** erreparatuz, berrikuspenaren proposamenaren irismena baloratu ahal izateko era horretako horniduren etorkizuneko eskariari erantzuteko gaitasunari begira eta legeak aurreikusitakoa betetzen dela ziurtatzeko.

Berrikuspenaren proposamen osoarekin **biztanleko 13,5 m²** inguruko **guztizko estandarra** lortzen da hasiera batean biztanleriaren proiektzioa 2024 urte mugarako

egiten badugu. Erreserba horrek esan nahi du Espazio Libreen kopurua **Legeak** (Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 78.1 artikulua) **eskatutako gutxieneko estandarren bikoitza baino gehiago** dela, lege horrek biztanleko 5 m² eskatzen baititu. Horren bidez, Plan Nagusitik **hornidura kalitate handia** lortu nahi da sistema orokorreko espazio libreetan, horrelako ugari sorturik, hainbat formatu eta tamainatan sortu ere, eta behar bezala banaturik auzo eta eremu guztietan zehar.

Kasurik okerreanean ere, hauxe da, Aurrerakinean jasotako Espazio Libreen proposamen berrietako batzuk hasierako onarpenerako dokumentuan ezin **izango balira mantendu ere**, beti ere legeak eskatzen duen gutxienekoa baino askoz ere handiagoa izango litzateke estandar hori.

Hori gerta liteke, esate baterako, Matxalagain eta Portugain edo Buenabistan, Blaiako esparruan, aurreikusitako espazio libreen bi erreserba handietan, **lurzoru urbanizaezin** gisa mantendu behar izango balira egun sailkatuta dauden bezala herritarren intereserako ezin izan delako kudeaketa egokia gauzatu. Kasu horretan oraindik ere **biztanleko 11 m²-tan** mantenduko litzateke estandarra, eta horrenbestez, lasai asko beteko lirateke legeak eskatzen dituen estandarrak biztanleko sistema orokorreko espazio libreen ratioari dagokionean.

Baina gainera, beharrezkoa da estandarraren betetze hori kontuan hartzea Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 78.2 artikuluan proposaturiko **korrelazio** formulari (105/2008 Premiazko Neurrien Dekretuaren 16. artikuluan berretsia) oinarriturik, hauxe da, **biztanle bat eraikitako 25 m²-ko** eraikuntza aurreikuspen berrietarako hiri lurzorian eta lurzoru urbanizagarrian.

Kalkulatzeko modu horren arabera, eta Planaren proposamenaren arabera hiri lurzorian eta lurzoru urbanizagarrian eraiki daitekeen egoitzarako lurzoru berriaren hazkundeari begira beharreko espazio libreen gutxieneko estandarra beteko dela ziurtatzeko, egoitzarako lurzoruaren hazkunde horretan gehienez ere egokitu beharreko biztanle kopurua hartu beharko litzateke kontuan, Memoriaren 7. kapituluari islatu bezala. Honako hau izango litzateke gehiengo hori:

$$\text{Biztanleak gehienez} = 286.380 \text{ m}^2 \text{ egoitza erab.} / 25 = 11.455 \text{ biztanle}$$

Biztanle kopuru horrentzako gutxieneko Sistema Orokorreko Espazio Libreen kopuru bat beharko litzateke.

$$\text{S.O. Espazio Libreak gutxienez} = 11.455 \text{ biz.} \times 5 \text{ m}^2/\text{biz.} = 57.275 \text{ m}^2$$

Kopuru hori erabat **ziurtaturik** dago proposatu diren Sistema Orokorreko Espazio Libre berriekin, espazio libre horien kopurua gutxienekoa baino handiagoa delako beherago ageri diren koadroetan ikus daitekeen bezalaxe. Logikoa denez, Geltoki Ingurua garatzeko 2. alternatiba hartuko balitz ere gutxieneko horiek bete egingo lirateke, alternatiba horrek egoitza lurzoru gutxiago proposatzen duelako eta Sistema Orokorreko Espazio Libreen aurreikuspena ia bat ere murrizten ez delako. Era berean, gutxieneko horiek ziurtatuko lirateke Matxalagain eta Portugain eremuetan aurreikusitako espazio libreen bi erreserba handiak gauzatu ezin badira ere, Sistema Orokor berrien kopurua eskatutakoa baino askoz ere handiagoa izango litzatekeelako oraindik ere.

9.1.5 Sistema Orokorreko Espazio Libreen zerrenda eta kuantifikazioa.

Sistema Orokorreko Espazio Libreak honako era honetan **banatu** dira: 1999ko Plan Nagusiak eta geroko aldaketek jadanik zehaztu zituztenak, indarrean dagoen plangintzaren arabera egitura izaerakoak zirenak baina egia esan Sistema Orokorrearen funtzioa bete behar dutenak edo betetzen ari direnak eta berrikuspenak proposaturiko Espazio Libre berriak. Hona hemen zerrenda osoa:

1999ko HAPNk ETA GEROKO ALDAKETEK JADA ZEHAZTURIKO SISTEMA OROKORREKO ESPAZIO LIBREAK

| GAKOA | IZENA | AZALERA |
|--|--|----------------|
| 1 | MENDIBIL PARKEA | 15.229 |
| 2 | ZABALTZA PLAZA | 5.463 |
| 3 | JUNKAL PLAZATXOA | 4.320 |
| 4 | SARJIA PARKEA | 11.158 |
| 5 | URDANIBIA PLAZA | 4.467 |
| 6 | SOROXARRETA PARKEA | 17.264 |
| 7 | PINUDI PARKEA | 19.723 |
| 8 | DUCOURAU PARKEA | 8.196 |
| 9 | JAIZUBIA PARKEA | 77.480 |
| 10 | FOSFORERA | 2.572 |
| 11 | M ^a LUISA PARKEAREN ZABALPENA | 3.946 |
| 12 | OSINBIRIBIL PARKEA | 96.077 |
| 13 | GAIN-GAINEAN PARKEA | 58.665 |
| 14 | OÑAKO BAROIA PARKEA | 12.408 |
| 15 | ALAI-TXOKO PARKEA | 9.910 |
| M02 | SAN MARTZIAL- MUGA BEHOBIA | 28.672 |
| M04 | KATEA | 3.672 |
| M05 | SAN MARTZIAL- SARJIA MARTINDOZENA | 1.205 |
| M08 | OINAURRE | 7.792 |
| M012 | TXENPEREnea | 23.916 |
| M015 | PORCELANAS BIDASOA-ELIZATXO | 7.088 |
| M018 | SAN JUAN-ETXEANDIA | 6.521 |
| S.O.eko ESPAZIO LIBREAK GUZTIRA 1999ko PNaren ARABERA | | 425.744 |

*Planimetria berriaren arabera eguneratuak daude azalera guztiak

**1999ko PNan ETA GEROKO ALDAKETETAN EGITURA IZAERAKOAK
ZIREN SISTEMA OROKORREKO ESPAZIO LIBREAK BAINA SISTEMA
OROKORRAREN FUNTZIOA BETETZEN DUTENAK**

| GAKOA | IZENA | AZALERA |
|---|--------------------------------------|----------------|
| 16 | PLAIAUNDI | 8.268 |
| 17 | IPARRALDE-GAL | 25.829 |
| 18 | ERRIBERA | 17.138 |
| 19 | ARBES | 9.262 |
| 20 | AZKEN PORTU | 7.790 |
| 21 | ZAISA I | 8.455 |
| 22 | ZAISA II | 8.446 |
| 23 | DUNBOAKO KANALAREN ONDOKO PASEALEKUA | 11.536 |
| 24 | ARTIAKO KANALAREN ONDOKO PASEALEKUA | 9.376 |
| 25 | EGUZKITZALDEA | 9.618 |
| 26 | BIDASOA IBAIAREN ONDOKO PASEALEKUA | 8.577 |
| 1999ko PNko ESPAZIO LIBREAK GUZTIRA ORAIN SO | | 124.295 |

*Planimetria berriaren arabera eguneratuak daude azalera guztiak

**1999ko HAPNaren BERRIKUSPENAK PROPOSATURIKO SISTEMA
OROKORREKO ESPAZIO LIBRE BERRIAK**

| GAKOA | IZENA | AZALERA |
|---|--|----------------|
| 27 | DUCOURAU PARKEAREN ZABALPENA | 16.853 |
| 28 | GELTOKI INTURUA (SOROXARRETA) | 18.668 |
| 29 | GELTOKI INGURUA (BELASKOENEA) | 6.699 |
| 30 | ARBURUSASIETA | 93.676 |
| 31 | ZABALETA | 68.566 |
| 32 | KATEA ERDIALDEA | 3.087 |
| 33 | MATXALAGAIN | 99.887 |
| 34 | TXANALETA PLAZAREN INGURUA | 26.022 |
| 35 | BUENABISTA | 88.504 |
| 36 | ARTIAKO KANALEKO PASEALEKUAREN ZABALPENA | 2.177 |
| BERRIKUSPENAK PROPOSATURIKO SO ESP. LIBREAK GUZTIRA | | 424.139 |
| SISTEMA OROKORREKO ESPAZIO LIBREAK GUZTIRA | | 974.178 |
| ESTANDARRA m² / BIZTANLE 2024 (72.000 biz.) * | | 13,53 |

(*) 2024rako zehaztutako proiektzioa hartu da kontuan biztanle kopuru goren gisa

9.2 EKIPAMENDU KOLEKTIBO PUBLIKOAK

9.2.1 Abiatze egoera Ekipamendu kolektibo publikoei dagokienean.

Ekipamendu kolektibo publikoei dagokienean, eta Atariko Diagnostikoan deskribatu den bezala, 1999ko Plan Nagusiak **irizpide propioetan** oinarrituriko aurreikuspen batzuk egin zituen lortu beharreko estandarrei dagokienean. Oinarrian aurreikuspen horiek bete egin dira Plana gauzatu ahala eta oso aurreratuak daude, baina kontuan eduki behar da aurreikusitako biztanleria kopuru gorenera ez garela iritsi.

Esan daiteke abiatze egoera **aski aldekoa** dela ekipamendu kolektibo publiko mota desberdinen multzoari erreparatzen badiogu, baina logikoa denez, badira **defizit batzuk** ekipamendu mota batzuetan edo zerbitzu eza eta hurbilaren falta auzo edo eremu jakin batzuetan. Eskasi horiei konponbidea bilatu behar zaie eta Planaren Berrikuspenean ahaleginak egin dira soluzio horiek erabat ziurtatzeko, aurreikusitako esparru berrietarako beharreko aurreikuspena egiteaz gainera.

Hezkuntza ekipamenduari dagokionean, ikusi da egokitze batzuk egin behar direla lehen hezkuntzan, maila hori ez baitago behar bezala estalita. Nolanahi ere, garatu gabe dauden egoitza esparruetatik eta, logikoa denez, Plan berrian zehazturikoetatik etorritako biztanleria hazkundera egokitu beharko da, eremu horietatik hurbil egongo diren lurzoru erreserba proposamenen bidez.

Kirol ekipamenduei dagokienean, zehazteko dago kirol gune baten kokalekua Mendebaldeko eremuan, hiriaren alde hori oso urrun geratzen baita era horretako gainerako ekipamenduetatik eta eraikuntza dentsitate handia baitu. Era berean, kontuan hartu behar dira Hegoaldeko eremuan aurreikusitako garapen berrietarako kirol hornidurak, hiri lurzoru sendotuko auzoetan Ekialdean, Iparralde-erdialdean eta Hegoalde-erdialdean behar diren esparruko kirol ekipamenduez gainera.

Laguntza moldeko ekipamenduei dagokienean, bere garaian beharrezkotzat hartu zen hirugarren adinekoentzako egoitza plazen hazkundera jadanik estalita egongo litzateke gaur egun. Nolanahi ere, garbi dago, urterik urte handitzen ari direla adineko pertsonen kolektiborako behar sozioasistentzialak, eta horrexegatik, handitzen ari dela egoitza plazen eskaintzaren eta eskariaren artean gaur egun dagoen aldea ere.

Gertakizun hori garbi ikusten da udalerriko itxaron-zerrenda handitu egin delako eta batez beste denbora luze xamar itxaron behar delako horrelakoetan sartzeko. Horregatik, egungo beharrei eta egoitza esparru berrien garapenetik etor daitezkeenei,

eta batik bat, biztanleriaren zahartzearen hazkundeari aurre egiteko beharreko lurzoru erreserbak **handitzea** proposatu da.

Osasun ekipamenduari dagokionean, Eskualdeko Ospitaleak behar bezala erantzun dio zonaldeko osasun zerbitzuari, baina etorkizunean handitzeko aukera aurreikusi beharko du, eta hori egin daiteke gaur egungo lursailean.

Azkenik, eta **ekipamendu sozio-kulturalari** dagokionean, aipatzekoa da, 2002ko Zentro Zibikoen udal Planak beste bi zentro zibiko eraikitzea komeni dela dioela, bata Palmera-Montero esparruan eta bestea San Migel-Anakan.

Era berean, beharrezkoa izango da **esparru eszenikoen** eskaintza dibertsifikatzea, baina neurri batean kontuan hartua egongo litzateke egoera hori, era horretako ekipamendu bat jaso delako San Juan Etxeandia plazaren inguruaren garapenean.

9.2.2 Sistema Orokorreko Ekipamenduen kokaleku irizpideak eta proposamena

Ondoren aztertu eta deskribatuko dira, kategorien arabera bereizita, Plan Nagusiaren Berrikuspenak gauzatu eta ziurtatu beharreko ekipamendu mota bakoitzerako egiten dituen **berariazko proposamenak**. Kontuan izanik ekipamenduen kontuak sentsibilitate berezia duela hirirako, atal honetan **Toki Sistemetara** ere luzatu da proposamenen deskribapena.

Halaz ere, eta alferrik ez luzatzearren, Plan Nagusiaren **proposamen berriak soilik** aipatu dira testuan. Horien artean daude halaber, logikoa denez, 1999ko Plan Nagusitik datozenak, oraindik gauzatu gabe daudenak, edo aldatu behar direnak.

Nolanahi ere, azpikapitulu bakoitzaren amaieran dauden **tauletan** islatu dira **zerrenda osoak ekipamendu moten arabera**, eta horietan jaso dira ekipamendu guztiak, daudenak, eraikitzeko daudenak eta proposatzen diren berriak.

9.2.3 Hezkuntza Ekipamendua

6 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZARI dagokionean, eta Udal Hezkuntza Arloaren adierazpenen arabera, horien **eskasia dagoen eremu batzuetan**, egoitza auzoetatik hurbil, haur hezkuntzarako zentroak egiteko beharra planteatu da.

Horren haritik, **Lekaenea** Ikastetxea birkokatzea proposatu da San Migel auzoan. Era berean, haur hezkuntzarako zentroak proposatu dira Puiana auzoan, 2.1.10 esparruan, Plan Partzial zaharraren zesio eremuan, hauxe da, **Puiana** hiribidearen eta Pozuetakogaina kalearen artean, 6.652 m²-ko azalerako lursail batean. Era berean, beste zentro bat proposatu da **Altzukaitzen** (I.16 eta I.17 lursailak), kokaleku posible eta alternatibo gisa inguru horri zerbitzua emateko. Era berean, **Elatzetako** egungo eskola lekuz aldatu eta aldameneko lursail batean egokitzea proposatu da, lursail hori handiagoa delako, Katea inguruari zerbitzua emateko.

Behobian, eta **Gazteluberri** esparru berriaren emaitza gisa lortuko den lursailean egin liteke haur hezkuntzarako beste zentro bat, lursaila lehen hezkuntzarako ikastetxe batekin partekatuz, biak ere Behobia inguruari nahiz Artiako 54. Poligonoari zerbitzu emateko. Nolanahi ere, proposamen horrek ez du zertan Plan Nagusitik erabilera xehe zehatzik ezarri behar, besterik gabe hezkuntza erabilera gisa kalifika baitaiteke, esate baterako.

Azkenik, Oinaurreko Plan Partzialean badago lurzoru erreserba bat eskola erabilerarako, eta eremu hori egokia izan liteke haur hezkuntzarako zentro bat eraikitzeko. Bestalde, badago zesioan hartutako lursail bat, bere garaian 8.1.04 esparruaren kudeaketatik lortua **Artigako Haritzan** eskola erabilerarako, baina oso neurri txikiak ditu.

6 ETA 12 URTE ARTEKO LEHEN HEZKUNTZARI dagokionean, eta Udal Hezkuntza Arloaren adierazpenen arabera halaber, eskola hornidurak areagotu dira, erabilera hori eman baitzaio **San Migel** egoitza esparruaren kudeaketatik etorritako lursailari, egoitza jarduera berri horri eta **Antzaran eta Lekaenea** auzoei zerbitzua emateko.

Eguzkitzaldea auzoan jadanik aurreikusia dago beste zentro bat eraikitzea, futbol zelaiaren Iparraldean eta zaharren egoitzaren Hegoaldean, Arbesen birkokatzea aurreikusi da eta proiektua egina dago dagoeneko. Azkenik, **Behobian**, **Gazteluberri** esparruan eta lehen aipaturiko lursailean era horretako hezkuntza molderako zentro bat aurreikusi da, udal Sailak eskatzen duen 10.000 m²-ko gutxieneko azalera baino handiagoa duen lursail erreserbarekin gainera, hornidura eskakizunak erraz bete ahal izateko.

12 ETA 16 URTE ARTEKO BIGARREN HEZKUNTZARI dagokionean, eta beti ere udalaren adierazpenei erantzuteko, kontsideratu da hezkuntza maila hori erraz asko bana daitekeela jadanik dauden ikastetxeen artean, **Txenperenearako** aurreikusitako

hazkunde berrien inguruetan lurzoru erreserba berria behar bada ere, haren kudeaketaren emaitza gisa bere garaian jasoko dena.

BATXILERGOAREN EDO HEZIKETA ZIKLOEN MAILAKO HEZKUNTZARI dagokionean, 16-18 urte arteko ikasleentzako eta Zubimusuko eremuan Iparraldeko Saihesbidean aurreikusitako esku hartzeari esker, handitu egingo da **Plaiiaundi Institutuaren** inguruko lursaila. Lursail hori ikastetxe hori handitzeko erabiliko da bere garaian, horren beharra ikusten denean eta beste publiko batzuk ere egokituko dira.

Esparru honek aukera emango du, gainera, bide arteko **erdiko espazioa handitzeko**, egungo Plaiiaundi institutua dagoen lekuan, eraiki beharreko lehen biribilgunetik sartu ahal izango baita hara. Era berean, eta kontuan izanik bideak lurpetik egin behar direla, Ekialdean **plataforma berde** bat sortu ahal izango da **Ducourau parkearen zabalpen** gisa, 4.1.02.02 Zubimusu II esparrutik etorria hura. Era berean, **oinezkoentzako lotura** egin ahal izango da, oztoporik gabe, hiritik **Plaiiaundiko ingururaino** saihesbidearen gainetik.

Azkenik, eta UNIBERTSITATE HEZKUNTZAREN mailan, hainbat leku aurreikusi dira Irunen unibertsitate instalazioak handitu eta garatzeko. Kokaleku horietan lehentasuna izango luke **Urdanibiak**, Txingudi Ikastolatik oso gertu, eta Parke teknologikoaren barnean, hura **Zubietako** esparruan gauzatzea proposatu baita.

Beste kokaleku bat **Geltoki Ingurua** izan liteke, bai gaur egun bide berriak deiturikoek okupaturiko eremuan eta etorkizuneko geltoki berritik hurbilen dagoen etxadian edo bai Aduanaren eraikin zaharrean, hura eraberritu eta atzealdera handitu baitaiteke erabilera hori eman ahal izateko.

Aukera bat ala bestea **hautatzeko betiko erabakia** beharreko aldez aurreko kudeaketaren erraztasunaren edo/eta azkartasunaren baitan egongo da, egungo unibertsitate horniduren garapen eta zabalpenaren premia kontuan harturik beti ere. Era berean, abantaila nagusiak baloratuko dira: Parke Teknologiko baten instalazioetatik eta Hondarribiko udal barrutiaren erdigunean kokatu beharreko kirol horniduretatik hurbil egotea kasu batean, eta trenbideko eta errepideko garraio publikoaren geltokietatik eta hiriko erdialdetik hurbil egotea beste kasuan.

HAUR HEZKUNTZA

| GAKOA | IZENA | LURSAIL. AZALERA | ERAIKI- GARRIT. INDIZEA | ERAIKIGA- RRITASUNA |
|-------------------------------|---|-----------------------------|--|--------------------------------|
| I.3 | C.E.P. ELATZETA L.H.I. | 3.714 | 0,6 | 2.228 |
| I.4 | C.E.P. LEKAENEA H.H.I. | 3.945 | 0,6 | 2.367 |
| I.7 | E.E.I. LARREAUNDI H.H.I. | 699 | 0,6 | 419 |
| I.10 | C.E.P.I. SANTA TERESA H.H.I.P. | 712 | - | 600 |
| I.15 | IKASTETXE BERRIA PUIANAN | 6.652 | 0,6 | 3.991 |
| I.16 | IKASTETXE BERRIA ALTZUKAITZEN | 1.621 | 0,6 | 973 |
| I.17 | IKASTETXE BERRIA ARTIGAKO HARITZAN | 511 | 0,6 | 307 |
| I.18 | IKASTETXE BERRIA GAZTELU-BERRIN (BEHOBIA) | 5.000 | 0,6 | 3.000 |
| I.19 | IKASTETXE BERRIA TXENPERENEAN | 1.400 | 0,6 | 840 |
| I.20 | IKASTETXE BERRIA OÑAURREN | 6.061 | 0,6 | 3.637 |
| HAUR HEZKUNTZA GUZTIRA | | 30.315 | | 18.362 |

* Lekaenean lursailaren 1/3 ezarri da Haur Hezkuntzarako.

* Gaztelu-Berrin lursailaren zati bat Haur Hezkuntzarako ezarri da inguruaren topografi baldintzak kontuan harturik.

LEHEN HEZKUNTZA

| GAKOA | IZENA | LURSAILAR. AZALERA | ERAIKI- GARRIT. INDIZEA | ERAIKIGA- RRITASUNA |
|--------------------------------|---|-------------------------------|--|--------------------------------|
| P.4 | C.E.P. LEKA-ENEA L.H.I. | 7.890 | 0,6 | 4.734 |
| P.12 | IKASTETXE BERRIA EGUZKITZALDEAN | 4.815 | 0,6 | 2.889 |
| P.13 | IKASTETXE BERRIA GAZTELU-BERRIN (BEHOBIA) | 10.000 | 0,6 | 6.000 |
| LEHEN HEZKUNTZA GUZTIRA | | 22.705 | | 13.623 |

* Lekaenean lursailaren 2/3 ezarri dira Lehen Hezkuntzarako.

* Gaztelu-berrin lursailaren zati bat Lehen Hezkuntzarako ezarri da inguruaren topografi baldintzak kontuan harturik.

BIGARREN HEZKUNTZA

| GAKOA | IZENA | LURSAILAR. AZALERA | ERAIKI- GARRIT. INDIZEA | ERAIKIGA- RRITASUNA |
|--------------|-----------------------------------|-------------------------------|--|--------------------------------|
| S.9 | IKASTETXE BERRIA TXENPERENEAN | 7.032 | 0,6 | 4.219 |
| | BIGARREN HEZKUNTZA GUZTIRA | 7.032 | | 4.219 |

BIGARREN HEZKUNTZA – HEZIKETA ZIKLOAK

| GAKOA | IZENA | AZALERA HANDITUA | ERAIKI- GARRIT. INDIZEA | ERAIKIGA- RRITASUNA |
|--------------|-----------------------------------|-----------------------------|--|--------------------------------|
| B-FP3 | I.E.S. PLAIAUNDI B.H.I. HANDITZEA | 13.252 | 0,6 | 7.951 |
| | HEZKUNTZA ZIKLOAK GUZTIRA | 13.252 | | 7.951 |

UNIBERTSITATE MAILA

| GAKOA | IZENA | LURSAILAR. AZALERA | ERAIKI- GARRIT. INDIZEA | ERAIKIGA- RRITASUNA |
|--------------|------------------------------------|-------------------------------|--|--------------------------------|
| O.1 | IKASTETXE BERRIA URDANIBIAN* | 11.142 | 0,6 | 6.685 |
| O.1 | IKASTETXE BERRIA GELTOKI INGURUAN* | 9.634 | 0,8 | 7.707 |
| O.1 | IKASTETXE BERRIA ADUANA ZAHARREAN* | 6.202 | 0,8 | 4.962 |
| | UNIBERTSITATE MAILA GUZTIRA | 26.978 | | 19.354 |

9.2.4 Sistema Orokorreko Kirol Ekipamendua

Kirol ekipamenduei dagokienean, **bi maila handi** bereizi behar dira, haren zerbitzuaren eta irisgarritasunaren irismen global edo eremukoaren arabera.

Herritar guztientzako Kirol Ekipamenduen **MAILA GLOBAL**ean kirol instalazio berriak aurreikusi dira **Zubietan**, atletismo pista, futbol zelai eta erabilera anitzeko pistekin, eta baita aparkaleku handi bat ere. Ekipamendu horrek 77.000 m²-ko lur eremua hartuko luke Hondarribiko lurretan, eta baterako kudeaketaren emaitza da, bi udalerrien artean dagoen protokoloaren gai izan dena. Neurri batean Plaiaundiko egungo instalazioak lekuz aldatzeko aukera gisa planteatu da eta instalazio horiek handitzeko aukera gisa ere bestalde.

Leku hori oso egokia da Iparraldeko eta Erdialde Mendebaldeko esparru osorako, Hondarribiko Parke Teknologikora sartzeko aurreikusitako bideetatik izango du **sarbidea**, eta hasiera batean urpean geratzeko arriskua duen eremu gisa hartu bada ere, kontuan eduki behar da kirol guneak bateragarriak direla izaera horrekin. Hala eta guztiz ere, komenigarria izango litzateke urpean geratzeko arrisku hori **benetako den berrikustea**, Urdanibiako errekatik etor daitezkeen uraldien oztopo efektuagatik N-1 errepideko saihebidetaren plataformaren kokalekuagatik lurren eta errekaen artean, saihebidetaren bikoiztea aurreikusia baitago diseinu berriarekin, eta seguru asko, horrek oraindik hobeto ziurtatuko du bideragarritasunen eragina izan dezakeen uholderik ez gertatze hori.

Stadium Galeko udal kirol zelaiari dagokionean, ezinbestekoa zen kokaleku hobea eta egokiagoa ematea Iparralde-Gal esparru horretan aurreikusitako hazkundeei begira, eta horrenbestez, Plan Nagusiaren aldaketaren tramitazioari ekin zaio erabilera hori eremu berean birkokatzeko, eta logikoa denez, Plan Orokor berrian jaso da aldaketa hori.

Gainera, jarduera horrek aukera emango du lur horietan **pilotaleku berria** eraikitzeko, bertan profesionalen mailako partidak jokatu ahal izateko. Horrek bide emango du gaur egun Sarjia parkearen ondoan dagoen **Urantzu pilotalekuaren** egitura handia desmuntatzeko. Hala behar badu, beste maila bateko pilotaleku txiki bat utzi ahal izango da, Sarjia parkearen Junkal kale aldeko jarraipenaren bidea oztopatuko ez duena beti ere.

Kirol pista irekien eremu bat ezartzeari dagokionean, planteatzen diren beharrak estaltzeko kirol gunea egokitu ahal izateko, lurzoru erreserbak planteatu dira balizko bi lekutan, erabilera horietako edozein bertan ezarri ahal izateko. Horietako bat Puianako

eremuan egongo litzateke, 2.1.10. esparruan, eta Puiana ibilbidetik sartuko litzateke horretara. Lur hori Puianako urbanizazioaren kudeaketaren emaitza gisa eman zen zesioan eta 34.400 m²-ko azalera du lursailak.

Ekipamendu esparru hori **oso leku egokian** dago Urdanibiako eremuaren inguruarekin lotzeko, eta inguru horren eta hiriaren gainerakoaren arteko lotura erraztuko luke Letxunborro hiribidearen bidez. **Instalazioak** kokatzeko orduan kontuan izango da aurrealde berri bat sortu behar dela, ahal den neurrian bederen Hego-mendebaldean, Letxunborro hiribidearen eta Pozuetakogainaren artean, dauden industri eraikuntzen atzealdean ikuspegia arintzeko, eta eremu hori zeharkatzen duen Ugaldeko errekaaren trazatuaren babesa ziurtatzeko.

Beste kokaleku aukera CAFen **burdinbide tailerren** egungo lursaila izan liteke, lursail hori eraberritze prozesuan sartzeko aukerarik izanez gero eta esparru horren kudeaketa bideratu ondoren beti ere. Azken proposamen honen berezitasuna, tailer horiek udalerriko beste industrialde batera eramateko aukerarik izanez gero, lursail horrek dituen afekzio aeronautikoak izango lirateke, etorkizunean ezin izango bailitzaioke lursail horri irabazizko aprobetxamendu garrantzitsurik eman. Horrenbestez, egokiagoa izango litzateke ekipamendu motaren baterako erabiltzea.

Bestalde, **Azken Portu kiroldegia** handitzeko aukera jaso da, aurreko plangintzan jada aurreikusia hura. Kiroldegi horren lehen fasea egin da eta lurzoru erreserba egin da bigarren fasea gauzatzeko, izan ere, badirudi ez dela komeni aukera hori hipotekatzea etorkizunean behar bada ere.

Kostorbe eraikinaren egungo kokalekuan, eta udal zerbitzuak Udaletxearen zabalpen gisa egingo den eraikin berrira eraman ondoren, eta burdinbide sarea kudeatzeko prozesuan oinarriturik, FICOBA erakustazokaren lursail handiaren Hegoaldean dagoen eremu horretan **Kirol Jauregia** eraikitzeke aukera hartu da kontuan.

Burdinbide esparrutik eta Geltokitik nahiz Autobus Geltoki berritik hurbil duen **kokalekugatik**, mugatik **gertu** egoteagatik, **irisgarritasunari** dagokionean Iparraldeko Saihesbidearekin eta erakustazokako aparkalekuekin zuzenean loturik egoteagatik eta hornidura garrantzitsu horretatik hurbil egoteagatik, aukera ederra izango litzateke eskualde mailako ekipamendu zentro handi bat sortzeko Iparralde hiribidearen inguruan.

Udal **Zalditegiaren** hornidurari dagokionean, orain 38.600 m²-ko azalera hartzen du horrek, esan behar da, pixkanaka-pixkanaka hiri erabilerek eta azpiegitura sareek inguratu dutela, horiek ezinezko egiten dutela landa inguruarekiko lotura eta beti ere

erabilera berrietarako izango litzatekeela Zubieta esparruan proposaturikoaren arabera, beste bi aukera planteatu dira zalditegi hori **Ibarrola** eta **Iginitz** esparruetan birkokatzeko. Horrenbestez, aukera horietako bat hautatu beharko da kudeatzeko erraztasunak eta Olaberria-Katea korridorerako hartzen diren erabakiak kontuan harturik.

Ibarrolako esparrua Plan Berezi baten gai da eta plan hori tramitatzen hasia bada ere oraingoz aurrerakinera besterik ez da iritsi. Nolanahi ere, irizpide nagusia da irundarrek egoteko leku gisa, landa ibilaldiak egiteko eta Aiako Harrira joateko bide gisa erabiltzen duten inguru horren ingurumen balioak **zaintzea eta berreskuratzea**. Nekazaritzarako lursailak berreskuratzea eta arrain haztegi bat egokitzeko aukera planteatu dira, horrek bide emango bailuke, gainera, espezie babestuen habitatak sortzeko, “apo lasterkaria”, esate baterako.

Kontuan izanik esparru horrek aukera ematen duela, era berean, **aisialdi eta jolaserako erabilera** batzuekin nolabait ere bateratzeko hiritik gertu dagoenez, kirol eta aterpetxe erabilerak, esate baterako, kontsideratu da eremu hori egokia izango litzatekeela **Zalditegia egokitzeko** ere, gaur egun Zubietan duenaren antzeko okupazioarekin.

Halaz ere, Zalditegia **Iginitz** eremuan, Olaberriako korridorearen barnean, egokitzeko aukera ere kontuan hartu da. Eremu horretan egungo hedadura berdinarekin egin liteke zalditegia, zertxobait handiagoa den haran batean, eta eremu horretan ere erraz atondu litezke landa ibilbideak.

Auzoetan eta auzo horietako biztanleen zerbitzurako egokituriko Kirol Ekipamenduen **TOKI MAILAN**, Berrikuspenak berriro ere kontuan hartu ditu 1999ko Plan Nagusian oinarriturik **jadanik onartutako plangintzen** kudeaketatik etorritako **Toki Sistemaren zesio batzuk**, toki mailako kirol espazio zehatzen eskariei erantzun ahal izateko.

Hala bada, planteatu da, Letxunborro hiribidetik gertu dagoen zesio esparrua, **San Migel–Anaka** esparruaren kudeaketaren emaitza gisa lortutakoa altueran eraikitzeke aukerari begira zortasun aeronautikoek gehien baldintzatzen dituzten lurretan, Toki Sistemako kirol gunerako izatea.

Arbes auzoan, 1999ko Plan Nagusiak jadanik hornidurarako ezartzen zuen lursail batean, oraindik ez bada ere inolako ekipamendurik egin, aire zabaleko pistak izango dituzten kirol instalazioak kokatzea aurreikusten da eremu horri beharreko zerbitzua emateko.

Behobia auzoan, eta Gazteluberriko jarduera berriaren bidez gauzatuko den antolamendu berritik abiatuta, hartara bilduko baita Antton Ttipiren kudeaketatik lortutako zesia eta lotura hobea eratuko baitu auzoarekiko, auzoko kirol elementu bat instalatzea proposatu da. Era berean, **Oinaurre eta Txenperenea** eremuetan, eta egoitza plangintza honen kudeaketaren emaitza gisa, kirol gune bat aurreikusi da auzo horretarako eta inguruko eremurako.

KIROL EKIPAMENDUA

IZAERA GLOBALA

| GAKOA | IZENA | AZALERA |
|--------------------------------------|---|----------------|
| G2 | IBARLA (ZALDITEGIA. PROPOSATURIKO KOKALEKUA) | 35.036 |
| G2 | IGINITZ (ZALDITEGIA. PROPOSATURIKO KOKALEKUA) | 24.878 |
| G4 | ZUBIETAKO KIROL INSTALAZIOAK | 77.222 |
| G6 | STADIUM GAL | 13.856 |
| G13 | AZKENPORTU KIROLDEGIAREN ZABALPENA | 2.255 |
| G14 | GALEKO PILOTALEKU PROFESIONALA | 3.652 |
| G15 | KOSTORBeko KIROL JAUREGIA | 13.264 |
| G16 | PUIANA (KIROL GUNEA. PROPOSATURIKO KOKALEKUA) | 26.411 |
| G16 | C.A.F. (KIROL GUNEA. PROPOSATURIKO KOKALEKUA) | 4.325 |
| KIROL ESPARRU GLOBALA GUZTIRA | | 200.899 |

TOKIKO IZAERA

| GAKOA | IZENA | AZALERA |
|--------------------------------------|----------------------------------|---------------|
| Z1 | BEHOBIAKO FUTBOL ZELAIA | 12.452 |
| Z11 | SAN MIGELEKO KIROL INSTALAZIOAK | 6.065 |
| Z14 | ARBESKO KIROL INSTALAZIOAK | 11.930 |
| Z15 | OINAURREKO KIROL INSTALAZIOAK | 2.722 |
| Z16 | JESUS KARRIKAKO PILOTALEKUA | 299 |
| Z17 | TXENPERENEAKO KIROL INSTALAZIOAK | 4.166 |
| TOKIKO KIROL ESPARRUA GUZTIRA | | 37.634 |

*Ekipamendu hauetan ez da eraikigarritasunik kontuan hartu.

9.2.5 Laguntza Ekipamendua

Laguntza moldeko ekipamenduei dagokienean, **oinarrizko lau mota** bereizi dira, laguntza hori eta arreta berezia behar duten **biztanleria taldeen** arabera: adineko pertsonak, ezintasunak eta buruko gaitzak dituzten pertsonak, gizartean bazterturik dauden pertsonak, emantzipazioan dauden gazteak eta babestu beharreko haurrak.

Erantzun nahi izan diren plangintza **irizpideak** eta udal Saisetik bideratuak daudenak, eskualdeko lurralde esparruan oinarritu dira, ez udalerrri esparruan; halaz ere, ahaleginak egin dira beharreko zoru erreserba egiteko, Sistema Orokorrei dagokienean behinik behin, bai da Plan Nagusiaren berariazko egitekoa.

ADINEKO PERTSONEI dagokienean, **Lekaeneako** babespeko apartamentuak egiten ari dira gaur egun, eta gainera, **Arbesen** egoitza berri bat eraikitzea aurreikusia dago.

Nolanahi ere, kontsideratzen da, Arbesko proiektu horrez gainera, etorkizunean plaza gehiago ziurtatu behar direla mendekotasunak dituzten pertsonen erantzuteko, baina hori **Betharram proiektuaren** gauzatzearen baitan egongo litzateke neurri batean, Hondarribian, hasiera batean bederen, Bidasoa eskualdeko behar guztiei erantzungo bailitzaieke proiektu horrekin.

Proiektu hori ezin bada aurrera eraman, Irunen sustatu beharko da beste bat. Gaur egun erabiltzen den bolumen eraikiaren estandarrean, hauxe da, 57 m²/plazako, oinarriturik, guztira 7.000 m² eraiki beharko lirateke egoitza arrunt bat ezartzeko, eguneko zentroa barne. 2.1.07 **Jaizkibel** esparruan, Jaizubia urbanizazioaren Hegoaldean hura, Zabaleta esparru berriaren ondoan, bada lursail bat behar horiei erantzuteko moduko azalera duena, eta hornidura pribatu kalifikazioa eman dakioke horri.

1999ko Plan Nagusian hirugarren sektoreko merkataritza erabilerarako kalifikaturiko lursail horrek 18.000 m² inguruko **azalera** du, eta haren egungo aprobetxamendu indizeak aukera emango luke 10.000 m² eraikitzeko. Horri esker, **lasai erantzungo litzaioke** hurrengo hamar urteetarako kalkulaturiko **eskariari**. Eraikuntza lursailaren Ekialdean egin beharko litzateke ibarrean beheren dagoen aldea ez okupatzeko, eta urbanizazioko bideetan barrena egin liteke sarbidea.

Egoitza berriak areagotzeko planteamendu horiek **osa** litezke **etxeko laguntzak** eskaintzen dituen aukerekin, kontu horren inguruan Aldundiak emaniko aginduen arabera.

EZINTASUNAK ETA BURUKO GAITZAK DITUZTEN PERTSONEN taldeak bizileku balioaniztunen eta babespeko etxebizitzaren hornidura espezifikoa izango luke **Arbesen** egin beharreko proiektuan, mendekotasun txikia duten pertsonentzako modukoak. Hondarribiko **Uliazpi** zentroa berriz, nahikotzat hartzen da mendekotasun handiak dituztenei erantzuteko. Era berean, Betharramgo proiektuak har dezake tarteko mendekotasuna duten pertsonentzako modulu bat.

Ezintasunak dituzten pertsonentzako hornidurei dagokienean, eta udal Saitetik proposaturiko proiektuak bideratu ahal izateko, Plan Nagusiak lurzoru erreserba egitea proposatzen du era horretako ekipamendu bat ezartzeko, 2.000 m² inguruko azalerarekin, eta hori ederki asko bidera daiteke **Aduana kaleko** ekipamenduen eremuan.

GIZARTEAN BAZTERTURIK DAUDEN PERTSONEN taldearentzako egonaldi txikiko bitoki baliabide bat eskakizun txikiekin, egonaldi luzeetarako beste bat eta egunez arreta emateko gizarte zentro bat sortu behar dira, eta larrialdietarako bitoki bat ere planteatu liteke. Hasiera batean, egungo **Ama Xantalen** egoitza berrerabil liteke zerbitzu horietako batzuetarako eta, orientagarria bada ere, guztira 2.000 m² eraikiko azalera aski izango litzateke.

EMANTZIPAZIOAN DAUDEN GAZTEEN ETA BABESTU BEHARREKO HAURREN taldearentzako hiri inguruan kolektibo horientzako berariazko horniduraren bat sortzeko aukera planteatu da, **gazte ekipamenduen** moldekoa, hain zuzen ere. Era berean, Legea betetzeko eraiki behar diren **hornidura bizilekuetakoren** bat behar handiak dituzten kolektiboentzako aldi baterako bitoki eta gizarte bitokietarako erabiltzeko aukera planteatu da (2/2006 Legearen 17. art.).

Horrekin guztiarekin integrazioa bultzatu nahi dugu, aldi baterako bitokiak izateak ematen duen malgutasunari esker, baina hiritik hurbil dauden eremuetan **eraikinak erosteko** aukera ere planteatu liteke edo hutsik dauden eta xede horretarako erabil daitezkeen etxebizitza batzuk erabiltzea hitzartu liteke halaber, azken bi horiek lehentasunezko aukerak ez izan arren.

Labur esateko, eta datozen urteetan estali beharreko defizit **guztiak** kontuan harturik, Hondarribian Betharrameko proiektuaren egungo ezezagunak nolabait ere gauzatzeko uzten du Irunen **estimaturiko beharren erantzuna**, guztira 4.000 eta 11.000 m² arteko

eraikuntza eskaerarekin. Hasiera batean **egoerarik okerrena** hartu da kontuan, eta horrenbestez, aurreikusi egin dira behar horiei erantzuteko lurzorua. Nolanahi ere, esan behar da, adineko pertsonentzako egoitza batek lursail bakarra eta nahikoa eskatzen badu ere, lursail desberdinen artean bana daitezkeela gainerako beharrak.

9.2.6 Osasun Ekipamendua

Osasun ekipamenduei dagokienean, **hiru arreta maila** daude benetan ziurtatu behar direnak: ospitalea, anbulatorioa eta kontsultak eta auzoetako hornidurak.

Maila horietan **lehenengoari** dagokionean, **Bidasoako Eskualdeko Ospitalea**, hain zuzen ere, jadanik kontuan hartu da dauden eraikinean beste solairu bat egiteko aukera. Modu horretan 40 ohe gehiago izango lirateke eta, zentro horren arduradunek eginiko azterketen arabera, aski izango lirateke 10 edo 12 urtean eskualde esparruko eskariari erantzuteko.

Bigarren mailan hirugarren anbulatorioa egiteko aukera jaso da; hiriaren Mendebaldeari eta Erdialde Mendebaldeari emango lioke zerbitzu anbulatorio horrek. Horretarako, beharreko erreserba egitea proposatu da **Oinaurre** esparruan eta esparru horren kudeaketatik lortutako lurzoruan. Horrenbestez, lurzoru hori eta beharreko azalera ziurtaturik egongo lirateke, oraingoz kokalekua ez bada zehaztu ere.

Hiriko lokaletan edo zesioan emaniko udal lokaletan egokitu beharreko **auzoko hornidura edo botikategien hirugarren mailan**, kontsideratu da ez dela beharrezkoa kokaleku hori Plan Nagusiak zehaztea, beharreko lokalak uzteko eta auzoetako behar guztiei erantzuteko zailtasunik ez baitago.

9.2.7 Ekipamendu sozio-kulturala

Ekipamendu Sozio-Kulturei dagokienean, hainbat mota daude laburbildu ezin direnak.

Jadanik dauden instalazio sozio-kulturez, eta tramitean dauden eta proposatu diren esparruen kudeaketaren emaitza gisa aurreikusitakoez gainera, **hiru zentro zibiko handi** jaso dira Berrikuspenean, lehenengoa eta funtzio garrantzitsuena duena **San Joan Plaza** eraberritzean eraiki beharreko multzoa; gainera, hortxe egokituko dira **Auditorio Handia** eta baita udal liburutegia ere, hori guztia hiriaren erdialdean, eremurik enblematikoenean.

Horri erantsi behar zaio, alde batetik, **Palmera-Monteron aurreikusitako Zentro Zibikoa**, Ricardo Alberdi Zumardiaren eta Pelegrin de Urantz kalearen arteko lursailean, eta bestalde, **San Migel auzoan aurreikusitako Zentro Zibikoa**, 3.2.09 esparruaren bidez; haren helburua da **Immigrazioaren eraikin** zaharra berritzea bertan ekipamendu sozio-kulturala egokitzeko, eta horrek inguruko beharrak estali beharko lituzke, eta erakargarritasun eta zentralitate gune handia sortuko luke hirirako.

Esku hartze horren bidez **zaharkituriko eraikin** bat **berrerabiltzea** planteatzen da, gaur egun abandonatua baitago, Alejandro de la Sota arkitektoak proiektatua hura. Kontua da Iparraldeko aurrealdean bi solairuko **eraikin berri** bat eratzitzea, **merkatua** izateko, dagoen merkatuaren eraikinaren lekuan, eta Iparraldean espazio bat libre uztea Luis de Urantz kalearen zabalpen gisa.

Era berean, egungo Liburutegiaren beheko aldean eta Iparraldean dagoen lursailaren erreserba aurreikusten da ekipamendu erabilera emateko, baina oraingoz ez dago xehetasun handiagorik haren xede zehatzaren inguruan, eta egungo kalifikazioa mantenduko du lurren azken xedea ezagutzen ez den bitartean.

10. kapitulua

HISTORIA ETA KULTUR ONDAREAREN BABESA

AURKIBIDEA : 10. KAPITULUA HISTORIA ETA KULTUR ONDAREA

| | |
|--|----------|
| 10.- HISTORIA ETA KULTUR ONDAREAREN BABESA | 1 |
| 10.1- Ondarearen egoera aztertzeko abiapuntuak | 1 |
| 10.2 Katalogazio proposamenaren planteamendua eta irizpideak | 3 |
| 10.3 Arkitektura Katalogoaren oinarrizko egitura | 5 |
| 10.4 Arkeologia Katalogoaren oinarrizko egitura | 11 |

10.- HISTORIA ETA KULTUR ONDAREAREN BABESA

10.1- Ondarearen egoera aztertzeko abiapuntuak

Kalitatearengatik edo antzinatasunagatik garrantzitsuak diren eraikinek, hiriaren historiaren beste garai batzuetako elementu adierazgarriek, hondakin arkeologikoek eta tokiko ekonomiarako garrantzitsuak izan ziren eraikuntza edo jarduera instalazioek osatzen dute **historia eta kultur ondarea**. Horiek guztiek **arreta berezia behar dute** eta behar bezala identifikatu, aztertu eta Ondarearen Katalogoa deituriko dokumentu berezian babestu behar dira.

1999ko Plan Nagusiak jadanik adierazi zuen **Elementu babestuen Katalogoa** egin behar zela hirigintza dokumentu independente gisa, kalifikatu eta inbentarioan jasotako kultur intereseko ondasunak gutxienez bertan jasotzeko. Baina gainera, egungo hirigintza legerian **Plan Nagusiaren espedientearen** zati izan behar du Katalogo horrek.

Bestalde, une honetan hainbat **lege eta dekretu** daude, arkitektura ondarea eta arkeologia ondarea babesteko araudi eta irizpideetan eragina dutenak. Honako hauek, hain zuzen ere: Espainiako Historia Ondarearen Legea, Gipuzkoako Monumentu Historiko Artistikoen Agindua, Santiago Bideko Multzo Historiko Artistikoaren Dekretua, eta Eusko Jaurlaritzaren Euskal Kultur Ondarearen 7/1990 Legea.

Azken legeria horrek xedaturikoaren arabera, **Kultur Ondasun Higiezinak Kalifikatuak (KOK)** edo **Inbentarioan** jasotakoak (**KOI**) izan daitezke, eta Euskal Kultur Ondarearen Zentroaren Kultur Ondasun Kalifikatuen edo Kultur Ondasunen Inbentario Orokorrean jasotzen dira horiek, hurrenez hurren.

Gainera, hainbat dekreturen bidez, Irunen **Kultur Ondasun** gisa jaso dira beste elementu artistiko batzuk ere, Junkaleko Amaren Elizako Erretaula Nagusia eta Junkal Eliza bera, edo Santiago Bideko monumentu multzoa, esate baterako, azken honetan Santa Elena Ermita sarturik, edo Urdanibia Jauregia Kultur Ondasunen Inbentario Nagusian sartu dute berriro ere, Urdanibiako Burdinola eta Errotarekin batera. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren 2002ko dekretuaren bidez Eraberritze Integraturiko Eremu (EIE) gisa hartu da Hirigune Historikoa.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Kultur Ondarearen Zuzendaritzak, udal barrutiko **Interes kulturalako ondasun higiezin** zerrenda egin du. Zerrenda

horretan 9 elementu daude une honetan legearen babesa dutenak, eta beste 40 elementuri babesa ematea proposatzen du. Era berean, Irungo 9 eremu arkeologiko **Monumentu** edo **Monumentu Multzo** gisa deklaratzeko eta beste 30 ustezko eremu arkeologiko izateko **proposamena** hartu zuen kontuan.

Kontuan izan da, irismen desberdineko neurri horiez gainera, azken urte hauetan **intereseko hainbat azterketa** egin direla ondare irundarraren inguruan, esate baterako, 1986ko iraileko Arau Subsidiarioen Aurrerakinaren dokumentuan jasotako Ondare Historiko-Artistikoaren Katalogoa, Enrique Noain Cendoya arkitektoa sinatua, eta Irungo Udal Barrutiko Arkeologia eta Arkitektura Ondarearen Katalogoak, 2001eko uztailan eginak Luis Sese Madrazo eta ARKEOLANek.

Halaz ere, orain arte eginiko adierazpenek, batik bat monumentu garrantzitsuenetan oinarrituak, ez dute amaitzen babestu beharreko ondarea bereizteko lana, eta Udala izango da, **Udal Ondarearen Katalogo** berriaren bidez, katalogo horretan intereseko beste eraikin edo elementu batzuk sartzeaz arduratuko dena.

Erabat garatuko den eta Plan Nagusiaren hasierako onarpen dokumentuan jasoko den Katalogo honek Irungo ondarea babesteko **araudi** orokorraren **aipamena** izango du, araudi hori aplikatuko baitzaio beti elementu bakoitzari, jadanik onartua dagoen erregulazioa barne, logikoa denez.

Era berean, kontuan izango dira babes irizpide eta neurriak, nahiz babestu behar den ondasunaren zatia, haren babesetik etorritako hirigintza eragina baloratuz. Baina batik bat **elementu bakoitza bere testuinguru historikoan kokatuko** duten balorazio irizpideak erabiliko dira, haren **ingurua**, **eraikuntza garrantzia** eta **balio artistikoa** kontuan harturik eta komenigarritzat hartzen diren **beste irizpide** batzuetan oinarriturik.

Garrantzitsua da kontuan edukitzea identifikaturiko eraikin edo elementu bakoitza, historian zehar **gauzaturiko hainbat esku hartzeren** emaitza dela eta hirigintza araudi zorrotzegia jartzen bada eragin zuzena izan lezakeela prozesu horretan.

Horregatik ulertzen da ez dela blokeatu behar babestu beharreko ondare eraikia aldatu eta berritzeko prozesua, baizik eta ondare hori elementu bizi gisa **mantentzeko ahaleginak egin** behar dira murrizketen erregimen bat ezarriz. Erregimen horren irismena, aurrera eramane daitekeen esku hartze motaren eta izan dezakeen edo izan behar duen xedearen arabera neurtu beharko da beti ere.

Horren haritik, komenigarria izango litzateke, ahal den neurrian bederen, elementu katalogatu batean **esku hartze erregimena modu xehean eta banan-banan** egitea, baina erregulazio-eredu batzuen definizioan oinarrituta logikoa denez.

10.2 Katalogazio proposamenaren planteamendua eta irizpideak

Ondare irundarra modu egokian babes dadin lortzeko oinarritzko tresna **Ondarearen Katalogoa** egitea da, udalerrian babestu nahi denaren behar eta sentsibilitateei behar bezala erantzungo dien eta iraganeko ondarea bizirik nola eduki nahi den zehaztuko duen katalogoa, hain zuzen ere.

Katalogo hori Plan Nagusiaren Berrikuspenaren **Hasierako Onarpenerako** hurrengo fasean **garatuko da erabat**, eta Araudi batek eta elementu katalogatuen banakako Fitxa batzuek osatuko dute. **Arkitektura** elementuak eta **arkeologia** elementuak bereizi egingo dira, eta horrenbestez, bereiz aurkeztuko dira.

Proposatuko den **araudiaren egitura** aurkeztuko da **Aurrerakinean**, **babes** kategoria edo **maila** desberdinen arabera. Gainera, hasiera batean Katalogoan sartuko diren **elementuen identifikazioa eta deskribapena** egin da, eta baita banakako **Fitxen lehen bertsioa** ere. Fitxa horietan jaso da babes mailaren deskribapen eta justifikaziorako beharreko informazio guztia, eta baita elementu bakoitzean kontuan hartu beharko diren arau partikularrak ere.

Irungo Ondarearen Katalogoa egiteko **kontuan hartu beharreko irizpideei** begira ardura duten administrazioak kontsultatu ondoren: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila eta Gipuzkoako Aldundiaren Kultura Saila; Eusko Jaurlaritzak berak proposatu eta zehazturiko Fitxa eta Araudiaren **egitura** erabiltzea erabaki da.

Gainera, logikoa denez, Irungo Katalogo berriak zuzenean eta lehenik jasoko ditu jada alor honetan eskumena duten administrazioen lege babesa duten **Interes Kultureko Ondasun Higiezinak**, eta baita **prozedura hasia** izanik 7/1990 Legeak aurreikusitako tresnen bidez babestuak izateko proposamena dutenetako batzuk ere.

Ondarearen Fitxan jaso dira interes kultureko Ondasunak, eta asmoa da indarrean dagoen araudira egokitzea egiturari eta dagozkion informazio eta zehaztapen multzoari dagokienean.

Arkeologia Ondareari begira, **Ustezko Eremu Arkeologiko** guztiak jaso dira, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren ebazpen irmoaren bidez halakotzat hartuak direnak,

hain zuzen ere, eta baita proposamen mailan **babes prozesua hasia** duten Eremu Arkeologikoak ere. Bi kasuetan zuzenean jaso da edozein obra proiekturen aurretik bideratu beharreko jardueren erregulazioa. Eremu horiek arkitektura Katalogoko elementu batekin bat datozenean, Katalogo horretan jasoko da, eta gorabehera hori aipatuko da dagokion fitxaren “oharren” atalean, baina eremua jadanik ez da jasoko Arkeologia Katalogoaren barnean.

Arkitektura elementuen udal Katalogoari dagokionean, hura idazteko lana Plan Nagusiaren espedientearen zati gisa osatuko baita, Aurrerakinaren fasean, jadanik katalogatu diren edo katalogazioa hasia duten monumentu eta eraikinei dagokienean, beste **elementu gehigarri** batzuk jaso dira, horiek ere **eskualde edo/eta udal esparruan interes nabarmeneko kultur, historia, arte edo arkitektura** balioak dituztelako. Elementu horiek monumentuen balioak izatera iristen ez badira ere, eta horrenbestez, autonomi administrazioak katalogazioaren barnean sartuko ez baditu ere, ezinbestean babestu behar direla irizten baita.

Elementu horiek sartzeko abiapuntu gisa oso kontuan eduki dira dokumentu hau idatzi **aurretik** 1986an eta 2001ean **eginiko azterketak**, goian aipatu direnak. Hala eta guztiz ere, **horiek aztertu dira aplikaturiko irizpideen** homogeneotasuna eta koherentzia, orduan identifikaturiko elementu batzuk **fisikoki desagertu** direla eta, beti ere, jasotzea egokitzat hartu den elementuen **ekarpen berriak** kontuan harturik.

10.3 Arkitektura Katalogoaren oinarritzko egitura

Azaldutako irizpide horietan oinarriturik, hasiera batean, **katalogazio mailekin loturarik ez duen tipologia kategorien egitura** kontuan harturik antolatu da **Historia eta Arkitektura Katalogoa** :

EM.- Monumentu eraikin eta elementuak

R.- Hiriko eraikin eta elementu garrantzitsuak

A.- Nekazaritza eraikuntzak

C.- Burdinola-errota multzoak

Horrenbestez, **tipologiaren antolamendu** baten bidez egituratuko da Katalogoa, eta gaur egun eraikuntzak diren elementu guztiak sartuko dira **Arkitektura Katalogoan**. Era berean, Katalogoaren zati honetan sartuko dira gaur egun **eraikuntzak** izanik, esate baterako, baserriak, ermitak eta abar, **arkitektura elementu gisa kontsideratuak** zeuden elementuak. Hala eta guztiz ere, kasu hauetan beti jaso da edozein obra proiektu gauzatu **aurretik** halako **jarduera batzuk** egiteko beharra, gehienetan miaketa lanak eraikuntza horiek dauden lurzoruan.

Arkitektura Katalogoaren babes edo katalogazio mailei dagokienean, hasiera batean ondoko bost maila hauek ezarri dira, elementu bakoitzaren kalitate edo interesaren arabera aplikatu beharko direnak, ezarritako **tipologia kategorietatik aparte**. Ondoren laburbiltzen diren zehaztapenak jarraituko ditu horien araudiak.

Lehen mailan, salbuespenen bat salbu, **administrazioak eginiko katalogazioak** sartu dira eta hurrengo **lau mailak udalaren ekimenez sartutako elementuei** aplikatuko zaizkie, eta baita beste elementu batzuei ere Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak horiek babesteko proposamena egin ondoren:

M - Monumentuaren Babes maila

Maila honetan sartu dira **interes kultureko (BIC)** gisa hartu diren edo **halakotzat deklaratzeko tramitean** dauden eraikuntzak, eta baita Eusko Jaurlaritzak edo Gipuzkoako Aldundiak, alor honetan eskumena duten administrazioak izanik, maila horretan **katalogaturikoak** ere. Dagoen araudira jo da.

I - Osorik Kontserbatzeko maila

Maila honek **osorik** babesten ditu eraikinak, haien arkitektura ezaugarriak, jatorrizko elementuak, forma eta espazioaren okupazio maila kontserbatuz. Neurriei dagokienean, monumentu babesaren parekoa da.

E - Egitura Kontserbatzeko maila

Maila honek eraikinak babesten ditu haien **egitura mantentzeari** begira, baina halako esku hartze batzuk onartzen ditu egitura hori erabilera berrietara egokitzeko, baldin eta **eraikinaren egitura** osatzen duten elementuak errespetatzen badira.

P - Neurri batean Kontserbatzeko maila

Maila honek **eraikinaren egitura** babesten du batik bat, egitura hori kontserbatu egin beharko baita barnealdea eraistea onartu arren. Eraikuntzaren **elementuren bat** soilik babestu dezake halaber.

A - Ingurumena Babesteko maila

Maila honek, alde batetik, dituzten gorabeherengatik soilik fatxada babestu behar zaien eraikinak biltzen ditu, eta **fatxada** horren ezaugarriak kontserbatu egin beharko dira berreraikitzea onartuta ere. Era berean, **zuzenean babestu beharrekoak ez izan arren**, inguru edo eremu zehatz batean dauden eraikinak hartzen ditu aurreko bi mailen muga edo haietatik hurbil egoteagatik; horiek berritzeko orduan lurzoruaren okupazio modua eta inguruko eraikuntzen osaera ezaugarriak eta diseinu soluzioak errespetatuko dituzten soluzio tipologikoak hartu edo aurkeztu beharko dira, inolaz ere.

Babes maila horietako bakoitzerako, araudian jasotako zehaztapenen arabera **onartu ahal izango diren obrak** honako hauek izango dira:

Monumentuaren Babesa eta Osorik Kontserbatzea (M - I)

- A) Kontserbatzea eta Konpontzea
- B) Zaharberritzea

Egitura Kontserbatzea(E)

- A) Kontserbatzea eta Konpontzea
- B) Zaharberritzea
- C) Eraberritzea eta Berritzea

Neurri batean Kontserbatzea (P)

- A) Kontserbatzea eta Konpontzea
- B) Zaharberritzea
- C) Eraberritzea eta Berritzea
- D) Berregituratzea, kontserbatu ezin diren aldeak handituz

Ingurumena Kontserbatzea (A)

- A) Kontserbatzea eta Konpontzea
- B) Zaharberritzea
- C) Eraberritzea eta Berritzea
- D) Berregituratzea, kontserbatu ezin diren aldeak handituz
- E) Eraistea eta Oin Berria egitea

Eraikin katalogatuen lehen zerrenda bat egitea proposatzen da, eraikinak **tipologiaren arabera ordenatuta**, babes mailen arabera ordenatu beharrean; izan ere, pentsatzen dugu antolatzeko modu horri esker hobeto ulertuko dela dokumentua nola egituratu den. Lehen zutabearen **Tipologiaren arabera** ageri dira **Kodeak**, eta horien ondoren, Plan Nagusiak eman dion ordenaren zenbakia sartu da. Katalogoko planoan ageri denarekin lotuko den **zenbaki** horrek aukera emango du elementua eta haren babes maila lurrean **azkar identifikatzeko**.

Elementuaren izenaren ondoren **elementuaren mota zehatzaren** zutabea etorriko da, hori ere beste kode batek azaldua, eta hurrengo orrialdeko koadroan dago haien identifikazioa. Azkenik, elementu bakoitzari emaniko **babes maila** azalduko da zerrenda horretan.

Zehaztutako tipologiaren kategoriak ere kontuan hartu dira **Arkitektura Katalogoaren Fitxen** atala egituratzeko, eta dokumentu bereizi gisa aurkeztu da.

| HISTORIA ETA ARKITEKTURA KATALOGOA | | | |
|--|--|---------------------------------|------------------------|
| KATALOGATURIKO ELEMENTUAREN IZENA | | KODEA ELEM. MOTA | BABES MAILA |
| KODEA TIPOLOGIAREN ETA ORDENA ZENB. ARABERA | | | |
| EM1 | JUNKALEKO AMA BIRJINA | I | M |
| EM2 | UDALETXEA | CC | M |
| EM3 | ARBELAITZ | PA | M |
| EM4 | SORTZETZ GARBIAREN AMA BIRJINA | H | M |
| EM5 | GUARDIA GORPUTZA | CG | M |
| EM6 | AMA XANTALEN / SANTA ELENA | E | M |
| EM7 | AMA XANTALEN / SANTA ELENA ITURRIA | FU | M |
| EM8 | URDANIBIA JAUREGIA, ERROTA ETA BURDINOLA | CFP | M |
| EM9 | BERAUN | CS | M |
| EM10 | MARTINDOZENA | CS | M |
| EM11 | ARANTZATE | CT | M |
| EM12 | SANTIAGO BIDEAREN TRAZATUA | CAM | M |
| R1 | ADUANAKO ERAIKINA | PU | E |
| R2 | SAN GABRIEL ETA SANTA GEMA | I | I |
| R3 | KIOSKOA ZABALTZA PLAZA / PLAZA DEL ENSANCHE | Q | I |
| R4 | JUNKAL ESKOLAK | ES | P |
| R5 | SAN MARTZIAL | E | I |
| R6 | LARRAMENDIARENA FINKA | VU | E |
| R7 | COLÓN KASINOA | PU | P |
| R8 | JAINKOAREN ZERBITZARIEN KOMENTUA | CO | E |
| R9 | IKUST ALAIA ETXEA | VU | E |
| R10 | PIKOKETA KARRIKA, 11 ETXEA | CU | P |
| R11 | PIKOKETA KARRIKA, 13 ETXEA | CU | P |
| R12 | UDAL OSPITALE ZAHARRA ETA MIRARIETAKO KAPERA | CP | P |
| R13 | KUARTEL ZAHARRA | BV | E |
| R14 | JUNKALEKO AMA BIRJINA ETXEBIZITZA MULTZOA | BV | E |
| R15 | SAN MARTZIAL 1 ERAIKINA | EV | E |
| R16 | ETXEBIZITZA ERAIKINAK JENARO ETXEANDIA PLAZAN | CV | P |
| R17 | POLIZIA KOMISARIA ZABALTZA PLAZA / PLAZA ENSANCHE | PU | E |
| R18 | ERAIKINA GIPUZKOA HIRIBIDEA, 4, "NORMANDIE ERAIKINA" | EV | E |
| R19 | ERAIKINA COLÓN IBILBIDEKO 36AN | EV | E |
| R20 | LEHENGO BANCO POPULARREN ERAIKINA COLON IBIL, 36AN | EV | E |
| R21 | ERAIKINA COLON IBILBIDEKO 8, 10, 12AN | EV | E |
| R22 | ERAIKINA IPARRALDE HIRIBIDEKO 3AN | EV | E |
| R23 | IMMIGRAZIO ZENTRO ZAHARRA | EA | E |
| R24 | ETXEBIZITZAK FRANCISCO DE GAINZA KAR 7, 9, 11, 13 | VUN | E |
| R25 | ETXEA POLICARPO BALTZOLA KALEKO 3AN | VU | E |
| R26 | ETXEA HENDAIA KALEA, 8, "DUCOUREAU ETXEA" | VU | E |
| R27 | ETXEA POLICARPO BALTZOLA KA, 15, "MARIA LUISA ETXEA" | VU | E |
| R28 | ETXEA GUDARI KALEA, 14AN | VU | E |
| R29 | ETXEA GUDARI KALEA, 2AN, "CARMEN ETXEA" | VU | A |
| R30 | IRU-BIDE ETXEA | VU | E |
| R31 | MONTANO ETXEA | VU | E |
| R32 | FORU KARRIKA, 5 | EV | P |
| R33 | LEGIA KARRIKA 4 | EV | P |
| R34 | HONDARRIBIA KALEA, 39-41 | EV | P |
| R35 | RAMUNTXO TXINKETA | VU | P |
| R36 | IPARRALDE ETORBIDEA 14 | EV | P |
| R37 | "PIO BAROJA" IRAKASKUNTZA ERTAINEKO INSTITUTUA | IE | E |
| R38 | "HERMANOS ITURRINO" ANBULATORIOA | CSA | E |
| R39 | ITURRIA KARRIKA NAGUSIAN | FU | E |
| R40 | ETXEA KARRIKA NAGUSIA, 9 | CCA | P |
| R41 | ETXEA KARRIKA NAGUSIA, 14 | CCA | P |
| R42 | ETXEA KONTRAKALEA, 16 | CCA | P |
| R43 | ETXEA KARRIKA NAGUSIA 8 | CCA | P |
| R44 | ETXEA KARRIKA NAGUSIA 19 | CCA | P |
| R45 | ETXEA LARRETXIPI KARRIKA, 4 | CCA | P |
| R46 | ESPILLA ETXEA. LARRETXIPI KARRIKA, 24 | CCA | P |
| R47 | ETXEA ESKOLETA KARRIKA, 5 | CCA | P |
| R48 | ETXEA SAN MARTZIAL KARRIKA, 14 | CCA | P |
| R49 | TXIMINIA COMPAÑIA ARRENDATARIA DE FÓSFOROS | ELI | I |

| HISTORIA ETA ARKITEKTURA KATALOGOA (jarraipena) | | | |
|--|---|---------------------------------|------------------------|
| KATALOGATURIKO ELEMENTUAREN IZENA | | KODEA ELEM. MOTA | BABES MAILA |
| KODEA TIPOLOGIAREN ETA ORDENA ZENB. ARABERA | | | |
| R50 | PALMERAKO ETXFAK | BV | F |
| R51 | ETXEA EGUZKITZALDEA, 8 | CCA | P |
| R52 | ERAIKINA IPARRALDE HIRIBIDEKO 35-37AN. JORGE OTEIZA | VU | E |
| R53 | ITURRIA JESUS KALEAN | FU | E |
| R54 | SAN JUAN HARRI | ET | I |
| R55 | MUGAKO TOPOAREN ZUBIA | PUE | E |
| R56 | BURDINBIDEAREN ZUBIA MUGAN | PUE | E |
| R57 | SANTIAGOKO OINEZKOENTZAKO ZUBIA | PUE | E |
| R58 | ADUANAKO NABEA | EI | E |
| R59 | ARTIAKO ERMITA | E | P |
| R60 | SAN ANTON ERMITA | E | P |
| A1 | ALDABE | C | P |
| A2 | LARRAZURI | C | P |
| A3 | LASKOAIN BERRI | C | P |
| A4 | ALUNDARBELAITZ | C | A |
| A5 | GOMIZENEA | CB | P |
| A6 | ALATRISTA | CT | P |
| A7 | ALTZULEGARRE | C | P |
| A8 | EIZAGIRRE | CB | P |
| A9 | IPARRAGIRRE | C | P |
| A10 | LARREAUNDI | CB | E |
| A11 | LIZARDI | C | P |
| A12 | BELBIO | C | P |
| A13 | BORDATXURI | C | P |
| A14 | BURUTARAN | C | A |
| A15 | LEGIA | CS | P |
| A16 | OIARTZABAL | C | P |
| A17 | IBARROLA | CT | P |
| A18 | ARANBURU | CS | P |
| A19 | GORROAGA | C | P |
| A20 | IGIÑITZ | CB | P |
| A21 | ZAMORA | CS | P |
| A22 | ANTOJU | CB | P |
| A23 | ARANIBAR ZAHAR | C | P |
| A24 | MOKOZORROTZ | C | P |
| A25 | OLAKINETA | C | P |
| A26 | OTSOENEA | C | P |
| A27 | TXUMARRAGA | C | P |
| A28 | ALTZUBIDE | C | P |
| A29 | ALTAMIRA | C | P |
| A30 | TONPES | C | P |
| A31 | BELTRANENEA | C | P |
| A32 | MAKATZONDO | C | P |
| A33 | TXIMISTA | C | P |
| A34 | ARBELAITZ TXIKI | C | P |
| A35 | ALTZOLARAN | C | P |
| A36 | PEDRONEA | C | P |
| A37 | LABEKOETXEA | C | P |
| C1 | ALTZUBIDE | CF | P |
| C2 | ARANTZATE | CF | I |
| C3 | ENDARA | CF | P |
| C4 | IBARROLA | CF | P |
| C5 | OLABERRIA | CF | P |
| C6 | ANTOJU | MF | P |
| C7 | ARANBURU | MF | P |
| C8 | PRIMAUT | CF | P |
| C9 | ERROTABERRIA / SANTA ELENA | MF | P |
| C10 | UGALDE | MF | P |
| C11 | URUNEA | MF | P |
| C12 | IRUGURUTZETA | HC | P |
| C13 | SAN NARZISO | PL | P |
| C14 | OLAKINETA | PL | P |

| HISTORIA ETA ARKITEKTURA KATALOGOA | |
|---|--------------------------------------|
| KODEAREN IDENTIFIKAZIOA ELEMENTU MOTAREN DESKRIBAPENAREN ARABERA | |
| KODEA | ELEMENTU MOTA |
| BV | Etxebizitza blokea |
| C | Baserria |
| CAM | Bidea |
| CAS | Etxea |
| CB | Etxe Armarriduna |
| CC | Udaletxea |
| CCA | Etxea Hirigune Historikoan |
| CF | Burdinola-errota multzoa |
| CFP | Burdinola-errota eta Jauregi multzoa |
| CG | Guardia Gorputza |
| CO | Komentua |
| CS | Oinetxea |
| CSA | Osasun Zentroa |
| CT | Dorretxea |
| CU | Hiri Etxea |
| CV | Etxebizitza multzoa |
| E | Ermita |
| EA | Eraikin administratiboa |
| EI | Industri Eraikina |
| ELI | Industri Elementua |
| ES | Eskola |
| ET | Estatua |
| EV | Etxebizitza Eraikina |
| FU | Iturria |
| H | Ospitalea |
| HC | Kaltzinazio Labeak |
| I | Eliza |
| IE | Irakaskuntza Ertaineko Institutua |
| MF | Ibai Errota |
| PA | Jauregia |
| PL | Urtegia/Garbitokia |
| PRE | Urtegia |
| PU | Hiri Jauregitxoak |
| PUE | Zubia |
| Q | Kioskoa |
| VU | Hiri Etxea |
| VUN | Etxebizitza Familiabakarrak |

10.4 Arkeologia Katalogoaren oinarrizko egitura

Azaldutako irizpideetan oinarriturik, eta **Arkeologia Katalogoari** dagokionean, egituraketa eta erregulazioa egiteko lehen zehaztutako **tipologia kategoria horien irizpideak** hartu dira halaber kontuan, babes mailekin loturarik gabe. Hala eta guztiz ere, elementuak era honetan ordenatu izan arren administrazioak zehaztutako kategoriei dagozkien alfabeto gakoak erabili beharrean, antolakuntza berriak **erabat errespetatzen ditu** zehaztutako eremu bakoitzerako jadanik ezarritako **erregulazio irizpideak**.

Arkeologia Katalogoa osatzen duten elementuei dagokienean, gaur egun **aurri egoeran dauden edo hondakinak** soilik dituzten eremu arkeologikoak eta elementu fisikoak jaso dira, kontuan hartu behar diren aldez aurreko jardueren aipamen guztiekin, lehen esan bezala, Arkitektura Katalogoan jaso baitira dauden eraikuntzak osaturiko eremuak.

Hona hemen Arkeologia Katalogoaren **egituraketa**:

Hasiera batean, ondoko **tipologia kategorien egituraketa** honen arabera antolatu da **Arkeologia Katalogoa**, honako **katalogazio maila** hauekin bat etorririk:

- ZP.- Ustezko eremu arkeologikoak**
- Z.- Oiasso eremu arkeologikoa**
- P.- Padurak**
- M.- Erromatarren garaiko meategiak**
- E.- Ermitak**
- F.- Gotorlekuak**
- O.- Beste (elur-zuloak)**

Aplikatu beharreko araudiari dagokionean eta eskumena duen administrazioak zehaztutakoari jarraiki, tipologia kategoria horietako bakoitza honako baldintza hauen arabera erregulatuko da:

ZP.- Ustezko eremu arkeologikoak

Ustezko eremu arkeologikoei dagokienean, Euskal Kultur ondarearen Legeak xedaturikoa beteko da. Zera dio lege horrek: ustez hondakin arkeologikoak dauden eremu, orube edo eraikuntzetan, egin nahi diren obren jabeak edo sustatzaileak orubearen edo eraikuntzaren balio arkeologikoari buruzko azterketa eta obra proiektuan izan dezakeen eragina aurkeztuko du". Behin azterketa hori egin

ondoren, Foru Aldundiak zehaztuko du proiektu arkeologikoa egiteko beharra, eta hori guztia ikusi ondoren emango du obra lizentziaren aurreko baimena.

Z.- Oiasso eremu arkeologikoa

Eremu honetan aplikatu beharreko oinarrizko neurria, lur iraultzeekin loturiko proiektu arkeologikoa bideratzeko beharra da labur esateko. Proiektu hori Foru Aldundiaren Kultura Sailaren aurrean egingo da aipaturiko eremu horretan eskatzen diren obra lizentziekin loturiko oinarrizko proiektuak bidalita.

P.- Padurak

Eremu honetan, Aldundiaren Kultura Sailari emango zaio lur iraultzeak eragin behar dituzten obra lizentzien eskaeren berri, eta egokitzen hartzen bada, Sail hori izango da, sustatzailearekin bat, obren jarraipen arkeologikorako plana zehaztuko duena.

M.- Erromatarren garaiko meategiak

Sendoturiko ondasun arkeologiko gisa hartuak daude horiek eta egungo baldintzak mantenduko dira, hondatu ez daitezen beharreko zaharberritze eta kontserbazio ekintzak sustatuz, ondasunei balio handiagoa eman eta jendeak ondasun horiekin goza dezan beharreko neurriak hartzeaz gainera.

E.- Ermitak

Ermita zaharren eremuetan egiten diren lur iraultzeen jarraipen arkeologikoa egingo da. Leku horietan lur iraultzeak eragiten dituzten obra lizentzia eskaeren berri emango zaio Aldundiaren Kultura Sailari.

F.- Gotorlekuak

Sendoturiko ondasun arkeologiko gisa hartuak daude horiek eta egungo baldintzak mantenduko dira, hondatu ez daitezen beharreko zaharberritze eta kontserbazio ekintzak sustatuz, ondasunei balio handiagoa eman eta jendeak ondasun horiekin goza dezan beharreko neurriak hartzeaz gainera.

O.- Beste (elur-zuloak)

Sendoturiko ondasun arkeologiko gisa hartuak daude horiek eta egungo baldintzak mantenduko dira, hondatu ez daitezen beharreko zaharberritze eta kontserbazio ekintzak sustatuz, ondasunei balio handiagoa eman eta jendeak ondasun horiekin goza dezan beharreko neurriak hartzeaz gainera.

Arkeologia Katalogoan, arkitektura izaerakoan proposatu den bezalaxe, katalogatu beharreko elementuen zerrenda egin da hasteko, elementu horiek zehaztutako

tipologiaren arabera antolatuz, horrek aukera emango baitu dokumentua nola egituratu den hobeto ulertzeko.

Lehen zutabearen **Tipologiaren arabera** ageri dira **Kodeak**, eta horien ondoren, Plan Nagusiak eman dion ordenaren zenbakia sartu da. Katalogoko planoan ageri denarekin lotuko den **zenbaki** horrek aukera emango du elementua eta haren babes maila lurrean **azkar identifikatzeko**.

Elementuaren izenaren ondoren **elementu arkeologikoaren mota zehatzaren** zutabea etorriko da, hori ere beste kode batek azaldua, eta hurrengo orrialdeko koadroan dago haien identifikazioa. Azkenik, **indarrean dagoen araudia zuzenean aplikaturik** dagokion **babes maila** azalduko da zerrenda horretan.

Zehaztutako tipologiaren kategoriak ere kontuan hartu dira **Arkeologia Katalogoaren Fitxen** atala egituratzeko, eta dokumentu bereizi gisa aurkeztu da.

| ARKEOLOGIA KATALOGOA | | | |
|--|-------------------------------|---------------------------------|------------------------|
| KATALOGATURIKO ELEMENTUAREN IZENA | | KODEA ELEM. MOTA | BABES MAILA |
| KODEA TIPOLOGIAREN ETA ORDENA ZENB. ARABERA | | | |
| ↓ | | | |
| Z1 | SANTIAGO | PR | Z |
| Z2 | SANTIAGO 29 | PR | Z |
| Z3 | SANTIFER | PR | Z |
| Z4 | TADEO MURGIA | PR | Z |
| Z5 | JUNKALEKO ESKOLAK - ATZEALDEA | TR | Z |
| Z6 | BERAKETA | NROU | Z |
| Z7 | SARJIA, PARKEA | YR | Z |
| Z8 | FRANCISCO DE GAINZA 1-3 | YR | Z |
| Z9 | SARASATE KARRIKA, 10 | NROU | Z |
| Z10 | JUNKAL, PLAZATXOA ETA ELIZA | NROU | Z |
| ZP1 | ERROTA HAUNDI | MF | ZP |
| E1 | ANDREMARIAREN BORDA | E | E |
| E2 | ELIZATXOKO ERMITA | E | E |
| F1 | GAZTELUZAR | CA | F |
| F2 | ASTIGARRAREN BORDA | F | F |
| F3 | SAN MARTZIAL | F | F |
| F4 | GAIN-GAINEAN | F | F |
| F5 | PAGOGAINA | F | F |
| F6 | HARRESI MODERNOA | FO | F |
| F7 | HARRESI KARLISTA | FO | F |
| F8 | ENDARLATSA | T | F |
| F9 | ZUBELTZU | T | F |
| F10 | PIKA | T | F |
| F11 | ELATZETA | T | F |
| P1 | HIRU KANALE ZUBIA | P | P |
| P2 | PALMERA MONTERO | PP | P |
| M1 | ALTAMIRA I | MR | M |
| M2 | ALTAMIRA II | MR | M |
| M3 | ALTAMIRA III | MR | M |
| M4 | ALTAMIRA IV | MR | M |
| M5 | BELBIO I | MR | M |
| M6 | BELBIO II | MR | M |
| M7 | OLAKINETA I | MR | M |
| M8 | OLAKINETA II | MR | M |
| M9 | OLAKINETA III | MR | M |
| M10 | OLAKINETA IV | MR | M |
| M11 | ZUBELTZU I | MR | M |
| M12 | ZUBELTZU II | MR | M |
| O1 | ARBURUKO GAINA | N | O |
| O2 | ELURRETXE | N | O |
| O3 | PIKABEA | N | O |
| O4 | SORGINOLA | N | O |

| ARKEOLOGIA KATALOGOA | |
|---|--------------------------------------|
| KODEAREN IDENTIFIKAZIOA ELEMENTU MOTAREN DESKRIBAPENAREN ARABERA | |
| KODEA | ELEMENTU MOTA |
| CA | Gaztelua |
| E | Ermita |
| FO | Gotorgunea |
| F | Gotorlekua |
| MR | Meategi Erromatarra |
| MF | Ibai Errota |
| N | Elur-zuloa |
| NROU | Hiri Okupazioko Maila Erromatarra |
| PP | Paleohondartza Neolitikoa / Brontzea |
| P | Zubi Erromatarra |
| PR | Kai Erromatarra |
| TR | Terma Erromatarrak |
| T | Dorre Handia |
| YR | Aztarnategi Erromatarra |